

GIZA ESKUBIDEEN AMESKERIA:

# Gazte sahararrak eta Mendebaldeko Saharako okupazioa



**Mundubat**



Giza eskubideen ameskeria:  
Gazte sahararrak  
eta Mendebaldeko Saharako okupazioa

## Giza eskubideen ameskeria: Gazte sahararrak eta Mendebaldeko Saharako okupazioa

### Mundubat Fundazioa

Egilea:

**Kavita Kapur**

Mundubaten koordinazio taldea:

**Fernando Lorenzo Abril, Isabel Lima  
eta Mónica Alonso**

Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako "Luzaroan errefuxiatuta bizi diren gazte sahararren erresilientzia sendotzea" proiektuaren barruan dago kokatuta.

Marrazkiak:

**Enrique Flores**

Diseinua eta Maketazioa:

**Cabinet Komunikazioa**

Badago argitalpen hau osorik edo zati batez eta edonola hezkuntza-arloko helburuetarako edo irabazi-asmorik gabeko erabilere-tarako berregiterik, eskubideen titularraren beste baimen berezirik eduki gabe, betiere, jatorrizko iturria zein den aitatzen bada. Aipamen hori honelaxe egin beharko da, hain zuzen ere: **Mundubat. 2019 «Giza eskubideen ameskeria: Gazte sahararrak eta Mendebaldeko Saharako okupazioa».**

Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-BerdinPartekatu 4.0 Nazioartekoa lizentziapean dago.

Lizentzia honen kopia ikusteko, bisitatu [creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/)



2019ko ekaina.



**Mundubat**

**Finantzaketa:**



**GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA**  
AGENCIA VAŠCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

Ezinezkoa izango zen txosten hau egitea,  
arriskuak arrisku historiak azaltzen dituztenak  
ezin ausartagoak ez balira,  
hamaika aldiz azaldu dituzten historiak azaltzen dituztenen  
egonarria amaigabea ez balitz,  
konfiantza eratu nahian historiak azaltzen dituztenek  
hausnarketa kritikoa egingo ez balute eta apalak ez balira eta,  
borrokatzea merezi duela jakinda, historiak azaltzen dituztenek  
premiarik eta itxaropenik ez balute.

Historia hauek eta beste batzuk azaldu dituzten guztiei:

Eskerrik asko.



# EDUKIEN TAULA

<b>Aurkezpena eta planteamendua</b>	<b>9</b>
Mundubat Fundazioa	9
Ikerketarako arrazoiak eta helburuak	10
Ikerketarako metodologia	11
<b>I. Mendebaldeko Sahararen hastapenak, giza eskubideak eta gazte sahararrak</b>	<b>17</b>
Mendebaldeko Saharako okupazioaren inguruko hurbilketa historikoa	17
<i>Saharako herriaren jatorria</i>	17
<i>Mendebaldeko Saharako kolonizazioa Espainiako estatuaren eskutik</i>	19
<i>Mendebaldeko Saharako deskolonizazio-prozesua</i>	20
<i>Mendebaldeko Sahara kontrolatzeko gerra</i>	23
<i>Su-etena</i>	28
<i>Okupazio marokoarra</i>	29
Mendebaldeko Saharako egoerari aplikatu dakiokeen lege-testuingurua	35
<i>Autonomoak ez diren lurraldeei aplikatu dakizkiekeen printzipioak</i>	35
<i>Nazioarteko zuzenbide humanitarioa</i>	38
<i>Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea</i>	40
Sahararren giza eskubideen behaketa	44
<i>Nazio Batuen mekanismoak</i>	44
<i>Lurralde afrikarraren mekanismoak</i>	57
<i>SEADen mekanismoak</i>	61
<i>Mekanismo marokoarra</i>	61
<i>Atzerriko beste gobernu batzuk</i>	62
<i>Gobernuz kanpoko erakundeak eta nazioarteko elkarteak</i>	63
<i>Erakunde sahararrak</i>	65
<b>II. Banatutako herriko gazteria</b>	<b>69</b>
Marokok okupatutako Mendebaldeko Sahara	69
Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Sahara	71
Errefuxiatu sahararren kanpamentuak	72
Diaspora Espainiako estatuan	74

<b>III. Gazte sahararren giza eskubideen urraketak eta gabetzeak</b>	<b>81</b>
Eskubide kolektiboak	81
Autodeterminazioa	81
Diskriminaziorik eza	115
Eskubide zibil eta politikoak. 1. zatia	
Bizia, askatasuna eta segurtasun pertsonala	121
Bizitzeko eskubidea	122
Askatasun pertsonalerako eskubidea	130
Askatasunik ez dutenen tratu gizatiarrerako eskubidea	139
Torturaren eta bestelako tratu krudel, anker edo apalesgarrien debekua	146
Eskubide zibil eta politikoak. 2. zatia	
Justizia-administrazioa	157
Beharrezko berme prozesalerako eskubidea	157
Errekurtso eraginkorrerako eskubidea	163
Eskubide zibil eta politikoak. 3. zatia	
Funtsezko askatasunak eta bizitza publiko eta politikoan parte hartzea	168
Iritzi- eta adierazpen-askatasuna	168
Biltzeko eta elkartzeko askatasuna	177
Bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea	187
Mugimendu-askatasuna	190
Herritartasun-eskubidea	197
Eskubide zibilak eta politikoak. 4. zatia	
Bizitza pribatua eta familiarra	202
Bizitza pribatua eta familiarra izateko eskubidea	202
Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak	209
Hezkuntza-eskubidea	210
Lanerako eskubidea	220
Bizi-maila egokia izateko eskubidea	227
Osasun-eskubidea	234
Kultura-bizitzarako eskubidea	243
<b>IV. Ondorioak</b>	<b>249</b>
Saharako gazteria Marokok okupatutako lurraldean	250
Saharako gazteria errefuxiatuen kanpamentuetan	252
Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako gazteria	253
Saharako gazteria Espainiako estatuko diasporan	254
<b>V. Erantzukizunak, eskaerak eta gomendioak</b>	<b>257</b>
Marokoko Erresuma	
Marokoren erantzukizunak	257
Marokorentzako eskaerak	258
Marokorentzako gomendioak	260



<b>Espainiako estatua</b>	<b>261</b>
<i>Espainiako estatuaren erantzukizunak</i>	261
<i>Espainiako estatuarentzako eskaerak</i>	262
<i>Espainiako estatuarentzako gomendioak</i>	263
<b>Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) eta Fronte POLISARIOA</b>	<b>264</b>
<i>SEADen eta Fronte POLISARIOAREN erantzukizunak</i>	264
<i>SEADentzako eskaerak</i>	264
<i>Fronte POLISARIOARENTZAKO eskaerak</i>	265
<i>SEADentzako gomendioak</i>	265
<b>Aljeriako Herri Errepublika Demokratikoa</b>	<b>266</b>
<i>Aljeriaren erantzukizunak</i>	266
<i>Aljeriarentzako eskaerak</i>	266
<i>Aljeriarentzako gomendioak</i>	267
<b>Nazio Batuen Erakundea</b>	<b>267</b>
<i>Batzar Nagusia</i>	267
<i>Segurtasun Kontseilua</i>	270
<i>Ardura handiak dituzten agentzia espezializatuak</i>	272
<i>Nazio Batuetako beste erakunde batzuk</i>	273
<b>Batasun Afrikarra eta haren estatu kideak</b>	<b>274</b>
<b>Nazioarteko beste eragile batzuk</b>	<b>274</b>
<i>Europar Batasuneko estatu eta erakundeak</i>	274
<i>Nazioarteko beste eragile batzuk</i>	275

## **Bizi-historiak**

Maalouma	33
Barka	42
Fatimetu	59
Ahmed	66
Jadiyetu	77
Mohamed	101
Benine	113
Nourddine	123
Salma	137
Ayoub	143
Hassanna	152
Ali	161
Nazha	175
Malada	185
Muna	200
Salec	207
Habiba	217
Khalil	225
Mariam	241



# AURKEZPENA ETA PLANTEAMENDUA

## Mundubat Fundazioa

Honako txosten hau Mundubat Fundazioaren<sup>1</sup> argitalpena da. Gobernu kanpoko erakunde honek garapen- eta hezkuntza-kooperazioa erabiltzen ditu eraldaketarako, horiek baitira gizarte-aldaketara bideratutako prozesuen zerbitzura dauden benetako tresnak, bai Iparrean eta bai Hegoan.

Mundubat Fundazioaren lanerako lehentasunezko ardatza da giza eskubideak defendatzea, sustatzea eta babestea. Ikuspegi kritiko eta burujabe batetik egiten ditu ekintzak, gizarte eraldaketarako tresna dela pentsatzen baitu. Zentzu horretan, Mundubat Fundazioak defendatzen du gizarte mugimenduak babestea izan dela eta dela, hain zuzen, eskubideez gozatzeko aukera sustatu duen motorra, izan ere, mugimendu horiek formalki jasan baitituzte giza eskubideen urraketak. Horrexetatik, eta giza eskubideen ardatzetik, Mundubat Fundazioak giza eskubideen defendatzaileei babesa eskaini nahi die; haien borroka babestu, eta, txosten honetan ikus daitekeen bezala, agerian utzi zein diren giza eskubideez gozatzen uzten ez duten baldintza sozial, kultural, politiko eta ekonomikoak.

1996tik, Mundubat Fundazioak harreman estua izan du Saharako herritarrekin, errefuxiatu-kanpamentuetako ekintza humanitarioan egindako jardunen bidez eta baita okupazio-egoera konpontzeko eta giza eskubideak defendatzeko eta babesteko egin diren politika ekintzen bidez ere. 2012tik aurrera, Mundubat Fundazioak Marokoko Erresumak okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetako giza eskubideen defendatzaileen lanari babesa eman die. Saharako herritarrei laguntzeko prozesu horretan kokatzen da ikerketa hau.

---

<sup>1</sup> Mundubat Fundazioak egindako eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lagundutako Aterpe-egoera luzean dauden biztanle saharar gazteen erresiliencia indartzen egitasmoan sartuta dago ikerketa hau.

## Ikerketarako arrazoiak eta helburuak

1975etik, Saharako herritarrek okupazio etengabe eta luzea jasan dute lurraldearen zati batean, eta horrek herritarrek hainbat gune geografikotan banatu ditu. Herritar-talde bakoitzak okupazio horren ondorioak jasan ditu modu berezian: Marokok okupaturako nahiz Fronte POLISARIOA<sup>2</sup> kontrolaturako lurraldeetako bizilagunek ondorio batzuk eta Aljeriako Tinduf kanpamentuan lekualdatutako nahiz diasporan erbesteraturakoek beste batzuk. Baina, bizilekua edozein dela ere, talde guztiek jasan dute okupazioaren eragina.

Lau hamarkadetan zehar geografikoki zatitutako Saharako herritarren artean, Saharako gazteria aurki dezakegu. Txosten honen arabera, 15 eta 35 urte bitarteko sahararrak izango lirateke<sup>3</sup>. Bizipen eta ikuspegi askotarikoekin, herritar talde honetako partaide guztiak laurogeiko hamarkadatik aurrera jaiotzen ziren, kolonia espainiarren alde egin eta Marokok lurralde sahararra okupatu zuenean. Gazteriaren zati handi batek, adinaren arabera, ez du gertakari horien aurreko gerra zuzenean bizi izan, baina bai haren ondorioak. Beren lurraldeen askapenerako aktibista eta soldaduen, gerrako biktimen eta desagertutako, lekualdatutako eta errefuxiatutako pertsonen seme-alabak dira.

Baina Saharako gazte hauek beren herriaren etorkizuna eraikitzeko erantzukizuna partekatzen dute. Munduko beste edozein tokitan bezala, gazteria honen ekintza eta ez-egiteek definituko dute hurrengo belaunaldiak zer baldintzatan jaiotzen diren. Zentzu horretan, herriaren eskaera kolektibo erantzuteko eta horiek eskuratu ahal izateko estrategiak definitzearen erantzukizunaren zati handi bat gazte sahararrena da.

Txosten honek gazte sahararren giza eskubideen egoera erakutsi nahi du, Mendebaldeko Saharako okupazioak nola eragiten dien aztertuta, eta plataforma izan nahi du gazteen ahotsak goratu eta haien historia entzun dezaten *statu quo* aldatzeko botere politikoa duten pertsonen eta erakundeek. Mendebaldeko Saharako okupaziotik abiatuz, kontuan hartu nahi du horrek duen eragina gazteen bizitzan, giza eskubideen araudi-testuingurutik inplikaturako dauden askotariko eragileen erantzukizuna aztertzen hasi aurretik.

---

2 Herritar saharar kopuru handi batek horiei lurralde askatuak deitzen die, erreferentzia eginaz Fronte POLISARIOAK, alegia, Saharako askapen nazionalerako mugimenduak kontrolaturako lurraldeak. Askapen nazionalerako borrokaaren alderdi politiko nahiz juridikoen azterketa zorrotza egin nahi ez duen txostenaren helburuetarako, nahikoa da esatea izateko 'kontrol' egoera bat dela.

3 Gazteriaren Gutun Afrikarrak "gazteria" kontzeptua erabiltzen du "15 eta 35 urte bitarteko pertsona oro" aipatzeko. Gutuna 2010eko uztailaren 25ean sinatu zuen Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak. Ikus Batasun Afrikarra, *African Youth Charter* (2006ko uztailaren 2a).

## Ikerketarako metodologia

Txosten honetan adierazitako informazio eta historiak ikerketa-prozesu baten bidez jaso dira; 2018ko ekaina eta abendua bitartean egin zen lau gune geografikotan: Espainiako estatuan, Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan eta Aljeriako Tinduf hiriko saharar errefuxiatuen kanpamentuetan.

Metodologiari dagokionez, elkarrizketa zuzenak egin zitzaizkien gazte sahararrei eta, gainera, foku-taldeak finkatu gune geografikoetan. Egindako elkarrizketa gehienak aurrez aurrekoak izan ziren, baina Internet ere erabili zen informazio gehigarria eta osagarria biltzeko. Elkarrizketen helburu nagusia izan zen testigantzak<sup>4</sup> eta bizi-historiak biltzea, eta horietako batzuk txosten honetan jasota daude<sup>5</sup>. Ez zen herritar gazte kopuru estatistikoki adierazkorrik eskuratu gune geografiko bakar batean ere, eta, horregatik, ez da ondorio kuantitatiborik emango. Beraz, esan daiteke honako lan hau giza eskubideei buruzko gazte sahararren esperientzia komun eta indibidualen azterketa kualitatiboa dela.

Gehigarri gisa, gaiari buruz ezagutza zehatzetan aditu direnei egin zitzaizkien elkarrizketak, eta horien artean aditu saharar nahiz nazioartekoak aurki daitezke. Bigarren mailako iturri ugartara ere jo zen; txosten guztian zehar oin-oharretan aurki daitezke.

2018ko uztaila eta abuztuan, Espainiako estatuko hainbat autonomia-erkidegotan erakundeekin bilerak, elkarrizketak eta foku-taldeak egin ziren. Euskadin, Madrilan, Katalunian, Aragoian eta Andaluzian. 2018ko irailean, ikerketa-bidaia bat egin zen Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetako testigantzak biltzeko; asbete egon ziren Aaiun hiri okupatuan eta zenbait egun, Maroko hegoaldeko hainbat hiritan. 2018ko urria eta azaroa bitartean, Aljeriako Tinduf kanpamentuan egonaldia jarraitu bat egin zen; errefuxiatutako herritar sahararren kanpamentuak bost *wilayet* antolaturik daude, eta horietako bakoitzeko herritar gazteengana heldu ahal izateko egin zen. 2018ko azaroan, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetara bidaia bat ere egin zen, hain zuzen, Tifariti eta Mehries herrietara.

Toki horietan guztietan, elkarrizketatutakoak identifikatu ahal izan genituen tokiko erakunde eta aktibisten eta agintari sahararren gomendioen bidez. Giza eskubideen erakundeetako abokatu eta ordezkariekin ere egin ziren elkarrizketak.

---

4 Txosten honetan aurkeztutako testigantza guztiak autoreak bildu zituen ikerketa egiterakoan.

5 Bizi-historia horietako batzuen aurkezpenean, pertsonaren izena aldatu egin da, babestua izan dadin errepresalien edo testigantzaren beste ondorio posible batzuen aurrean. Era berean, lehen izena soilik erabiltzen da ez iraunarazteko okupatutako lurraldeetan abizen sahararren erabilera mugatzen duten politikek sortutako kultur errepresioa.

Espainiako estatuan, hogeita hamar lagunekin (hogei emakume eta hamar gizonekin) harremanetan jarri ginen; lehen muga ikerketa-jardueran denbora izan zen, alegia, udako hilabeteetan egin zen ikerketa; batzuk bidaiatzen ari ziren, eta ezin izan zuten elkarrizketarik egin. Hala ere, planifikatutako kontaktuak egin ziren, gerora informazio-bilketan sakondu ahal izateko.

Okupatutako Mendebaldeko Saharan, Marokoko okupazio-indarrak etengabe zelatan aritu ziren arren, programatutako jarduera guztiak egin ahal izan ziren. Guztira 65 lagun (31 emakume eta 34 gizon) elkarrizketatu ziren, Aaiunen bizi diren aktibista sahararrek eskainitako ezinbesteko laguntzari esker. Hala ere, ikertzaileak sumatu zituen polizia ofizialak kaleko arropaz jantzita gertutik haren mugimenduak jarraitzen. Zelatan egoteko zenbait dispositibo aktibista ezagunen etxe inguruan jarri ziren, zaintzarako kamerak barne. Ikerketa eten ez zedin eta lurraldetik kanporatu ez zezaten, derrigorrez gutxiago mugitu behar izan zen, eta beste neurri batzuk hartu. Maroko hegoaldean igarotako egunetan, ikertzaileari denbora guztian jarraitu zioten kaleko jantzita zeuden poliziek. Galdeketa luze bat ere egin zion ofizial horietako batek. Azken batean, etengabe zelatatu eta jarraitu zuten ikertzailea, eta ezin izan zuen bere lana lasai egin Marokoko okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan.

Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan, bertan bizi diren hamahiru gazteri (bederatzi emakume eta lau gizoni) egin zitzaizkien elkarrizketak eta baita gerrako hiru biktimari ere, ulertzeko gune horretan kontrajarrian ageri diren errealitate bereziak. Hala ere, informazioa jasotzeko prozesuan eragina izan zuten gune hartan Fronte POLISARIOAK jarritako segurtasun-neurriek eta horietatik eratorritako mugimenduen murrizketek. Kontuan izan behar da lurralde horretako familien dispersioak eragiten duela etxebizitzak beren artean urrun egotea, eta murrizketa horiek ikerketa bera mugatu zuten.

Errefuxiatuen kanpamentuetan, gazteen historiak dokumentatu ziren agintari sahararrek koordinatutako foku-taldeen eta elkarrizketen bidez, eta horietan 66 gaztek (29 emakume eta 37 gizonek) parte hartu zuten. Agintari sahararrekin<sup>6</sup> eta gizarte zibileko erakundeekin<sup>7</sup> ere egin ziren elkarrizketak. Kanpamentuetan ikerketaren muga nagusia izan zen partaideek ez zutela kritikarik egin nahi beren gizarte eta gobernuari, beldur baitziren kritika horiek baliatuak izango zirela beren ordezkarien posizio politikoa ahultzeko eta, ondorioz, beren eskubideak

---


6 Agintari horien artean ditugu Hezkuntza Ministerioa, Osasun Publikoko Ministerioa, Gizarte gaien Ministerioa, Funtzio Publikoaren Ministerioa, Eraikuntza Ministerioa eta Askatutako Guneak eta Giza Eskubideen aldeko Saharako Batzorde Nazionala. Saiakera ugari egin arren, ez zen lortu Barne Ministerioarekin harremanetan jartzea.

7 Saharako Preso eta Desagertuen Familiakoen Elkartearekin, Bortizkeria Ekintzarik Ez eta Minen Biktimen Saharar Elkartearekin. Gainera, Saharako Ildargi Erdi Gorriaren ordezkariekin elkartu zen.

sustatzeko aukerak gutxitzeko. Detektatu ahal izan da gazte sahararrek aho batez autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeak ikusezin bilaka dezakeela sare politiko eta sozialaren aniztasuna, eta ondorioz, kritika eraikitzaileak isilarazten dituela, bereziki eskubide zibil eta politikoei buruzko mugak.

Txosten honek ez du izan nahi herritar gazte sahararren giza eskubideen egungo egoeraren nahiz egoera historikoaren berrikuspen sakon bat. Ikerketa-prozesu honen testuinguruan jasotako informazioa (2018ko abendura arte eguneratua) aurkeztu nahi da. Jakinda gazte sahararren giza eskubideen egoera etengabe aldatzen ari dela eta aldaketa horiek guztiak jasotzea ezinezkoa denez, txostena mugatu egin da data horretara arteko informazio eguneratuarekin.

# HERRI ZATITUA




**Hesia** 2.720 kilometroko hesi batek zatitzen du Mendebaldeko Sahara. Marokok bukatu zuen 1987 urtean, harearekin eraiki zuen eta 7 milioi pertsonen kontrako mina baino gehiago daudela uste da, bereziki POLISARIO Fronteak kontrolatzen duen ekialdeko partean. Bost kilometrora gotorleku militarrek daude eta 100.000 eta 150.000 soldadu marokoar bitartean.

## Marokoren okupaziopeko Mendebaldeko Sahara

1975 urtetik, Marokok lurraldea inbaditu zuenetik, Mendebaldeko Sahara okupaziopean dago. Bake akordioak sinatu ondoren ere okupazioak jarraitzen du. Orduetik, Marokok kolonoak lekualdatu ditu lurraldera, okupaziopean dagoen Mendebaldeko Saharan aldaketa demografikoak eragiteko asmoz.






### Errefuxiatuen kanpamentuak

173.000 saharar baino gehiago luzaroan bizi izan dira errefuxiatu gisa, 43 urtetik gora, hain zuzen ere. Biztanleria 5 kanpamentutan dago banatuta eta Mendebaldeko Sahara okupatuko hirien izenak dituzte. Rabunin dago Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoko gobernuaren erdigune administratiboa.

**MINURSO** Mendebaldeko Saharan Erreferenduma Antolatzeko Nazio Batuen Misioa. Izenak berak dioena egiteaz gain, misio horrek 1991ko su-etenenaren akordioak betetzen diren gainbegiratzen du. Hesiaren bi aldeetako inguru zabal bat patruilatzen dute airetik eta lurretik.

### POLISARIO Fronteak kontrolatutako Mendebaldeko Sahara

Hesiaren ekialdean, POLISARIO Fronteak du lurraldearen kontrola. POLISARIO Fronteak kontrolatutako Mendebaldeko Saharan dagoen biztanleriaren bizitza estiloa nomada da eta artzaintza da zeregin nagusia. Biztanle kopurua urria da eta nahiko isolatuta dago. Lurralde horretan minak etengabeko arriskua dira biztanleriarentzat.





# MENDEBALDEKO SAHARAREN HASTAPENAK, GIZA ESKUBIDEAK ETA GAZTE SAHARARRAK

## Mendebaldeko Saharako okupazioaren inguruko hurbilketa historikoa <sup>8</sup>

### Saharako herriaren jatorria

Mendebaldeko Saharako lehen biztanleak, neolitiko aldiaren ostean, *sanhajak* izan ziren, berbereen aitzindariak; Atlas menditik Saharako basamortura jaitsi ziren, III. mendean gutxi gorabehera<sup>9</sup>. Euri gutxi eta irregularreko klimak eta lurralde lehorrak behartu zituen *sanhajak* etengabe mugitzen aritzea uraren eta gamelu eta ahuntzentzako larreen bila, eta, azkenean, bizi-estilo nomada hartu zuten<sup>10</sup>. Mendeetan zehar eta, bereziki, Islamaren etorrerarekin, *sanhaja* kultur eta biztanleak nahastu eta fusionatu egin ziren gune hartara iristen ziren gizarte tribalekin. Horien artean ditugu *maquil* beduinoak egun Yemen izango litzatekeen lurraldetik etorriak; *hassaniya* hizkuntza ekarri zuten; berehala dominatu zuten lurralde hura, eta horixe bilakatu zen tribuen arteko komunikatzeko hizkuntza<sup>11</sup>. Horrela, Saharako herria tribu nomada ugari osatu zuten, hain zuzen, *Saguía el Hamra* edo kanal gorriaren eta Urrezko ibaiaren arteko lurraldean bizi zirenek; *hassaniya* izeneko dialekto arabiarra partekatzen dute.

Mendeetan, egun Mendebaldeko Sahara deituriko lurraldea tribu horiek hartu zuten; beren antolakuntza sozial eta politikoa zuten, eta tribu-buruzagiak ziren

---

8 Nazioarteko erakunde nahiz Estatuek sortutako mapa politiko gehienek irudikatzen dute Mendebaldeko Sahara herrialde bat dela edo, gutxienez, liskarrean dagoen lurraldea; gutxi gorabehera 266.000 kilometro karratu ditu; Afrikako kontinentean ipar-mendebaldean kokatuta dago, eta muga egiten du Marokorekin iparraldean, Aljeriarekin ekialdean eta Mauritaniarekin hegoalde nahiz hego-ekialdean; 1.062 kilometroko itsasertza du mendebaldean, ozeano Atlantikoan. Azken 43 urteotan eguneratu ez diren mapa batzuk lurralde honi izen kolonial zaharra ematen diote: Sahara espainiarra. Beste mapa batzuk, pertsona edo erakunde zuhurtziagabeek edo asmo txarrekoek egindakoek, ez dituzte bereizten Maroko eta Mendebaldeko Saharako lurraldea, 1975etik okupatutakoa.

9 Ikus Barbara Harrell Bond, *The Struggle for the Western Sahara*, 1. zatia - 3. or. (1981).

10 Nazioarteko Justizia Gortea, *Mendebaldeko Saharari buruzko kasua*, Iritzi Aholku Emailea, 87. paragr. (1975eko urriaren 16a).

11 Minority Rights Group, *The Sahrawis of Western Sahara*, 5. or. (1979ko urtarrila).



ordezkari. Haien artean, ur-baliabide urrien kontrolarengatik lehiatzen ziren; konkistak egiten zituzten<sup>12</sup>, baina akordioetara ere iristen ziren, batzuetan denentzat onuragarriak ziren aliantzak eginaz. Basamortua zeharkatzeko erabiltzen zituzten ibilbideak erregularrak ziren gutxi gorabehera, eta tribuen artean errespetatu egiten zen denek ganaduaren zaintzarako zuten eskubidea<sup>13</sup>.

Hala ere, tribu hauek inoiz ez zuten kolonizazioaren aurretik beste estatu edo unitate politikorik eratu; erresistentzia egin zien beren lurrekiko kontrola ezarri edo beretu nahi zituzten kanpoko aktoreei –gertuko<sup>14</sup> nahiz urrutikoei–, eta erresistentzia-prozesu horretan, sahararrek argi zuten zein ziren beren lurraldeak. Sahararrak funtsean nomadak ziren, eta haien mugimenduak ezin izan zituzten mugatu nazioarteko mugek, basamortuko ur-putzuetan barrena euriak iradokitzen zienari jarraitzen zioten, modu horretan soilik ase baitzitzaketen oinarrizko beharrak eta beren bizimoduari utsi. XIX. mende amaiera arte, Espainiako estatuak egindako adierazpen formalekin, Mendebaldeko Sahara ez zen existitu erakunde politiko gisa eszenatoki globalean.

---

12 Ikus Tony Hodges, "The origins of Saharawi nationalism," *Third World Quarterly*, 28. or. (2007ko azaroa).

13 Nazioarteko Justizia Gortea, *Mendebaldeko Saharari buruzko kasua*, Iritzi Aholku Emailea, 87. paragr.

14 Nahiz eta Marokok argudiatu Nazioarteko Justizia Gortearen aurrean historikoki Mendebaldeko Sahararen kontrola izan zuela, Gorteak Iritzi Aholku Emailean aldarri hori behin betiko baztertu zuen, azalduz Marokok emandako txostenaren arabera ez zela erakusten kontrol-jarduerarik Saharako lurraldean talde bizilagunen arteko harrereanen historian. Ikus Nazioarteko Justizia Gortea, *Mendebaldeko Saharari buruzko kasua*, Iritzi Aholku Emailea, 118. paragr.

## Mendebaldeko Saharako kolonizazioa Espainiako estatuaren eskutik

Espainiarrak<sup>15</sup>, XV eta XVI. mendean, Mendebaldeko Saharan<sup>16</sup> egon zirela dokumentatuta egon arren, 1884 arte ez zuen Espainiako estatuak izendatu protektortatu bat Urrezko ibaian. Europako potentziek kontinente afrikarra kolonizatu zuteanean, Berlingo konferentziaren bidez, ezarri zen espainiarren kontrola Saharako lurraldean<sup>17</sup>. Urte hartako abenduaren 26ko Errege Dekretuaren bidez, Espainiako estatuak aldarrikatu zuen erregea Urrezko ibaia hartzen ari zela bere babesean, tribu independente askotako buruek Espainiar Elkarte Afrikanistarekin sinatutako akordioak oinarri hartuta<sup>18</sup>. Handik gutxira, Espainiako estatuak gauzatu egin zuen *Saguía el Hamra*<sup>19</sup> lurraldearen anexioa, eta, 1886an, gehitu zitzaizkion bi enklabeak Kanarietako Kapitaintza Jeneralari<sup>20</sup>. Azkenik, 1912an, Espainia eta Frantziaren arteko hitzarmen bat adostu ostean, ezarri ziren Sahara espainiarreko lurren eta Aljeria, Mauritania eta Marokoren jabetza frantsesen arteko mugak<sup>21</sup>.

Historiako proiektu kolonial ia gehienek bezala, Saharako lurraldearen kontrola aurkeztu zen “atzeratutako herritarrengana zibilizazioa eramateko irrikak eraginda soilik”<sup>22</sup>. Saharako lurraldeetako administrazio espainiarraren lehen hamarkadetan, esanguratsua izan zen batik bat itsasertzean egon zirela, Kanariar Irlak defendatzeko eta arrantza babesteko; ez ziren gehiegi barneratu lurraldearen barnealdean<sup>23</sup>.

Mendebaldeko Saharako kolonizazio espainiarrak sedentarizazio-politika bat ekarri zuen, eta horrek lurraldearen konfigurazio sozioekonomikoa aldatu zuen. Herri sahararrak nomada-bizitza uzten hasiak ziren administrazio kolonialeko proiektuetan enpleguak eskuratzen ari baitziren. Herritar sahararrek eskaintzen

---

15 Ikus, *adibidez*, János Besenyo, “Western Sahara under the Spanish empire,” AARMS (2010).

16 Kolonizazio espainiarraren ostean, egun Mendebaldeko Sahara izenez ezagutzen den lurraldeari ‘Sahara espainiarra’ deitu izan zaio, baina garai hartako nazioarteko dokumentuek izen biak erabiltzen zituzten berdin-berdin lurralde hori izendatzeko.

17 Ignacio Fuente Cobo eta Fernando M. Mariño Menéndez, *El Conflicto del Sahara Occidental* (2005).

18 Nazioarteko Justizia Gortea, *Mendebaldeko Saharari buruzko kasua*, Iritzi Aholku Emailea, 81-82 paragrafoa.

19 *Saguía el Hamra* dagokionez, “gizarte tribalekiko ez ezagutza sakon batengatik, [Práxedes Mateo Sagastaren gobernu espainiarrak] pentsatu zuen sinatutako hitzarmenak ez zirela fidagarriak, tribu batzuetaz mintzo baitzen eta ez biztanleria guztiaz osotasunean”. Beraz, 1886an, berriro sinatu zituzten hitzarmenak tribu horiekin. Carolina Jiménez Sánchez, *El conflicto del Sáhara Occidental: El papel del Frente Polisario*, 23. or. (2014).

20 Espainiako Erresuma, Errege Dekretua (1886ko apirilaren 6a). Ikus Julio Cola Alberich, “El Nuevo Régimen Legal de la Provincia del Sáhara,” *Revista de Política Internacional* (1961).

21 *Gaceta de Madrid*, “Convenio entre España y Francia, celebrado el 27 de noviembre de 1912, para precisar la situación respectiva de los dos países con relación al imperio xerifiano” (1913ko apirilaren 3a).

22 Alberich, “El Nuevo Régimen Legal de la Provincia del Sáhara,” 72. or.

23 José Luis Reina Delgado, “La presencia española en el Sahara Occidental – Notas para una historia,” *Cuadernos del Ateneo* (1998).

zuten eskulan merkeak erraztu egiten zuen azpiegitura kolonialaren garapen eta zabalkundea<sup>24</sup>.

Itsasertaz haratago espainiarrak aldi baterako zabaltzea, neurri handi baten, Frantziaren interesei erantzuteko izan zen, tropa frantsesei eraso egiten zien taldeak Espainiari esleitutako lurraldean babes har zezaten, kontrol eraginkorrik gabe baitzegoen<sup>25</sup>. Lurralde sahararraren barnealdean militarrek zabaltzeak bigarren kontrol-fase bat sustatu zuen; kontrol hartan nagusi ziren natur baliabideak arakatzea -lurrazpiko fosfatoak esaterako-, hiri-antolakuntzarako egitasmoak, bereziki Aaiun inguruan, eta sedentario bilakatzeko politikak<sup>26</sup>. Hala ere, Mendebaldeko Saharan azpiegiturak eraikitzeak, eta horrekin batera koloniako baliabideak ustiatzeak, poliki eta berandu egin zuen aurrera, neurri batean Espainiako estatuak ez zuelako aurrekonturik gerraosteko egoera zela eta<sup>27</sup>.

Horregatik, munduko deskolonizazio-prozesuak sustatu zituzten aldaketen aurrean, agintari espainiarrek egonkortu eta justifikatu egin zuten Mendebaldeko Sahararekiko kontrola lurralde sahararreko lurraldea ustiatzen jarraitu ahal izateko<sup>28</sup>. 1958an<sup>29</sup>, Sahara espainiarra probintzia bilakatu zen Mendebaldeko Afrika Espainiarreko Gobernu Nagusiko kide gisa<sup>30</sup>. Urte batzuk beranduago, 1961eko apirillean, Saharako Probintziako Antolakuntza eta Araubide Juridikoaren legea onartu zen Espainian<sup>31</sup>.

## **Mendebaldeko Saharako deskolonizazio-prozesua**

Mendebaldeko Saharak Espainiako estatuarekiko zuen lege-status aldaketa horiek, neurri handi batean, egin ziren lurralde horien kolonia-izaera disimulatze-

---

24 Sidi Omar, "The right to self-determination and the indigenous people of Western Sahara," *Cambridge Review of International Affairs*, 45. or. (2008ko martxoa).

25 José A. Rodríguez Esteban eta Diego A. Barado Timón, "Los procesos de urbanización en el Sahara español (1884-1975): un componente esencial del proyecto colonial," *Les Cahiers d'EMAM* (2015).

26 *Ibidem*.

27 José Ignacio Alguero Cuervo, *El Sahara y España: Claves de una descolonización pendiente*, 85. or. (2006).

28 Pablo Estévez, *Censos, identidad y colonialismo en el Sáhara español (1950-1974): la imaginación numérica de la nación española* (2012).

29 1958an, Espainiako estatuak independizatu berri zen Marokori eman zion Tarfaya lurralde sahararra emakida politiko gisa. Orduetik, Tarfaya zonaldea Mendebaldeko Saharatzat jotzen den aitortutako lurraldetik kanpo geratzen da, eta Saharako lurraldeko iparraldeak honako paralelo hau du muga: 27° 40'. Ikus Alberich, "El Nuevo Régimen Legal de la Provincia del Sáhara," 69. or.

30 *Ibidem*, 69. or.

31 *Ibidem*.

ko<sup>32</sup>. Espainia 1955an<sup>33</sup> sartu zen formalki Nazio Batuetan, eta horrek eragin zuen deskolonizazio-egitasmoan sartzea, orduan nazioarte mailan ari baitziren egiten. 1956an, idazkari nagusiak eskutitz bat bidali zion Espainiari, erakundearen Gutuneko XI. kapituluko lurralde autonomoekiko obligazioak azalduz eta informazioa eskatuz espainiar administrazioari lotutako lurralde horietako batzuei buruz<sup>34</sup>. 1958an eta 1959an, bi erantzun eman zituen; azaldu zuen “Afrikako espainiar soberanian dauden lurraldeak, indarrean zegoen legaren arabera, Espainiako probintzi gisa sailkatuta zeudela eta, ondorioz, ez zegoela, legeari jarraiki, Lurralde Ez Autonomorik Espainiako administrazio-sisteman”<sup>35</sup>.

1960ko abenduan, mundu mailan deskolonizazio-prozesua azkartzeko, Nazio Batuen Batzar Nagusiak behin-betiko onartu zuen 1514 (XV) Ebazpena; adierazpen horren arabera, independentzia ematen zaie herrialde eta herri kolonialei, eta adierazten da “atzerritarrek herri bat azpiratzea, dominatzea eta esplotatzea oinarrizko giza eskubideak ukatzea dela azken batean”<sup>36</sup>. Tesuinguru horretan, eta Espainiako ordezkariak saiheste-taktikak erabili arren, 1963an, Mendebaldeko Sahara deskolonizazioari lotutako Lurralde Ez Autonomoen zerrenda sartu zen<sup>37</sup>.

Nazio Batuen deskolonizazio-agendan sartzekak hainbat erabaki ekarri zituen. 1964an, herrialde eta herri kolonialei independentzia emateari buruzko Adierazpena aplikatzerakoan sortzen den egoera aztertzeaz arduratuko den Batzorde Bereziak (Deskolonizaziorako Batzorde Berezia ere deitzen dena) edo 24en Batzordeak ebazpen bat egin zuen eta hor adierazten da Sahara espainiarra lurralde ez autonomoa dela. 1965ean, Batzar Nagusiak lehen ebazpena egin zuen herri sahararrak autodeterminaziorako zuen eskubidea eta Espainiako estatuak

---

32 Rodríguez Esteban eta Barado Timón, “Los procesos de urbanización en el Sahara español (1884-1975): un componente esencial del proyecto colonial,” 21. paragr.

33 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Admission of New Members to the United Nations*, 995 (X) Ebazpena (1955eko abenduaren 14a). Espainia Nazio Batuen Erakundearen sartzekak gai liskartsua izan zen, izan ere, Estatu kide askoren arabera gobernu frankista, gobernu faxistekin zituen aliantzekin, ez zetorren bat erakundearen helburuekin. 1946an, Batzar Nagusiak 39 Ebazpena onartu zuen, eta formalki espainiar gobernu Nazio Batuen nazioarteko organismoetatik kanpo utzi zuen. Hala ere, Gerra Hotzaren eta aliantzen berrantolaketa markoan, 1950ean, Batzar Nagusiak 386 Ebazpena onartu zuen; aurreko 39 Ebazpenaren eragina baliogabetu egiten zuen, eta atea ireki zion Espainiari Erakundearen sartzeko. Espainiaren kasua eta NBERi buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Alberto José Leonart Amsélem, “El ingreso de España en la ONU: obstáculos e impulsos,” *Cuadernos de Historia Contemporánea*, Universidad Complutense de Madrid (1995).

34 Ikus Nazioarteko Justizia Gorteak, *Mendebaldeko Saharari buruzko kasua*, Idazkari Nagusiak igorritako dossierraren sarreraharra, 15. paragr. (1975).

35 *Ibidem*, 19. or.

36 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Declaración sobre la concesión de la independencia a los países y pueblos coloniales*, 1514 (XV) Ebazpena (1960ko abenduaren 14a).

37 Nazio Batuak - Deskolonizaziorako Batzorde Berezia, *Territorios no autónomos: Sáhara Occidental*; Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Informe del Comité de Información de Territorios No Autónomos*, A/5514-Supp., (1963ko abuztua).

potentzia administratzaile gisa zituen obligazioak berresteko<sup>38</sup>. 1966an, Batzar Nagusiak esplizituki aipatu zuen erreferendum bat egiteko beharra lurraldearen statusa erabakitze<sup>39</sup>. 1967an, misio bat izendatzea eskatu zen erreferendumaren plangintzan aurrera egiteko,<sup>40</sup> eta, 1968an, bereizi egin ziren Sahara espainiarra eta Espainiako estatuak kontrolatutako Afrikako gainerako lurraldeak<sup>41</sup>. Ebazpen horiek ia urtero egin ziren 1973 arte, beti ere herritar sahararren autodeterminazio-eskubidea aitortuz, herritarrek erreferendum bat egiteko beharra zutela behin eta berriro adieraziz eta Nazio Batuen misio bat lurraldera bisitan joatea defendatuz<sup>42</sup>.

Hala ere, 1974an Batzar Nagusiak Espainiako estatuari eskatu zion “Mendebaldeko Saharan egiteko asmoa zuen erreferenduma atzeratzeko”, Nazioarteko Justizia Gorteko Iritzi Aholku Emailearen zain baitzegoen, lurralde sahararreko deskolonizazio-prozesuaren hainbat alderdiri zegokiona<sup>43</sup>. Zehazki esanda, Batzar Nagusiak Maroko eta Mauritaniaren kekek entzun zituen Mendebaldeko Saharako lurraldearen zatiei buruz, izan ere, herrialde bakoitzak historikoki berea izan zen zatia erreklamatzeko eta Espainiako estatuaren deskolonizazioak lurraldeak “berrintegratu” behar zituela<sup>44</sup>. Horrek bultzatu zuen Batzar Nagusia Nazioarteko Justizia Gorteari Iritzi Aholku Emailea eskatzera Mendebaldeko Saharako status juridikoari buruz<sup>45</sup>.

Kasua Nazioarteko Justizia Gorteak berrikusteko zain zegoen bitartean, 1975eko maiatza eta ekainean, Nazio Batuen misio batek Sahara espainiarra eta ondoko herrialdeak bisitatu zituen Batzar Nagusiaren ebazpenei jarraipena emateko eta herri sahararraren autodeterminazio-jardunari dagozkion baldintzak ebaluatze<sup>46</sup>. 1975eko urriaren 10ean argitaratutako misio horren aurkikuntzen

---

38 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Infiren eta Sahara espainiarraren kasua*, 2072 (XX) Ebazpena, (1965eko abenduaren 16a).

39 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Infiren eta Sahara espainiarraren kasua*, 2229 (XXI) Ebazpena (1966ko abenduaren 20a). Ebazpen horretan, Batzar Nagusiak trataera desberdina eman zien Ifniko eta Mendebaldeko Saharako lurraldeei, biak ala biak Espainiak kontrolatuak eta Marokok erreklamatu nahi zituenak baitziren.

40 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Infiren eta Sahara espainiarraren kasua*, 2354 (XXII) Ebazpena, (1967ko abenduaren 19a).

41 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Infiren eta Sahara espainiarraren kasua*, 2428 (XXIII) Ebazpena, (1968ko abenduaren 18a).

42 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Sahara espainiarraren kasua*, 2591 (XXIV) Ebazpena (1969ko abenduaren 16a); Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Sahara espainiarraren kasua*, 2711 (XXV) Ebazpena (1970eko abenduaren 14a); Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Sahara espainiarraren kasua*, 2983 (XXVII) Ebazpena (1972ko abenduaren 14a); Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Sahara espainiarraren kasua*, 3162 (XXVIII) Ebazpena (1973ko abenduaren 14a). 1971n, Batzar Nagusiak ez zuen ebazpenik egin Sahara espainiarrari buruz.

43 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Infiren eta Sahara espainiarraren kasua*, 3292 (XXII) Ebazpena, (1974ko abenduaren 13a).

44 Nazioarteko Justizia Gortea, *Mendebaldeko Sahararen kasua*, Iritzi kontsultiboa, 49. paragrafoa.

45 Batzar Nagusia, 3292 (XXIX) Ebazpena.

46 Nazio Batuak - Deskolonizatorako Batzorde Berezia, *Informe de la Misión Visitadora de las Naciones Unidas al Sáhara Español*, 1975 (1975eko urriaren 10a).



artean azpimarragarri dugu, herritarren gehiengoa, argi eta garbi, independentziaren alde zegoela<sup>47</sup>.

Egun gutxi batzuk geroago, 1975eko urriaren 16an, Nazioarteko Justizia Gorteak Mendebaldeko Saharari buruzko Iritzi Aholku Emailea igorri zuen; Maroko<sup>48</sup> eta Mauritaniaren saharar lurraldearen ustezko kontrol historikoari buruzko keak zehatz aztertu ziren<sup>49</sup>. Irizpen horretan, Gorteak erabaki zuen “eskura jarri zitzaizkion elementu eta informazioek ez zutela frogatzen inongo lurralde subiranotasun loturarik Mendebaldeko Sahararen eta Marokoko Erresumaren edo Mauritaniaren artean. Beraz, Gorteak ez zuen egiaztatu lotura juridikorik zegoenik 1514 (XV) Ebazpenaren aplikazioa aldatzeko gai izango zenik Mendebaldeko Saharari dagokionez eta, bereziki, determinazio askearen printzipioaren aplikazioari dagokionez<sup>50</sup>. Beraz, Nazioarteko Justizia Gorteak bazterrean utzi zituen, behin betiko, historikoki Marokok nahiz Mauritaniak Mendebaldeko Sahara kontrolatu zutela adierazten zuten erreklamazioak, eta ezetz irmo batekin erantzun zuen.

1975eko urriaren 18an, Nazioarteko Justizia Gorteak Iritzi Aholku Emailea adierazi eta bi egunetara, Espainiako estatuak jakinarazi zion Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari Marokoko erregea Mendebaldeko Sahara konkistatuko zuela mehatxatzen ari zela<sup>51</sup>. Urriaren 30ean, Marokoko Erregearen Indar Armatuak Mendebaldeko Saharako muga gurutzatu zuten, eta Espainiak utzitako kokalekua okupatzen hasi ziren, eta, jarraian, Marokoko herritar zibilek gauza bera egin zuten<sup>52</sup>. Hala ere, ez Segurtasun Kontseiluak ezta Nazio Batuen beste organorik ere ez zuen ezer egin herritar sahararrak babesteko erasoaldi horretatik.

## **Mendebaldeko Sahara kontrolatzeko gerra**

Dena den, marokorrek lurralde sahararrean sartu zirenean 1975eko azaroaren 6an, Saharako herritarrak ez zeuden babesik gabe. Deskolonizazio-prozesuaren eta nazioarte mailan Mendebaldeko Saharan hartutako ebazpenekin aldi berean, herritar sahararrak beren erresistentzia eratzen ari zen kolonia espainiarraren aurka, eta nazio askapenerako mugimendua osatu zuten. Ikusi ahal izan da “Espai-

---

47 *Ibidem*, 22.9. eta 431. paragr.

48 1956ko Marokoren independentziaren ostean, espainiar agintarien ikuspegitik, Sahara espainiarrak “Istiqlal alderdi marokorren kanpaina anexionista justifika ezin bat pairatu zuen; Senegaleraino zabaltzen den lurralde afrikar guztiekiko asmo inperialistak zituen”. Alberich, *El Nuevo Régimen Legal de la Provincia del Sáhara*, 69. or.

49 Nazioarteko Justizia Gortea, *Mendebaldeko Saharari buruzko kasua*, Iritzi Aholku Emailea.

50 *Ibidem*, 162. paragr.

51 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Carta de fecha 18 de octubre de 1975 dirigida al presidente del Consejo de Seguridad por el Representante Permanente de España ante las Naciones Unidas*, S/11851 (1975).

52 Fuente Cobo eta Mariño Menéndez, *El Conflicto del Sahara Occidental*, 63. or.

niako kolonizazioaren lehen urtetatik bertakoen zenbait talde antolatuk okupazio kolonialaren aurka agertu direla eta aldarrikapenak egiten zituztela zentzu horretan<sup>53</sup>. Askapenerako ejertzito batek erasoak egin zituen espainiar tropen aurka 1950 amaieran, eta hamarkada bat beranduago, askapenerako benetako mugimendu baten hasiera antzeman zen, erregimen kolonialaren aurka borrokan<sup>54</sup>.

1969tik aurrera, gazte sahararrak Sidi Mohamed Basiri lider gaztearen inguruan antolatu ziren; 1970ean ezarri zuen Mendebaldeko Sahararen Askapenerako Abangoardiaren Erakundea, derrigorrez desagertu zen arte urte horretan bertan. Baina saharar gazteen mugimenduak hazten jarraitzen zuen, orduan Uali Mustafa Sayed liderraren inguruan, eta 1973ko apirilean sortu zen Saguía el Hamra eta Urrezko Ibaia askatzeko Herri Frontea (Fronte POLISARIOA); urte bereko maiatzean, Kongresu Eratzailea egin zen; erakunde zabalago baten adar politiko gisa finkatu zen, eta egonkortu adar militar gisa: Saharako Herriaren Askapenerako Armada (SHAA). Aste batzuetara, 1973ko maiatzaren 20an, Fronte POLISARIOAK lehen ekintza armatua egin zuen lurraldea askatzeko<sup>55</sup>. Ordutik, Fronte POLISARIOAK egonkortu egin zuen kolonia espainiarraren aurka zuen jarrera eta herri sahararraren ordezkari bilakatu zen autodeterminazioa eskuratzeko borrokan.

Mendebaldeko Sahara kontrolatzeko borroka dimentsio berri bat hartu zuen “martxa berdea” delakoarekin; sahararrek 1975eko “martxa beltza” ere deitu izan zioten: “Nazioarteko Justizia Gortearen ondorioak aintzat hartu gabe, urte bereko azaroaren 6an, Hasan II.ak agindua eman zien marokoarrei modu masiboan lekualdatzeko; 350.000 joan ziren gorespen patriotikoarekin errege marokoarrak egingako eskaintza onartzera, alegia, lanpostu paregabeak nahiz kolono espainiarrek utzitako etxebizitzak okupatzea. Aurretik berrogeita hamar mila soldadu zituztela, talde biak Mendebaldeko Saharako kokalekura zihoazen lurraldea okupatzeko helburuarekin; lurralde ez autonomo baten mugak igarotzen zituen asentamendu bat behartu zuten; modu horretan lurraldean eragina bermatuta egongo zen eta horrek baldintzatuko lituzke, denbora tarte txiki batean, gatazkari eman beharko litzaizkiokeen irtenbide posibleak<sup>56</sup>. Espainiako estatuak Segurtasun Kontseiluari Marokoren inbasio honi buruz aurrez jakinarazi zion arren, ez zirudien asmo onez eginiko abisua zenik, astebete lehenago, hain zuzen, 1975eko azaroaren 14an, Es-

---

53 Jiménez Sánchez, *El Conflicto del Sáhara Occidental: El Papel del Frente POLISARIO*, 90. or.

54 Nahiz eta momenturen batean lortu herritar saharar ia guztien babesa bateratzea, Fronte POLISARIOA ez zen Saharako herri-mugimendu bakarria izan. El Mouvement Révolutionnaire des Hommes Bleus, Askapenerako eta Batasunerako Frontea eta Saharako Batasun Nazionalaren alderdia ere sortu ziren Saharako herritarren interesak ordezkatzeko ekimen gisa. Ikus, Jiménez Sánchez, *El Conflicto del Sáhara Occidental: El Papel del Frente POLISARIO*, 76-85 or.

55 Juan Carlos Gómez Justo, “El Frente POLISARIO: La historia de un movimiento de liberación nacional vivo,” *Revista Internacional de Pensamiento Político*, 269. or. (2013ko abendua).

56 Jiménez Sánchez, *El Conflicto del Sáhara Occidental: El Papel del Frente POLISARIO*, 40. or.

painiak akordio bat sinatu baitzuen Maroko eta Mauritaniarekin. Madrilgo Hiru Alderdiko Akordia izena hartu zuen<sup>57</sup>. Akordio horren pean, “Espainiak lurraldeko administrazioa ustezko barne administrazio bati utzi nahi izan zion, eta Mauritania eta Maroko administrazio horren barruan zeuden, hortaz, berez eta modu irekian lurraldeak bi herrialde horiei eman zizkien”<sup>58</sup>.

Akordio horren ostean, Mendebaldeko Saharako okupazioa hasi zen; Marokok iparraldetik jo zuen, eta Mauritaniak hegoalde<sup>59</sup>. Horrekin hasiera eman zitzaion SHAA eta Maroko eta Mauritaniako indarren arteko gerrari<sup>60</sup>. Indar espainiarretan parte hartutako militar saharar asko Fronte POLISARIOAREN lerrotan sartu ziren<sup>61</sup>. Ehunka mila marokoar zibil dagoeneko sartuta zeuden Mendebaldeko Saharako lurraldeetan, eta handik gutxira 20.000 militar marokoar inguru izan zituzten lagun<sup>62</sup>.

1975eko azaro eta abenduan, Marokoko indarrek hainbat toki klabe eskuratu zituzten, horien artean, Bu-Craa herriko fosfato-mehatzeak eta Aaiun hiriburua<sup>63</sup>. Urtarrilean, indar espainiarrak Villa Cisneroseko portutik alde egin zutenean, indar marokoarrek Dajla hartu zuten<sup>64</sup>. Konkista horiek erresistentzia gogor batekin topatu ziren, eta enfrontamendu zuzenak egon ziren tropa marokoarren eta SHAAko tropen artean. Herritar zibilek gatazkari alde eginaz ekialderantz babes bila zihoazen heinean, basamortuan jarritako inprobisatutako kanpamentuek fosforo eta napalmezko bonbardaketa sistematikoak jasan zituzten<sup>65</sup>. Uste da 40.000 saharar zibil inguru bonbardatu zituztela basamortuan arma kimiko horiekin<sup>66</sup>. Herritar zibilen aurkako eraso horiek behartu zuen biziraun zuen jendea urrunago

---

57 *Declaración de principios entre España, Marruecos, y Mauritania sobre el Sahara Occidental* (1975ko azaroaren 14a). Prozesuaren markoan, Mendebaldeko Sahararen kontrolaren birbanaketaren alderdi ekonomikoan ezkutuko hainbat eranskin sinatu zituzten alderdiek, eta horien bidez, Espainia lurraldeko natur baliabideen eskubide garrantzitsuekin geratu zen. *Ikus: (i) Acta de las conversaciones mantenidas, de una parte entre las legaciones del Reino de Marruecos y de la República Islámica de Mauritania, y de otra, de España a propósito de los aspectos económicos derivados de la transferencia de la administración del Sáhara; (ii) Acta de las conversaciones mantenidas entre Marruecos y España relativas a aspectos económicos derivados de su cooperación mutua; (iii) Bases del acuerdo entre Marruecos y España; eta (iv) Acta de las conversaciones entre Mauritania y España relativas a los aspectos económicos derivados de la transferencia de la administración del Sáhara* (1975eko azaroaren 14a).

58 Juan Soroeta Licerias, “La condición jurídica de Marruecos y España en el Sahara Occidental,” *Humania del Sur*, 35. or. (2014).

59 Mendebaldeko Sahararen Erreferendumerako Nazio Batuen misioa, “Chronology of Events” (2018ko urtarrila).

60 Jiménez Sánchez, *El Conflicto del Sáhara Occidental: El Papel del Frente POLISARIO*, 52. or.

61 Fuente Cobo eta Mariño Menéndez, *El Conflicto del Sahara Occidental*, 64. or.

62 Minority Rights Group, *The Sahrawis of Western Sahara*, 9. or.

63 Simon Baynam, “The War in Western Sahara,” *Africa Insight*, 50. or. (1991).

64 Lyakat Ali, “The Western Sahara Issue – Decolonisation or greater Morocco,” Thesis – Jawaharlal Nehru University (1997).

65 David Seddon, “Morocco and the Western Sahara,” *Review of African Political Economy*, 25. or. (1987ko apirila)

66 Gomez Justo, *El Frente POLISARIO: La historia de un movimiento de liberación nacional vivo*, 271. or.

ihes egitera; milaka lagunek, azkenik, Aljeriako muga zeharkatu zuten babes bila<sup>67</sup>. Orduan izan zen, 1975 amaieran, Aljeriako Tinduf ingurura saharar jendetza hurbildu zen lehen aldiz, eta orduan hasi ziren behin-behineko kanpamentua jartzen.

1976ko otsailaren 26an, Nazio Batuetako idazkari nagusiari egindako adierazpen baten bidez, Espainiako estatuak adierazi zuen aldebakarretik “behin betiko amaitzen ari zela Sahara lurraldean egin zuen egonaldia” eta jasota utzi zuen “Espainiak ez duela zerikusirik izango etorkizunean nazioarte mailan lurralde horren administrazioaren erantzukizunarekin”<sup>68</sup>. Jarrain, 1976ko otsailaren 27an, Fronte POLISARIOAK Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren (SEAD) independentzia aldarrikatu zuen.

Lurraldetik indar espainiarrek alde egin zutenean, gerra indartu egin zen. Indar marokoar eta mauritaniarrak baino gutxiago izan arren, SHAAren arintasun eta estrategiek garaipen garrantzitsuak lortu zituzten, eta indar marokoar eta mauritaniarrak kanporatu zituzten gerraren lehen urteetan<sup>69</sup>. Hala ere, gerran eragin handia izan zuten kanpoko aktoreen ekintzek. 1977ko abenduan, Frantziak zuzenean esku hartu zuen gatazkan; airez eraso zituen SHAAren indarrak, ustez, Mauritaniak hala eskatuta<sup>70</sup>. Baina Estatu frantsesak gero eta babes handiagoa eman zien Mendebaldeko Sahara okupatu zuten indarrei, eta, 1978an zehar, asko ugartu ziren armamentu hedatzeak eta behaketa-taldeak, baina baita indar marokoar eta mauritaniarren erasoak ere<sup>71</sup>. 1978 eta 1982 bitartean, Estatu Batuek armak, detektatze-taldeak, helikopteroak eta hegazkinak eskaini zituzten Marokori, eta Saudi Arabiak, aldiz, finantziazioa<sup>72</sup>.

Maroko eta Frantziaren babesak izan arren, indar mauritaniarrak ahulak ziren eta ez zuten lortu okupatutako lurralde zatia defendatzea<sup>73</sup>. Estatu-kolpe baten ondoren eta Mauritaniako botere exekutiboak aldatu ostean, 1979an, gobernu mauritaniarrak bake-akordio bat sinatu zuen Fronte POLISARIOAREKIN eta Saharako lurraldetik alde egin zuen<sup>74</sup>. Nahiz eta hitzarmenak ezarri hegoaldeko lurrak Fronte POLISARIOARI itzuliko zitzaizkiola, ia berehala inbaditu zituen Marokok. Gertaka-

---

67 Ikus, Carlos Martín Beristaín eta Eloísa González Hidalgo, *El Oasis de la Memoria: Memoria histórica y violaciones de Derechos Humanos en el Sáhara Occidental*, 99-168 or. (2012).

68 Nazio Batuek - Batzar Nagusia, *Carta de fecha 26 de febrero de 1976 dirigida al Secretario General por el Representante Permanente de España ante las Naciones Unidas*, A/31/56 (1976).

69 Stephen Zunes eta Jacob Mundy, *Western Sahara: War, Nationalism, and Conflict Irresolution*, 16. or. (2010).

70 *Ibidem*, 12. or.

71 *Ibidem*.

72 *Ibidem*, 17. or.

73 *Ibidem*, 12. or.

74 Nazio Batuek - Batzar Nagusia, *Carta de fecha 18 de agosto de 1979 dirigida al Secretario General por el Representante Permanente de Mauritania ante las Naciones Unidas*, A/34/427 (1979ko abuztuaren 20a).

ri horien ostean, bi indarren arteko gerra –Maroko batetik eta Fronte POLISARIOA bestetik– gero eta gehiago areagotu zen. Mauritania gatazkatik ateratzeak kanpoko militar laguntzaren ugaritzea ekarri zuen Marokon; horrek aukera eman zion Marokori, hain zuzen, kontrola egonkortzeko “hiruki baliagarria” deiturikoan, azken batean, garrantzia ekonomiko eta politiko berezia duen hiru erpineko Mendebaldeko Saharako lurraldean: Bu-Craa (fosfato-meategiak), Aaiun (biztanleria-kontzentrazio handiena) eta Smara (hiriburu erlijiosoa)<sup>75</sup>.

1980an, Marokoko indar armatuak eraikitzen hasi ziren, eta, amaitzean, 1987aren amaieran, 2.720 kilometroko zabalera duen harresia osatu zuten; Mendebaldeko Sahara bitan banatuta geratu zen –bata Marokoren kontrolpean eta bestea Fronte POLISARIOAREN eskutan<sup>76</sup>. Eraikinaren oinarri hondarra, lurra eta harriak izan arren, harresia alanbrearekin eta 100.000 eta 150.000 soldadu marokoarrekin indartuta dago, eta gainera, milioika lagunak kontrako minak daude jarrita harresiaren ekialdean<sup>77</sup>. Eraikuntza horrek balio zuen –eta oraindik balio du– indar sahararren mugimendu askea eragozteko, hiri garrantzitsuetan ez sartzeko eta Mendebaldeko Saharako lurraldeetako natur baliabideen iturrietara ez jotzeko. Harresia munduko barrera militar funtzional handiena da, eta Marokori aukera eskaintzen dio Mendebaldeko Saharako lurraldearen ehuneko laurogei baino gehiago kontrolatzeko<sup>78</sup>.

Harresiaren eraikuntzak indarkeriazko gatazka armatuaren aldiak aldaketa ekarri zuen, eta ondorio zuzenak izan zituen biztanleria zibilarentzat. 1975ean hasi zenetik, Marokok egindako gerran esanguratsuak izan ziren herritar sahararren aurkako ankerkeriak: lapurreta eta derrigortutako lekualdatzea, atxilotze arbitrarioak eta behartutako desagertzeak, tortura eta hilketak.<sup>79</sup> Ondorioz, urtetara, Espainiako Audentzia Nazionalak eraso sistematiko horiek Saharako herritar zibilen aurkako genozidiotzat jo ditu<sup>80</sup>.

Borroka aktiboak egon arren, 1975etik 1988ra, Segurtasun Kontseilua erabateko isiltasunean egon zen zibilen aurkako erasoei eta Mendebaldeko Saharako gatazka armatuaren egoerari dagokionez<sup>81</sup>. Ez Nazio Batuek eta ezta nazioarteko komunita-

---

75 Fuente Cobo eta Mariño Menéndez, *El Conflicto del Sahara Occidental*, 99 eta 104 or.

76 Javier A. González Vega, “El Muro Marroquí sobre el Sahara Occidental a la Luz de la Legalidad Internacional,” *International Congress of Jurists on Western Sahara* (2012ko azaroa).

77 Zunes eta Mundy, *Western Sahara: War, Nationalism, and Conflict Irresolution*, 21. or.

78 *Ibidem*.

79 Martín Beristáin eta González Hidalgo, *El Oasis de la Memoria*, 169-299 or.

80 Espainiako Erresuma, Instrukzioen Epaitegi Zentrala - Audentzia Nazionala, *Sumario 1/2015: Auto del Juez Pablo Rafael Ruz Gutiérrez* (2015).

81 Horri buruzko Segurtasun Kontseiluaren hurrengo ebazpena 1988ko irailean onartu zen, hasiera batean, liskarren amaierari buruzko alderdien arteko akordioaren ostean. Ikus Nazio Batuek – Segurtasun Kontseilua, *Mendebaldeko Saharako egoera*, 621 Ebazpena (1988ko irailaren 20a).

tearen beste kiderik ere ez zuen kondenatu indar armatu marokoarrek eraikitako harresia<sup>82</sup>. Bestalde, 1985ean, Batzar Nagusiak berriro ere baieztatu zuen Mendebaldeko Sahararen auzia deskolonizazio kontu bat dela, eta aitortu zuen beharrezkoa zela su-eten bat “Mendebaldeko Saharako herriaren autodeterminaziorako erreferendum baketsu eta bidezko bat egiteko beharrezko baldintzak sortzeko”<sup>83</sup>.

## Su-etena

Hasi zenetik ia 16 urte igaro zirenean, Mendebaldeko Saharako kontrolerako gatazka armatua formalki amaitu zen 1991ko irailaren 6an, Fronte POLISARIOAREN eta Marokoren artean su-eten bat indarrean sartu zenean, Nazio Batuetako idazkari nagusiak eta Batasun Afrikarreko Erakundeko Lehendakariak egindako proposamenak oinarri harturik<sup>84</sup>. Data horren aurretik, 1988ko abuztuan, bi alderdiek onartu zuten, printzipioz, “konponketa-proposamenak”, eta horrekin finkatu zuten liskarrak eteteko tesuingurua. Konponketa-proposamenak oinarritu ziren 1514 Ebazpenak ezarritakoan eta proposamen horiek nahi zuten “lurraldeko herritarrek determinazio askerako eta independentziarako eskubide besterenezina eduki zezatela, baldintza onargarrietan bai haientzat eta, ondorioz, baita nazioarteko komunitatearentzat ere”<sup>85</sup>.

Termino zehatzagoetan, alderdiek adostutako proposamenetan, printzipioz, su-eten bat zegoen, eta, segidan, tropa marokoarrak murriztea Mendebaldeko Saharako lurraldean eta Nazio Batuen Behaketa Talde bat bidaltzea erreferenduma ikuskatzeko<sup>86</sup>. Trantsizio-aldi bat aurreikusita zegoen liskarren amaieraren eta erreferendumaren emaitzaren argitalpenaren artean<sup>87</sup>. Era berean, zehaztu zuten erreferendumean boto-eskubidea zabalduko zitzaiela lurraldeko azken erroldan (1974an espainiar agintariak egindakoan) izena emanda zeuden 18 urte gorako guztiei; aldaituko lirateke soilik jaitakoak eta hildakoak nahiz lekualdatutako biztanleak<sup>88</sup>.

---

82 Nazio Batuen aldetik erreaktorik ez egoteak ekarri du Marokok adieraztea harresia inoiz ez zela kritikatu ez Nazio Batuek oro har bidalitako gomendioetan ezta Segurtasun Kontseiluaren txosten berezietan ere. Are gehiago, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren eta Batzar Nagusiaren txosten bakar batean ere ez da harresia legez kontratatzat jo. Ikus Al Jazeera, “Conflict in Moroccan Sahara: Myths and realities – Morocco’s minister of communications on the enduring dispute over the Sahara region” (2015).

83 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Ifniren eta Sahara espainiarraren kasua*, A/Res/40/50, 3. paragr. (1985eko abenduaren 2a).

84 El País, “Entrevista: Mohamed Abdelaziz, Presidente de la República Árabe Saharaui Democrática - ‘Alto el fuego en el Sáhara, el 6 de septiembre’” (1991ko ekainaren 27a).

85 Nazio Batuak – Segurtasun Kontseilua, *La Situación Relativa al Sáhara Occidental - Propuestas del Secretario General de las Naciones Unidas y del actual Presidente de la Asamblea de Jefes de Estado y de Gobierno de la Organización de la Unidad Africana para lograr un arreglo de la Cuestión del Sahara Occidental aceptado en principio por las Partes el 30 de agosto de 1988*, S/21360, 6. paragr. (1990eko ekainaren 18a).

86 *Ibidem*, 16. paragr.

87 *Ibidem*, 8. paragr.

88 *Ibidem*, 24-27 paragr.

Konponbide-proposamenekiko adostasuna alderdien aldetik jaso ostean, idazkari nagusiak ordezkari berezi bat izendatu zuen bake-prozesuari jarraipena emateko eta erreferendumaren koordinazioa ikuskatzeko<sup>89</sup>. Akordioak finkatzeko plan bat definitzerakoan, 1991ko apirilean, Mendebaldeko Sahararen Erreferenduma Antolatzeko Nazio Batuen misioa (MINURSO) finkatu zen, su-etena eta erreferenduma zaintzeko<sup>90</sup>.

1991ko maiatzean, ordezkari bereziak proposatu ziren alderdiei data bat liskarrei amaiera emateko eta trantsizio-aldia aktibatzeko (1991ko irailaren 6a)<sup>91</sup>. Hala ere, 1991ko maiatza eta iraila artean, agerian geratu zen planari lotutako hainbat “egiteko” ezin izango zirela garaiz egin. Gainera, alderdien artean hainbat desadostasun suertatu ziren berriro ere, nahiz eta aurretik plana onartu. Idazkari nagusiak azaldu zuen “alderdietako batek ezin izan zuela onartu trantsizio-aldia 1991ko irailaren 6an hastea” eta laster lehertu ziren berriro ere liskarrak lurraldean. Horrexegatik, idazkari nagusiak erabaki zuen “su-etena indarrean sartzea irailaren 6an, hitzartu zuten bezalaxe, eta trantsizio-aldia hasiko zela gorago aipatzen ziren egitekoak amaitu bezain laster<sup>92</sup>. Lan horiek, idazkari nagusiak aipatutakoaren arabera, lotuta zeuden bozkatu behar zuten biztanleen identifikazioarekin.

Hitzartutakoan oinarriturik, 1991ko irailaren 6an, alderdiek formalki utzi zituzten borrokak. Hala ere, erreferendumaren planei buruzko alderdien adostasunaren ondorengo eta gauzatu aurreko barne-alditzat adostutako eta aurreikusitako trantsizio-aldia ez zen sekula hasi<sup>93</sup>. Liskarrak amaitzeari lehentasuna emateak ekarri zuen prozesu politikoaren su-etena indarrean ez sartzea, eta modu mugagabean atzeratu zen trantsizio-aldiaren hasiera. Beraz, 1991ko irailaren 6an, indar marokoarren eta Fronte POLISARIOAREN arteko borrokak amaitu ziren, baina hurrengo urratsak ez ziren argi geratu, alegia, okupazio marokoarraren status quoa, inplizituki, berretsi egin zen.

## Okupazio marokoarra

Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahara okupatzeari formalki ekin zion, espainiar kolonizazioaren jarraipen gisa, lurraldea okupatu zutenean 1975eko azaroaren

---

89 *Ibidem*, 48-49 paragr.

90 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Mendebaldeko Saharako egoera*, 690 Ebazpena (1991ko apirilaren 29a).

91 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Saharako Mendebaldeko Egoerari buruz egindako Txostena*, S/23299, 3. paragr. (1991ko abenduaren 19a).

92 *Ibidem*, 4. paragr.

93 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Saharako Mendebaldeko Egoerari buruz egindako Txostena*, 9. paragr. (S/1996/343) (1996ko maiatzaren 8a) (aitortu behar da “konponbide-planean aurreikusita zegoela, hasierako egutegian argi eta garbi adierazten zen bezala, lotura estua su-etenaren eta prozesu politikoaren artean. Nahiz eta akordio batera iritsi 1991ko irailaren 6an indarrean sartzeko su-etena”, ez zen adostasunik lortu prozesu politikoaren elementu batzuetan).

6an<sup>94</sup>, eta jarraitzen du gaurdaino. 1975eko inbasioaren testuinguruan, Segurtasun Kontseiluak, lehendakariaren bidez, premiazko eskaera bat egin zion Marokoko Erregeari, eskatu zion “berehala amaitzeko Mendebaldeko Saharari deklaraturako martxa”<sup>95</sup>. Hala ere, Marokoko indarrek aurrera egin zuten lurraldea inbaditzeko, eta Segurtasun Kontseiluaren gaitzespena eragin zuten, exijitu baitzuten Maroko eta martxako partaide guztiak lehenbailehen erretiratzea Mendebaldeko Sahararen lurraldetik<sup>96</sup>. Hala ere, Marokok ez zuen kasurik egin.

1975etik aurrera, eta ia 16 urteko gerraren ostean, Marokok eta Fronte POLISARIOAK borrokan aritu ziren lurraldeko hainbat zonalderen kontrola edukitzeko. Gatazka armatuaren lehen hilabeteetan, Espainiak progresiboki utzi zituen lurraldean zituen postu eta instalakuntzak eta langileak atera zituen<sup>97</sup>, bitartean, Marokok pertsonen eta militarren presentzia indartzen zuen bitartean Mendebaldeko Saharako lurraldearen iparraldean; horrekin batera Nazio Segurtasunaren eta Indar Osagarrien Zuzendaritza Nagusiaren presentzia ere areagotu zuen, lurraldean zuen kontrola egonkortzeko<sup>98</sup>. Azaroaren 28an, Marokok Smara konkistatu zuen, eta abenduaren 11n, hiriburua, Aaiun, okupatu zuen.<sup>99</sup> 1976 hasieran gobernu marokorrek igorritako hainbat dekretuk aldi baterako ordainsari- eta subsidio-sistemak ezarri zizkien funtzionario publikoei eta lurraldean funtzioak zituzten eragilei<sup>100</sup>.

1976ko Maroko eta Mauritaniaren arteko lurraldearen banaketaren arabera, Marokok iparraldeko lurraldearen bi heren baino gehiago okupatzen zituen<sup>101</sup>. “Kontrol militar eta poliziala, etxeratze-agindua eta lurraldetik mugitzeko kontrola izan ziren, hasieratik, Marokoren erregimenak Mendebaldeko Sahararen ezarritako baldintzak”<sup>102</sup>. Marokoren kontrolpeko lurraldeko biztanleek kontrol handia eta zelatatzeko jasan behar izan zituzten; susmagarritzat jotzen ziren pertsonen atxilotze arbitrarioak jasaten zituzten, askotan zentro klandestinoetan, eta derri-

---

94 Iturri askok diote 1975eko azaroaren 6ko inbasioko partaideak lurraldetik kendu zituztela, egun batzuen ostean, Madrilgo Akordioaren negoziazioa errazteko. Hala ere, data hori lurraldearen kolonizazio-kanpaina baten hasiera izan zen.

95 Nazio Batuak – Segurtasun Kontseilua, 377 Ebazpena (1975eko azaroaren 2a); Nazio Batuak – Segurtasun Kontseilua, 279 Ebazpena (1975eko azaroaren 6a).

96 Nazio Batuak – Segurtasun Kontseilua, 380 Ebazpena (1975eko azaroaren 6a).

97 Fuente Cobo eta Mariño Menéndez, *El Conflicto del Sahara Occidental*, 58. or.

98 Ikus Harrell Bond, *The Struggle for the Western Sahara*, 2. zatia; Minority Rights Group, *The Saharawis of Western Sahara*; Marokoko Erresuma, Décret. No. 2-76-85 (1976ko otsailaren 10a).

99 Fuente Cobo eta Mariño Menéndez, *El Conflicto del Sahara Occidental*, 64. or.

100 Marokoko Erresuma, Décret No. 2-76-84; Décret No. 2-76-85; Décret No. 2-76-122; y Décret No. 2-76-205.

101 Convenio relativo al trazado de la frontera de Estado establecida entre la República Islámica de Mauritania y el Reino de Marruecos (1976ko apirilaren 14a)

102 Martín Beristáin eta González Hidalgo, *El Oasis de la Memoria*, I. liburukia, 485. or.



gorrezko desagertzeak<sup>103</sup>. Kasu horietan guztietan, segurtasun-indar marokoarrak edo estatuko beste eragile batzuk egiten zituzten kontrol-jarduera horiek eta urratzen zituzten giza eskubideak.

1979an, Mauritaniak lurraldetik ihes egin zuenean, Marokok tropak lurraldearen hegoaldera mugitu zituen, eta horrek eragin zuen Batzar Nagusiak “deitoratzea egoerak okerrera egin zuela Marokok modu iraunkorrean Mendebaldeko Sahara okupatzearen ondorioz eta okupazio horiek berriki alde egindako Mauritaniako lurraldera zabaltzeagatik”, eta eskatu zion “arren Marokori parte hartzeko bake-dinamikan eta amaiera emateko Mendebaldeko Saharako lurraldearen okupazioari”<sup>104</sup>. Berriro ere, 1980an, Batzar Nagusiak errepikatu zuen “oso kezkatuta zegoela” etenik gabeko okupazio-egoerarekin<sup>105</sup>. Lurraldearen zati honen anexoarekin, Marokok okupazioaren zabalera handitu zuen hegoalderantz.

Marokoren okupaziopean dagoen Saharako lurraldea behin betiko mugatu zuen banaketa-harresiak. 1987an harresiaren eraikuntza amaitzeak ekarri zuen, borroka 1991n amaituta, Marokok lurraldearen gehiengoan kontrola egonkortzea<sup>106</sup>. Su-etenerako baldintzak azalduta zeudenez, 1991ko irailetik aurrera, ezingo litzateke lurraldeko kontrola berriro ere antolatu borroka armatuaren bidez, erreferenduma izango litzateke, eta ondorengo prozesu politikoa, modu bakarra Mendebaldeko Sahararekiko kontrolaren errealitatea hausteko eta okupazioari amaiera emateko.

Marokok Mendebaldeko Sahararekiko zuen kontrol partziala aldi baterako baino ez zen izan behar, bake akordioaren lehen bertsioetan aztertutako trantsizio-aldia hasi arte, hain zuzen, MINURSOEN indarrek administrazio-erantzukizuna beregain hartu behar zutenean. Hala ere, trantsizio-aldi hori indarrean sartzeara behin betiko atzeratu zenez, Marokok administratu du partzialki lurraldea etenik gabe.

Egun, Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldea administratzen du bere lurren luzapen bat balitz bezala, eta eskubidezko sahararrak marokoarrak balira bezala tratatzen ditu. Erakunde marokoarrek gobernuaren funtzio guztiak betetzen dituzte lurraldearen zati honetan. Harresiaren mendebalderako sarrera eta “ordenari” eustea zonalde honetan poliziari, jendarmeei eta Marokoko indar osagarriei dagokie, nahiz eta batzuetan erregearen indar armatuek ere parte hartu. Harresiaren mendebaldeko hezkuntza- eta osasun-sistema Marokoko agintarien pean dago, eta eskumena dute gai horietan. Lurraldearen zati honetan bizi diren

---

103 *Ibidem*, I, liburukia - 228. or.

104 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Ifniren eta Sahara espainiarraren kasua*, 34/37 Ebazpena, (1979ko azaroaren 21a).

105 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Ifniren eta Sahara espainiarraren kasua*, 35/19 Ebazpena, (1980ko azaroaren 11).

106 Jacob Mundy, “El estatus jurídico del Sahara Occidental y las leyes de la guerra y la ocupación,” *Grupo de Estudios Estratégicos* (2007ko ekainaren 26a).

sahararrak espetxeratzen dituztenean, Marokoko sistema penala jarraitzen dute eta Marokoko sistema judizialak prozesatzen ditu; azken horrek Mendebaldeko Saharako lurraldean bizi diren sahararren salaketak ikertzen ditu. Atzerrira bidaiatu ahal izateko, harresiaren mendebaldeko sahararrak agintari marokoarregana joan behar izaten dira Marokoko pasaporte eskuratzeko. Agintari marokoarrek kudeatzen dituzte ura, argia eta saneamendua, eta kontrolatzen dute harresiaren mendebaldera nazioarteko laguntza-neurriak edo asistentzia sartuko den ala ez. Testuinguru horretan, ez dago zalantzarik, Marokok kontrol eraginkorra du harresiaren Mendebaldeko Saharako lurraldean, eta, horregatik da, zentzu guztietan, lurralde horretako potentzia okupatzailea.

# Maalouma

ADINA: 29 URTE | BIZILEKUA: AAIUN, MENDEBALDEKO SAHARA OKUPATUA

**“Emakume aktibistak kalean erreprimitzen gaituztenean, poliziek mehlfa eranzten digute; hori oso umiliagarria da gure kulturari, eta lotsa handia sentiarazten digu.”**

**M**AALOUMAK MANIFESTALDI BATEAN PARTE HARTU ZUEN LEHEN ALDIAN, eskolan zegoen artean. Beste ikasle saharar batuekin batera, arrautza bat jaurti zuen bere ikastetxean zintzilik zegoen erregearen argazki handiaren aurka. Zentroko zuzendaritzak hurrengo egunetan eskolara joatea debekatu zion. “Pozik sentitu nintzen; nire ustez, erregea da nire herrialdearen okupazioaren eta horrek dakarkigun sufrimendu guztiaren errudun nagusia”.

Urteen joanarekin, Maaloumaren parte hartzea handiagoa bihurtu zen. Manifestaldietara joaten zen eta Emakume Sahararren Batasun Nazionala bezalako espazioetan parte hartzen zuen. Gaur egun 29 urte ditu, eta Haurren eta Emakumeen Behatoki Sahararren parte hartzen du. Maalouma sahararren eta, bereziki, emakume sahararren aurkako errepresioaren biktima eta lekuko izan da. “Marokoko poliziaren erasoak jasan ditut manifestaldietan; atxilotua izan naiz eta mehatxuak eta abusu fisikoak jasan ditut haien zaintzapean nengoela. Hainbeste eraso jasan ditut, dagoeneko ez dakit zehazki zenbat. Eraso horietan, askotan, poliziak

*harrapatu egin nau, bultza egin dit eta nire identitate sahararraren eta emakume gisa dudan oho-  
rearen sinboloa den ‘mehlfa’ erantzi arte jo naute, ni kalearen erdian biluzik utzita”. Maalouma  
kontziente da horixe dela Marokoren okupaziopean bizi diren emakume saharar askoren  
errealitatea.*

Maiz, polizia Maaloumak manifestaldietan parte har dezan eragozten saiatzen da. *“Nire  
etxea zelatatzen dute, eta mehatxu egiten didate ekitaldi politikoren batera joateko irteten nai-  
zenezan”. Horregatik, Maaloumak, haren adiskideek eta beste emakume saharar askok neu-  
rriak hartzen dituzte poliziari iskin egiteko.*

Maaloumaren iritziz, Marokoko erregimenaren abusuak ez dira manifestaldietara mu-  
gatzen. Poliziek eta estatuko beste agente batzuek emakume sahararrei buruzko datuak,  
gezurrak, argazkiak eta irainak zabaltzen dituzte Facebooken eta beste sare sozial batzuen  
bidez. *“Era horretako jazarpena lagun batekin hondartzara egun-pasa joan nintzen aldi batean  
jasan nuen; bat-batean, poliziak Facebookeko horman zabaldu zuen, moralik gabeko emakumea  
naizela iradokiz”.*

*“Errepresio- eta bidegabekeria-baldintza hauetan, badakit emakumeen eskubideak funt-  
sezkoak direla, baina okupazioa da berdintasuna lortzeko lehen oztopoa. Horregatik, erresistent-  
zia egiten jarraituko dut, eta nire herrialdearen independentzia eskatzen”.*

#### **TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:**

**BILTZEKO ETA ELKARTZEKO ASKATASUNA; IRITZI-ETA ADIERAZPEN-ASKATASUNA; BIZITZA PRIBATURAKO  
ETA FAMILIA-BIZITZARAKO ESKUBIDEA; INOR TORTURATZEKO ETA INORI TRATU KRUELA, BIDEGABEA EDO  
UMILIAGARRIA EMATEKO DEBEKUA; AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA.**

## Mendebaldeko Saharako egoerari aplika dakioken lege-testuingurua<sup>107</sup>

Mendebaldeko Sahararen zati handi bat okupatuta dago, eta, aldi berean, deskolonizatu gabe dagoen lurralde ez autonomoa izaten jarraitzen du. Estatutu horiek ez dute batak bestea baztertzen<sup>108</sup>, eta bakoitzak hainbat lege-arau desberdin aplikatzen du, denak pertsonak eta haien eskubideak defendatzera bideratuak.

## Autonomoak ez diren lurraldeei aplika dakizkiekeen printzipioak

### Potentzia administratzaileen erantzukizunak

1963tik, Mendebaldeko Sahara sartuta dago Nazio Batuen Deskolonizaziorako Batzorde Bereziaren ikuskaritza duten lurraldeen zerrendan<sup>109</sup>. Nazio Batuen Gutunaren 73. artikulua gidatzen du zerrenda hori, eta aitortzen du “lurralde horietako biztanleen interesak gauza guztien gainera gainetik daudela dion printzipioa”, eta potentzia administratzailearen erantzukizuna ezartzen du lurralde ez autonomoetako biztanleen ongizatea sustatzeko<sup>110</sup>. Gutunaren 73. artikulua honako hauek zehazten ditu: lurralde ez autonomoetan herrien bidezko tratua ziurtatzeko obligazioa, abusu ororen aurkako babesa, aurrerakuntza politikan, ekonomian, gizartean eta hezkuntzan eta norbere gobernu eta erakunde politiko askeak garatzea, besteak beste<sup>111</sup>. Gainera, 73(e) artikulua behartzen ditu lurralde ez autonomo bat administratzeko erantzukizuna duten Nazio Batuetako kideak jakinaraztea, erregulari, Nazio Batuetako idazkari nagusiari informazio estatistikoa eta teknikoa beren erantzukizuneko lurraldearen baldintza ekonomiko eta soziala eta hezkuntzari dagozkionak<sup>112</sup>.

Lurralde ez autonomoen zerrendan sartzeak dakar Nazio Batuen Batzar Nagusiko hainbat ebazpen ere aplikatzea. 1514 Ebazpenaren arabera, herri kolonialek beren egoera politikoa aske erabakitze eskubidea dute eta beren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala eskuratzeko; aldi berean, adierazten du derrigorrezkoa dela herri horien lurralde-osotasuna errespetatzea eta botereak berehala eskualdatzea lurralde horietako herriei<sup>113</sup>. Ebazpen hori da herri kolonialek duten aske erabakitze eskubide besterezinezinaren lege-oinarria. Bestalde, 1541 Ebazpenak forma ugari ezartzen ditu lurralde

---

107 Txosten honetan Saharako herritar gazteen egungo egoeraz hitz egiten da, eta, horregatik, ez da lantzen Marokko lurralde sahararra inbaditzea Nazio Batuen Gutunaren aurkako eraso bat izan ote zen, nahiz eta inbasio horrek ondorio etengabea izan herritarrengan. Soilik Segurtasun Kontseiluak erabaki dezake erasorik egon ote den. Nazio Batuek - Batzar Nagusia, *Erasoaren azalpena*, 3314 (XXIX) Ebazpena (1974ko abenduaren 14a).

108 Eugene Kontorovich, “Economic Dealings with Occupied Territories,” *Columbia Journal of Transnational Law*, 611. or. (2015).

109 Nazio Batuek - Deskolonizaziorako Batzorde Berezia, “Lurralde ez-autonomoak: Mendebaldeko Sahara.”

110 Nazio Batuen Gutuna, 73. artikulua.

111 *Ibidem*.

112 *Ibidem*, 73(e) artikulua.

113 Nazio Batuek - Batzar Nagusia, 1514 (XV) Ebazpena (1960ko abenduaren 14a).

ez autonomo batek bere gobernuia izatera iristeko, betiere, “erabakiak aintzat hartzen baditu lurraldeko herrien nahia modu askean, behar bezala jakinda estatutu aldaketa bat egongo dela, jakinaren gainean egonda eta prozedura demokratikoen bidez”<sup>114</sup>.

Ordutik, Batzar Nagusiak jarraitu du definitzen lurralde ez autonomoekiko erantzukizunak. 1980an, ekintza-plan bat onartu zen, Nazio Batuetako estatu kideak behartuta zeuden beharrezko laguntza guztia ematera herri kolonialei autodeterminazio eta independentziarako borrokan; ezin zituzten koloniako herritarren interesentzako kaltegarriak ziren jarduera ekonomiko eta finantzarioak egin; herri kolonialen natur baliabideekiko burujabetza iraunkorra zaindu behar zuten, eta ez utzi kolono eta migratzaileei lurraldean finkatzen, aurrea hartzeko eraketa demografikoaren ezegonkortzeari, besteak beste<sup>115</sup>. Zehazkiago, natur baliabideekiko burujabetza iraunkorra eskubide gisa, urte batzuk aurretik, finkatu zuen Batzar Nagusiak<sup>116</sup>. Lurralde ez autonomoekin erlazioen atzetako beste ebazpen batzuk potentzia administratzaileak deitzen ditu ziurtatzera atzerriko jarduera ekonomikoak bideratuta daudela lurraldeko herriarentzako autodeterminazioa bermatzera<sup>117</sup>.

Obligazio horiek eskubideak sortzen dituzte Mendebaldeko Saharako herritarrentzat; horien artean, aske erabakitzeko eskubidea eta burujabetza iraunkorra beren natur baliabideekiko. Mendebaldeko Saharako lurraldeak jarraitzen du izaten lurralde ez autonomo nazioarteko zuzenbidearen asmoentzat, garai bateko kolonia espainiarra izan baitzen, eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak lurralde ez autonomoen zerrenda sartu baitzuen; horri buruz edozein zalantza desagerrarazi zuen Nazioarteko Justizia Gorteak 1975ean. Espainia saiatu zen arren lurraldearen administrazioa Maroko eta Mauritaniari eskualdatzen 1975ko azaroko Madrilgo Akordioaren bidez, lurraldeko potentzia administratzaile izaera ezin da eskualdatu beste Estatu batzuetara. Bere erantzukizunak utzi nahi dituen potentzia administratzaile batek bi aukera baino ez ditu: erantzukizun horiek Nazio Batuei eskualdatzea edo lurraldeko herriari aske erabakitzeko aukera ematea<sup>118</sup>. Zentzu horretan, Akordioak *de facto* egoerari soilik eragin zion, Espainiako estatuak potentzia administratzaile *de jure* izaten jarraitu baitzuen.

### Egoera juridiko desberdina eta bereizia

Mendebaldeko Sahara lurralde ez autonomo den momentutik, Estatu kide guztiak behartuta daude Batzar Nagusiaren argibide hauek errespetatzera: “lurralde ez au-

---

114 Nazio Batuak – Batzar Nagusia, 1541 (XV) Ebazpena, Eranskina - IX. printzipioa (1960ko abenduaren 15a).

115 Nazio Batuak – Batzar Nagusia, 35/18 Ebazpena; (1980ko abenduaren 11).

116 Nazio Batuak – Batzar Nagusia, 1803 (XVII) Ebazpena (1962ko abenduaren 14a).

117 *Ikus, adibidez*, Nazio Batuak – Batzar Nagusia, 52/78 Ebazpena; (1997ko abenduaren 10a).

118 New York City Bar, *The Legal Issues Involved in the Western Sahara Dispute: The Principle of Self-Determination and the Legal Claims of Morocco*, 89. or. (2012ko ekaina).

tonomo batek, Nazio Batuen Gutunaren arabera, baldintza juridiko desberdina eta berezia du administratzen duen Estatuarekiko, eta, Gutunari dagokion izaera juridiko desberdin eta bereizi hori existituko da koloniako herriak edo lurralde ez autonomoak aske erabakitzeko eskubidea gauzatu arte<sup>119</sup>.

Aldiz, lurraldearen inbasioaren ostean, Marokok Mendebaldeko Sahararen eskubidezko anexio bat egin du, eta lurraldea txertatu hainbat “hegoaldeko probintziatara”. Errege Dekretu baten bidez, 1976ko abuztuaren 6an, Bojador, Smara eta Aaiungo lurralde sahararrak Marokoko probintzia izendatu ziren<sup>120</sup>. Mauritaniak alde egin zuenean, 1979ko abuztuaren 20an, Saharako lurraldeko hegoaldeko zonaldeak Marokoko probintzia deklaratu ziren, Oued Eddahab (Urrezko ibaia)<sup>121</sup> izenarekin; gerora, zatitu egin zuten, eta horrela sortu zen Auserd probintzia<sup>122</sup>.

Marokok lurralde sahararra formalki anexionatzea nazioarteko zuzenbidearen testuinguruan Mendebaldeko Saharak duen izaera juridiko desberdin eta bereziaren aurka doa. Beraz, lurraldearen izaera juridiko berezia errespetatzen ez duen edozein akordio edo politikak urratu egiten ditu lurralde ez autonomoei aplikatu dakizkiokeen zuzenbide-printzipioak.

### Gainerako herrialdeen erantzukizuna

Aurrez aipaturiko lege-testuinguruak ere obligazioak sortzen ditu Nazio Batuen beste Estatu kide batzuentzat. Lurraldearen autodeterminazioaren eta independentziaren alde borrokatzeko laguntza emateaz gain, gainerako estatuak behartuta daude Saharako herriak natur baldibideekiko duen burujabetza iraunkorra errespetatzera eta ezin dituzte inbertsioak egin lurraldeko egoera koloniala iraunaraziko duenik<sup>123</sup>.

Gainera, Batzar Nagusiak ezarri du mehatxuaren eta indarraren erabileraren bidez eskuratutako lurraldeak ezin direla legezkatzat jo<sup>124</sup>. Obligazio hori oinarri

---

119 Nazio Batuak - Batzar Nagusiak, *Adiskidetasun-harremanei eta estatuen arteko lankidetzari buruzko nazioarteko zuzenbidearen printzipioen gaineko adierazpena*, Nazio Batuen Gutunaren arabera, 2625 (XXV) Ebazpena (1970eko urriaren 25a).

120 Marokoko Erresuma, *Dahir portant loi no.1-76-468, relatif à la division administrative de Royaume* (1976ko abuztuaren 6a); *Bulletin officiel, Textes législatifs et réglementaires* (1976ko abuztuaren 11). Dekretu marokoarrek hainbat herriren izen arabiarren frantseseko transkripzio bat inposatzen dute. Hemen gaztelaniari hurbiltzen zaion transliterazioa erabili da, irakurketa errazteko.

121 Marokoko Erresuma, *Décret No. 2-79-659* (1979ko abuztuaren 20a).

122 Marokoko Erresuma, *Décret No. 2-98-952* (1998ko abenduaren 31). *Ikus, Le Matin*, “Le 14 août 1979, Oued Eddahab réintègre la mère patrie” (2015eko abuztuaren 13a).

123 *Ikus, adibidez*, Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Mendebaldeko Sahararen kasua*, 2983 (XXVII) Ebazpena, 6. paragrafo (1972ko abenduaren 14a).

124 Nazio Batuak - Batzar Nagusiak, *Adiskidetasun-harremanei eta estatuen arteko lankidetzari buruzko nazioarteko zuzenbidearen printzipioen gaineko adierazpena*, Nazio Batuen Gutunaren arabera, 2625 (XXV) Ebazpena (1970eko urriaren 24a).

harturik, munduko estatu bakar batek ere ez du Marokok Mendebaldeko Sahararekiko duen subiranotasuna aitortu<sup>125</sup>.

### Nazioarteko zuzenbide humanitarioa<sup>126</sup>

Mendebaldeko Saharari aplika dakizkiokeen beste arau batzuk, nazioarteko zuzenbide humanitarioarenak bezala, sortzen dira okupatutako lurraldearen estatututik. Mendebaldeko Saharako lurraldeak, hein batean, Marokoko Erresumaren lege kanpoko okupazioa bizi du; baina mehatxu eta indarraren erabilerarekin eskuratutako lurrak dira, alegia, lege kanpoko baldintza batetik eratorritako ekintza da<sup>127</sup>. Mendebaldeko Sahara sekula Marokoko lurraldea izan ez dela ezartzen duen Nazioarteko Justizia Gortearen Iritzi Aholku Emailearen arabera, inbasioaren eta gerra armatuaren bidez Marokok anexionatu zuenean, ekintza hori eskuratze bat izan zen, indarraren bidez egindako eskuratze bat, eta ez berreskuratze bat. Hortaz, Marokok “irabazitako” lurralde guztiak lege kanpoko okupazio baten pareko dira<sup>128</sup>.

Batzar Nagusiak, 1979ko eta 1980ko ebazpenen bidez, adierazi zuen Marokok Mendebaldeko Saharako lurraldean izandako kontrola okupazio bat izan zela<sup>129</sup>. Bestalde, 1980tik, Batzar Nagusiak ez du erabili “okupazio” hitza Marokok Mendebaldeko Saharan egindako kontrola deskribatzeko, eta Marokok ez du onartzen kontrol hori okupaziotzat jotzea. 2016an, Ban Ki Moon orduko Nazio Batuetako idazkari nagusiak “okupazio” hitza erabili zuenean Mendebaldeko Sahararen estatusa deskribatzeko, Marokoren gaitzespena jaso zuen<sup>130</sup>. Horren ondorioz, Marokok MINURSOTIK funtzionarioak kanporatu zituen, eta Ban Ki Moon behartu zuen barkamena eskatzera egindako “akatsarengatik”<sup>131</sup>.

---

125 Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Saharako Mendebaldeko Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2006/249 (2006ko apirilaren 19a) (azalduz “Segurtasun Kontseiluak ezin zituela alderdiak deitu Marokoren burujabetza pean dagoen Mendebaldeko Sahararen autonomia negoziatzera, horrek ekarriko baitzuen Marokok Mendebaldeko Sahararekiko duen burujabetza aitortzea, eta hori ez zen aipatu ere egiten, Nazio Batuetako Estatu kide bakar batek ere ez baitzuen burujabetza hori aitortu”).

126 Txosten honetan ageri diren azterketa-xedeetarako, ardatz hartzen dira okupazio-egoeratan aplika daitezkeen nazioarteko zuzenbide humanitarioaren printzipioak. Horiek Mendebaldeko Saharako egoerari aplikatzea garrantzitsua da aztertzekeo lurraldeko gerra armatuaren lege-inplikazioak 1991ko irailera arte, nazioarteko gatazka armatua izan baitzen. Ikus *Genevako Hitzarmenetako 1. Protokolo Gehigarria*, 1(4) artikulua (1977) (nazioarteko gatazka armatua izateko “herriek dominazio kolonial eta atzerriko okupazioaren aurka eta erregimen arrazisten aurka borrokatzen dute, herriek aske erabakitzeko eskubidea baliatuz”).

127 Batzar Nagusia, 2625 (XXV) Ebazpena.

128 Juan Soroeta Liceran, Juan Miguel Ortega Terol et. al., “Sahara y el derecho internacional,” *Público* (2011ko urtarrilaren 5a); Mundy, *El estatus jurídico del Sáhara Occidental y las leyes de la guerra y la ocupación*.

129 Batzar Nagusia, 34/37 Ebazpena. Batzar Nagusia, 35/19 Ebazpena.

130 Al Jazeera, “UN chief regrets Western Sahara ‘occupation’ comment” (2016ko martxoaren 29a).

131 *Ibidem*.



Nazio Batuen jarrera lotsatiarekin kontraste eginaz, Batasun Afrikarrak garbi adierazi du Mendebaldeko Saharak Marokoren okupazioa jasaten duela<sup>132</sup>. 1969tik, Batasun Afrikarraren Erakundeak Mendebaldeko Sahararen independentziari babesa eman zion, eta, urte horretan bertan, ebazpen bat onartu “Sahara espainiarra deiturikoan hasitako gerraren legitimitatea berresteko”<sup>133</sup>. 1976an eratu ostean, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, 1982an, Batasun Afrikarraren Erakundearen (BAE) sartu zen estatu kide gisa, eta horrek adierazten zuen BAEko kideen erdiak baino gehiagok aitortu zuela SEAD estatu afrikar independente eta burujabe gisa. Ordutik aurrera, BAE aktiboa izan zen erreferendum baten antolakuntza sustatzeko garaian Mendebaldeko Saharak aske erabakitzeko aukera izan dezan<sup>134</sup>. Horrek eragin zuen Maroko BAetik irtetea 1984an<sup>135</sup>. Ordutik, BAE eta horren ondorengoak, Batasun afrikarrak<sup>136</sup>, behin eta berriz adierazi dute Mendebaldeko Saharako egoera okupazioa dela.

Maroko onartu ez arren Mendebaldeko Sahararen zati bat okupatuta dagoela, horrek ez du esan nahi hala ez denik<sup>137</sup>. Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararen lurraldearen zati handi batekiko duen kontrol eraginkorrak adierazten du lurralde horiek okupatuta daudela. 1907ko lurreko guden lege eta ohiturei dagokien Araudiak adierazten du “lurralde bat okupatutzat jotzen dela armada aurkariaren agintariaren pean dagoenean”<sup>138</sup>. Nahiz eta Maroko Araudi horren Estatu kide edo sinatzaile ez izan, Nazioarteko Justizia Gorteak aitortu du araudi horren xedapenak ohiturazko nazioarteko zuzenbidearen parte direla<sup>139</sup>.

Mendebaldeko Sahararen zati baten izatezko okupazioak eskatzen du aplikatzea Hagako araudietan ezarritako arau guztiak, Genevako Laugarren Hitzarmena eta horren 1. Protokolo Gehigarria<sup>140</sup>; Mendebaldeko Saharako okupazioari aplikatzen

---

132 Batasun Afrikarra, *Solemn Declaration on the 50<sup>th</sup> Anniversary of the OAU/AU* (2013ko maiatzaren 30a).

133 Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea, *Report of the fact-finding mission to the Sahrawi Arab Democratic Republic, 24-28 September 2012*, 12. paragr. (2012).

134 Afrikar Batasunerako Erakundea, AHG/Res. 104 (XIX) Ebazpena (1983ko ekaina).

135 Batasun Afrikarra, “Legal opinion on the request of the Kingdom of Morocco’s admission into the AU,” *Office of the Legal Counsel* (2017ko otsailaren 9a).

136 2002ko uztailean, BAE desegin egin zen eta Batasun Afrikarrak eman zion jarraipena.

137 Vaios Koutroulis, “The application of international humanitarian law and international human rights law in situation of prolonged occupation: only a matter of time?” *International Review of the Red Cross* (2012ko martxoa) (adieraziz Mendebaldeko Saharako okupazioa Marokoren eskutik, okupazio luzeen adibideen artean dagoela, nahiz eta okupazio-egoera onartzen duen zerrendako indar okupatzaile bakarra Israel izan).

138 Lurreko Gerrako Legeei eta Ohiturei buruzko Araudia, 42. artikulua (1907ko urriaren 18a).

139 Nazioarteko Justizia Gortea, *Palestinako lurralde okupatuko harresiaren eraikuntzaren ondorio juridikoak*, Iritzi Aholku Emaila, 89. paragr. (2004ko uztailearen 13a).

140 Maroko Genevako Lau Hitzarmenen (1856ko uztailearen 26tik) eta haren Protokolo Gehigarrien (2011ko ekainaren 3a) Estatu kidea da.

zaio eta aplikatzen jarraituko da indar marokorrek lurraldetik atera arte<sup>141</sup> edo estatus aldaketa bat gertatu arte. Genevako Laugarren Hitzarmenaren arabera, Marokok okupatutako lurraldearen zatian bizi diren sahararrak “babestutako pertsonak” dira, beren nazionalitatekoa ez den indar okupatzaile baten eskutan baitaude<sup>142</sup>. Zentzu horretan, Marokok bere eragile guztiek herritar sahararreki-ko egiten dituzten ekintzen erantzukizuna du<sup>143</sup>. Nazioarteko zuzenbide humanitarioak hainbat debeku eta obligazio espezifikoki finkatzen ditu okupazio-egoeran dauden biztanleak babesteko, eta horietako batzuk txosten honetan lantzen dira<sup>144</sup>.

### Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea

Nazioarteko zuzenbide humanitarioa ez da okupazio-egoeratan aplika daitekeen araudi-esparru bakarra. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea ere aplikatzen da pertsona guztiak babesteko, eta, nazioarteko zuzenbide humanitarioa ez bezala, ez da mugatzen gerra- eta okupazio-egoeratarako. Urrutirago iristen denez, giza eskubideen titularrak gizakiak dira, dauden tokian daudela ere, eta beren eskubideak errespetatzera eta bermatzera behartuta dauden Estatuoen *de jure* edo *de facto* jurisdikzioaren pean daude. Babestutako eskubideak Giza Eskubideen Hitzarmen Unibertsaleko printzipio unibertsaletatik sortzen dira, nazioarteko hitzarmenak dira –nagusiki, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena (EZPNH) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena (EESKNH)–, Estatu kide baten kontrolpeko tokietan aplika daitezkeenak, eta gainera, ohiturazko nazioarteko zuzenbidea ere aplikatzen zaie.

Marokoren okupaziopean dagoen Mendebaldeko Saharan, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak nahiz nazioarteko zuzenbide humanitarioak babesten ditu sahararrak. Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak aitortu du bi lege-esparruak osagarriak direla eta ez duela bata bestea baztertzen<sup>145</sup>. Nazioarteko Justizia Gorteak argi eta garbi ezarri du nazioarteko zuzenbide humanitarioa *lex specialis* dela

---

141 Genevako Laugarren Hitzarmena, 6. art., 3. paragr. (1949ko abuztuaren 12a); Genevako Hitzarmenaren Protokolo Gehigarria I, 3(b) art. (1977ko ekainaren 8a). *Ikus ICJ, DRC v. Uganda*, sententzia (2005eko abenduaren 19a), 228, 231, 254-55 or. (Gorteak erabaki zuen Ugandako gobernuak erantzukizuna zuela nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketatik Ugandako lurretatik alde egin zuten data arte).

142 Genevako Laugarren Hitzarmena, 4. art. *Ikus*, Jean Pictet, *Comentario a la IV Convención de Ginebra*, 4. art. (1958). Nahiz eta pertsona batzuek marokoar pasaporteak eskuratu herrialdean sartu eta ateratzeko eskubidea izateko, horrek ez du aldatzen Marokoko pertsona ez nazional izatea.

143 Genevako Laugarren Hitzarmena, 29. art.

144 Txosten honek giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen printzipioen azterketa bat du ardatz, eta, beraz, ez du egin nahi nazioarteko zuzenbide humanitarioaren azterketa xehatu bat.

145 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, 31. ohar nagusia: *Ituneko Estatu Kideei ezarritako betebeharrak juridiko orokorraren izaera*, 11. paragr. (2004ko martxoaren 29a).

giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen aurrean<sup>146</sup>. Arma nuklearren mehatxu edo erabileraren legezkontasunari buruzko 1996ko Iritzi Aholku Emailean, Gorteak ezarri zuen EZPNHren babesak ez direla aplikatzeari uzten gatazka egoera batek eragiten duenean nazioarteko zuzenbide humanitarioa aplikatzea. Gorteak sakonkiago aztertu zuen nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arteko erlazioa 2004ko Iritzi Aholku Emailean, alegia, *Palestinako lurralde okupatuko harresiaren eraikuntzaren ondorio juridikoak*. Hitzarmenen testuak eta hitzarmen horiei dagozkien organoek testu horiei egindako interpretazioak aztertuta, Gorteak ondorioztatu zuen Estatu kide baten okupaziopean bizi direnak estatu horren jurisdikzioari jarraitu behar diotela, nahiz eta haren lurraldean ez bizi<sup>147</sup>.

Saharako herriari dagokionez, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak ezartzen ditu arauak biztanleak bizi diren gunen geografikotan babesteko. Zentzu horretan, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen tresnen oinarriari buruzko azterketa batek okupazioaren ondorioen ikuspegi zabalagoa eskaintzen digu, ez soilik oraindik ere lurralde okupatuan bizi direnentzat, baita harresiaren ekialdean baztertuta, errefuxiatuen kanpamentuetan lekualdatuta eta diasporan erbesteratuta bizi direnentzat ere.

---

146 Nazioarteko Justizia Gortea, *Arma nuklearren kasuak*, Iritzi Aholku Emailea, 25. paragr. (1997ko urtarrilaren 3a).

147 Nazioarteko Justizia Gortea, *Palestinako lurralde okupatuko harresiaren eraikuntzaren ondorio juridikoak*, 111.-12. paragr.

# Barka

ADINA: 35 URTE | BIZILEKUA: AAIUNGO KANPAMENTUA, TINDUF INGURUAN, ALJERIA

**“Mina hura lehertu zenetik, bizitzarik ez banu bezala sentitzen naiz. Ezin dut lan egin nire familia mantentzeko, ez dut nire alaben atzetik korrika egin. Itxaropenari eusten saiatzen naiz, baina ez da erraza”**

**B**ARKAREN HISTORIA KANPAMENTUETAN BIZI ZIREN BERE ADINEKO GAZTEEN historiaren antzekoa da. Bere familiako gizon heldu guztiak –aita eta osabak– Marokoren aurkako gerran borrokatu ziren eta hartan hil ziren. Barka Aaiungo kanpamentuan jaio eta hazi zen, baina Libiara alde egin behar izan zuen hamasei urte bete arte, ikasketak amaitzeko. 18 urterekin, Saharako armadan izena eman zuen, eta bi urtez jardun zuen han, berriz kanpamentuetara itzuli zen arte. *“Kanpamentuetan lan egin nuen zenbaitetan, baina ez beti. Diru apur bat irabazi ahal izateko, nire familiaren ahuntzak zaintzen nituen Tifaritin eta eremu askeko beste zonalde batzuetan”.*

2015an ezkondu zenean, Barkak argi zuen bere familiari lagundu behar ziola. 2016an Fronte Polisarioak kontrolatutako Mendebaldeko Saharara itzuli zen ahuntzak bazkatzeko, eta une horretan bere historiak arrunt izateari utzi zion. *“Auto batean gindoazen, nire kide bat*

gidatzen ari zen, eta, Bir Lehlutik hurbil geundela, leherketa handi bat izan zen. Nik konortea galdu nuen eta hainbat egun geroago berreskuratu nuen, Tindufeko ospitalean. Kontatu zidatenez, egun hartan mina batek eztanda egin zuen, eta leherketa ikusi zuen familia batek beren autoan eramantzen gintuen Tindufera. Esnatu nintzenez, hanka bat falta nuen; medikuek ezin izan zuten hura salbatu eta konortea galduta nengoela moztu zidaten. Beste hankak ere oso itxura txarra zuen, hautsita zegoen, baina ez nien utzi hura ere moztu ziezadaten. Ebakuntza egin zidaten, baina ez zen ondo atera. Urtebete geroago bigarren ebakuntza egin zidaten, eta metalezko makila bat jarri zidaten, ‘kanpo-finkagailu’ moduko bat”. Barka azterketa baten zain dago oraindik, bigarren ebakuntza horren emaitza arrakastatsua izan ote den jakiteko.

Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko gerraren garaiko pertsonen aurkako mina haren leherketak ondorio larriak ekarri dizkio Barkari. “Nire bizitzak okerrera egin du nabarmen. Nire familiari laguntza ekonomikoa eskaintzeko lan egitea gustatuko litzaidake, baina ezin dut ezer egin. Gogorra da, ez baitugu beste diru-iturririk. gertaerak nire familiari ere eragin dio, nire emazteari eta alabei, ni egoera honetan ikusi eta lagundu egin behar nautelako. Ezin naiz zutik jarri, ezin naiz ibili, eta nire gorputza ez da normala. Gutxitan irteten naiz etxetik. Indargabe sentitzen naiz, ezin dudalako etxean lan egin, ezta apurtzen diren gauzak konpondu edo sabaia eta hormak sendotu ere. Ebakuntza ere ez da batere erraza izan. Bigarren ebakuntza honen ondoren, oraindik ez dakigu makuluen laguntzaz ibili ahalko naizen”. Barkak etorkizunean mugikortasun apur bat berreskuratuko duen itxaropena dauka. “Egunen batean, zutitza lortzen dudanean, edozer egingo dut nire familiagatik eta gure etorkizunagatik”.

Bitartean, Barkak Mendebaldeko Saharako eremu horretatik bidaiatzen duten ezagun guztiei arriskuaz ohartarazten die. “Haiei eta haien familiei kontuz ibiltzeko esaten diet, handik ez ibiltzeko ezinbestekoa ez bada. Eremu hori minaz josita dagoela azaltzen diet”.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

OSASUN-ARRETARAKO ESKUBIDEA, LAN-ESKUBIDEA, MUGIMENDU-ASKATASUNA, BIZI-MAILA EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIOARAKO ESKUBIDEA.

## Sahararren giza eskubideen behaketa

Giza eskubideen babeserako funtsezko elementu bat da behaketa edo zaintza, horrek neurtzen baitu gizakiek zenbateraino baliatzen dituzten eskubideak eta estatu erantzuleek zenbateraino betetzen duten eskubide horiek errespetatzeko eta bermatzeko obligazioa. Sahararren giza eskubideen behaketari dagokionez, herri sahararraren esperientziak arakatu, dokumentatu eta horiei erantzuna eman nahi izan dioten ekimenen aurrekari ugari daude, sakontasun, inpartzialtasun eta arrakasta maila askotarikoarekin. Hala ere, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren azken txostenaren arabera, informazio-hutsune bat dago oraindik ere Mendebaldeko Sahararen giza eskubideen egoerari buruzkoa<sup>148</sup>.

## Nazio Batuen mekanismoak

### Mendebaldeko Sahararen Erreferenduma Antolatzeke Nazio Batuen misioa (MINURSO)

Nahi duenean Saharako herritarrengana joan daitekeen Nazio Batuen erakunde bakarra MINURSO da; 1991n sortu zenetik, Mendebaldeko Saharan eta errefuxiatuen kanpamentuetatik hurbil egon izan da, erreferendumaren koordinazioaren mandatu aurrera eramateko. Prozesu hori politikoki gelditu egin den neurrian, MINURSOREN jarduerak mugatu dira su-etena behatzera eta “*statu quo*” asaldatzen duten edo asalda dezaketen jarduerak salatzeraz. Baina MINURSOK ez du giza eskubideen egoera behatzen, ez baitago horri buruzko mandatu esplizitu bat. Horrek bereizten du MINURSO bakeari eusteko Nazio Batuek egindako beste hainbeste misioetatik, azken horiek bai baitaukate giza eskubideen osagaien bat beren mandatuetan<sup>149</sup>.

Segurtasun Kontseiluaren aurrean behin eta berriz ahalegin handiak egin dira, laurogeita hamarreko hamarkadatik hasita<sup>150</sup>, MINURSOREN mandatu zabaltzeko, baina alferrik izan dira, nahiz eta horietako batzuetan Estatu Batuen<sup>151</sup> nahiz Amnesty International bezalako giza eskubideen nazioarteko mugimenduen babesa eduki<sup>152</sup>. 2013ko apirilean, MINURSOREN agintaldiaren berrikuntzaren ebazpenari buruzko eztabaidaren markoan, Estatu Batuek, Segurtasun kontseiluaren kide iraukorki gisa, proposatu zuten misioaren mandatuaren barruan giza eskubideak behatzeko meka-

---

148 Nazio Batuek - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/2018/899 (2018ko urriaren 3a).

149 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Mandatari Gorenaren bulegoa, “Human Rights Components of UN Peace Missions.”

150 Santiago Gimeno, “Situación de los derechos civiles y políticos en el Sáhara Occidental: de 1999 a la actualidad,” *Bakerako Ikerketako Mintegia Fundazioa*, 15. or. (2013ko maiatza).

151 Reuters, “France won’t block U.S. proposal on Western Sahara: envoys” (2013ko apirilaren 18a).

152 Amnesty International, “Morocco/Western Sahara: UN Must Monitor Human Rights in Western Sahara and Sahrawi Refugee Camps” (2018ko urriaren 10a).



nismo bat sartzea.<sup>153</sup> Baina azkenean, gai horri buruzko adostasunik ez zen eskuratu, eta testua ezabatu egin zen. Bere aldetik, Aljeria MINURSOREN agintaldia zabaltzearen alde azaldu da, adieraziz aurrerapauso garrantzitsua izango litzatekeela bere lurraldean dauden kanpamentuetako giza eskubideen zaintza bermatzeko.<sup>154</sup> Baina Maroko misioan giza eskubideen kompetentziak izendatzearen aurka azaldu da<sup>155</sup>. Gaur egun ere, MINURSOREN mandatuak jarraitzen du giza eskubideak barne hartu gabe.

Segurtasun Kontseiluak giza eskubideak behatzeko MINURSORI mandatu esplizitu bat eman arte, idazkari nagusiak aitortu duenaren arabera, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako mandatarari gorenaren bulegoak du giza eskubideei buruzko kompetentzia<sup>156</sup>. Baina agentzia horrek “gainbegiratzeko gaitasun mugatua” du, soilik “lau ebaluazio-misio aurrera eramán baititu Mendebaldeko Saharan, 2006an, 2014an eta 2015ean”<sup>157</sup>.

---

153 Reuters, “U.S. proposes U.N. Western Sahara rights monitor; Morocco warns of ‘missteps’” (2013ko apirilaren 17a).

154 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Mandatarari Gorenaren bulegoa, *Meeting Summary: Human Rights Committee considers the report of Algeria* (2018ko uztailearen 5a).

155 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Mandatarari Gorenaren bulegoa, *Human Rights Committee Considers the Report of Morocco* (2016ko urriaren 25a).

156 Nazio Batuek - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Saharako Mendebaldeko Egoerari buruz egindako Txostena, S/2005/648*, 29. paragr. (2005eko urriaren 13a).

157 Nazio Batuek - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, (2018ko urriaren 3a).

## Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Mandatari Gorena (NBGEMG)

Mendebaldeko Saharako giza eskubideen egoerari buruzko informazioa jasotzeko NBGEMGk egindako lau misioetatik, ez da txosten bakar bat ere argitaratu. Lehen misioa, 2006ko maiatzekoa, herri altxamendu batek eragin zuen, hain zuzen, aurreko urtean, Aaiun hiri okupatua hasitako altxamenduak<sup>158</sup>. Misioaren ostean NBGEMGk sortutako txostena soilik Aljeria, Maroko eta Fronte POLISARIOAK ikusi zuten; idatzi horretan ondorioztatzen da Marokok administratzen duen Mendebaldeko Saharan “urratu egiten dela autodeterminaziorako eskubidea, prentsari buruzko iritzia adierazteko eskubidea, autodeterminaziorako eskubidea defendatzen duten elkarteak sortzeko eskubidea eta baita iritziak ezagutzera emateko asanblada deitzeko eskubidea ere<sup>159</sup>. Kanpamentuetara egindako bisitei dagokionez, NBGEMGk ondorioztatu zuen “ezinezkoa izan zela eskuratzea errefuxiatu-kanpamentuetako giza eskubideen errespetuarekiko benetan ase dauden jakiteko ondorio luze eta ongi argudiatuak eskuratzeko nahikoa informazio”<sup>160</sup>.

2014an, NBGEMGren talde tekniko batek Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuak bisitatu zituen lurraldeko giza eskubideen egoera behatzeko, orduko Marokorako Mandatari Gorenaren bisitaren aurretik. Bisita hari buruz NBGEMGk argitaratutako informazio bakarrak adierazten du taldeak jasotako informazioa jakinarazi zitzaiola Mandatari Gorenari, eta azken horrek Marokoko agintariei helarazi ziela<sup>161</sup>. Hala ere, Nazio Batuen informazio konfidentzialak, urte batzuk beranduago prentsak filtratutakoak, adierazten du 2013an Marokok 250.000 dolar estatubatuarretako ekarpen zuzena egin ziola NBGEMGri, esplizituki adieraziz, Mandatari Gorenak “arreta handiagoa” eskaini ziezaiola Marokoren interesei Mendebaldeko Saharari dagokionez<sup>162</sup>.

2015eko apirilean, NBGEMGk misio tekniko bat egin zuen Aaiun eta Dajla hirietan, Marokoren kontrolpeko Mendebaldeko Sahararen zatian. NBGEMGren jarduerak laburbilduz, idazkari nagusiak azpimarratu zuen “ordezkaritzari nahi zuen solaskiderek biltzeko aukera eman zitzaion arren, Marokoko gobernuarekin adostu

---

158 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Mandatari Gorenaren bulegoa, *Mendebaldeko Saharako eta Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetako Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Mandatari Gorenaren Bulegoko Misioaren Txostena* (OHCHR) - 2006ko maiatzaren 15/23a eta ekainaren 19a (2006ko irailaren 8a) (AFAPREDESAK argitaratua, Herriaren eskubideen urraketan iraupena, eranskina 191. or. (2008)).

159 *Ibidem*, 53. paragrafoa.

160 *Ibidem*, 54. paragrafoa.

161 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Mandatari Gorenaren bulegoa, *Opening remarks by UN High Commissioner for Human Rights Navi Pillay at a press conference in Rabat, Morocco* (2014ko maiatzaren 29a).

162 Joe Sandler Clarke eta Katherine Purvis, “Leaked cables: Morocco lobbied UN to turn blind eye to Western Sahara ‘House of Cards’ operation,” *The Guardian* (2015eko ekainaren 17a).



bezala, gizarte zibilarekin eta biktimekin egindako topaketak ikuskatu egin ziren, eta errepresalia-kasu batzuei buruzko informazio eman zuten<sup>163</sup>.

2015eko uztaila eta abuztua bitartean, NBGEMGk Aljeriako Tinduf hiriko errefuxiatu-kanpamentuetara misio tekniko bat bidali zuen, eta, idazkari nagusiak laburtutakoaren arabera, “ordezkaritza nahi beste solaskiderekin bildu zitekeen... inongo mugarik gabe”<sup>164</sup>. Misio horretan oinarriturik, esan zen “eskura zegoen informazioak ez zuela Fronte Polisarioaren eskutik giza eskubideen urratze- eta abusu-patroirik azaldu. Egoera humanitario penagarriaren erruz, eta horri gehituta bermaren men-debaldean dagoen Mendebaldeko Sahararen natur aberastasun eta baliabideak esku-za ezin ditzaketenez, Mendebaldeko Saharako errefuxiatu-kanpamentuetako biztanleek ezin dute eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak gozatu”<sup>165</sup>.

Giza eskubideei dagokionez Nazio Batuen sistemak eskumena izan arren, NBGEMG ez da barrera politikoak gainditzeko gai izan, modu eraginkorrean behaketa-lana egin ahal izateko. Lau bisita motz ez dira nahikoak Saharako herritarren giza eskubideen egoera sakon zein den jakiteko, eta misioei buruzko txostenik nahiz beste dokumenturik ez argitaratzeak arakaturako informazioaren erabilera asko mugatzen du.

### Giza Eskubideen Kontseilua<sup>166</sup>

2006an, Giza Eskubideen Kontseilua finkatu zenetik, herritar sahararren egoera aintzat hartu da okupaturako lurraldeetan, askotan, Aldizkako Azterketa Unibertsalaren (AAU) markoan. Mekanismo honekin ebaluatzen da ea Nazio Batuen Estatu kideek betetzen dituzten giza eskubideak; lau urte eta erditik behin egiten da. Azterketa horrek oinarrian du estatuak berak egindako txostena adieraziz zenbateraino betetzen duen; azken batean, estatu horri buruz Nazio Batuek egindako informazio bilduma bat eta interesa duten aktoreek baita gizarte zibilaren ordezkariak ere aurkeztutako informazioaren laburpena da<sup>167</sup>. Informazio hori guztia aintzat hartu ostean eta estatu zehatz

---

163 Nazio Batuak – Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Saharako Mendebaldeko Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2016/355, 66. paragr. (2016ko apirilaren 19a).

164 Idazkari nagusiak esandakoaren arabera, baziren hainbat solaskide kritiko Fronte Polisarioarekin, baita ACNURen misio teknikoarengatik kontsultatutako pertsonetan ere. *Ibidem*, 76. paragr.

165 *Ibidem*, 77. paragr.

166 2006an Giza Eskubideen Kontseilua sortu aurretik, Giza Eskubideen Batzordea zegoen, eta horrek onartzen zituen Mendebaldeko Saharari buruzko urteko ebazpenak 1980tik 2004era. *Ikus, adibidez*, Giza Eskubideen Batzordea, 4 (XXXVI) *Ebazpena* (1980) (adieraziz Batzordea “oso kezkatuta dagoela Mendebaldeko Saharako Marokoren okupazioarengatik eta baita okupazio horrek eragiten dituen giza eskubideen eta askatasun funtsezkoen urraketengatik”); Giza Eskubideen Batzordea, 12 (XXXVII) *Ebazpena* (1982) (deitoratuz “Marokok Mendebaldeko Sahararen eragindako okupazio iraunkorrek ez diela lurralde horretako herritarrei aske erabakitzen eta independentziarako eta beste oinarritzko giza eskubideez gozatzen uzten);

167 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Mandatari Gorenaren bulegoa, *Guía práctica para la sociedad civil: Examen Periódico Universal*.

horren eta gainerako Estatu kideen elkarrizketa interaktibo baten ondoren, Lantalde batek txosten bat egingo du, eta bertan jaso aztertutako estaturako gomendio zehatzak.

Marokoren AAUren berrikuspenaren lehen zikloan, 2008an, ez zen Mendebaldeko Saharari buruzko aipamen bakar ere egin ez La Taldearen txostenean eta ezta AAUren emaitzetan ere; hala ere, Kontseiluak Nazio Batuen nahiz beste solaskide bereizleen informazio-bilduma jaso zuen, eta horietan zehazki lantzen dira herritar sahararrekin erlazionatutako gaiak. “Okupazio” hitza erabili gabe edo lurralde ez autonomoaren estatutua aitortu gabe, Kontseiluari jakinarazi zitzaion hitzarmeneko organoetako batekiko kezka “Mendebaldeko Saharako herriak aske erabakitzeko auzian aurrerapausorik egin ez zelako”. “Mendebaldeko Saharan giza eskubideak defendatzen lan egiten dutenekiko kezka handia azaldu zuten, bereziki, biltzeko eta elkarteak osatzeko askatasuna murrizteari dagokionez”<sup>168</sup>. Solaskideetako batzuk informazio aurkeztu zioten Kontseiluari okupatutako Saharako herritarrek jasaten dituzten giza eskubideen urraketa ugarietaz buruz: desagertzeraz behartu eta kasu horiek ez konpontzea, kanpora libre bidaiatzeko trabak, giza eskubideen defendatzaileei jazarpenak, pertsonen kontrako minen arriskua, derrigorrez finkatzea eta hiritartzea, migrazio marokoarra lurralde sahararrera promozionatu eta sahararrek administrazioan lan egitea baldintzatzen dituzten jardunak<sup>169</sup>.

Marokoren berrikuspenaren bigarren zikloan, 2012an egindakoan, Lantaldearen txostenak jaso zituen honako kezka hauek: Mendebaldeko Saharan adierazpenarako, elkartzeko eta batzartzeko askatasuna mugatua da; kazetari eta ikasleak atxilotzen dituzte eta protestatan atxilotutako sahararrak epaiketarik gabe denbora luzean preso edukitzen dituzte, eta, oro har, ez da ona giza eskubideen egoera Mendebaldeko Saharako lurralde ez autonomoan<sup>170</sup>. Txostenak honako gomendio hau egiten dio Marokori: “neurriak hartzea giza eskubideen defendatzaileak babesteko, bereziki Mendebaldeko Saharan, erasoan, errepresioaren, atxilotzeen eta askatasun murrizketen aurrean, besteak beste, esfera horietan lan egiten duten elkarteak ofizialki egiaztatuz” eta “neurriak hartzea Mendebaldeko Saharan giza eskubideak behar bezala babesteko dituztela bermatzeko, agertzen ari baitira derrigorrezko desagertzeen, torturen eta tratu txarren salaketak eta askatasun murrizketak adierazpenari, elkartzeari eta biltzeari dagokionez Marokoko segurtasun

---

168 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua, Giza Eskubideen Aldeko Mandatari Gorenak prestatutako bilduma: Maroko, A/HRC/WG.6/1/MAR/2, 41.-43. paragr. (2008ko martxoaren 31).

169 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua, *Laburpena (aldizkako azterketa unibertsalerako 28 solaskidek aurkeztutako komunikazioen)*: Maroko, A/HRC/WG.6/1/MAR/3 (2008ko martxoaren 11).

170 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua, *Lantaldeak Aldizkako Azterketa Unibertsalari buruz egindako Txostena*: Maroko, A/HRC/21/3 (2012ko uztailaren 6a).

indarren aldetik<sup>171</sup>. Hala ere, txostenak adierazten du Marokok ukatu egin zuela gomendio hau: “MINURSON giza eskubideen osagai iraunkor bat txertatzea”<sup>172</sup>.

Urte hartan, Nazio Batuek egindako informazio-bildumak azpimarratu zuen Mendebaldeko Sahararen aske erabakitze eskubidea eta kezkatu zen giza eskubideen defendatzaile eta aktibista sahararrek jarduerak gauzatzeko trabak zituztelako eta tratuan torturak edo tratu txarrek jaso zituztelako Marokok egindako segurtasun-operazio batean, Mendebaldeko Saharan<sup>173</sup>. Bestalde, Mendebaldeko Saharari buruzko informazioa aurkeztu zuten solaskideek aipatu zituzten Mendebaldeko Saharako herritar sahararren protesta masibo eta jarraituak; bizitza sozioekonomikoaren baldintza zailak eta horri kontrajarriak Marokok egindako arpilatzeak lurraldeko natur baliabideei; marokoarrei Mendebaldeko Saharan eskainitako lan-pizgarriak eta lurraldean egoitza iraunkorra izateko programak; langabezia-tasa altuak Mendebaldeko Saharan Marokon dituzten tasekin alderatuz, besteak beste<sup>174</sup>.

Marokoren berrikuspen-zikloetan hirugarrena eta berriena, AAUren markoan, 2017an egin zen. Lantaldeak ziklo horretan egindako txostenean adierazten da, prozesuan zehar, Marokok informazioa aurkeztu zuela “Marokoko Saharan giza eskubideen egoera hobetzeko ekimenei buruz, bereziki, hegoaldeko probintzien garapenerako eredu berria, erregionalizazio aurreratua eta erakunde nazionalen funtzio eraginkorra”<sup>175</sup>. Mendebaldeko Sahararen karakterizazio hau lurralde ez autonomo gisa duen estatusarekin bat etorri ez arren, Lantaldeak ez zuen aipatu ere egin lurraldearen okupazio-egoera edo aplikatu daitekeen deskolonizazio-markoa. Horren ordez, txostenean adierazitako gomendioetan saharar kultura babesteko esaten da baina Marokoko identitate nazionalaren parte izanda eta, berdintasun-baldintzatan, Saharako herritarrek gizarte- eta ekonomia-zerbitzuak eskuratu behar dituztela<sup>176</sup>. Nazio Batuen informazio-bildumak kezka adierazten du Marokoko kartzelatan eta saharar lurraldean atxilotutako sahararren egoeraz, Mendebaldeko Sahararen independentziaren aldeko manifestazioetan gehiegizko indarra erabiltzen delako, hezkuntzarako dauzkaten zailtasunengatik, natur baliabideak eskuratzeko debekuekengatik eta lurraldean aske mugitzeko minek dakartzaten arriskuarengatik, besteak beste<sup>177</sup>. Mendebaldeko Saharari buruzko informazioa eman

---

171 *Ibidem*, 130.3. eta 130.12. paragr.

172 *Ibidem*, 132. paragr.

173 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua, Giza Eskubideen Aldeko Mandatari Gorenak prestatutako bilduma: Maroko, A/HRC/WG.6/1/MAR/2, 43.-46. paragr.

174 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua, Laburpena (aldizkako azterketa unibertsalerako 28 solaskidek aurkeztutako komunikazioena): Maroko, A/HRC/WG.6/13/MAR/3 (2012ko martxoaren 9a).

175 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, Lantaldeak Aldizkako Azterketa Unibertsalari buruz egindako Txostena: Maroko, A/HRC/36/6 (2017ko uztailaren 13a) [sic].

176 *Ibidem*.

177 Batzar Nagusia, Giza Eskubideen Aldeko Mandatari Gorenak prestatutako bilduma: Maroko.

zuten solaskideek azpimarratu zuten fosa komunak bazirela eta erantzuleekiko ikerketa eta ekintza judizialik ez, oztopo arbitrarioak erakunde sahararrak eta beren jarduerak erregistratzerakoan, mediku espezializatu gutxi Mendebaldeko Saharako hiri gehiengatan, identitate sahararra adierazteko mugak, eta beste asko<sup>178</sup>.

Nahiz eta Giza Eskubideen Kontseiluak, Marokoren AAU prozesuaren bidez, informazio garrantzitsua bildu okupatutako lurraldeetan bizi diren biztanleen egoerari buruz, mekanismoa ahula da modu eraginkorrean eskubide horien egoera zaintzeko eta aldeko aldaketak sustatzeko. Alde batetik, AAUK herritar sahararren egoera lantzen du herritar marokoarren luzapen bat balira bezala, aintzat hartu gabe okupazioaren ostean herritar sahararrek bizi duten egoera berezia. Bestetik, AAU noizbehinkakoa da eta politizatua dago, eta horrek ez du uzten giza eskubideen egoeraren benetako berrikuspen bat egiten eta agertzen diren urraketak konpontzeko gomendio egokiak ematen. Gainera, Kontseiluak egoerari ez dionez okupazio deitzen, horrek aukera eman dio Marokori AAU erabiltzeko plataforma gisa legitimatzen saiatzeko Mendebaldeko Sahararen anexioa.

AAUK balio izan du informazioa biltzeko Aljerian, Tindufeko kanpamentuetan bizi diren sahararren egoerari buruz. Aljeriaren berrikuspenaren lehen zikloan, Nazio Batuen bildumak gomendio bat adierazi zuen “Estatuak neurri guztiak har ditzan babes eta arreta erabatekoa ziurtatzeko eta baita osasun-, gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak eduki ditzaten Mendebaldeko Saharako neska-mutil errefuxiatu guztiak”<sup>179</sup>.

Dena den, kanpamentuetan bizi direnen egoera oso mugatua dela erakutsi du Aljeriako AAUren berrikuspenak. Hori horrela da Aljeriaren arabera errefuxiatu-kanpamentuen zonaldea Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoarekin (SEAD) adostutako administrazioan dagoelako. SEAD aitortuta ez dagoenez Nazio Batuetako Estatu kide gisa, ezin daiteke AAU prozesurik egon bere jurisdikziopean daudenen eskubideak behatzeko.

### **Prozedura berezietarako bisitak<sup>180</sup>**

Nazio Batuen Gutunak prozedura berezi batzuen oinarria finkatzen du, formalki Giza Eskubideen Kontseiluarekiko menpekoak direnak; hainbat errelatore eta

---

178 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, Alderdi interesdunek Marokori buruz egindako komunikazioen laburpena, A/HRC/WG.6/27/MAR/3 (2017ko otsailaren 20a).

179 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, Giza Eskubideen Aldeko Mandatari Gorenak prestatutako bilduma: Aljeria, A/HRC/WG.6/1/DZA/2 (2008ko martxoaren 26a).

180 Hemen laburtutako bisitez gain, 2013ko ekainean, orduko pertsonen salerosketari (baina bereziki emakume eta haurren salerosketari) buruzko errelatore bereziak Dajla hiri okupatua bisitatu zuen; Marokora egindako bisitaren markoan. Hala ere, mandatuaren gaia dela eta, ez zuen landu ez aipatu Saharako herritarrekin erlazionaturiko gairik. Ikus Nazio Batuak - Batzar Nagusia, errelatore bereziak pertsonen eta, batez ere, emakumeen zein umeen salerosketari buruz egindako txostena, Joy Ngozi Ezeilo - Marokorako bisita, A/HRC/26/37/Add.3 (2014ko apirilaren 1a).

adituen batzordeak dira, eta giza eskubideak zaintzen dituzte. Mandatuetao titular diren horietako askok sahararren eskubideen egoera aztertu dute okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldera bisitak eginaz.

Nazio Batuen prozedura berezi baten lehen bisita lurralde okupatura 2011ko irailan izan zen; orduko kultur eskubidetako Aditu Independentetako Dajla hiri okupatua bisitatu zuenean, Marokora egindako bisita batean<sup>181</sup>. Idazkari nagusiaren ekarpenaren arabera, errelatoreak “gomendatu zuen Mendebaldeko Saharako herritarren kultur eskubideak mugatzen zituzten neurriak lehenbailehen kentzea eta jakinarazi zuen hainbat sahararrek ezin izan ziotela jarri beren semeei izen hasandarrak”<sup>182</sup>.

2012ko irailean, tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarri buruzko orduko errelatore bereziak Aaiun bisitatu zuen; hori ere Marokora egindako bisita batean<sup>183</sup>. Jakin zuen aitorpenak eskuratzeko torturak eta tratu txarrak erabili zirela eta manifestarietako funtzionario eta agente marokoarren gehiegizko indarkeria jasaten zutela; detektatu zuen sahararrak espeziifikoki, nahiz eta eskusiboki ez, bortizkeria horien biktimak zirela<sup>184</sup>. Aaiungo kartzelan, pertsonalki ikusi zituen pilaketa-baldintzak, eta tortura-testigantzak jaso zituen “sexu-bortxaketa, jipoi gogorrak eta hainbat astetako isolamendua, bereziki independentziaren aldeko jardueratan parte hartu duten presoek”<sup>185</sup>. Gainera, orduko errelatorea nahi gabetu zen gizarte zibilarekin egindako bilerak agintari marokoarrek kontrolatu zituztelako. Bisita hura, momentu oro, komunikabideek jarraitzen zuten, horrek beldurrarazte-giroa eragiten zien elkarrizketatutakoei<sup>186</sup>.

Atxilotze Arbitrarioei buruzko Nazio Batuen Lantaldeak bisita bat egin zuen Aaiungo hiri okupatura, 2013ko abenduan, Marokora egindako bisita batean, eta torturari buruzko errelatore bereziaren ondorio oso antzekoak atera zituen<sup>187</sup>. Espetxeetara joan eta Aaiunen atxilotuak elkarrizketatu ostean, Lantaldeak ondorioztatu zuen tortura eta tratu txarrak erabiltzen zirela aitorpenak lortzeko eta manifestarien aurka gehiegizko indarra erabiltzen dutela orden publikoko ofizialek; ikusi zuten hainbat atxilotu errepresalien beldur zirela Lantaldearekin elkarri-

---

181 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua, *Aditu independentetako eskubide kulturalen esparruan egindako txostena*, Farida Shaheed, A/HRC/20/26/Add.2 (2012ko maiatzaren 2a).

182 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Saharako Mendebaldeko Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2012/197, 82. paragr. (2012ko apirilaren 5a).

183 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *errelatore bereziak torturari eta beste tratu edo zigor krudel, gizagabe edo degradagarri batzuei buruz egindako txostena*, Juan E. Méndez - Marokorako misioa, A/HRC/22/53/Add.2 (2013ko apirilaren 30a).

184 *Ibidem*, 62. paragr.

185 *Ibidem*, 66. paragr.

186 *Ibidem*, 85. paragr.

187 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua (Atxiloketa Arbitrarioari buruzko Lantaldea), *Txostena: Marokorako misioa*, A/HRC/27/48/Add.5 (2014ko abuztuaren 4a).

zketan aritzeagatik<sup>188</sup>. Gainera, taldeak adierazi zuen “pena izan zela gizarte zibila-  
rekin izandako elkarriketak poliziarengatik kontrolatuak izatea”<sup>189</sup>.

Elikadura-eskubideari buruzko errelatore bereziak Dajla hiri okupatua bisita-  
tu zuen 2015eko urrian, Marokorako bisita batean. Hala ere, bisita horren ostean  
egindako txostenean, ez zuen esplizituki hitz egin herritar sahararrei buruz eta  
elikadurak eskuratzeko bizi duten egoeraz. Bermatu nahi zuen lurraldeko herrita-  
rrak onuradun izango zirela nekazaritza eta arrantzaren sektoreko egitasmoetan,  
baieztatuz “hazkuntza ekonomikoak ez diela denei onurarik ekartzen”<sup>190</sup>.

2016ko urtarrilean, giza eskubide eta nazioarteko solidaritateari buruzko Adi-  
tu Independentek bisita egin zuen Dajla hiri okupatura<sup>191</sup>. Dena den, ez zuen ezer  
esan Saharako herritarrei buruz edo hango giza eskubideen egoerari buruz.

Prozedura berezien bidez Mendebaldeko Saharako lurraldera egiten diren bisitak  
informazio-iturri garrantzitsuak izan arren, mandatuen titularren lana erabat mug-  
atua dago, Marokoren baimena behar baitute zenbait behaketa-jarduera egiteko eta  
eskubideen urraketak ustez jasan dituzten biktimgana heltzeko. Lurralde ez autono-  
moan jarduerak egiteko independentzia *de facto* gabe, prozedura bereziek informazio  
mugatua eta partziala soilik eskuratzeko dute lurraldeko errealitateari buruz.

Bestalde, Nazio Batuen prozedura berezi bakar batek ere ez du Aljeriako Tinduf hi-  
riko errefuxiatu-kanpamentuetara bisitarik egin, nahiz eta, 2012ko irailean, Fronte  
POLISARIOAK adierazi prest zegoela Nazio Batuen giza eskubideen organismoekin  
lankidetzan aritzeko<sup>192</sup>. Modu berean, prozedura berezi bakar batek ere ez du bisitatu  
Fronte POLISARIOAREN kontrolpean dagoen Mendebaldeko Sahararen lurraldea.

### **Bakarkako komunikazioak prozedura eta organo eskudunen bidez**

Lurraldera egindako bisitek giza eskubideen egoerari buruzko informazio  
orokortua pilatzeko aukera eskaintzen duten bitartean, bakarkako komunikazioek  
aukera eskaintzen die prozedurei estatu bateko agintariekin komunikatzeko, giza  
eskubideei buruzko arazo zehatz bat lantzeko.

---

188 *Ibidem*, 63. paragr.

189 *Ibidem*, 67. paragr.

190 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Report of the Special Rapporteur on the Right to Food on her Mission to Morocco*, A/HRC/31/51/Add.2, 56-60 paragr. (2016ko otsailaren 12a).

191 Nazio Batuak - Batzar Nagusiak, *Report of the Independent Expert on human rights and international solidarity on her mission to Morocco*, A/HRC/32/43/Add.1 (2016ko apirilaren 27a).

192 Nazio Batuak - Segurutasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Saharako Mendebaldeko Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2013/220, 96. paragr. (2013ko apirilaren 8a).

Atxilotze Arbitrarioei buruzko Lantaldeak preso sahararren kasuei buruzko erabakiak igorri ditu. 2013ko maiatzean, Lantaldea Marokoko gobernuarekin harremanetan jarri zen Mohamed Dihaniren kasuarengatik; izan ere, orduan 26 urte zituen saharar gaztea 2010eko apirilean atxilotu zuten kaleko jantzita zihoazen agente marokoarrek Aaiungo kale batean<sup>193</sup>. Dihani sei hilabetetan atxilotuta egon zen prozesu judizialik gabe eta familiakoei non zegoen jakinarazi gabe. Azkenik, tortura bidez lortutako aitorten bat froga bakartzat edukita, akusatu eta kondenatu egin zuten helburu terroristekin legez kontrako harremana edukitzeagatik, eta hamar urteko espetxe-zigorra jaso zuen; sententzia errekurritu eta sei urtetara murriztu zuten. Marokoko estatuaren erantzuna aztertu ostean, Lantaldeak 2013ko abuztuaren 27an erabakia argitaratu zuen, eta adierazi zuen atxilotetaren eta kondenaren baldintzak nazioarteko zuzenbidearen kontrakoak direla eta atxilotze arbitrario bat izan zela<sup>194</sup>.

Lantaldeak berrikusitako bigarren kasua Mohamed Al-Bambary aktibistarena da; saharar komunikabideetan aritzen zen –Equipe Media– eta giza eskubideen defendatzailea zen. 2015eko abuztuan atxilotu zuten bere kabuz Dajla hiriko polizia-etxera joan zenean nortasun agiria berritzera<sup>195</sup>. Al-Bambary inkomunikazio-erregimenean giltzapetu zuten; abokatu batekin hitz egiteko eskubidea ukatu zioten, eta jipoitu egin zuten aitortzeko eta bere lanari buruzko informazioa emateko; torturapean dokumentu ugari sinatzera behartu zuten. Lantaldeak 2018ko apirilaren 25ean igorri zuen erabakia, nahiz eta Marokoko gobernuak baiezkoa erantzun komunikazioari, kasuak adierazten zuela atxilotze arbitrario bat izan zela, nazioarteko zuzenbideak bermatzen duen adierazpen-eskubidea baliatzeagatik atxilotu zutelako, epaiketa inpartzial bat urraketa larria delako eta diskriminatzailea izan zelako<sup>196</sup>.

Lantaldeak landutako hirugarren kasua Mbarek Daoudi aktibista sahararra da; Maroko hegoaldean bizi zen; 2013ko irailean atxilotu zuten polizia bere etxera indarrez sartu zenean; bera eta bere bi semeak atxilotu eta torturatu zituzten; ondoren espetxeratu egin zuten<sup>197</sup>. Gorte militar eta zibiletan prozesu penalak askotan atzeratu ostean eta abokatu batengana joateko aukerarik gabe, azkenik kondena bat jaso zuen, 2017ko azaroan jakinarazitakoa, guztira bost urte eta sei hilabeteko espetxe-zigorra. Lantaldeak, 2018ko abuztuaren 24ko erabakian, adierazi zuen Daoudiren atxilotzea arbitrarioa izan zela, ez zuelako lege-oinarririk, atxilot-

---

193 Nazio Batuak - Batzar Nagusia (Giza Eskubideen Kontseilua), *Atxiloteta Arbitrarioari buruzko Lantaldeak onartutako iritziak*, re: Mohamed Dihani (No. 19/2013 - Maroko), A/HRC/WGAD/2013/19 (2014ko urtarrilaren 14a).

194 *Ibidem*, 35. paragrafoa.

195 Nazio Batuak - Batzar Nagusia (Giza Eskubideen Kontseilua), *Atxiloteta Arbitrarioari buruzko Lantaldeak onartutako iritziak*, re: Mohamed Al-Bambary (No. 31/2018 - Maroko), A/HRC/WGAD/2018/31 (2018ko irailaren 28a).

196 *Ibidem*, 46-51. paragrafoa.

197 Nazio Batuak - Batzar Nagusia (Giza Eskubideen Kontseilua), *Atxiloteta Arbitrarioari buruzko Lantaldeak onartutako iritziak*, re: Mbarek Daoudi (No. 60/2018 - Maroko), A/HRC/WGAD/2018/60 (2018ko azaroaren 15a).

zeko arrazoia bere oinarritzko eskubideak baliatzea baino ez zelako izan, epaiketa inpartzial batek baldintza-urraketa larria dakarrelako eta diskriminatzailea izan zelako<sup>198</sup>.

Kasu horietako bakoitza aztertu ostean, Lantaldeak hainbat demanda igorri zituen askatasun urraketari buruzko legez kontrako egoera konpontzeko: preso horiek askatzea, eskubide-urraketa konpentsatzea eta ikerketa sakon eta independente bat egitea azalpena emateko legez kontrako atxilotzeari<sup>199</sup>.

Bakarkako kekek aztertzen dituen Nazio Batuen beste organo bat Torturaren aurkako Batzordea da. Komunikazio zehatzak aztertzen ditu Torturaren aurkako Hitzarmeneko urraketak edo beste tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarriak salatzen, hain zuzen, eskumen hori zehazki onartu duten Estatu kideen aurka jasotakoak<sup>200</sup>.

2016ko azaroan, Nazio Batuen Torturen aurkako Batzordeak argitaratu zuen Naama Asfariaren kasuan<sup>201</sup> hartutako erabakia. Saharako preso politikoko horrek keka bat jarri zion Batzordeari bakarkako komunikazioen markoan<sup>202</sup>. Naama Asfari aktibista sahararra Marokoko indarrek atxilotu zuten Gdim Izik kanpamentua desartikulatu zutenean; Batzordeari igorritako komunikazioan alegatu zuen torturak eta giza eskubideen beste urraketa batzuk jasan zituela; salatu zuen, modu berean, Batzordeari jarritako kebaren ostean, agintari marokoarrek agindu ziotela bera-ri eta bere abokatuari erantzuteko Rabaten honako akusazio hauek: “difamazioa, kalumnia eta injuriak Estatuko erakundeen aurka, manipulazio- eta iruzur-baliabidea testigantza faltsua sustatzeko, konplizitatea eta injuria publikoa”<sup>203</sup>. Batzordeak aztertu zuen Asfari jaunak eta Marokok emandako informazioa, eta ondorioztatu zuen “pertsona horrek atxilotzeko garaian, galdeketa eta espetxeratzean jasandako tratu txar fisikoak eta zauriak, adierazi den bezala, tortura-ekintzak zirela”. Gainera, azpimarratu zuen Marokok ez zuela bete tortura-salaketak ikertzeko zuen obligazioa, jakinda “sei urte igaro zirela gertakizun haietatik eta lehen tortura-salaketak aurkeztu zirenetik, eta ez zuen ikerketarik egin. Auzitegi militar-rrak kondena baliogabetzea eta apelazio zibilerako tribunal bati barkamena eskatzeak ez du aldatu, inolaz ere, egoera, eta pertsona horrek giltzapetuta jarraitzen du arrazoi bakar batengatik: aitorpen bat sinatzea indarkeriaren eraginpean”<sup>204</sup>.

---

198 *Ibidem*, 66.-81. paragr.

199 *Ibidem*.

200 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Mandatari Gorenaren bulegoa, *Procedimientos de denuncia*.

201 Torturaren aurkako Batzordeak fonetikoki idazten du izena “Ennaâma Asfari.”

202 Nazio Batuak - Torturaren aurkako Batzordea, *Hitzarmenaren 22. artikulua*ren arabera *Lantaldeak 6062/104 komunikazioari buruz hartutako erabakia* (2006ko azaroaren 15a).

203 *Ibidem*, 6.1.-6.9. paragr.

204 *Ibidem*, 13.4. paragr.



## Hitzarmen-organoen ikuskapena

Bestalde, Nazio Batuen hitzarmen-organoei –Torturaren aurkako Batzordeak kasu– paper garrantzitsua jokatzen dute ikuskatzeko garaian ea estatu kideek betetzen dituzten berretsitako hitzarmenak. Guztira hamar hitzarmen-organok egon arren, horietako bik –Giza Eskubideen Batzordea eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea– Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna deiturikoa osatzen duten bi hitzarmenak ikuskatzeko eskumena dute.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena (EZPNH) estatu guztiek betetzen dutela ikuskatzen duen organoa Giza Eskubideen Batzordea da; Marokoren egoera sei aldiz berrikusi du gaur arte, eta, batzuetan, Mendebaldeko Sahararen egoera aipatu du. 1999an, adibidez, Marokoren aldizkako laugarren txostena aztertzean, azpimarratu zuen Mendebaldeko Sahararen aske erabakitzeko erreferenduma zela kezka nagusia<sup>205</sup>. Era berean, aldizkako bosgarren txostenean, Batzordeak adierazi zuen kezkatuta jarraitzen zuela aurrerakuntzarik ez zelako izan Mendebaldeko Saharako herriaren aske erabakitzeko eskubidea aplikatzerakoan<sup>206</sup>. Azkena 2016an izan zen Batzordeak Mendebaldeko Saharari buruzko ondorio eta gomendio argienak eskaini zituenean; kezkatuta zegoen ez soilik aske erabakitzeko gaiarengatik orokorrean, baizik eta, batetik, Mendebaldeko Saharako herriari ez zaiolako galdetu lurraldeko natur baliabideen ustia ketari buruz eta, bestetik, Saharako herriaren zirkulazio askea mugatzen duen hondarrezko harresia dagoelako, eta horri buruzko gomendio zehatzak egin ziren<sup>207</sup>. Batzarrak aipamen berezia egiten dio Mendebaldeko Sahararen egoeran bortxaz desagertutako kasuekiko zigorgabetasunari, giza eskubideen defendatzaileen jarduera eta mugimenduak mugatzeari, torturaren erabilera aitortpenak eskuratzeko erabiltzeari eta kazetari eta aktibisten bizitza pribatuari mehatxuak egiteari<sup>208</sup>.

Bere aldetik, EZPNH Aljeriak bete duen ebaluatzeko markoan, Giza Eskubideen Batzordeak aipatu zituen Tinduf kanpamentuko herritar sahararrak. Aljeriari buruzko azken behaketatan, 2018an, Batzordea “kezkatu azaldu zen eskumen juridikionalak eta beste arlo batzuetakoak eskualdatu zitzaizkiolako *de facto* Fronte Polisarioari”, eta, egoera hori dela eta, “Tindufeko kanpamentuan gertatzen diren

---

205 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, *Giza Eskubideen Lantaldearen azken oharrak*: Maroko, CCPR/C/79/Add.113 (1999ko azaroaren 11).

206 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, *Giza Eskubideen Lantaldearen azken oharrak*: Maroko, CCPR/CO/82/MAR (2004ko abenduaren 1a).

207 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, *Marokoren aldizkako seigarren txostenari buruzko azken oharrak*, CCPR/C/MAR/CO/6, 9. paragr. (2016ko abenduaren 1a).

208 *Ibidem*.

giza eskubideen urraketen biktimek ez dute errekurtsio eraginkorrik Estatu kideen epategien aurrean”<sup>209</sup>.

Izen bera duen Nazioarteko Hitzarmena ikuskatzen duen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak ere Mendebaldeko Sahararen egoera ere aztertu du, Marokok aurkeztutako aldizkako lau txostenen markoan. 2006an, Batzordeak kezka azaldu zuen, ez soilik herritar sahararren aske erabakitzeko egoeragatik, baizik eta baita lekualdatutako biztanleen egoera prekarioarengatik ere<sup>210</sup>. Batzordearen azken balorazioek, 2015ean, azpimarratu zuten Hitzarmeneko Estatu kide guztiak behartuta zeudela errespetatzera eta sustatzera lurralde ez autonomoetako herrien aske erabakitzeko eskubidea<sup>211</sup>. Orduan, Batzordeak Marokori eskatu zion informazio xehatua bidaltzeko sahararren eskubideak betetzen ari ote diren jakiteko, hurrengo aldizkako txostenaren markoan<sup>212</sup>.

Hitzarmen-organismoek argitaratutako behaketa bakar batean ere ez da aipatu ere egiten Maroko Mendebaldeko Saharako lurraldean giza eskubideak errespetatzera behartzen duen okupazio-egoera, ezta lurralde ez autonomoaren izaera juridiko desberdin eta banandua ere. Haurren Eskubideen Batzordeak, Marokori 2003an egindako gomendioetan, azpimarratu zuen garrantzitsua zela ziurtatzea “Mendebaldeko Saharako gatazka armatuen eragina jasaten duten haurren zaintza eta babes osoa”<sup>213</sup>. Hala ere, ezaugarri hori ez da egokia adierazteko Marokok duen obligazioa okupatutako lurraldeko giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea errespetatzeko. Maroko Mendebaldeko Sahararen egotea okupaziotzat jotzen ez bada edo lurraldeko egoera juridiko desberdina eta banatua aitortzen ez bada, arriskua dago giza eskubideen obligazioei buruzko azterketek legez kanpoko anexioa inplizituki berresteko.

Zentzu berean, Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoak administratutako kanpamentuetan bizi diren herritar sahararren (ez aipatzearen Mendebaldeko Saharako lurraldeetan harresiaren ekialdean bizi diren herritarren) eskubideak Nazio Batuen hitzarmen-organismoek ikuskatzea frogatu da ezinezkoa dela. SEAD ez dagoenez Nazio Batuen estatu kide gisa aitortuta, horrek ezinezko egiten du sistemako hitzarmenetan sartzea eta ezin du parte hartu hitzarmen-organismoen proze-

---

209 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, *Aljeriaren aldizkako laugarren txostenari buruzko azken oharra*, CCPR/C/DZA/CO/4, 9. paragr. (2018ko abuztuaren 17a).

210 Nazio Batuak - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, *Azken oharra*: Maroko E/C.12/Mar/CO/3, 13. paragr. (2006ko irailaren 4a).

211 Nazio Batuak - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, *Marokoren aldizkako laugarren txostenari buruzko azken oharra*, E/C.12/MAR/CO/4 (2015eko urriaren 12a).

212 *Ibidem*, 8. paragr.

213 Nazio Batuak - Haurren Eskubideen Batzordea, *Azken oharra*: Maroko CRC/C/15/Add.211, 57. paragr. (2003ko uztailaren 10a).

suetan. Hala ere, Batasun Afrikarreko estatu kide izateak aukera gehigarriak eskaintzen ditu Saharako herritarren giza eskubideak behatzeko.

## Lurralde afrikarreko mekanismoak

SEAD Batasun Afrikarreko (BA) kide sortzaileetako bat da. 1982an Batasun Afrikarreko Erakundeko Estatu kide bihurtzeak eragin zuen Marokok alde egitea 1984an. Modu horretan, 2002an, BA finkatu zenean, SEAD dagoeneko kide zen, eta, bitartean, Maroko ez zegoen batasun horretan sartuta.

1986an, SEADek berretsi zuen Giza Eskubideen eta Herrien Gutun Afrikarra, eta 2002an aurkeztu zien lehen txostena<sup>214</sup>. Horren bidez, SEADek informazio garrantzitsua eman zion antolakuntza administratibo, sozial eta politikoari buruzkoa, eta baita giza eskubideei dagokionez lurraldeko estandarrak zenbateraino betetzen dituzten jakiteko azterketa ere. Aldizkako bigarren txostena aurkeztu zuen SEADek Batzorde Afrikarraren aurrean 2011ko urrian<sup>215</sup>. Hor xehatzen da SEADen giza eskubideak babesteko markoa, Gutun Afrikarrak bermatutako eskubide, betebeharrak eta askatasunen egoeraren azterketa SEADen, eta Marokok egindako giza eskubideen urraketa larriak Mendebaldeko Saharako okupatutako lurraldeetan<sup>216</sup>.

2012ko irailean, Giza Eskubideen eta Herrien Batzorde Afrikarrak ikerketa-misio bat bidali zuen SEADera<sup>217</sup>. Lurralde okupatura bisita egiteko eskariak ez zuen agintari marokoarren erantzunik jaso, eta, horrexegatik, Batzorde Afrikarrak ezin izan zuen lurraldearen zati horretara bisita egin<sup>218</sup>. Hala ere, 2014an, Batzorde Afrikarrak ebazpen bat egin zuen lurralde okupatuetan Saharako herritarren aurka egindako giza eskubideen abusuak kondenatzeko<sup>219</sup>.

SEADen txostena eta kanpamentuetara egindako bisita oinarri harturik, Batasun Afrikarrak SEADek Gutun Afrikarra betetzeari buruzko azken ondorioak bidali zituen 2015ean<sup>220</sup>. Batzorde Afrikarrak adierazi zuen “Marokoren okupazioa

---

214 Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoa, *Rapport préliminaire a la Commission Africaine des droits de l'homme et des peuples* (2002ko abendua).

215 Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoa, *Rapport périodique a la Commission Africaine des droits de l'homme et des peuples cumulant tous les rapports attendus conformément à l'article 62 de la Charte* (2011ko urria).

216 *Ibidem*.

217 Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea, *Report of the fact-finding mission to the Sahrawi Arab Democratic Republic, 24-28 September 2012*.

218 *Ibidem*, 2. paragrafoa.

219 Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea, 282 Ebazpena: Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoko egoerari buruzko ebazpena (2014ko apirilaren 28a).

220 Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea, *Observations finales et recommandations sur le Rapport combiné (2002-2012) de la République Arabe Sahraouie Démocratique sur la mise en œuvre de la Charte africaine des droits de l'homme et des peuples* (2015eko abuztua).

1975etik Mendebaldeko Sahararen lurralde ia osoan kezka garrantzitsua dela, eta, behar bada, giza eskubideen erabilera mugatzen duela Estatu kidean” eta “orokortutako txirotasuna -Marokok okupatutako lurraldeetan natur baliabideen legez kanpoko ustiaketak areagotutakoa- giza eskubideen promozioa eta babes mugatzen duten faktoreak dira”<sup>221</sup>. Onartu zen, gainera, “bitarteko finantzariarik eta beste motakorik ez egotea muga bat dela gobernuaren helburuak lortzeko giza eskubideen promozioan eta babesean”<sup>222</sup>. Batzordeak adierazi zuen kezkatuta zegoela ez zuelako informaziorik jaso aske elkartzeko jardunari buruz, adierazpen askatasunari buruz, informazioa eskuratzeko eta aske mugitzeko gaitasuna sustatzeko jarraitu beharreko pausoei buruz, eta horri buruzko gomendio ugari egin zituen<sup>223</sup>.

Zentzu horretan, Batzorde Afrikarrak paper garrantzitsua joka dezake sahararen giza eskubideak ikuskatzeko garaian, bai SEADek administratzen dituen errefluxiatu-kanpamentuetan bizi direnenak eta baita Mendebaldeko Saharan haren administraziopean bizi direnenak ere. Hala ere, Marokok berretsi ez duenez Giza Eskubideen eta Herrien Gutun Afrikarra, nahiz eta 2017an Batasun Afrikarrean berriro ere sartu<sup>224</sup>, horrek asko mugatzen du mekanismo hau aplikatzea okupatuta dagoen Saharako herritarren eskubideak babesteko.

Nahiz eta Maroko berriro ere Batasun Afrikarrean onartu, 2018ko abenduan, Giza Eskubideen eta Herrien Gorte Afrikarraren aurrean eskari bat aurkeztu zuten, berriro ere onartzeko erabakia inpugnatzeko. Ghanako politikari batek egingdako eskaera horrek alegatzen zuen Maroko berriro ere onartzeko Gortek duen eskumena aitortzeko zortzi estatuk eman duten aldeko botoek urratu egin dutela legez zuten obligazioa Mendebaldeko Saharako burujabetza, lurraldea, segurtasuna eta independentzia defendatzeko<sup>225</sup>. Benin, Burkina Faso, Boli Kosta, Ghana, Mali, Malawi eta Tanzaniaren aurkako kasuaren tramitazioa garrantzitsua da Marokoren okupazioaren osteko herritar sahararren giza eskubideen babesari dagozkion lege-obligazioengatik.

---

221 *Ibidem*, 37. eta 40. paragr.

222 *Ibidem*, 48. paragr.

223 *Ibidem*, 49.-52. paragr.

224 Al Jazeera, “Morocco rejoins the African Union after 33 years,” (2017ko urtarrilaren 31).

225 World Stage, “Falana drags Benin, Ghana, six others to African Court over Western Sahara,” (2018ko abenduaren 2a).

# Fatimetu

ADINA: 15 URTE | BIZILEKUA: TIFARITI, FRONTE POLISARIOAK KONTROLATUTAKO MENDEBALDEKO SAHARA

**“Nire neba ez zen hilko hemen osasun-zerbitzu gehiago eta hobeak izango bagenitu”**

FATIMETU BADIYAN<sup>226</sup> JAIO ZEN, BIZTANLE GUTXIKO MENDEBALDEKO SAHARAKO eskualde batean, Aljeriako kanpamentuetatik 300 kilometro hego-mendebaldera. Fatimetuk bost urte zituen errefuxiatu sahararren kanpamentuak lehen aldiz bisitatu zituenean. *“Harrigarria zen han zuten guztia: argia edozein ordutan, telefonoak, dendak... garai hartan ez nuen ulertzen errefuxiatuentzako kanpamentuak zirela, baina gogoan dut hantxe genuen familia bisitatzera joan ginela eta zeharo harrituta gelditu nintzela hantxe eskura zuten guztiarekin. Bizitzan halakorik ikusten nuen lehen aldia zen”*. Bi urte geroago, Fatimetuk zazpi urte zituenean, Oporrak Bakean programan parte hartu zuen, eta Gaztela-Mantxan pasatu zuen uda. *“Hantxe hasi nintzen dena ulertzen. Espainian denetarik zuten. Nik baino askoz gehiago, baina nire lehengusuek kanpamentuetan zutena baino gehiago ere; ezin imajina nezakeen halako bizimodurik”*. Espaniar estatuan egindako egonaldiak bere aukeretan pentsarazi zion Fatimeturi eta, uda amaitzean, ametsez beterik itzuli zen Tifaritira.

---

226 Sahararrenk ‘askatutako lurralde’ esaten diote eskualde honi, gerran Fronte Polisarioak bertako herrien kontrola berreskuratu zuelako. Badiya hitzak eskualdeko ekosistema deskribatzen du *hassaniya* hizkuntzan.

Bertan, Fatimetu hazi egin zen. “Nire familia hona etorri zen, hemengo airea garbiagoa eta klima hobea direlako; nire aitona gaixorik zegoen eta hemen egoteak on egiten zion. Polita da, baina Espainiarekin edo kanpamentuekin alderatuz gero, badira hemen ez ditugun gauza asko: ez dago elikagaiak edo higiene-produktuak eros daitezkeen dendarik, ia ez dago garraiobiderik, ez dugu argirik egun osoan eta urrun joan behar dugu ur bila. Hezkuntza-eskaintza oso mugatua da. Nik lehen hezkuntza amaitu nuen, baina hemen ez dago bigarren hezkuntza eskaintzen duen ikastetxerik, beraz, ikasteari utzi behar izan nion. Unibertsitate-ikasketak burutzea gustatuko zitzaidan, lan on bat aurkitzea eta diru apur bat irabaztea, nire familiari laguntzeko. Ez nago ziur, baina uste dut gaztelaniako irakaslea izango nintzela. Baina iraganeko ametsak dira horiek... Hemen ez dago ikasten jarraitzeko aukerarik...”

Fatimetu eta haren familia bizi diren eskualdean oinarritzko osasun-arreta baino ezin dute jaso. Egoera larrietan, bertako jendeak Tinduf inguruko kanpamentuetaraino bidaiatu behar du tratamendua jasotzeko, Mendebaldeko Sahara banatzen duen hormak kanpamentuetatik askoz hurbilago dauden hiri okupatuetara sartzea galarazten dielako. Fatimetu eta haren familia berak zortzi urte zituenean jabetu ziren bizi duten egoeraren arriskuez. “Nire nebetako bat autoaren atzean zegoen, eta beste neba autora igo zen. Anaia autoaren atzean eserita zegoela ohartu gabe, atzera-martxa sartu zuen eta harrapatu egin zuen. Hasieran, Tifaritiko ospitalera eraman zuten ambulanzian; 24 ordu eta gero, ordea, kanpamentuetara eraman zuten, eta handik Aljeriako ospitalera, bertan osasun-zerbitzu gehiago eskaintzen dituztelako. Ama nebarekin joan zen eta bizirik zegoen artean Aljeriara iritsi zirenean, baina handik gutxira hil zen. Denbora gehiegi igaro zen nebak beharrezkoa zuen laguntza jaso zuen arte”.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

HEZKUNTZA-ESKUBIDEA, OSASUN-ARRETARAKO ESKUBIDEA, BIZI-MAILA EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA.

## SEADen mekanismoak

Giza Eskubideen aldeko Saharako Batzorde Nazionala (CONASADH) SEADek eratu zuen 2014ko martxoan, giza eskubideen gaian eskumena duen erakunde nazional izateko, eta haren mandatua zen behatzea giza eskubideen egoera Mendebaldeko Sahararen lurraldean eta SEADek administratzen dituen kanpamentuetan<sup>227</sup>.

2016ko apirilean, CONASADHek Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordearen aurrean<sup>228</sup> behatzaile estatutua eskuratu zuen, eta informazio garrantzitsua igortzen dio herritar sahararren giza eskubideen egoerari buruz. Gainera, CONASADHek informazio-aurkezpenean parte hartu zuen Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren aurrean, AAUren Marokori buruzko berrikuspenaren markoan<sup>229</sup>. Saharako gizarte zibilaren erakundeekin batera, CONASADHek ere parte hartzen du babeserako nazioarteko mekanismoei deialdiak egiten<sup>230</sup>. Marko horretan, CONASADHek informazioa eskaini du okupatutako lurraldeetako giza eskubideen urraketen ereduei buruz, eta azpimarratu ditu beste mekanismo batzuen arreta handiagoa eskatzen duten kasu eta gertakariak.

## Mekanismo marokoarra

Aipatu behar da Mendebaldeko Sahararen okupatutako lurraldean Giza Eskubideen Kontseilu Nazionala dagoela, alegia, Marokoko gobernuaren erakundea. Hasiere batean, Giza Eskubideen Kontseilu Aholku Emaila gisa finkatu zen 1990ean; erakundea eraldatu eta birbataiatu egin zuten 2011n, lurraldeko hamahiru batzordeko hedadurarekin<sup>231</sup>. Batzorde horietako bik Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan lan egiten dute: batek Aaiunen eta besteak Dajlan.

Zalantzan jartzeko modukoa da Giza Eskubideen Kontseilu Nazionalak Marokoko gobernuarekiko duen independentzia, batik bat, Mendebaldeko Sahararekin erlazionatutako gaietan, eta azken batean, erakundeak ez du aitortzen lurraldean dagoela Marokok indar okupatzaile gisa dituen obligazioengatik<sup>232</sup>. Nazioarte mailan egindako esku-hartzeetan edo argitaratze ugarietan, ez da onartu Marokoren inbasioa, lurraldeari aplikatzen zaion deskolonizazio-prozesua edo herriak aske erabakitzeko duen oinarritzko

---

227 Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Presidentearen Dekretua 05/2014 zk. (2014ko martxoaren 8a).

228 Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea, *Commission Nationale Sahraouie des Droits de l'Homme* (CONASADH).

229 Giza Eskubideen aldeko Saharako Batzorde Nazionala, *CONASADH contribution to the 3<sup>rd</sup> cycle Universal Periodic Review: Kingdom of Morocco* (2016ko iraila).

230 AFAPREDESA, *Carta de AFAPREDESA, AEAPS, CSMM, CONASADH a Rosa Kornfeld-Matte de ONU sobre Deida Ould el Yazid* (2017ko abuztuaren 27a).

231 Giza Eskubideen Kontseilu Nazionala, *About us*.

232 *Ikus Amnesty International, "Morocco/Western Sahara: UN Must Monitor Human Rights in Western Sahara and Sahrawi Refugee Camps."*

eskubidea. Zentzu horretan, sahararren eskubideei benetako babes eskaintzetik urrun, Giza Eskubideen Kontseilu Nazionalak balio du Mendebaldeko Sahararen lurraldearen legez kontrako anexioa legitimatzeko. Horrexegatik, nahiz eta Giza Eskubideen Kontseilu Nazionalak “oniritzia” jaso, beharrezkotzat jotzen baitzen Mendebaldeko Sahararen giza eskubideen behaketarako mekanismo bat egotea<sup>233</sup>, esan beharra dago ez dela Saharako herriaren giza eskubideak babesteko gaitasun berezkoa duen instantzia inpartzial bat.

### Atzerriko beste gobernu batzuk

Neurri txikiagoan bada ere, atzerriko beste gobernu batzuk lurralde, nazio eta herri mailan askotan parte hartu dute sahararren giza eskubideen behaketan. Lurraldeko gobernu baten bisita ezagunenak, behar bada, Europako Parlamentuaren ordezkariak egindako bi misioak izan dira *ad hoc* errefuxiatu-kanpamentuetara eta okupatutako lurraldeetara. Lehen ordezkariak Tinduf bisitatu zuen 2001ean, Mendebaldeko Sahara okupatua 2002ko otsailean bisitatu baino lehen<sup>234</sup>. Bisita horretan, ordezkariak adierazi zuen “Saharako egoera nahiko hurbil dagoela garai batean Hego Amerikak eta Hego Afrikak bizi zutenetik”<sup>235</sup>.

Europako Parlamentuaren ordezkariaren bigarren *ad hoc* misioak Tinduf inguruko errefuxiatu-kanpamentuak bisitatu zituen 2006an, eta Aaiun hiri okupatua, 2009an<sup>236</sup>. Azken horretan, misioaren mandatu zen herritar sahararren eskubideen errespetua hobetzea, egoera ‘politikoan’ sartu gabe. Gertakari garrantzitsua izan zen ordezkariak azaleratu zituela diskurtso marokoarrak iraunarazitako zenbait ideia faltsu kanpamentuei buruz, azpimarratuz ez zegoela arrasto adierazgarriarik frogatzeko kanpamentuan bizi zirenak ‘bahituta’ zeudela<sup>237</sup>. Aaiun hirira egindako bisitan, ordezkariak elkarte askotako aktibista eta kideekin elkartu zen, eta honakoei buruzko informazioa bildu: adierazpen askatasunaren eta protesta baketsurako eskubidea baliatzeko oztupoak, giza eskubideen defendatzaile eta aktibistekiko zirikatze-forma ugari, atxilotze arbitrarioak eta tratu txar eta torturak, epaitegi marokoarretan tratu bidegabea aktibista sahararrei, zuzenbide komuneko legeen erabilera jazarpen politikoa ezkatatzeko, giza eskubideen urraketen egileentzat zigorgabetasuna eta kexa eta salaketei jarraipenik ez egitea<sup>238</sup>. Bi misioen ostean, ordezkariak honako hauek gomendatu zituen: Marokoren lurralde-osotasunaren aurkako erasoan oinarritutako zigor penalak kentzea, gardenta-

---

233 Ikus, *adibidez*, Nazio Batuak – Seguritasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Saharako Mendebaldeko Egoerari buruz egindako Txostena*, 2440 Ebazpena (2018ko urriaren 31).

234 Europako Parlamentua, *Délégation ad hoc Sahara Occidental*, DELE\MAGH\CR\471\47192.FR (2002).

235 *Ibidem*, 12. or.

236 Europako Parlamentua, *Délégation ad-hoc pour le Sahara occidental* (2009).

237 *Ibidem*, 2. paragr.

238 *Ibidem*, 7. or.



sun handiagoa SEADen sistema judizial eta espetxe-sisteman, lurreko galeria bat jartze-ko aukera aztertzea kanpamentuen eta okupatutako lurraldeen artean bidaia zuzenak egiteko eta desagertutakoen kasuak konpontzeko mekanismoa sortzea<sup>239</sup>.

Giza eskubideak behatzeko jarduerak egiten ari direla esplizituki adierazi gabe, beste gobernu batzuk informazioa publikatzen dute Saharako herritarren giza eskubideen egoerari buruz. Horren adibide ditugu Estatu Batuak. Urtero, munduko herrialde guztietako giza eskubideen egoerari buruzko txosten bat argitaratzen dute, horien artean, Mendebaldeko Sahararen egoeraz ere mintzo dira<sup>240</sup>. Txosten horretan, herrialdean aplikatu daitezkeen markoa xehatua ageri da, eta giza eskubideen hainbat gai garatzen dituzte. Hainbat herrialdeetako enbaxada eta kontsulatu estatubatuarren informazio pilaketa izaten da horietarako informazio-iturri. Adierazi behar da aktiboak direla giza eskubideak behatzen Mendebaldeko Saharan<sup>241</sup>.

Tokiko gobernuen hainbat ordezkari, batik bat Espainiako estatukoak, ere inplikatu dira giza eskubideen behaketa-lanetan Mendebaldeko Saharan. Horren adibide dugu Kataluniako parlamentuko ordezkari batzuk lurreko okupatura bidaia egin zuela 2014ko apirilean<sup>242</sup>. Hala ere, askotan, ordezkari horiei ez zaie lurrean sartzen utzi. 2005eko ekainean, adibidez, Marokok Madrilgo zinegotzi-ordezkari bat kanporatu zuen Aaiun hiri okupatuan lur hartu bezain laster, eta, ordutik, ohikoa bihurtu da agintari marokorrek jendea kanporatzea<sup>243</sup>. Mendebaldeko Saharan sartzeko kontrolak ohikoak dira, eta horrek eragina du bai giza eskubideen egoera behatu nahi duten tokiko gobernuen ordezkarien lanean eta bai nazioarteko solidaritate-mugimenduen jardueran.

## **Gobernuz kanpoko erakundeak eta nazioarteko elkarteak**

Mendebaldeko Saharak jasan duen gerra, lekualdatze eta okupazioaren historian, gobernuz kanpoko erakunde eta nazioarteko elkarte askok Saharako herritarren giza eskubideen behaketa-lana egin dute. Mendebaldeko Saharari buruz argitaratu diren txosten eta beste dokumentuen kopuru handia aintzat hartuz, ezinezko gertatzen da denak aipatzea, baina, dena den, azpimarratu behar da Human Rights Watch eta Amnesty International erakundeek erregulariki berrikusten dutela Saharako herritarren egoera “Marokori / Mendebaldeko Saharari” buruzko urtekari kapituluetan<sup>244</sup>. Erakunde biek salaketa eta

---

239 *Ibidem*, 9. eta 10. or.

240 Ikus Estatu Batuak - Estatuko departamentua, *Country Report on Human Rights Practices: Western Sahara* (2017).

241 Estatu Batuak - Estatuko departamentua, *Country Report on Human Rights Practices: Western Sahara* (2017).

242 Kataluniako parlamentua, *Informe de la visita las territorios ocupados del Sahara Occidental per part de la delegació catalana realitzada entre el 13 i el 16 d'abril de 2014*.

243 El País, “Marruecos expulsa del Sáhara a una delegación de concejales madrileños” (2005eko ekainaren 6a).

244 Ikus, adibidez, Human Rights Watch, *Informe Mundial 2017: Marruecos y el Sáhara Occidental*; Nazioarteko Amnistia, *Informe 2017/2018: Marruecos y el Sáhara Occidental*.

deialdi premiazkoak egiten dituzte giza eskubideen urraketari buruz, eta zenbait kasutan beren ikerkuntzen aurkikuntzak ageri diren txostenak argitaratzen dituzte.

2008an, Human Rights Watch erakundeak txosten xehatu bat aurkeztu zuen, eta horretarako oinarri izan zituen 2005 eta 2008 bitartean egindako hiru bisita okupatutako lurraldeetara eta errefuxiatu-kanpamentuetara<sup>245</sup>. Erakunde horrek 2014an ere beste txosten bat argitaratu zuen, kanpamentuetan eta Aaiungo hiri okupatuan 2013an ikerketa-misio bat egin ostean<sup>246</sup>, Amnesty International erakundeak okupatutako Mendebaldeko Saharara bisita bat egin zuen 2010eko azaroaren 22a eta abenduaren 4a bitartean, eta bertan Saharako herritarren aurkako abusuen txosten bat argitaratu zuen, Gdim Izik kanpamentua suntsitu osteko<sup>247</sup>.

Horiek ez dira herritar sahararren giza eskubideei buruzko informazioa ikertzen eta zabaltzen duten erakunde bakarrak. Nazioarteko erakunde askok argitaratu dute informazio garrantzitsua Saharako herritarren giza eskubideen egoerari buruzkoa, besteak beste<sup>248</sup>, Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa<sup>249</sup>, Frontline Defenders<sup>250</sup>, Errefuxiatuentzako Norvegiar Kontseilua<sup>251</sup>, Justizia eta Giza Eskubideentzako Robert F. Kennedy Zentroa<sup>252</sup>.

Elkarte askok, horietako asko Espainiako estatukoak, parte hartu dute sahararren giza eskubideei buruzko informazioa biltzen eta zabaltzen. Mendebaldeko Sahararentzako Behatoki Aragoitarra<sup>253</sup> eta Solidaridade Galega co Pobo Saharai<sup>254</sup> dira Saharako herritarren giza eskubideei buruzko informazioa argitaratu duten Espainiako estatuko elkarteetako batzuk. Berriki, Arabako SEADen Lagunen Elkarteak txosten kolektibo bat argitaratu du Marokok okupatutako lurraldearen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketari buruzkoa<sup>255</sup>.

---

245 Human Rights Watch, *Human Rights in Western Sahara and in the Tindouf Refugee Camps* (2008ko abendua).

246 Human Rights Watch, *Off the Radar: Human Rights in the Tindouf Refugee Camps* (2014ko urriaren 18a).

247 Amnesty International, *Derechos Pisoteados: Protestas, Violencia y Represión en el Sáhara Occidental* (2010eko abenduaren 20a).

248 Ikus, adibidez, Norwegian Students' and Academics' International Assistance Fund, *Acting with Impunity: Morocco's Human Rights Violations in Western Sahara and the Silence of the International Community* (2015eko apirila).

249 Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa, *Appel urgent: Détentions arbitraires/Poursuites judiciaires/Mauvais traitements – Maroc* (2006ko ekainaren 23a).

250 Frontline Defenders, *UPR Submission - Morocco* (2016ko urriaren 6a).

251 Ikus Errefuxiatuentzako Norvegiar Kontseilua, *Occupied Country, Displaced People* (2014).

252 Ikus Justizia eta Giza Eskubideentzako Robert F. Kennedy Zentroa, *Nowhere to turn: The consequences of the failure to monitor human rights violations in Western Sahara and Tindouf refugee camps* (2013ko urtarrilaren 1a).

253 Mendebaldeko Sahararentzako Behatoki Aragoitarra, *Marruecos impide la entrada al Sahara Occidental a una delegación de observadores de derechos humanos* (2015eko irailaren 8a).

254 Solidaridade Galega co Pobo Saharai, *Violaciones de los derechos humanos en el Sáhara Occidental ocupado por Marruecos* (2014).

255 Idoia Landaluze, et. al., *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, Arabako SEADen Lagunen Elkarteak (2018).

Hala ere, Marokok lurralde okupatuan sartzeko jarritako kontrolak zaildu egiten du nazioarteko erakunde eta elkarten lana. Askotan, ordezkariak debekatu egin zaie sartzeari edo kanporatuak izan dira. Adibidez, 2014an bi alditan, Mundubat Fundazioko langileei ez zitzaion Aaiun hiri okupatuan sartzen utzi. Prentsan azaldukoaren arabera, “2018an, hamaika lagunek bizi izan zuten egoera berbera... Kanporatuen kopuruak behera egin du 2014tik, agintari marokoarrek 41 pertsona bota baitzituzten Mendebaldeko Saharatik. Azken lau urteetan, Marokok 17 nazionalitateko 175 pertsona kanporatu ditu”<sup>256</sup>.

Marokok erabiltzen duen kontrolerako beste forma bat da jarduerak modu jarraituan zelatatzea, lurralde okupatura egindako bisitan atzerriko pertsonak edo taldeak zirikatzea eta herritar sahararrak izutzea. Adibidez, 2008ko Human Rights Watch erakundearen txostenean, lurralde okupatuetan egindako lanean oztopo zuzenik eduki ez arren, erakundeak baieztatu zuen zeharkako presio asko bizi izan zituela; bilerak eta elkarrizketak zelatatzen zizkieten<sup>257</sup>. Praktika horiek salatu dituzte lurralde okupatuko giza eskubideen behaketarako txosten ia gehienetan.

Nazioarteko erakundeek jasaten dituzten trabek erabat mugatzen dute informazio fidagarria eskuratzeko aukera. Beraz, bada nazioarteko komunitatearentzat giza eskubideei buruzko informazioa ikusgarri ez izatea eragiten duen blokeoa.

## **Erakunde sahararrak**

Ikusita giza eskubideen nazioarteko erakundeek zenbaterainoko mugak dituzten, ezinbestekoagoa bihurtu da saharar elkarte ugarien lan aktiboa bai lurralde okupatuetan eta baita errefuxiatu-kanpamentuetan ere. Askotan, tokiko ekimen horiek onenak izaten dira –eta baita bakarrak ere–, herritar sahararren eskubideei eragiten dien baldintza, gertakari eta dinamikei buruzko informazio eguneratuaren iturri baitira.

Marokok okupatutako lurraldean, giza eskubideen alde lan egiten duten erakunde ugari daude, horien arte azpimarragarri: Giza Eskubideen Urraketa Larrien Elkarte (ASVDH), Giza Eskubideen Defendatzaile Sahararren Kolektiboak (CODESA) eta Mendebaldeko Sahararen Autodeterminazio Eskubidea Defendatzeko Batzordea (CODAPSO). Giza Eskubideak defendatzen eta horien urraketak dokumentatzen dituzten erakunde eta elkarte ugari egon arren, horiek dira nabarmenenak azterketa egiteko garaian. Bestalde, saharar kanpamentuetan martxan dauden erakundeetatik Saharako Preso eta Desagertuen Familiakoen Elkarte (AFAPREDESA) da herritar sahararren giza eskubideak aldarrikatzea helburu duen gizarte zibilaren erakunde nagusia.

---

256 El Español, “Patricia e Irati, las dos españolas a las que Marruecos expulsó del Sáhara en plena Nochevieja” (2019ko urtarrilaren 2a).

257 Human Rights Watch, *Human Rights in Western Sahara and in the Tindouf Refugee Camps* 18. or. (2008ko abendua).

# Ahmed

ADINA: 17 URTE | BIZILEKUA: AAIUN, MENDEBALDEKO SAHARA OKUPATUA

## “Ez dut etorkizunik. Okupazioak iraun bitartean, nire patua aitona-arena eta osabarena bezalakoak izango da: desagertzea”

**2**000. URTEAN, AHMEDEK 8 URTE ZITUELA, HAREN OSABA DESAGERTU EGIN ZEN. “Nire amaren neba txikia zen, altua, dotorea, eta nirekin jolasten zen beti elkarrekin bizi ginen aitona-amonon etxean”. Une horretan Ahmedek ulertzen ez bazuen ere, osaba herri sahararraren independentziaren aldeko aktibista zen, egun batean etxetik irten zen eta ez zen berriz itzuli. “Ez nekien zer gertatu zen, oso gaztea nintzen, baina nire familiaren tristura hauteman nezakeen negarrez ikusten nituenean”. Denborarekin eta familiaren laguntzaz jakin zuen Marokoko polizia eraman zuela osaba, eta inork ez zekiela berriz itzuliko ote zen.

Urteek aurrera egin ahala, Ahmed Mendebaldeko Saharako okupazio marokoarrari lotutako errepresioari buruz ikasten joan zen. “Ez nuen urrunera jo beharrik izan okupazioarekin lotutako herritar sahararraren aurkako indarkeriaz ohartzeko. “Jakin nuenez, osaba ez zen nire familian desagertutako lehena; ni jaio baino askoz lehenago, 1986an, nire aitona antzeko baldintzatan desagertu zen. Beste osaba bat atxilotua, torturatua eta lan gogorrek egitera behartua izan zen. Denak aktibistak ziren”. Haur baten ikuspegitik, Ahmed bere errealtate latzaz jabetzen joan zen.

“2010ean ni neu izan nintzen Marokoko poliziaren erantzun bortitzaren lekuko Aaiungo kaleetan, Gdim Izi-keko erresistentzia-kanpamentua desegin eta gero. Marokoko polizia nire ama iraintzen eta kolpatzen ikusi nuen”.

Amorruak bultzatu zuen Ahmed kalera irten eta, beste saharar batzuekin batera, errepre-sioaren aurka protesta egitera eta bere herriaren independentzia eskatzera. Orain arte, bitan atxilotu dute haren aktibismoagatik; lehen al-dian hamalau urte baino ez zituen. “Atxilotu nindutenean, poliziek jo egin ninduten, baita tu egin ere. Beldurra sentitu nuen polizia-etxean igaro nuen gau osoan zehar, ez nekielako zer gerta zekidakeen. Biharamunean, aske utzi nindutenean, ja-da ez nuen beldurrik, aurrerantzean erresistentzian jarraituko nuela ziur nengoen. 2017an bigarre-rez atxilotu nindutenean, 48 ordu igaro nituen polizia-etxean; ordurako ez nintzen batere beldur”.

Ahmedi ezinezkoa zaio etorkizuna okupaziopean irudikatzea. Zailtasunak ditu nor izan edo zer egin nahi duen imajinatzeko; herrialdearen independentziak baldintzatzen du bere bizitza. “Ingurura begiratzen dudanean, gizonak eta emakumeak, helduak eta gazteak ikusten di-tut, eta, nire familia bezala, den-denak okupazioaren ondorio zuzenak jasaten ari dira, opresio-zi-klo etengabe batean baitaude, autodeterminazioa aldarrikatzen dutelarik”. Ahmeden iritziz, in-dependentzia lortu arte dinamika hori ez da etengo eta ez dira sahararren giza eskubideak errespetatuko.

Azkenaldian, Ahmedi espainiar estatura aldatzea dabilkio gogoan. Agiririk gabe migrat-zeko arriskuak handiak izan arren, aske bizitzearen aukerak erakartzen du. Bestalde, ama jarrera horren aurka dago, “badakielako Marokoko politikak gazte sahararrok gure lurraldetik kanporatzea bilatzen duela, okupazioa justifikatzeko”. Oraingoz, Ahmed zalantzatan dago.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

FAMILIA-BIZITZARAKO ESKUBIDEA; BIZI-ESKUBIDEA; INOR TORTURATZEKO ETA INORI TRATU KRUELA, BIDEGABEA  
EDO UMILIAGARRIA EMATEKO DEBEKUA; ASKATASUN PERTSONALERAKO ESKUBIDEA; IRITZI- ETA ADIERAZPEN-  
ASKATASUNA; AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA.



## II

# BANATUTAKO HERRIKO GAZTERIA

Txosten honen helburua da biztanle sahararren giza eskubideen egoeraren gaineko azterlana aberastea, gazteria sahararraren ikuspegiak eta esperientziak oinarri harturik, eta era berean, eta lehenengo aldiz, biztanleria hori kokatzen den lau eremu geografikoen errealitateak bateratzea, alegia, harresiaren mendebaldean okupatutako Mendebaldeko Sahara, harresiaren ekialdean Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Sahara, errefuxiatu sahararren kanpamentuak eta Espainiako estatuko diaspora. Azterketa hau lurralde bakar bateko biztanleria gaztea aztertzeraz mugatu ordez, helburua da erakustea Mendebaldeko Sahara okupatzeak sortzen dituen inplikazioek mugak gainditzen dituztela, muga horiek fisikoak edo juridikoak izan, eta horrek gazte sahararren bizitzeari eragiten dietela, gazte horiek edozein tokitan bizi arren. Herri baten belaunaldi bat geografikoki banatu dute, hori da kontua.

## Marokok okupatutako Mendebaldeko Sahara

Marokoren okupazioaren menpeko Mendebaldeko Saharako lurraldearen osaera demografikoa drastikoki aldatu da 1975. urteaz geroztik. Gutxienez jatorrizko biztanleriaren erdiak gerratik ihes egin zuen Algeriako kanpamentuetan babesa hartzeko<sup>258</sup>. Mendebaldeko Saharako biztanleria autoktonoa gutxitu egin zen dagoeneko, baina Marokoko segurtasun-indarren anexo-politikak izan ziren aldaketarik handienak sortu zituztenak lurraldearen osaeran. 1975eko inbasioaren ondoren ('martxa berdea' edo 'martxa beltza'), Marokok bere herritarrak bultzatu zituen, pizgarri ekonomikoen eta diskurtso nazionalisten bidez, Mendebaldeko Sahara kolonizatzeraz. Horren ondorioz, gaur egun, okupatutako lurraldeetako biztanleriaren heren bat baino ez da sahararra. "Jakina, lurraldeko gainerako biztanleak Marokoko kolonoak dira,

---

258 Ikus Martín Beristaín eta González Hidalgo, *El Oasis de la Memoria: Memoria histórica y violaciones de Derechos Humanos en el Sáhara Occidental*, 84. or.

bizi-baldintza pribilegiatuak dituztenak –lana, abantaila fiskalak...–, Marokon bizi diren gainerako marokoarren bizi-baldintzekin alderatuz gero”<sup>259</sup>.

Marokoar zibilak Mendebaldeko Saharako lurraldeetara mugitu izana kanpaina marokoar baten parte da, lurraldeko demografia aldatzeko eta Marokoko interesen alde egin ahal izateko; gaur egun, ez da ezagutzen zenbat saharar bizi diren Marokoren kontrolpeko lurraldeetan. Hala ere, Espainiako administrazio kolonialak 1974an egin zuen azkeneko erroldan bildutako datuak alderatzen badira Mendebaldeko Saharako lurraldeko demografiaren gaineko datu berriekin, Marokoko politika horrek izan zuen irismena egiazta daiteke. Adibidez, 1974an, Aaiun hiriak 6.000 biztanle zituen. Hala ere, 1982an, nahiz eta milaka lagunek ihes egin behar izan zuten gerra zela-eta, 93.875 biztanle zeuden<sup>260</sup>. Gaur egun, Aaiun okupatutako hirian Marokoko beste alderdi batzuetako kolonoak eta haien senideak bizi dira; izan ere, Aaiungo biztanleriaren erdia baino gehiago hiri horretatik kanpo jaio zen<sup>261</sup>. Egoera hori okupazioaren menpeko lurraldearen hainbat eskualdetan errepikatzen da. Hortaz, ikus daiteke biztanleria zibila transferitzeko politika ezarri dela etengabe, eta horrek nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzen duela<sup>262</sup>.

Okupatutako lurraldeetako Saharako gazteria markatuta dago bizi izan dituen esperientzien ondorioz. Nahiz eta heterogeneoa izan, belaunaldi hori bere lurraldean gutxiengoa izaten hasi da. Gazte guztiak Marokoko kolonoekin batera bizi izan dira, Marokotik lurralde horretara migratu zuten familien haurrekin ikasi dute, familia horietako batzuek biztanleria sahararraren aurkako gehiegikerietan parte hartu zuten, gatazka armatuaren barruan eta ‘berun-urteetan’<sup>263</sup>. Ere mu horretako gazte saharar gehienak Marokoko agintariak administratutako eskoletan hezi dira, eta beren ikasketak amaitzean, Marokok ezarritako eta kontrolatutako lan-merkatu –kapitalista– bati egin behar izan diote aurre.

Gazte nagusiagoek gerraren azkeneko urteak, su-etena eta erreferendumaren planifikazioa bizi izan zituzten haurtzaroan; normalizat hartzen dute Marokoko militarren eta segurtasun-indarren presentzia lurralde osoan, baita Nazio Batuetako ibilgailu zuriak pasatzen ikustea ere, MINURSO zabaldu ondoren iritsi zirenak. 1990. hamarkadako preso politiko sahararren askapena gogoratzen dute, baita eguneroko

---

259 Soroeta Liceran, “La condición jurídica de Marruecos y España en el Sahara Occidental,” 46. or.

260 Thomas Lacroix, “Laayoune, une ville interface saharienne” (2005eko abendua).

261 *Ibidem*, 3. or.

262 Ikus Genevako Laugarren Hitzarmena, 49. artikulua (indar okupatzaileko biztanle zibilak haren kontrolpeko lurraldera transferitzeko debekua).

263 ‘Berun urteak’ moduan deskribatzen da 1970eko erditik 1980ko hasiera arteko garaia, non errepresio basatia eta sistematikoa ezarri zen, monarkiaren helburuen eta interesen aurkako elementuen aurrean. Abderrahim Berrada eta Manuel Lorenzo Villar, “La defensa de la impunidad: Crímenes de Estado y derechos humanos en Marruecos,” Nazio Arabiarra (2001).



errepresioaren modu berrien gogortasuna ere. Gogoratzen dute 1999an lehenengo *intifada* sahararra lehertu zela, Marokoko errege berri Mohamed VI.a tronuratzean, eta herriak sumindura adierazi zuela urte askoan kontrol zapaltzailea izateagatik, eta hortik askatzeko nahia adierazi zuela<sup>264</sup>. Era berean, gazte saharar gehienak bigarren *intifadaz* ere gogoratzen dira, 2005eko maiatzean lehertu zena, eta ehunka manifestazio baketsu sortu zituen lurraldean zehar, Mendebaldeko Sahararen independentzia exijituz; horren ondorioz, Marokoko agintariek beste errepresio-aldi bat sortu zuten<sup>265</sup>. Baina, zalantzarik gabe, gazte guztiek Gdim Izik kanpamentua gogoratzen dute, aktibista sahararrek antolatu zutena okupatutako hiri Aaiunen kanpoaldean 2019ko urriaren 10ean. Kanpamentu horretan 20.000 parte-hartzaile saharar inguru bildu ziren, beren giza eskubideak errespetatzea eta betetzea exijituz. Okupatutako eremuetako gazteek herriaren mobilizazioa bizitzeaz gain, Marokoko segurtasun-indarrek kanpamentua modu bortitzean eraisteko eman zuten erantzun errepresiboa ere gogoratu zuten. Gertaera horiek egungo gazteen belaunaldien bizitzak markatu dituzte, eta beren giza eskubideen egoera aztertzen hasteko oinarria dira.

## Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Sahara

1991ko irailean sinatutako su-etenaren ondorioz, Mendebaldeko Saharako lurraldearen zati bat Fronte POLISARIOAREN kontrolpean geratu zen, zeinak Saharako lurralde osoa berreskuratzea espero baitzuen. Autodeterminazio-erreferendum bat egitea etengabe atzeratu izanak, hurrengo atalean xehatzen den moduan, barne mailako egoera hau 28 urtean mantentzen ari den errealtate bihurtu du. Gerrak iraun zuen urteen ondorioz, lurraldeak erasoen aurkako zaugarritasuna garatu zuen, eta horren ondorioz, lurralde horiek zibilen presentziarik gabe geratu ziren neurri handi batean. Hala ere, urteak igaro ahala, saharar batzuek beren herrialdean beren gobernuak kontrolatzen duen toki bakarrera bueltatzeko erabakia hartu dute, beren ohiko bizimoduekin jarraitu ahal izateko: nomadismoa eta abeltzaintza.

1991n Fronte POLISARIOAREN kontrolpean zeuden Mendebaldeko Sahararen lurralde horietan, egun, 40.000 inguru lagun bizi dira, lurralde osoan zabaltzen diren beren ohiko etxebizitzetan –*jaimak*–<sup>266</sup>. Zaila da biztanleria-kopurua zehaztea; izan ere, bizimodu nomada dutenez, ezin dira monitorizatu. Ereku horretan ez da biztanle askorik bizi eta beste biztanle saharar batzuek beste eremu batzuetan dituzten azpiegiturengandik nahiko isolatuta dago.

---

264 AFAPREDESA, *Herri baten eskubideen urraketen iraupena*, 61. or.

265 *Ibidem*, 45. or.

266 Pedro Hernández Carrión, *Refugiados permanentes: Los dilemas del pueblo saharauí*, 127. or. (2018).

Lurralde horretan, biztanleria gazteak era zuzenagoan bizi izan ditu gerraren eraginak; izan ere, gazte gehienek pertsonen kontrako minaz beteriko eremueta pasa zuten beren haurtzaroa. Txiki-txikitatik ikasi zuten *jaimatik* urrun jolasteak hiltzeko arriskua sor zezakeela, eta sentsibilizazio-tekniken bidez, gerraren hondakinak identifikatzen ikasi zuten; denek ezagutzen dute mina baten biktima izan den norbaiten historia. Hasi diren heinean, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan bizi ziren gazteak konturatu ziren minen ondorioz eremu ezezagunetan aberekin bazkatzeko eta ura bilatzeko dagoeneko ustiatutako putzuez harago joateko aukerak mugatzen zirela. Gainera, ez dira biztanleria errefuxiatuarentzako laguntza gehienen –elikagaiak, ura, medikamentuak– onuradunak, eta ez dute hezkuntzako edo osasuneko instalazio-mota berdinetan sartzeko aukerarik. Eremu horretako gazte askok lehen eskutik ezagutzen dute Saharako lurraldearen beste aldean bizi diren beren senideengandik banatzen duten harresia. Arretarik eman gabe, beren lurraldetik pasatzen diren Nazio Batuetako ibilgailuekin eta hegazkinekin ohitu dira. Horiek dira gazte sahararrek harresiaren ekialdean izan dituzten bizipen batzuk.

## Errefuxiatu sahararren<sup>267</sup> kanpamentuak

1975ean Mendebaldeko Saharan gerra armatua hasi ondoren, milaka zibil sahararrek ihes egin zuten aldameneko Aljeriako lurraldera, *wilaya* hiriburu Tindufetik hurbil, indarkeriarengandik babesteko<sup>268</sup>. Han hainbat oinarrizko kanpamentu jarri zituzten beren herrialdera, beren etxeetara, beren familiekin bueltatu eta beren bizitzak berreskuratu arte mantendu ahal izateko. Urtebete geroago, Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioak bisita egin zuen kanpamentuetara, eta honako hau egiaztatu zuen: “ezagutu genituen pertsona guztiak Mendebaldeko Saharatik zetozen; elkarrizketatu genituen guztiek esan zuten inoiz ez zutela ikusi Mendebaldeko Saharako ez zenik kanpamentuetan; denek esan zuten inbasioaren ondorioz joan zirela hara, sarraskiengandik eta [sufrimenduarengandik] ihes egiteko”<sup>269</sup>.

---

267 Eztabaida bat dago biztanleria hori ‘errefuxiatua’ dela esateko; izan ere, nazioarteko definizioaren arabera, errefuxiatu bat jaioteritik kanpo izan behar da, errefuxiatu dela ulertzeko. Adierazten dutenaren arabera, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa 1976ko otsailaren 27an aldarrikatu zen, eta kanpamentuetan bere jurisdikzioa gauzatu ahal izateko, egun horretatik aurrera, sahararrak beren estatu propioaren babespean zeuden, eta horrela, errefuxiatuen izendapena zehaztu gabe geratu zen. Onartzen bada Tindufeko kanpamentuen lurraldea Aljeriari dagokiola, ideia hori defendatzen dutenek iradokitzen dutenaren arabera, sahararrak ez dira errefuxiatuak baizik eta beren lurralde barruko erbesteratuak. Sidi Talebbuiri egindako elkarrizketa, Espainiako Abokatu Sahararren Elkarte Profesionala (2018ko abuztuaren 1a), oharrak autorearekin.

268 Tinduf inguruko kanpamentuak 1975 aurretik existitu ziren, sahararren talde handiak desplazatu zirenean Espainiaren kontrolpeko azkeneko urteetako Mendebaldeko Saharako indarkeriaren ondorioz.

269 Minority Rights Group, *The Saharawis of Western Sahara*, 11. or.



Iheslariantzako Nazio Batuetako Goi Komisarioaren (ACNUR) arabera, Tindufeko kanpamentuetan bizi diren sahararrak *prima facie* errefuxiatu moduan aintzatesten ditu Aljeriak, inolako erregistro-prozesurik edo banakako zehaztapenik egin gabe<sup>270</sup>. Erregistro faltaren ondorioz, ezin izan da kanpamentuetan bizi diren lagunen behin betiko zifra bat eman; hala ere, ACNUReko argitalpen baten arabera, 2017 amaieran, gutxi gorabehera, 173.600 errefuxiatu saharar bizi ziren kanpamentuetan<sup>271</sup>.

Gaur egun, biztanleria bost kanpamentutan edo *wilayatan* banatzen da, eta horietako bakoitzak okupatutako Mendebaldeko Saharan utzi dituzten herri garrantzitsuen izenak dituzte: Aaiun, Dajla, Smara, Auserd eta Bojador. Kanpamentuak 43 urtean existitu dira, eta denbora horretan, hasieran, larrialdi-fasean izan ziren, ondoren, erresistentzia egin zuten bizi zituzten baldintzen aurrean, eta azkenik, egungo errealitatera egokitzen saiatu ziren<sup>272</sup>. Erbestealdiaren lehenengo urteetan, behin-behinekotasuna nagusitu zen, baina hori gaur iraganeko ideia bat da. Gaur, biztanleriaren helburu nagusia bere lurraldera bueltatzea izan arren, biztanle as-

---

270 Errefuxiatuentzako Nazio Batuetako Goi Komisarioa, *Submission by the United Nations High Commissioner for Refugees for the Office of the High Commissioner for Human Rights' Compilation Report, Universal Periodic Review: 3<sup>rd</sup> Cycle, 27<sup>th</sup> Session - Algeria* (2016ko abuztua).

271 Errefuxiatuentzako Nazio Batuetako Goi Komisarioa, *Sahrawi Refugees in Tindouf, Algeria: Total In-Camp Population* (2018ko martxo).

272 Hernández Carrión, *Refugiados permanentes: Los dilemas del pueblo saharauí*, 122.-23. or.

kok, luzaroan lekualdatuta bizitzeagatik, beren bizi-baldintzak hobetu nahi dituzte<sup>273</sup>. Hainbat ikertzailek diotenaren arabera: “gerra-garaian eredu berdinzalean oinarritzen den eta trantsizio-bidean zegoen gizarte bat zen, eta helburua zuen belaunaldi guztietan elkartasuna mantentzea herri moduan irauteko eta existitzeko; hala ere, horren orde, bake-aldian, estilo egoistadun materialismoan oinarritutako gizarte-eredua ari da sortzen. Eredu hori gazteen artean ezarri da bereziki; hala ere, gainerako belaunaldietara eta zabaltzen ari da, pixkana-pixkanaka”<sup>274</sup>.

Kanpamentuetan, gazteak erbestealdian jaio dira, beren etxea, hasi diren auzoak eta beren egunerokotasuneko alderdi guztiak aldi baterakoak direla jakinez. Beren lurraren, beren etxeen, Mendebaldeko Saharan, alegia, atzean, geratu ziren senideen historiak entzuten hasi dira gazteak. Kasu gehienetan, ezin izan dituzte toki horiek eta pertsona horiek aurrez aurre ezagutu. Badakite laguntza humanitarioaren mende bizi direla. Gainera, laguntza hori zalantzan jarri da interes politikoak direla eta, nahiz eta gizaki moduan eskubideak izan; izan ere, ikusi dute beren elikagai- eta ur-errazioak murriztu egin direla beste herrialde batzuetako batzordeetan hartutako erabakien ondorioz. Gehienek Oporrak Bakean izeneko programan parte hartu dute, eta Espainiako estatuan zehar bidaiatu dute. Horrela, bizi diren munduaren ikuspegiak zabaldu dituzte, eta beren bizi-baldintzak mundu mailako desberdintasunaren esparruaren barruan kokatu dituzte. Kanpamentuetan teknologia informatikoa sartzearen eta *wilaya* gehienetan argi elektrikoa eskuratzeko aukera zabaldu ondoren, gazteak izan dira informatzen lehenak determinazio askearen eskubidea negoziatzen den prozesu politikoaren azkeneko aldaketan eta Mendebaldeko Saharan izandako azkeneko gertaeren gainean. Azterlan bat egin zen kanpamentuetan, 2017an argitaratu zena, eta ondorio hau atera zuena: “gazte sahararren helburu nagusia independentziaren alde borrokatzea eta okupatutako lurra askatzea da”<sup>275</sup>. Kanpamentuetan bizi ziren saharar egoiliar gazteen kategoria hori osatzen duen belaunaldia bere kontrol-eremutik kanpo dagoen zerbaiten zain ari da etengabe.

## Diaspora Espainiako estatuan

Marok Mendebaldeko Sahararen lurraldea inbaditu zuenetik 43 urte igaro dira; denbora horretan, saharar asko diasporara joan dira, batez ere Espainiako estatua. Izan ere, gehienek lotura sozialen, kulturalen edo legalen bat dute Saharak

---

273 Carmen Gómez Martín, “Saharais: Una Migración Circular entre España y los Campamentos de Refugiados de Tinduf,” in Carlos de Castro (ed.), *Mediterráneo Migrante. Tres décadas de flujos migratorios* (2014).

274 Carlos Vilches Plaza eta Natxo Esparza Fernández, *La juventud refugiada en los campamentos saharais*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 32. or. (2017).

275 *Ibidem*, 26. or.

lehenik kolonia moduan eta ondoren Espainiako probintzia moduan zuen estatusaren ondorioz, edo soilik hurbiltasunagatik<sup>276</sup>. Mugimendu horietako batzuk aldi batekoak izan dira –ikasleek unibertsitatean ikasketak egiteko aukera aprobetxatu dute, edo gazteek lana bilatu dute dirua irabazi ahal izateko–; aitzitik, osasunaren edo jazarpenaren ondorioz, edo soilik bizitza hobea bilatzeko, gazte saharar batzuk Espainiako estatura joan dira beren bizi-proiektuak garatzera.

Ez da ezagutzen Espainiako estatuan zenbat saharar bizi diren<sup>277</sup>; izan ere, Espainiako migrazio-agintaritzak era askotara kategorizatzen dituzte. Saharar gazte batzuk espainiarizat hartzen dira, beren gurasoen bidez Espainiako nazionalitate-ra deribatu baitira, gurasoek garai kolonialeko legeek eman zieten nazionalitatea mantendu edo berreskuratu dutelako<sup>278</sup>. Beste batzuek nazionalitatea eskuratzeko prozesu baten bidez eskuratu dute Espainiako nazionalitatea; prozesu hori bizilekuan oinarritzen da ia beti. Kasu bietan, pertsona horiek espainiar moduan sailkatzen dira soilik, eta, ondorioz, zaila da Espainiako estatuko Saharako biztanleriaren zifra adierazgarri batean txertatzea.

Hala ere, Espainiako estatuko saharar gehienek ez dute Espainiako nazionalitateirik; aitzitik, bizilekua edo beste baimen motaren bat izapidetzeko prozesuan daude, edo baimen hori dagoeneko eman diote<sup>279</sup>. Ia denak errefuxiatu sahararren kanpamentuetatik datoz –biztanleria saharar kontzentrazio handiena duen eremu geografikoa delako–, eta harrera-herrian, alegia, Aljerian igorritako dokumentuekin sartzen dira Espainiako estatuan. Haiek eramaten dizuten dokumentuen artean Espainiako estatuak aintzatesten duen dokumentu bakarra hori denez, pertsona horiek aljeriar moduan sailkatzen dira, eta Espainiako estatura migratzen duten beste aljeriar batzuekin batera kontabilizatzen dira. Bestetik, Marokok okupatutako lurraldeetatik datozen sahararrak marokoar moduan sailkatzen dira Espainiako migrazio-helburuetan, eta Espainiako estatuan bizitzeko beren herrialdea utzi duten marokoarren estatistiken barruan sartzen dira. Antzeko gauza bera gertatzen da Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetan bizi direnen kasuan. Izan ere, horiek ezin dira Espainiako estatuan sartu baldin eta Espainiako

---

276 Ikus Manuel Jesús López Baroni, "Apátridas Saharauis en España: Europa y su Memoria," Nazioarteko Zuzenbidearen Urtekari Mexikarra (2014).

277 Analista batek balioesten duenaren arabera, 10.000 saharar instalatu dira Espainiako lurraldean; hala ere, onartzen du ez dela datu zehatzik existitzen. Ikus Gómez Martín, *Saharauis: Una Migración Circular entre España y los Campamentos de Refugiados de Tinduf*.

278 Ikus Carlos Ruiz Miguel, "Nacionalidad española de ciudadanos saharauis: secuela de una descolonización frustrada (y frustrante)," Zuzenbidearen Aldizkari Orokorra (1999ko urtarrila).

279 Beste edozein biztanleriarekin gertatzen den moduan, beren migrazio-egoera erregularizatzen saiatzeko Espainiako migrazio-agintaritzara joan ez diren sahararrak izango dira ziurrenez Espainiako estatuan. Hala ere, balioespenen arabera, zifra hori oso txikia da; izan ere, dokumentuak izatea benetan onuragarria da eta dokumentu horiek lortzeko hainbat bide existitzen dira.

estatuak aintzatesten duen herrialderen batek igorritako bidaia-dokumenturen bat –pasaporte bat– ez badute. Espainiako estatuak Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa estatu moduan ez aintzatestean<sup>280</sup>, lurralde horretako sahararrek beste pasaporte bat eskuratu behar dute bidaiatu ahal izateko. Biztanle horiek Aljeriarekin, Mauritaniarekin<sup>281</sup> edo Marokorekin dituzten loturen arabera, pasaporte horietakoren bat eskuratzeko aukera izan dezakete mugimendua errazteko.

Espainiako estatura iristen diren migrante gehienak Aljeriatik edo Marokotik etortzen direnez, sahararren zifrak ezkutatu egiten dira. Ez da ezagutzen nola banatzen diren geografikoki sahararrak Espainiako estatuan; hala ere, kontzentrazio garrantzitsuak nabarmendu dira Euskadin, Andaluzian eta Katalunian, beste toki askoren artean.

---

280 SEADek pasaporte sahararrak ematen ditu, nahikoak direnak sahararrek SEAD formalki aintzatesten duten herrialdeetara bidaiatzeko.

281 Mauritaniako pasaportearen erabilera ez da mugatzen Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetako sahararrentzat; kanpamentuetan eta Marokok okupatutako lurraldeetan bizi diren batzuek ere dokumentu horiek erabiltzen dituzte, hala komeni zaielako edo lehentasun politikoagatik.

# Jadiyetu

ADINA: 31 URTE | BIZILEKUA: BARTZELONA, KATALUNIA

## “Zuk (Espainiak) kudeatutako kanpamentuetan jaio nintzen. Ez ieza dazku eskatu beste agiririk, ez baitut halakorik”

JADIYETU 1987AN JAI O ZEN, ERREFUXIATU SAHARARRENTZAKO KANPAMENTUETAN. Bere familia, familia saharar guztiak bezala, beren herrialdera, etxera, ohiko bizi-modura itzuli ahalko ziren egunaren zain zegoen beti. Txikitan, Jadiyetuk bazekien non jaio eta bizi zen, bazekien munduan ezagutzen zuen leku bakarra ez zela bere lurraldea, eta bazekien, gerra zela-eta, bere familia bereizita bizi zela: batzuk kanpamentuetan, eta besteak Mendebaldeko Sahara okupatuan. Jadiyetuk, bere belaunaldiko beste haur askok bezalaxe, hainbat aldiz bidaiatu zuen espainiar estatura Oporrak Bakean programaren bidez, eta udak Madrilgo inguruetan bizi zen harrera-familia batekin igarotzen zituen. “Aldea oso handia zen, eta inoiz ezin izan nuen gaintitu nire familiarengandik eta komunitatetik urruntzea”. Espainiar estatuan igaro nuen hirugarren uda eta gero, Jadiyetu Madril en geratu zen ikasketak amaitzeko. “Kanpamentuetan zegoen nire familiarengandik urrun egon nahi ez banuen, banekien espainiar estatuan geratzea zela ikasketak amaitzeko eta nire bizi-baldintzak hobetzeko modu bakarra”.

Baina, migratzaile gisa, Jadiyententzat ez zen batere erraza izan bere estatusa argitzea. Oporrak Bakean programako parte hartzaile guztiek bezala, “espainiar estatura pa-

saporte kolektibo batekin sartu nintzen: kanpamentuetako errefuxiatu saharar gazteen taldeei Aljeriara edota espainiar estatuko herri ezberdinetara bidaiatzea ahalbidetzen dien figura be-rezi bat da. Hemen geratzeko erabakia hartu nuenean, nire estatua erregularizatu behar izan nuen”. Lehenik, Jadiyahu Aljeriako kontsuletzera joan zen pasaporte indibiduala lortzeko; haren kasuan, errefuxiatua izanik, ez da herritartasun-agiri bat, Aljerian bizi diren errefu-xiatuentzako bidaia-txartela baizik. Bera Aljerian ez zegoela eta herritartasun aljeriarra ez zuela kontuan hartuta, Jadiyahu eta haren familiari lortzea denbora luzea kostatu zit-zaien dokumentu ugari eskatu zizkieten. “Prozesua asko luzatu zen, eta, azkenean pasapor-te aljeriarra lortu nuenean, espainiar estatuan egoitza-baimena eskatu nuen, baina ukatu egin zidaten. Ez nuen arrazoia ulertu; izan ere, oraindik ere ez dakit zergatik ukatu zidaten”. Beste aukerarik ezean, harrera-familiaren babesari esker, Jadiyahu espainiar estatuan geratu zen, ikasketak amaitu zituen arte.

Horregatik, Jadiyahu paperik gabe igaro zuen gaztaro gehiena. Orduan papergabea iza-tearen esanahia guztiz ulertzen ez bazuen ere, Jadiyahu horren ondorioak pairatu zituen. “Klaseak Gibraltarrerako txangoa antolatu zuen, baina ni ezin izan nintzen joan, ez nuelako le-gezko agiririk. Bidaia hori egin ezin izateak amorru itzela eragin zidan, baita espainiar estatua eta Aljeria nire benetako etxea ez zirela ulertzeak ere”.

18 urte bete zituenean, egoitza-baimena eskatu zuen berriz. Oraingoan, abokatu baten laguntzaz, agintariak egoitza-baimena eman zioten Jadiyahu. Horri esker, unibertsitatean enpresa-ikasketak amaitu ahal izan zituen.

Hala ere, hainbat urte igaro ondoren, legeari jarraikiz Jadiyahu herritartasun espainia-rra eskatu zuenean, agintari espainiarrek eskaera ukatu zioten, Saharako gobernuak sina-tutako agiriak baliozkoak ez zirela argudiatuz, espainiar estatuak onartu gabeko herrialde batek izenpetuak zeudelako.

“Ukoa surrealista izan zen. Niri egoitza-baimena emateko Saharako agiriak onartu zituen erakunde berak herrialde berberak izenpetutako agiriak errefusatu zituen herritartasun-eskae-raren kasuan. Are gehiago, nire gurasoak jaino ziren kolonia kudeatzen zuen herrialdeko aginta-riak izan ziren niri herritartasuna ukatu zidatenak. Nire gurasoak espainiarrak ziren. Espainiaren erabakiek eta Mendebaldeko Saharako deskolonizazioaren aurkako jarrerak eragindako gerra batetik ihes egin behar izan zuten, eta, horregatik, ni Saharako gobernuak zuzendutako errefu-xiatuentzako kanpamentu batean jaino nintzen”. Saharako agintariak emandako agiriak baino ezin nituen aurkeztu egoitzan oinarritutako herritartasuna eskatzeko. Baina espainiar esta-tuaren ardura historikoa gorabehera, espainiar agintariak agiri horiek errefusatu zituzten.

“Abokatu baten laguntzaz, ukoaren aurreko errekurtsioa aurkeztu nuen, eta gertaera horren inguruko kanpaina bizia abiatu nuen. 2015eko urrian, herrialdean sartu nintzen azken alditik 20 urte igaro zirela, espainiar gobernuak herritartasun espainiarra onartu zidan azkenik”.

Gaur egun, Jadiyahu Bartzelonan bizi da eta enpresa baten erosketa-sailean lan egiten du. Pozik dago bere bizitza profesionalarekin eta espainiar estatuak lan arloan prestatzen



jarraitzeko eskaintzen dizkion aukerekin, baina “papergabea izateari utzi diodan arren, oraindik ez nago erabat lasai, ez nagoelako etxean sentitzen naizen munduko leku bakarrean: Mendebaldeko Saharan”.

**TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:**

**DISKRIMINAZIORIK EZA, HERRITARTASUN-ESKUBIDEA, MUGIMENDU-ASKATASUNA, AUTODETERMINAZIO-RAKO ESKUBIDEA.**



### III

## GAZTE SAHARARREN GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ETA GABETZEAK

16 urteko gerra izan zuen, 27 urtean geldialdi politikoa jasan du erreferendumaren inguruan, eta 43 urte igaro dira okupazioa, desplazamendua eta erbesteratzea gertatu zirenetik, eta gaur, sahararrak ohitu egin dira giza eskubideen urraketekin. Gazteen kasuan, beren eskubideak urratzeko kasuak maiz, etengabe eta era hedatuan gertatu dira. Egoera horrek hainbat eskubide-kategoriari eragin die, eskubide kolektiboak, eskubide zibilak eta politikoak barne, baita eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ere.

### **Eskubide kolektiboak**

#### ***Autodeterminazioa***

Hazi den tokia alde batera utzita, Saharako gazteria laster konturatzen da bere herriak ezin izan duela autodeterminaziorako eskubidea gauzatu. Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan hasi diren gazteek eguneroko gertaerekin deskribatu zuten nola konturatu ziren okupazioaz: beren gurasoak negarrez ikusten zituztelako; audio-zintetan grabatutako senideen mezuak edo irratietan iraultzako abestiak ezkutuan entzuten zituztelako; hirietako eskolen eta kaleen inguruetan soldaduak edo tankeak zeudela ikusten zutelako; eskolako irakasleek eta kideek sahararrak izateagatik diskriminatzen eta iraintzen zituztelako; manifestatzaile sahararren aurka ezarritako indarkeria eta horrek sortzen duen beldur-giroa ikusten zutelako; edo ezagunen bat edo senideren bat desagertu dela, atxilotu dutela edo erail dutela jakin dutelako.

Okupatutako lurraldeetan elkarrizketatutako lagun askok esan zuten okupazioaren egoera keinu sotilen bidez ulertu zutela beren haurtzaroan zehar. Zenbaitentzat, etxean erabiltzen zuten arabiarreko *hassaniya* dialektoaren eta kaleetan eta eskoletan entzuten zuten marokoarren *dariya* dialektoaren arteko ezberdintasuna zen. Beste batzuk esan zuten erasoak bizi izan zituztela beren etxean kontra, indarkeria beren senideen aurka, senideen desagertpenak, eta beste hainbat esperimentzia traumatiko bizi izan zituztela haurtzaroan.

Bestetik, saharar errefuxiatuen kanpamentuetan hasi diren gazteek esan zuten konaturatu zirela beren herriak ez zuela determinazio askeko eskubidea gauzatu babeslekuan bizi zirela ulertu zutenean: gosea pasa zuten laguntza humanitarioaren banaketan gabeziak izateagatik elikagai nahikorik ez zegoelako; sukarrak, gripeak, ebakiak eta beste hainbat lesio txiki jasan behar izan zituzten kanpamentuetan ematen zen oinarritzko osasun-arretan baliabideak falta zirelako; senideren bat okupatutako lurraldeetan gaixotzen bazen hori ikustera joateko modurik ez zutelako; edo udako muturreko beroa Aljeriako hamadako *jaima* apaletan jasaten zutelako, sentitzen baitzuten ez zuela merezi etxe sendoago batean inbertitzea, lur hori ez zegokielako, eta oraindik ere egunen batean beren lurraldera bueltatzeko itxaropena dutelako.

Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetan hasi ziren gazteek gerraren hondakinak ikusi zituztenean izan zuten beren herriaren determinazio librearen aldeko borrokaren berri: abandonatutako tankeak, bala-zorroak eta modu tinkoan minatu zituzten landa-eremuak: Jakin zutenean pertsonen kontrako minek sortzen zuten arriskuagatik ezin zutela paseatu hainbat eremutatik, eta harresia bera ikusi zutenean, Mendebaldeko Saharako alderdi horretako gazteria konaturatu zen bere herriak ez duela askatasunaz gozaten.

Diasporan, gazteria sahararrak ulertzen du determinazio librea ez izateagatik berriz ere erbesteratu behar izan direla; izan ere, nahiz eta gazte saharar batzuek atzerrian egonkortasuna izan, ez dute erabateko borondatez erabaki ahal izan atzerrian bizitzea. Distantziarekin, horietako asko nazioarteko komunitatearen alde-tik irainduta sentitzen dira, komunitate horrek bakearen eta justiziaren diskurtso hutsalak proposatzen baititu. Ikuspegi hori diasporako gazteriaren identitatearen oinarritzko elementua da.

### **Autodeterminaziorako eskubidearen oinarri juridikoa**

1970eko hamarkadatik aurrera, sahararrek determinazio libreko erreferenduma egiteko itxaropena izan dute, horren bidez erabaki ahal izateko zein den beren posizioa nazioarteko komunitateko gainerako estatuen aldean<sup>282</sup>. Saharar herriarentzat, eskubide horrek oinarri independente eta osagarri asko ditu: (1) lurralde ez-autonomo gisa duen estatutu juridikoa, Nazio Batuek kudeatutako deskolonizazio-proiektura atxikitzen dena; (2) herri guztiek determinazio librerako duten eskubidea, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak berariaz aintzatesten duena; (3) Afrikako herrien eskubideak, Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutunak babesten dituztenak; eta (4) nazioarteko ohiturazko zuzenbidearen ondoriozko arauak.

---

282 Saharako herria “herri” moduan eratzen dituen ezaugarriak aztertzeke, ikus Antonio José Montoro Carmona, “La política de Derechos Humanos de Marruecos en el Sahara Occidental: Consecuencias sobre el activismo saharauí” (2008).

## Autodeterminazioa lurralde ez autonomoen eskubide moduan

Mendebaldeko Sahara osatu gabeko deskolonizazio-prozesu batean dago, eta prozesu hori oraindik ere Espainiako kontrol eraginkorraren menpe zegoenean hasi zen. I. atalean xehatu den moduan, Mendebaldeko Saharari ezin izan zitzaion ezarri herrialde eta herri kolonialei independentzia ematearen gaineko 1514 (XV) Ebazpena, Espainia, alegia, potentzia administratzailea, 1976an atera zelako alde-bakarreko eran. Hortik aurrera, Mendebaldeko Sahararen gaineko Nazio Batuetako ebazpen askok 1514 Ebazpenaren erreferentzia mantendu dute, eta lurralde horrek deskolonizaziora atxikitako lurralde ez-autonomoen zerrendan jarraitu du, Deskolonizazioaren Batzorde Bereziaren ikuskapenarekin<sup>283</sup>.

1514 Ebazpenak honako hau aintzatesten du: “herri guztiak determinazio librea izateko eskubidea dute; eskubide horri jarraikiz, modu librean determinatzen dute beren baldintza politikoa, eta modu librean garatzen dute beren maila ekonomikoa, soziala eta kulturala. Maila politikoan, ekonomiko-sozialean edo hezkuntzakoan prestakuntzarik ez izatea ez da inoiz ere aitzakia bat izan behar independentzia atzeratzeko”<sup>284</sup>. Alde horretatik, Nazio Batuen Gutunean iragarritako honako proposamen honetan oinarritzen da: “herrien eskubide berdinen eta determinazio librearen eskubideen printzipioan oinarritutako harreman adiskidetsuak garatzea”<sup>285</sup>.

Hortaz: “herrien determinazio librea, nazioarteko zuzenbidearen printzipio bat izateaz gain, menderakuntza kolonialean eta atzerritarrean dauden herrien eskubidea ere bada, baita baldintza edo aurre-baldintza bat ere gizabanakoaren gainerako eskubideak eta askatasunak izateko eta disfrutatzeko”<sup>286</sup>. Egoera kolonialean, lurralde baten egoera koloniala ezkututzen duten lege-fikzioek, hau da, ‘batasun nazionalak’ edo ‘lurralde-integritateak’ ezin dute suntsitu mendeko herriek beren determinazio librea gauzatzeko duten eskubidea<sup>287</sup>.

Deskolonizazioaren esparruan determinazio librea izateko eskubideak, gainera, jasotzen du herriek eskubidea dutela “beren aberastasunak eta baliabide naturalak modu librean erabiltzeko” beren helburuak betetze aldera”<sup>288</sup>. 1962an, Batzar Nagusiak ezarri zuen herriek eskubidea zutela beren baliabide naturalen gainean

---

283 Batzorde Berezia 24koen Batzordea ere deitzen da, egun dituen parte-hartzaile kopurua aipatuz. 1961eko azaroaren 27ko Batzar Nagusiko 1654 (XVI) Ebazpenaren bidez sortu zen.

284 Batzar Nagusia, 1514 (XV) Ebazpena, 2.-3. paragr.

285 Nazio Batuen Gutuna, 1. art.

286 Nazio Batuak - Bereizkeriaren Prebentziorako eta Gutxiengoen Babeserako Azpibatzerdea, *The Right to Self-Determination: Implementation of United Nations Resolutions*, E/CN.4/Sub.2/405/Rev.1, 52. paragr. (1979ko urtarrila).

287 *Ibidem*, 90. paragr.

288 Batzar Nagusia, 1514 (XV) Ebazpena.

etengabeko burujabetasuna izateko<sup>289</sup>, eta ondoren emandako zenbait ebazpenetan potentzia administratzaileei aholkatzen zien lurralde ez-autonomoetan burutu-tako jarduera ekonomikoek bat egin zezatela herriek determinazio librea izateko duten eskubidearekin, eta administrazio horiei eskatzen zien herriek beren baliabide naturalak erabiltzeko duten eskubide besterenezina berma zezaten eta baliabide horien etorkizuneko aprobetxamendua kontrolatzea ziurta zezaten<sup>290</sup>. Burujabetasun horrek nahitaez debekatzen ditu lurraldeko herriaren premiak, interesak eta onurak kontuan ez dituen lurralde ez-autonomo baten baliabide naturalekin lotu-tako jarduerak<sup>291</sup>.

Deskolonizazio-prozesua Batzar Nagusiaren 1541 (XV) Ebazpenak eraentzen du baita ere, lurralde ez-autonomo baten determinazio librea gauzatzean honako hiru emaitza posible hauek hautematen dituenak: (1) Estatu independente eta burujabea bihurtzen da; (2) asoziazio askea ezartzen da Estatu independente batekin; edo (3) Estatu independente batean txertatzen da<sup>292</sup>. 1541 Ebazpenak ohartarazten du beste estatu batean integratzeko erabakia soilik hartu behar dela herri horrek erakunde politiko eta gobernatzeko erakunde propioak garatzen dituenean, zeinaren bidez herriak aukeratzeko benetako gaitasuna izango baitu<sup>293</sup>. Alde horretatik, egoera kolonialean determinazio librea izateko, biztanleriari nolabaiteko kontsulta egin behar zaio; ordezkarien artean negoziatutako akordio bat ez litzateke oso konbentzionala izango eta soilik onartuko litzateke baldin eta dagokion herriaren borondatea adieraziko balu, borondate hori modu askean adierazi ondoren<sup>294</sup>.

Araudi-esparru horrek, Nazio Batuen deskolonizazio-proiektuaren oinarria denak, adierazten du Saharako herriak, herria den neurrian, eskubidea duela bere egoera politikoa askatasunez erabakitzeko eta bere garapena zuzentzeko. Deskolonizazioaren Batzorde Bereziak Mendebaldeko Sahararen egoera<sup>295</sup> aztertzen jarraitu izanak azaltzen du Saharako herriaren eskubide hori ez dela irauungi.

---

289 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Baliabide naturalen gaineko burujabetza iraunkorra*, 1803 Ebazpena (XVII) (1962ko abenduaren 14a).

290 Ikus Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, Gai Juridikoetako idazkari nagusi laguntzaileak Segurtasun Kontseiluko presidenteari 2002ko urtarrilaren 29an bidalitako gutuna, aholkulari juridikoa, S/2002/161, 10. paragrafoa. (2002ko otsailaren 12a).

291 *Ibidem*, 24. paragrafoa.

292 Batzar Nagusia, 1541 (XV) Ebazpena, VI. printzipioa.

293 *Ibidem*, IX. printzipioa.

294 New York City Bar, *The Legal Issues Involved in the Western Sahara Dispute: The Principle of Self-Determination and the Legal Claims of Morocco*, 73. or.

295 Ikus Nazio Batuak - Batzar Nagusia (Politika Bereziko eta Deskolonizazioko Batzordea), *Ebazpenerako proiektua: Mendebaldeko Saharako kasua*, A/C.4/73/L.3\* (2018ko urriaren 8a).

## Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea

Bestetik, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arauk beste oinarri bat ezartzen dute Saharako herriak autodeterminazioaren eskubidea aldarrikatu ahal izateko. 1966ko tratatu biek –Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenak eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturaren Nazioarteko Hitzarmenak– eskubide hori baieztatzen dute beren lehenengo artikuluan, beren artean antzeko hizkera erabiliz, baita 1514 Ebazpenaren zati baten antzeko hizkera erabiliz ere.

1. Herri guztiek determinazio librerako eskubidea dute. Eskubide horri jarraikiz, modu askean ezartzen dute beren izaera politikoa, eta era berean, beren garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala gauzatzen dute.
2. Beren helburuak lortzeko, herri guztiek askatasunez erabil ditzakete beren aberastasunak eta baliabide naturalak, elkarrekiko onuraren printzipioan eta nazioarteko zuzenbidean oinarritutako nazioarteko kooperazio ekonomikoaren ondoriozko obligazioei kalterik egin gabe. Inola ere ezingo zaizkio herri bati kendu bizirauteko bere baliabide propioak.
3. Hitzarmen horretako estatu alderdiek, baita lurralde ez autonomoak eta fidekomisoan dauden lurraldeak administratzeko ardura dutenek ere, determinazio libreko eskubidea gauzatzea sustatuko dute, eta eskubide hori Nazio Batuen Gutunaren xedapenen arabera errespetatuko dute<sup>296</sup>.

Eskubide hori lehenengo tokian jartzea eta hitzarmen bietan aipatutako gainerrako eskubideengandik aparte uztea erabaki hausnartua eta arrazoitua izan zen, Giza Eskubideen Batzordearen arabera; izan ere, determinazio librearen eskubidea “bereziki garrantzitsua da, hori gauzatzea funtsezko baldintza baita gizabanakoen giza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta zaintzeko, eta eskubide horiek sustatzeko eta indartzeko”<sup>297</sup>.

Afrikako eskualde-sisteman determinazio librearen eskubidearen babesa Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutunaren 20. artikuluan jasotzen da: “Herri guztiek existitzeko eskubidea izango dute. Autodeterminaziorako eskubide eztabaida ezina eta besterenezina izango dute. Beren egoera politikoa askatasunez erabakiko dute eta garapen ekonomikoa eta soziala gauzatuko dute, berek askatasunez aukeratu duten politikaren arabera”<sup>298</sup>. Artikulu horretan bertan, honako hau esaten da: “kolonizatutako edo zapaldutako herriek menderakuntzaren loturetatik

---

296 Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena, 2. art. (1966ko abenduaren 16a). Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturaren Nazioarteko Ituna, 2. art. (1966ko abenduaren 16a).

297 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, 12. ohar orokorra: *Determinazio libreko eskubidea (1. artikulua)*, HRI/GEN/1/Rev.9 (1. alea), 1. paragr. (1984ko martxoaren 13).

298 Gizaki eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutuna, 20. art (1981eko uztailaren 27a).

askatzeko eskubidea izango dute, nazioarteko komunitateak aintzatetsitako edozer bide erabiliz”<sup>299</sup>.

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) estatu independente moduan aintzatetsi den arren Afrikako Batasunaren barruan, estatua izatearen baldintza horrekin ez da amaitzen Saharako herriaren determinazio librearen gaia, oraindik ere eskubidea baitu bere izaera politikoa kolektiboki aukeratzeko prozesu batean parte hartzeko. Afrikako Batasunak eta bere aurreko erakundeak, alegia, Afrikako Batasunaren Erakundeak, hainbat aldiz aipatu izan dute determinazio librearen eskubidea, Nazio Batuen Erakundeak Mendebaldeko Sahararen gaiaren ardura 1976an bere eskuetan utzi zuenetik, eskualde mailako gai bat baitzen<sup>300</sup>. SEAD Afrikako Batasunaren Erakundearen (ABE) moduan aintzatesteak ez zituen baliogabetu determinazio librearen aipamenak ABEn eta Afrikako Batasunaren (ABren) ondorengo adierazpenetan.

SEAD Afrikako estatu izateak determinazio librearen nazioarteko zuzenbide osagarriaren beste printzipio bat aplikatzea dakar, hau da, *uti possidetis*. Afrikako testuinguruan, *uti possidetis* printzipioak eskualde mailako konpromisoa hartzea dakar muga kolonialen integritatearen aurrean, Afrikako maparen berrantolaketa osoa saihesteko<sup>301</sup>. ABeko herrialdeek Kairoko Adierazpena onartu zuten 1964an, honako hau adostuz: “Afrikako Estatuaren mugak, independizatzen diren egunean, errealitate ukigarria osatzen dute”; eta “Estatu kide guztiek zin egiten dute beren independentzia nazionala lortzean existitzen diren mugak errespetatzeko”<sup>302</sup>. Kontuan izanik Mendebaldeko Saharako muga kolonialak nazioarteko tratatu batean finkatu zirela XX. mendeko lehenengo hamarkadetan, *uti possidetis* printzipioak Saharako estatuaren izaera zaintzeko balio du; izan ere, Saharako herriaren determinazio librea deskolonizazioaren esparruan gerta daiteke soilik.

### Nazioarteko ohiturazko zuzenbidea

Herrien autodeterminazioa *erga omnes* izaerako eskubide moduan aintzatetsi da, Nazioarteko Justizia Auzitegiak Ekialdeko Timor kasuaren azterketaren esparruan egin zuen analisiaren arabera, non eskubide hori funtsezkoa eta akasgabea zela deskribatu baitzen<sup>303</sup>. Karakterizazio horrek nazioarteko adostasun bat islatzen du, non determi-

---

299 *Ibidem*.

300 Ikus Susan M. Akram, “Self-determination, Statehood, and the Refugee Question under International Law in Namibia, Palestine, Western Sahara and Tibet” in *Still Waiting for Tomorrow: The Law and Politics of Unresolved Refugee Crises*, 94. or. (2014).

301 Lyakat Ali, “The Western Sahara Issue - Decolonisation or greater Morocco,” 61. eta 67. or.

302 Afrikako Batasunaren Erakundea, *Afrikako herrialdeen arteko muga-gatazkak*, AHG/Res.17(1) (1964ko uztailaren 21a) (ingelesetik itzulitakoa).

303 Ikus Nazioarteko Justizia Auzitegia, *Ekialdeko Timorren Kasua (Portugal v. Australia)*, Epaia, ICJ Reports 1995, 102. or., 29. paragrafo; Nazioarteko Justizia Auzitegia, *Palestina okupatutako lurraldeko harresiaren eraikuntzaren ondorio juridikoak*, 156. paragrafo.



nazio librea oinarrizko eta funtsezko elementu bat baita gizakiarentzat. Gainera, Nazio Batuetako adituek egindako azterketa batean zehaztu denaren arabera, autodeterminazioa *jus cogens* arau bat da, hau da, indargabetzerik ez da onartzen<sup>304</sup>.

### **Saharako herriaren izaera politikoaren ezarpenaren atzerapena luzatu egin da**

Mendebaldeko Saharako autodeterminazioaren aldeko borroka egungo Saharako gazteen belaunaldia jaio aurrekoa da; hala ere, beren izaera politikoa erabakitzeke askatasunik ez izateak etengabe eragiten die gazte sahararrei beren bizitzetan, bizi diren hainbat lekutan. Belaunaldi hori erreferendum bat izateko promesen inguruko garai batean jaio zen, eta botazio hori egiteko aukera beren begien aurrean desagertzen ikusi zuen. Mendebaldeko Saharako herriari autodeterminazioaren eskubidea gauzatzea dagokio, lurralde ez-autonomoaren izaera delako eta herri guztien giza eskubidea delako; hala ere, eskubide hori erabat galarazi da nazioarte mailan politizatutako prozesu luze baten ondorioz.

### **Su-etena**

Gerra aurretik erreferendum bat egitea aurreikusi zen, Mendebaldeko Saharako deskolonizazio-prozesua egiteko. Baina 1975etik 1991ra arte, Saharako herriak, Fronte POLISARIOAREN ordezkarezekin, borroka armatua erabili zuen bere lurraldearen kontrola izan ahal izateko eta bere egitura politiko propioa ezartzeko. Gerra 1991ko irailan amaitu zen, eta su-etinari hasiera eman zion konponketa-plana sinatu zen, erreferendum bat adostuz, zeinaren helburu nagusia baitzen Saharako herriari “determinazio librearen eta independentziaren eskubidea gauzatzeko” aukera ematea<sup>305</sup>.

Baldintzak kontuan harturik, su-etena indarrean jarri ondorengo hiru hilabeteetan egin behar zen erreferenduma; baina zenbait hilabete geroago, idazkari nagusiak honako hau onartu zuen: “zenbait ataza oso geldik egin dira, eta, ondorioz, egutegia egokitu behar izan da dagoeneko”<sup>306</sup>. Atzerapen horiekin batera, erreferendumean parte hartuko zuten hautesleak identifikatzeko prestakuntza-prozesua gauzatu zen, hainbat urtetan luzatu zena; izan ere, Maroko hautesle-kopurua

---

304 Nazio Batuak - Bereizkeriaren Prebentziarako eta Gutxiengoaren Babeserako Azpibatzaordea, *Errelatorearen Txostena*, E/CN.4/1296, 163.-172. paragr.; Bereizkeriaren Prebentziarako eta Gutxiengoaren Babeserako Azpibatzaordea, *The Right to Self-Determination: Implementation of United Nations Resolutions*, 50. paragr.

305 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren eta Afrikako Batasunaren Erakundearen Estatu-buruen eta Gobernu-buruen Batzaordearen egungo presidentearen proposamenak Mendebaldeko Saharako gaiari konponketa bat emateko, alderdiek, hasiera batean, 1988ko abuztuaren 30ean onartu zutena, S/21360 (1990eko ekainaren 18a). Testu hori Konponketa Plan moduan ezagutu zen, Segurtasun Kontseiluak 658 Ebazpenaren bidez onartu zuena (1990eko ekainaren 17a).

306 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/23299 Ebazpena, 7. paragr. (1991ko abenduaren 19a).

handitzen saiatu zen, Marokoko hainbat eremutan bizi ziren marokoar nazionalak hautesleen artean sartuz. Idazkari nagusiak honako hau salatu zuen: “Lurraldera hainbat pertsona eraman dira, Mendebaldeko Saharakoak direla esanez. Nire us-tez, etapa honetan ahalik eta neurritasunik handiena gauzatu behar da, konponke-ta-planak horrelako neurrien mehatxurik ez izatea bermatzeko”<sup>307</sup>.

Gazteei dagokienez, su-etena oraindik oso txikiak zirenean sinatu zen, eta kasu batzuetan, jairo baino urte batzuk lehenago egin zen. Nahiz eta sinatze horren impli-kazio politikoak ez ulertu, beren senideen itxaropena gogoratzen dute. Kanpamen-tuetan hasi zen gazte batek adierazi zuen bere amona kutxa bat prestatzen hasi ze-la bere familiaren ondasunak bilduz, atzean utzi zuen etxera berehala bueltatuko zela uste baitzuen, hamabost urte geroago. Beste gazte batek, kanpamentuetan jai-ro zenak eta egun Espainiako estatuan bizi denak, auzoko emakumeen arteko elkarri-zketa biziak deskribatu zituen, non Mendebaldeko Saharako hainbat eremuetako batera bueltatzean egingo zituzten planak azaltzen zituzten; batzuek kostaldeko Dajla hirira joatea pentsatzen zuten, eta pozik zeuden laster itsasoa ikusiko zute-lako berriz ere. Elkarrizketatutako gazteen arabera, hurrengo urteetan, itxarope-na murrizten hasi zen, eta haurrek ere hala hauteman zuten.

### **Hautesleak identifikatzeko prozesua**

Nahiz eta konponketa-planak beste gauza bat ezarri, Saharako herriak determi-nazio librea gauzatzeko zuen eskubidea behin eta berriz atzeratu zen. Izan ere, alde batetik, nahiz eta Nazio Batuen ebazpen askok eskubide hori aintzatetsi “ebazpen horietako ezeinek ez du ‘herri’ terminoaren definizio zehatzik ematen, eskubide hori gauzatzeko helburuak bete ahal izateko”<sup>308</sup>. Konponketa-planaren zehaztape-nen arabera, hautesleak aukeratzeko irizpideak Espainiako agintaritza kolonialek 1974an gauzatutako azkeneko errola hartuko zen oinarri. Hala ere, erroldatik ba-ztertuak izan zirela alegatzen zuten milaka lagun hautesleen zerrendan sartzea bultzatu zuen Marokok, eta horrek hainbat eragozpen sortu zituen Fronte POLISA-RIOAREN aldetik, eta, ondorioz, identifikazio-prozesua gelditu egin zen. 1993. urte hasieran honako hau hauteman zen: “konponketa-planaren inguruko xedapenen gainean alderdi biek dituzten ikuspuntuak erabat aurkakoak dira; izan ere, alderdi batek 1974ko erroldan jasotako lagunen zerrendari funtsezko garrantzia ematen dio; aitzitik, beste alderdiak puntu horri ez dio halako garrantzirik ematen”<sup>309</sup>.

---

307 *Ibidem*, 11. paragr.

308 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/26797 Ebazpena, 24. paragr. (1993ko azaroaren 24a).

309 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/25170 Ebazpena, 15. paragr. (1993ko urtarrilaren 26a).

1993ko maiatzaren eta ekainaren artean, garai hartako Nazio Batuetako idazkari nagusiak bisita egin zuen eremura, eta zuzenean bilera egin zuen alderdiekin eta gainerako interesdunekin honako helburu honetarako: “alderdiei eskatzea bozkatzeko eskubidea ezartzen duten irizpideen interpretazioaren eta aplikazioaren inguruko transakzio-irtenbide bat onar zezaten”<sup>310</sup>. Bozkatzeko irizpideen gainean tarteko irtenbide bat lortzeko zenbait urrats egin ondoren, 1993ko uztailan, Marokoko agintariek eta Fronte POLISARIOAK bilera egin zuten Mendebaldeko Saharako hiriburu Aaiunen, non hautesleak identifikatzeko prozesua ofizialki aktibatu zen, Identifikazio Batzorde bat eta Erreferendum Batzorde bat sortuz, biak MINURSOren barruan<sup>311</sup>. 1994an hautesleen hasierako zerrenda bat argitaratu zen eta hautesleen gaineko informazioa biltzen hasi ziren kanpamentuetan, identifikaziorako prozesu formalari hasiera emanaz<sup>312</sup>. Idazkari nagusiak beste bisita bat egin zuen 1994an, eta ondoren, ACNUReko misio tekniko bat joan zen 1995eko otsailan, errefuxiatutako biztanleak aberriatzeko planak berrikusteko, erreferendumean parte hartu ahal izan zezaten<sup>313</sup>.

1995eko ekainean, Segurtasun Kontseiluak misio bat bidali zuen Mendebaldeko Saharara, konponketa-planaren ezarpena azkartzeko asmoarekin<sup>314</sup>. Hala ere, hilabete horretan bertan Fronte POLISARIOAK bertan behera utzi zuen hautesleak identifikatzeko prozesuko bere parte-hartzea, Marokoko auzitegi militar batek zortzi saharar 15 eta 20 urteko espetxealdiekin zigortu zituelako, Aaiunen manifestazio batean parte hartzeagatik. Bestetik, Marokok identifikazio-prozesuan Mendebaldeko Saharatik kanpo bizi ziren 100.000 lagun gehitzeko asmoa azaldu zuen, hautesle potentzial moduan<sup>315</sup>. 1995eko irailean, Segurtasun Kontseiluak honako hau deitoratu zuen: “Marokoko Gobernuak lurraldean bizi ez diren 100.000 eskatzaileak aztertzean, MINURSOk ezin du identifikazio-prozesua amaitzeko egutegia bete”<sup>316</sup>.

Noizean behin hautesleak identifikatzeko prozesuari ekin zitzaion berriz ere; hala ere, 1996an Marokok nabarmendu zuen ebaluazio-irizpideak egokitu behar

---

310 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/26185 Ebazpena, 5. paragr. (1993ko uztailaren 28a).

311 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako erreferenduma antolatzeko eta egiteko araudi orokorra*, S/26185 Ebazpena (1993ko uztailaren 28a).

312 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/1994/283 Ebazpena (1994ko martxoaren 10a); *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/1994/819 Ebazpena (1994ko uztailaren 12a).

313 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/1995/240 Ebazpena, 28. paragr. (1995eko martxoaren 30a).

314 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Segurtasun Kontseiluaren Misioren Txostena, 1995eko ekainaren 3tik 9ra Mendebaldeko Saharara bidalitakoa*, S/1995/498 Ebazpena (1995eko uztailaren 21a).

315 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/1995/779 Ebazpena (1995eko irailaren 8a).

316 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, 1017 Ebazpena, S/Res/1017 (1995eko irailaren 22a).

zirela dozenaka milaka lagun horien eskaerak kontuan hartu ahal izateko, zeinak, lurraldetik kanpo bizitzeaz gain, Espainiako azkeneko erroldan jasotako talde tribal ezeinetakoak ez baitziren<sup>317</sup>. Fronte POLISARIOAK aurkako jarrera tinkoa hartu zuen aldaketa horiek aurretiaz ezarritako irizpideen artean txertatzearen aurrean; aitzitik, Marokok nabarmendu zuen hautesleen zerrendan sartzeko eskaera guztiak hartu behar zirela kontuan, eta, ondorioz, Idazkari nagusiak MINURSO kentzea proposatu zuen, baldin eta alderdiek ezin bazuten akordiorik lortu<sup>318</sup>.

1996ko urtarrilean, Segurtasun Kontseiluak dagoeneko aintzatetsi zuen geldialdi-egoera bat zegoela, eta 1996ko maiatzean Idazkari nagusiak honako hau egin behar izan zuen: “nahitaez ondorioztatu behar izan zuen ez zela behar besteko borondatearik existitzen MINURSOri behar zuen laguntza emateko identifikazio-prozesua denbora-epe arrazoitsuan berrezartzeko eta amaitzeko; eta identifikazio-prozesua etetea gomendatu zuen”<sup>319</sup>. 1056 Ebazpenarekin, Segurtasun Kontseiluak identifikazio-prozesua etenarazi zuen<sup>320</sup>.

Garai horretan okupatutako lurraldeetan hasi ziren elkarrizketatutako zenbait gaztek deskribatu zutenaren arabera, nolabaiteko isolamendua eta abandonua bizi izan zuten nazioarteko komunitatearen aldetik. Horietako batzuek bost edo sei urte zutenean izan zuten itxaropena iraungi egin zen jada. Marokok milaka marokoar erroldan txertatzeko jarrera hartu zuen, eta gazte horiek beren auzoetan ikusi zutena islatzen zuen horrek, hau da, marokoarrak etengabe sartu zirela lurraldean eta egoiliar finko moduan ezarri zirela Mendebaldeko Saharan, eta, ondorioz, eremu horretarako demografia etengabe aldatu zela. Elkarrizketatuek deskribatu zutenaren arabera, baztertuak izan ziren beren jaioterrian, horietako batek deskribatzen duenaren arabera. “Gure herrialde propioan migranteak izango bagina moduan sentitu nintzen.” Beste batzuek deskribatu zutenaren arabera, marokoarrek iraindu egiten zituzten, bai haiek bai beren familiak: haien hitz egiteko moduagatik, janzteko moduagatik, eta Fronte POLISARIOAGATIK, non guraso askok militatzen zuten.

### Houstongo Akordioa: 1997

1997ko martxoan, garai hartako idazkari nagusi Kofi Annanek James Baker III, Ameriketako Estatu Batuetako Estatu Idazkari ohia, Mendebaldeko Sahararako ordezkari berezi izendatu zuen, “egoeraren ebaluazio berri bat egin zezan, eta alderdi interesdun

---

317 Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1995/779* Ebazpena.

318 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1996/43* Ebazpena (1996ko urtarrilaren 19a).

319 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1996/343* Ebazpena (1996ko maiatzaren 8a).

320 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, 1056 Ebazpena (1996ko maiatzaren 29a).

guztiekin une hartako geldialdia gainditzeko modua aztertu zezan<sup>321</sup>. Izendapen horren ondorioz, hainbat elkarrizketa egin ziren zuzenean Fronte POLISARIOAREN eta Marokoren artean Lisboan, Londresen eta azkenean Houstonen, non hainbat akordio sinatu zituzten, azkeneko elkarrizketa horren ondoren indarrean jarri zirenak.

1997ko Houstongo akordioak hautesleen identifikazio-prozesua berraktibatu zuen berriz ere<sup>322</sup>. Berriz ere, Nazio Batuen misio bat joan zen eremura egoera ebaluatu zezan, akordioak erabat inplementatu zitezten, eta “Lurraldean erreferendum bat egin zedin, Mendebaldeko Saharako herriak askatasunez aukera zezan, murrizketa administratiborik eta militarrik gabe, independentziaren eta Marokorekin integratzearen artean<sup>323</sup>. Houstongo akordioaren barruan egindako aurrerapenen esparruan, Fronte POLISARIOAK eta Marokoko agintariak 1. Akordio Militarra adostu zuten, eta horrela, Mendebaldeko Saharako lurraldeko jardunbide-arauak ezarri ziren<sup>324</sup>.

Nahiz eta akordioak egin, 1998. urtean oraindik ere hainbat ezberdintasun zeuden Marokoko ikuspegiaren eta Fronte POLISARIOAREN artean; izan ere, Maroko baztertu egin zen negoziazio-prozesuaren ondorioz hartutako hainbat konpromisotatik, eta hori Houstongo akordioan islatu zen<sup>325</sup>. 1998ko irailean 147.000 gizabanakoren eskaerak berrikusten amaitu zen, hautesleen zerrendaren parte izan zitezten. Hala ere, oraindik ere zenbait azpi-tribu zerrendan txertatzeko gaiak mahai gainean jarraitzen zuen; izan ere, azpi-tribu horiek identifikazio-prozesuan parte hartzeak gatazka sortu zuen alderdien artean, eta “itopuntu” batera iritsi ziren, nahiz eta alderdi biek berretsi zuten erreferenduma ahalik eta azkarren egitea garrantzitsua zela<sup>326</sup>. Garai hartako idazkari nagusiak bisita egin zuen eremura 1998ko azaroan, non hainbat proposamen zehatz egin ziren azpi-tribu horien kideen eskaerak kontuan har zitezten, eskaera bakoitzari berrikuspen-prozesu zorrutz bat ezarritz<sup>327</sup>. Fronte POLISARIOAK proposamen horiek onartu zituen prozesua azkartu zedin. Hala ere, Marokoko Gobernuak hainbat hilabete eman zituen

---

321 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1997/358* Ebazpena, 22. paragr. (1997ko maiatzaren 5a).

322 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1997/742* Ebazpena (1997ko irailaren 24a).

323 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1997/882* Ebazpena, 13. paragr. (1997ko azaroaren 13a).

324 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1998/35* Ebazpena (1998ko urtarrilaren 15a); 1. hitzarmen militarra.

325 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1998/634* Ebazpena, 6. paragr. (1998ko uztailaren 10a).

326 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1998/997* Ebazpena (1998ko urriaren 26a).

327 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1998/1160* Ebazpena (1998ko abenduaren 11).

idazkari nagusiaren proposamenei aldaketak proposatzeko; azkenean, aldaketa horiek alderdi biek onartu zituzten 1999ko maiatzean<sup>328</sup>.

### **‘Baieztapen’ erreferenduma**

Hassan II.a erregea 1999ko uztaila amaieran hil zenean, Mohamed VI.a erregeak hartu zuen Marokoko tronua, eta bere lehenengo hitzaldian honako hau esan zuen: “erabakitasunez zaindu nahi zuela Marokoko lurraldearen integritatea, ‘baieztapen’ erreferendum bat eginez Nazio Batuen babespean”<sup>329</sup>. Marokok erreferendumen gainean zuen jarrera aldatu egin zen, hala erakutsi baitzen MINURSOk lehen identifikazio-prozesuaren emaitzak argitaratu ondoren. Izan ere, MINURSOk autodeterminazioaren gaineko erreferendumerako gutxi gorabehera 198.000 balizko hautesleren identifikazioa osatu zuen, eta, horren ondorioz, Nazio Batuek 2000ko otsailean baliozkotutako 86.349 hautesleren behin-behineko zerrenda bat argitaratu zuten<sup>330</sup>. Marokoko agintariek publikoki salatu zuten dozenaka milaka eskaerari uko egin zietela hautesleen zerrendan sartzeko; hala ere, eskatzaile horiek apelazio-errekurtso bat jartzeko eskubidea zuten oraindik<sup>331</sup>. Horren ondorioz, idazkari nagusiak honako hau adierazi zuen 2000. urtean: “azkeneko bederatzi urteetako, eta bereziki, azkeneko hilabeteetako gertaerek benetako kezka sortu dute, eta alderdi biek onartutako konponketa-plana eta akordioak adostasunarekin eta oztoporik gabe ezartzea lortzeko aukeren gainean zalantzak sortzen dira”<sup>332</sup>.

2000. urteko maiatzaren eta ekainaren artean, alderdiek bilera egin zuten zuzenean Londresen, ordezkari pertsonal Bakerren deiari erantzunez, 1997ko Hous-tongo akordioak egin zirenetik lehenengo aldiz<sup>333</sup>. Idazkari nagusiaren ordezkari pertsonalaren ustez, negoziazio horiek porrota izan ziren: “izan ere, alderdi ezeinek ez du inolako jarrerarik agertu ‘irabazleak dena eramango du’ mentalitatea baztertzeke, eta alderdi ezein ere ez dago prest inolako irtenbide politikorik aztertzeke, non alderdi bakoitzak nahi duen zerbaite eskuratuko lukeen, nahiz eta ez

---

328 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1999/483/Add.1* Ebazpena (1999ko apirilaren 27a).

329 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1999/875* Ebazpena, 3. paragr. (1999ko abuztuaren 12a).

330 Fronte POLISARIOA, *Mendebaldeko Saharako Kasuari buruzko Memorandua*, Namibiak Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari 2000ko irailaren 12an bidalitako Gutunaren Eranskina, A/55/384 (2000ko irailaren 14a).

331 Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/1999/875* Ebazpena, 6. eta 9. paragr.

332 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2000/131* Ebazpena, 36. paragr. (2000ko otsailaren 17a).

333 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2000/461* Ebazpena (2000ko maiatzaren 22a).

dena, eta, horren ondorioz, kontrako alderdiak beste hainbeste lortuko lukeen”<sup>334</sup>. Baker jaunaren arabera, “akordio negoziatu bat har zitekeen Mendebaldeko Sahara erabat integratu zedin Marokorekin, edo erabateko independentzia lor zedin; hala ere, bere ustez, aukera horietako bat ere ez zen gauzatzeko modukoa”<sup>335</sup>.

Beste hainbat bilera egin ziren Genevan 2000ko uztailean, eta Berlinen 2000ko irailean. Azken horretan, Marokoko ordezkariak honako hau adierazi zuen: “nahiz eta borondate on asko jarri, ezin dira gainditu [konponketa-planaren] ezarpenean agertzen diren zailtasun guztiak”<sup>336</sup>. Bilera horretan bertan, ordezkari pertsonalak honako hau adierazi zuen: “determinazio librea lortzeko modu asko daude. Gerraren edo iraultzaren bidez lor daiteke; hauteskundeak eginez lor daiteke, baina horretarako borondatea behar da; edo akordio batera iritsiz lor daiteke, alderdiek beste hainbatetan egin izan zuten moduan”<sup>337</sup>. Adierazpen horien esparruan, Marokok konponketa-planaren aldean independentea den irtenbide bat aipatu zuen, eta egun duen jarrera zorrotza kontuan izanik, “irtenbide iraunkorra eta behin betikoa aurkitzen lagunduko luketen baliabide guztiak aztertzeko jarrera zuela nabarmendu zuen, Marokoko subiranotasuna eta lurralde-osotasuna kontuan hartuz”<sup>338</sup>.

Elkarrizketatutakoek deskribatu zutenaren arabera, tentsioak areagotu egin ziren garai horretan lurralde horietan, okupazioaren eta erresistentziaren finkapenean ondorioz; izan ere, 1999an *intifada* lehertu zen. Deskribatu zutenaren arabera, Mohamed VI.a erregea autodeterminazioa galarazteko arduradun nagusia izan zen, eta prozesu politikoak sinesgarritasun oso gutxi zuen. Independentzia autodeterminazioaren gaineko elkarrizketen parte izan zen beti; baina orain asmo hori desagertzen ari zen nazioarteko agendan, “nazioarteko komunitatearen konplizitate osoarekin”, Mendebaldeko Saharako okupatutako eremuetako gazte batek nabarmendu zuen moduan.

### **Marokok eta Nazio Batuek Konponketa Plana eta osteko akordioak bertan behera utzi izana**

2001eko otsailean, garai hartako idazkari nagusiak Mendebaldeko Saharako potentzia administratzaile moduan deskribatu zuen Maroko, ziurrenez *de facto* kontrol-egoeraren ondorioz. Izan ere, horrek implizituki esan nahi zuen lurraldeari

---

334 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2000/863* Ebazpena, 8. paragr. (2000ko uztailean 12a).

335 *Ibidem*, 9. paragr.

336 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2000/1029* Ebazpena, 11. paragr. (2000ko urriaren 25a).

337 *Ibidem*, 13. paragr.

338 *Ibidem*, 15. paragr.

deskolonizazio-esparru bat ezarri ahal zitzaioa, kontuan hartu ondoren Maroko prest ote zegoen “lurraldeko egungo biztanle eta biztanle ohi guztien onurarako nazioarteko arauekin bat zetorren agintaritzza egiazko eta substantziala transferitzeko aukera eskaintzeko edo babesteko”<sup>339</sup>.

2001. urtean, Paris-Dakar rallya egitea aurreikusten zen, Mendebaldeko Saharako lurraldetik hainbat aldiz pasa zena, Marokoren zein Fronte POLISARIOAREN baimena jaso ondoren. Oraingo honetan, izaera pribatuko ekitaldi horren antolatzaileek ez zioten baimenik eskatu Fronte POLISARIOARI, eta, horren ondorioz, rallya salatu egin zen, su-etena urratzeagatik; gainera, jarduera militarretara bueltatzeko mehatxuak egin zituzten alderdi biek<sup>340</sup>.

Borrokak ez ziren berrezarri; hala ere, alderdien arteko giroa eta dinamikak erabat aldatu ziren, eta, horren ondorioz, ordezkari pertsonal Baker jaunak “esparru-akordio” proiektu bat aurkeztu zuen, alderdiek kontuan har zezaten<sup>341</sup>. Proposamen horrek Mendebaldeko Saharako lurraldea Marokorekin integratzea aurreikusten zuen, baita botereak eta agintaritzak estilo federalistan banatzea ere, non biztanleek bozketa batean parte hartuko zuten lurraldeko botere betearazlea gauzatuko zukeen pertsona aukera zezaten<sup>342</sup>. Inon ere ez zen aipatu Saharako herriak hamar urtean zehar prestatzen ari zen autodeterminaziorako edo erreferendumerako zuen eskubidea. Azkenetan, Fronte POLISARIOAK irmo baztertu zuen proposamen hori, “azkeneko hiru hamarkadetan Mendebaldeko Saharako deskolonizaziorako Nazio Batuek adostutako prozesua eta jarraitutako prozedura erabat desbideratzen baitzuen”<sup>343</sup>.

Proposamen horrek aldaketa garrantzitsu bat azaltzen du Nazio Batuek gatazkaren gainean zuten ikuspegiaren gainean. Izan ere, irmoki azpimarratu zuten Saharako herriak determinazio libreko erreferenduma egin behar zuela; baina orain, alderdi biek onar zezaketen irtenbide politikoa eta negoziatua proposatzen zen. Aldaketa hori hainbat urtean zehar landu zen. Hala ere, Bakerrek 2001ean eskainitako proposamenak ez zuen inola ere kontuan izan prozesuaren oinarritzko eskubide besterenezina.

Fronte POLISARIOAK nabarmendu zuen alderdiak azkeneko hamar urteetan garatzen ari ziren konponketa-plana egin nahi zuela, eta horren inguruan emaki-

---

339 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2001/148* Ebazpena, 2. paragr. (2001eko otsailaren 20a).

340 *Ibidem*, 3. paragr.

341 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2001/613* Ebazpena (2001eko ekainaren 20a).

342 *Ibidem*, 1. eranskina.

343 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2002/41* Ebazpena, 1. eranskina (2002ko urtarrilaren 10a).



dak egiteko prest zegoela. Baina: “Marokok adierazi du ez dagoela prest konponketa-planarekin jarraitzeko”. Ondorioz, ordezkari pertsonal Baker jaunak ondorioztatu zuenaren arabera “oso-oso gertagaitza da konponketa-plana praktikan jarri ahal izatea, Mendebaldeko Sahararen inguruko eztabaidari irtenbide azkarra, iraunkorra eta hitzartua eman ahal izateko”<sup>344</sup>.

Horrela, 1991ko konponketa-plana burutzea bertan behera geratu zen. 2002ko apirilean, egoerari aurre egiteko lau forma posible jarri ziren mahai gainean: (1) konponketa-planaren ezarpena nabarmentzea; (2) ordezkari pertsonal Baker jaunak proposatutako ‘akordio-esparrua’ aurrera eramatea; (3) lurraldea bitan zatitzea; edo (4) MINURSO kentzea eta Nazio Batuek egoera bertan behera uztea<sup>345</sup>.

### **Baker Plana: Bakearen Plana**

2003. urte hasieran, Fronte POLISARIOAREN uko egiteari eta Segurtasun Kontseiluak aurreko proposamena ez babesteari erantzunez, ordezkari pertsonalak beste hainbat proposamen aurkeztu zien alderdiei, Mendebaldeko Saharako biztanleen determinazio librerako bake-planaren zirriborro bat barne, “zeinak ez baitu alderdi bien baimenik behar ezarpen-etapa guztietako bakoitzean”<sup>346</sup>. Proposamen hori Segurtasun Kontseiluak onartu zuen, eta horren ustez, bake-plan hori “alderdi bien arteko akordioan oinarritutako irtenbide politiko ezin hobea” zen<sup>347</sup>.

Hain zuzen ere, proposamen horren esparruan artikulatu zuen bere jarrera argi eta garbi. Izan ere, ordezkari pertsonalaren arabera, “Marokok bake-planaren gainean duen eragozpen nagusia zera da, Mendebaldeko Saharako azken helburuko izaera zehazteko erreferendumean, zirudienez, aukeretako bat independentzia zela”. Hala ere, independentzia konponketa-planean planteatzen diren aukeretako bat ere bada, eta Marokok hori onartu zuen... Zaila da irtenbide politiko bat planteatzea non... determinazio libreko eskubidea aurreikusten den, baina, hala ere, independentziaren aukera baztertzen den, erreferendumaren galderen arteko batean”<sup>348</sup>.

Bake-planaren proposamenaren aurrean zenbait eragozpen izan arren, Fronte POLISARIOAK proposamen hori oso-osorik onartu zuen 2003ko uztailaren 6an<sup>349</sup>. Hala

---

344 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2002/178* Ebazpena, 44. eta 48. paragr. (2002ko otsailaren 19a).

345 *Ibidem*.

346 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2003/565* Ebazpena, 49.-50. paragr. (2003ko maiatzaren 23a).

347 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, 1495 Ebazpena, S/RES/1495, 1. paragr. (2003ko uztailaren 31).

348 Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2003/565* Ebazpena, 51. paragr.

349 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2003/1016* Ebazpena, 26. paragr. (2003ko urriaren 16a).

ere, Marokok ia urtebete behar izan zuen proposamena baztertzeko, eta honako hau adierazi zuen: “autonomian oinarritutako irtenbide politikoa behin betikoa izan behar-ko da, eta horrek, jakina, ondorio negatiboak ditu determinazio librea gauzatzeko”<sup>350</sup>.

Ondorengo hilabeteetan eta urteetan, Marokok bake-plana baztertzen jarraitu zuen, eta azaldu zuen “elkarren artean onar zitekeen autonomia-estatutu bat negoziatzeko interesa zuela soilik, Lurraldeko herriak bere gaiak administra ditzan, eta aldi berean, Erreinuko subiranotasuna eta lurralde-osotasuna errespeta zedin”<sup>351</sup>. Prozesua berriz ere gelditu egin zen, eta, ondorioz, ordezkari pertsonal Baker jaunak dimisioa aurkeztu zuen, eta idazkari nagusiak adierazi zuen “Mendebaldeko Saharako herriak determinazio librea gauzatzeko eskubidearen helburua lortzea zaila zela oraindik ere”<sup>352</sup>.

Marokok behin eta berriz azaldu zuen “ez zuela onartuko independentziaren aukera barne hartzen zuen erreferendumik”, eta jarrera hori zorroztu egin zuen<sup>353</sup>. Garai hartako idazkari nagusiak onartu zuen, itxura batean, behintzat, jarrera horrek ez zuela bat egiten su-etena egin zenetik lantzen ari ziren proiektuarekin, eta 2006an adierazi zuen “Nazio Batuek ezin zutela egiazko erreferendum bat bazter-tuko lukeen plan bat babestu, eta aldi berean esan Mendebaldeko Saharako herri-ri determinazio librea ematen ziotela”<sup>354</sup>.

Hala ere, Saharako herriak determinazio librea izateko zuen eskubidea nabarmendu orde, Nazio Batuen Erakundeak alderdien arteko negoziazio zuzenak bultzatu zituen “aurretiazko baldintzarik gabe”, Segurtasun Kontseiluak –deskolonizazio-printzipioak eta giza eskubideen printzipioak direla eta– inoiz babestu edo onartu ezingo zukeena lortzeko asmoarekin<sup>355</sup>. “Segurtasun Kontseiluak errealitate politiko bat onartu zuen, hau da, inork ezingo zuela Maroko behartu Mendebaldeko Sahararen gaineko subira-notasun-aldarrikapena bertan behera uztera. Ondorioz, konturatu zen soilik bi aukera geratzen zirela: egungo geldialdia betirako luzatzea, errealitate politiko ezberdin bat izan arte; edo alderdien arteko negoziazio zuzenak gauzatzeko”<sup>356</sup>. 2006an, negoziazio zuzenak lortzeko alderdiei egindako deialdian, idazkari nagusiak honako hau onartu

---

350 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2004/325* Ebazpena, 5. paragr. (2004ko apirilaren 23a).

351 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2004/827* Ebazpena, 6. paragr. (2004ko urriaren 20a).

352 *Ibidem*, 42. paragr.

353 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2006/249* Ebazpena, 6. paragr. (2006ko apirilaren 19a).

354 *Ibidem*, 31. paragr.

355 *Ibidem*, 34. paragr.

356 *Ibidem*, 32. paragr.

zuen: “Segurtasun Kontseiluak ezin zien alderdiei gonbidapenik egin Mendebaldeko Sahararen autonomia Marokoren subiranotasunaren menpe negoziatzea; izan ere, hori hala eginez gero, Marokok Mendebaldeko Sahararen gainean subiranotasuna duela aintzatetsiko litzateke, eta hori kontsiderazio guztietatik kanpo zegoen, Nazio Batuetako Estatu Kide ezeinek ez baitzuen subiranotasun hori aintzatetsi”<sup>357</sup>.

2006an, Marokok Nazioarteko Justizia Epaitegiko 1975eko Iritzi Aholku Emailearen gainean zuen jarrera azaldu zuen, eta esan zuen –iritziaren berariazko testuaren aurka–, Epaitegi horrek ezarri zuenaren arabera ez zela aplikatu behar Mendebaldeko Saharako lurraldearen deskolonizazioaren gaineko 1514 Ebazpena<sup>358</sup>. Idazkari nagusia urrundu egin zen Iritzi Aholku Emailearen irakurketa horretatik. Hala ere, azaldu zuenaren arabera, Segurtasun Kontseiluak berariazko ahalmena zuen egoerari nola ekin erabakitzeke; izan ere, 1514 Ebazpena, Batzorde Nagusiko ebazpen ororen moduan, ez da zuzenean ezartzen. Alde horretatik, Segurtasun Kontseiluak aukeratu beharko luke egoerari nola aurre egin: arazoa modu baketsuan konpondu ahal izateko eztabaida moduan, Nazio Batuen Gutunaren VI. kapituluaren arabera; edo bakea mehatxatzen duen eraso-egintza moduan, VII. kapituluaren arabera<sup>359</sup>. Hala ere, idazkari nagusiak berretsi zuenaren arabera, negoziazioetan hitzartutako helburu bakarra determinazio librea gauzatzea zen<sup>360</sup>.

### **Marokok Marokoren subiranotasunaren menpeko ‘autonomia’ aukera nabarmentzen du**

2007ko apirilaren 11ko gutun batean, Marokok Segurtasun Kontseiluko presidenteari honako hau aurkeztu zion: ‘Marokoren ekimena Saharako eskualdeko autonomia-estatutua negoziatzeko’. Ekimen horretan, baieztapen-erreferendum bati atxikitako eskualde-autonomiaren antzeko zerbaiten gaineko lehenagoko hainbat proposamenetan planteatutako ideia asko hartzen ziren<sup>361</sup>. Ekimen horretan berriaz jasotzen da Marokok ‘autonomia’ hitzaren bertsio mugatua Mendebaldeko Saharako onartuko duela soilik. Bere ikuspuntuaren arabera, independentzia ez dago eta ezin da inola ere izan mahaiaren gainean.

Alderdi bakoitzak 2007ko apirilean aurkeztutako proposamenak jaso zituen Segurtasun Kontseiluak, eta “oniritiz jaso zuen Marokok egindako ahalegin serioak

---

357 *Ibidem*, 37. paragr.

358 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/2006/817 Ebazpena, 14. paragr. (2006ko urriaren 16a).

359 *Ibidem*, 15. paragr.

360 *Ibidem*, 19. paragr.

361 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Nazio Batuetako Marokoko Ordezkaririk Iraunkorrek Segurtasun Kontseiluko Presidenteari 2007ko apirilaren 11n bidalitako Gutuna*, S/2007/206 (2007ko apirilaren 13a).

eta sinesgarriak prozesuari irtenbide bat eman ahal izateko”; aitzitik, Fronte POLISARIOAK aurkeztutako proposamena “jaso” egin zuen soilik, zeinak, nahiz eta aurreko akordioekin bat egin, ez baitzuen Kontseiluaren oniritzirik jaso<sup>362</sup>.

2007ko ekainaren eta abuztuaren artean eta 2008ko urtarrilaren eta martxoaren artean, negoziazio zuzenak egin ziren Marokoren eta Fronte POLISARIOAREN artean Estatu Batuetan; 2000. urtetik lehenengo aldiz bildu ziren<sup>363</sup>. Hala ere, alderdi biek jarraia oso ezberdinak mantentzen jarraitzen zuten, irtenbide politiko bidezkoa, iraunkorra eta elkarrentzako onargarria zena lortu ahal izateko, Mendebaldeko Saharako herriaren determinazio librea aurreikusiz<sup>364</sup>. 2009ko abuztuan, negoziazio-txanda berria burutu zen Austrian, eta ondoren, bigarren saio bat egin zen 2010eko otsailean<sup>365</sup>. Bilerari horietan ezin izan ziren gauditu 2007ko apirilean alderdiek proposatutako jarrerak.

### Geldialdi iraunkorra

Gdim Izik kanpamentuaren inguruan hainbat gertaera izan ziren; izan ere, kanpamentu hori aktibista sahararrek muntatu zuten okupazioaren menpeko lurraldeetan 2010eko urrian, eta Marokoko segurtasun-indarrek erresistentziarekin eta bortizki eraitsi zuten 2010eko azaroan, eta, ondorioz, horrek Marokoren eta Fronte POLISARIOAREN arteko negoziazio-prozesua arriskuan jarri zuen. Izan ere, Marokoko segurtasun-indarrek kanpamentua eraitsi zuten unean, alderdiak bilerak egiten ari ziren zuzeneko negoziazio-esparruaren barruan Estatu Batuetan<sup>366</sup>. Hala ere, alderdi biek beste bi saiotan parte hartu zuten 2010eko abenduan eta 2011ko urtarrilean, Estatu Batuetan baita ere. 2011ko otsailean Genevan izan ziren; 2011ko martxoan Maltan; 2011ko uztailean Estatu Batuetan; 2011ko azaroan eta 2012ko urtarrilean Genevan; eta 2012ko martxoan Estatu Batuetan izan ziren<sup>367</sup>. Hainbat topaketa egin arren, orduko idazkari nagusiak 2013ko apirilean laburtu zuen moduan, “negoziazioen prozesua geldirik zegoen, alderdi biek ez dutelako nahi izan bakoitzaren proposamenen aurkezpenetik eta defentsatik harago joan”<sup>368</sup>.

---

362 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, 1754 Ebazpena, S/Res/1754 (2007ko apirilaren 30a).

363 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2008/251 Ebazpena (2008ko apirilaren 14a).

364 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2009/200 Ebazpena, 12. paragr. (2009ko apirilaren 13a).

365 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2010/175 Ebazpena, 14.-16. paragr. (2010eko apirilaren 6a).

366 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2011/249 Ebazpena, 29. paragr. (2011ko apirilaren 1a).

367 *Ibidem*; Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2012/197 Ebazpena (2012ko apirilaren 5a).

368 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/2013/220 Ebazpena, 109. paragr. (2013ko apirilaren 8a).

2013tik aurrera, Nazio Batuek ikuspuntua aldatu zuten, eta prozesu politikoan lorpenak izateko helburua hartu zuten, alderdi bakoitzaren eta Nazio Batuen arteko alde biko negoziazioen bidez. 2014ko azaroan, Mohamed VI.a erregeak adierazi zuenaren arabera “Saharak Marokoko parte izaten jarraituko du betierekotasunean, eta autonomiaren gaineko ekimena da Marokok eskaini dezakeen gehiena, eskualdeko gatazkari behin betiko irtenbidea ematea lortzeko”<sup>369</sup>. Fronte POLISARIOAK hitz horiek salatu zituen.

2015ean, Marokok honako ideia hau adierazi zuen: “giza eskubideak egunero eta etengabe gauzatuz eman daiteke determinazio libre, bereziki garapen ekonomiko, soziala eta kulturala lortzeko lanaren bidez, prozesu formal baten bidez gauzatu ordez”<sup>370</sup>. Idazkari nagusiak bisita bat egin zuen eremura 2016an negoziazio-prozesua berpizteko. Hala ere, ‘okupazio’ hitza erabili zuen Marokok Mendebaldeko Saharako eremu garrantzitsuetan gauzatutako kontrola deskribatzeko, eta, ondorioz, konfiantza-krisialdi bat sortu zen, eta Marokok negoziazio-prozesua bertan behera utzi zuen.

### Statu quo

Ibilbide hori guztia laburbiltzeko zera esan daiteke, su-etena eman zenetik 27 urte igaro ondoren, Saharako herriak bere determinazio libreko eskubidea gauzatzeko erreferenduma oraindik ez dela egin. 2018ko abendu hasieran, alderdiek negoziazio zuzenetan parte hartu zuten Genevan, Mendebaldeko Saharako egungo Idazkari nagusiaren ordezkari berezi Colin Stewarten babespean; hortaz, mahaian eseri dira berriz ere, sei urte igaro ondoren. Hala ere, erreferendum bat egiteko gaia ez zen agendan jaso. Izan ere, gai-zerrendan “oraintsuko gertaeren balantze bat egin zen soilik, eskualdeko gaiak landu ziren eta prozesu politikoaren hurrengo urratsak eztabaidatu ziren”<sup>371</sup>. Are gehiago, erreferendum bat egiteko aukera urrundu egin da<sup>372</sup>. 2001etik aurrera, Segurtasun Kontseiluak “erreferendum hitza desage-

---

369 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/2015/246 Ebazpena, 5. paragr. (2015eko apirilaren 10a).

370 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/2016/355 Ebazpena, 21. paragr. (2016ko apirilaren 27a).

371 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, 2440 Ebazpena, S/Res/2440 (2018ko urriaren 31). Nazio Batuak, Ordezkari Bereziaren Komunikatua (2018ko abenduaren 6a).

372 Hori hala izan zen Afrikako Batasunak Saharako kausaren aldeko ebazpenak eman zituen arren hainbat urtean. Afrikako Batasunaren Biltzarrak hainbat alditan berretsi du, baita ere, Saharako herriak autodeterminaziorako duen eskubidea. 2009an, Afrikako gatazken gaineko Biltzarraren saio berezi baten esparruan, erreferendum bat egiteko ahaleginak areagotzeko deia egin zen, Saharako herriak independentziaren eta Marokoren erreinuan integratzearen artean aukera zedin. Era berean, 2013an, Afrikako Batasunaren Kontseilu Betearazleak Afrikako Batasunaren Batzordeari eskatu zion “behar besteko neurriak har zitzan Mendebaldeko Saharako herriaren autodeterminaziorako erreferenduma antolatzeko, Afrikako Batasunaren Erakundeak erabaki nabarmenak eta Nazio Batuetako ebazpenak betetze aldera. Ikus Afrikako Batasuna - Kontseilu Betearazlea, *Erabakiak*, EX.CL/Dec.726-766 (XXII).

rrarazi zuen Mendebaldeko Saharako gaiaren gaineko ebazpenetan (MINURSOaz halabeharrez ari denean izan ezik)<sup>373</sup>. Orain, ebazpen horiek “elkarren artean onar daitekeen konpromiso batez hitz egiten dute soilik, nazioarteko zuzenbidearen eta egungo errealitate politikoen dagozkion printzipioetan oinarriturik”<sup>374</sup>. Prozesu horretan, Segurtasun Kontseiluak ez du “irtenbide bat inposatzeko jarrerarik hartu, Marokori independentziaren aukera jasotzen duen erreferendum bat onartzera behartuz”<sup>375</sup>. Ondorioz, Segurtasun Kontseilua ez dirudi prest dagoenik Saharako herriari autodeterminazioaren eskubidea bermatzeko. Oraindik ez dira ezagutzen martxan jarraitzen duen egungo negoziazio-txandean emaitza; hala ere, aztertutako esparru historikoak ez du ezer onik aurreikusten Saharako determinazio librearen eskubidea gauzatzeari dagokionez.

---

373 Rosa Riquelme Cortado, “Marruecos frente a la (des)colonización del Sáhara Occidental,” Nazioarteko Zuzenbidearen Urtekari Mexikarra, 220. or. (2013).

374 *Ibidem*.

375 Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera*, S/2006/817 Ebazpena, 13. paragr.

# Mohamed

ADINA: 35 URTE | BIZILEKUA: MEHRIES, FRONTE POLISARIOAK KONTROLATUTAKO MENDEBALDEKO SAHARA

**“Armadan egotea, gure kasuaren alde gerrara joateko prest egotea da egin dezakedan zentzuzko gauza bakarra. Ez da konponbiderik izango gerrarik gabe”**

**M**OHAMED ERREFUXIATUENTZAKO KANPAMENTUETAN JAIO ZEN, FRONTE Polisarioaren eta Marokoren arteko gerra-garaian. Hazi ahala, bere jaioterrian izandako aldaketak eta itzuleraren gai betierekoari buruz ikasten joan zen. “Gerra amaitu aurretik jaio ginen pertsonentzat, gatazka gure haurtzaroaren parte izan zen. Gerran hil zirenetako batzuk ezagutzen nituen. Txikia nintzen arren, haietaz oroitzen nintzen. Gerra eta indarkeria oso presente zeuden. Prozesu politikoa hurbiletik jarraitzen nuen. Eskolan nengoen 1991n bake-ituna sinatu zutenean, eta gogoan dut jendearen itxaropena, baina urteak igaro eta gatazka konpondu gabe segitzen zuela ikusita, politikariengan nuen konfiantza galdu nuen. Bigarren hezkuntza amaitzen ari nintzela, bake-estrategiak inora eramango ez gintuela ulertu nuen”.

2000. urtean, Paris-Dakar rallya zela-eta Marokoren eta herri sahararraren arteko tentzioak berpiztu zirenean, Mohamed prest zegoen armak hartu eta berriz gerrari ekiteko. “Ikaslea nintzen artean, baina berriei adi nengoen. Oso haserre eta guztiz gogaituta nengoen ‘bake-plana’ sinatu zutenetik bederatzti urtera ezer aldatu ez zela ikusita. Ez nuen ikasten jarraitu

nahi. Txinparta bat sentitu nuen nire barruan. Adin nahikoa ez nuenez, hurrengo lau urtean ez zidaten armadan sartzen utzi”.

Mohamedek ikasteko baliatu zuen aldi hura. Kanpamentuetatik atera zen ikasketak Aljerian jarraitzeko. Baina horrek ez zizkion ideiak aldatu. “Adin nahikoa izan bezain laster, armadan izena eman nuen. Orain hamalau urte daramatzat Saharako Herri Askapenerako Armadan. Hemen ondo sentitzen naiz, egin dezakedan zentzuzko gauza bakarra da. Hemen egon ezean, ez dut beste aukerarik. Saharako gazteok ez dugu etorkizunik. Ia gaztaro osoa lapurtu digute”. Mohamed konbentzituta dago konponbide politiko bat ez dela okupazioari amaiera emateko modu errealista. “Hautatu ditugun ordezkariak errespetatzen ditugu, baina politikaren bidetik ez dugu ezer lortuko. Nahiago dut ez pentsatu gure egoerak horrela jarrai dezakeela betiko, etorkizuna oso tristea litzatekeelako. Bizia emateko prest nago nire herriak askatasuna lor dezan”.

#### **TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:**

**BIZI-MAILA EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA, BIZITZA PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIOARAKO ESKUBIDEA.**



## **Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen ustiapena Marokoren eskutik**

Lurraldeko izaera politikoa definitzeko askatasunaren osagarri moduan, –hau da, autodeterminaziorako eskubidea izatea, bai deskolonizazio-prozesuaren bidez, bai giza eskubideen printzipioen eta arauen bidez–, herriek beren baliabide naturalen gaineko subiranotasuna ere izan dezakete. Saharako herriarentzat, autode-terminazio-eskubidea atzeratzeak bere baliabide naturalak eskuratu ezin izana ekarri du, eta aldi berean, baita baliabide horiek azkarrago agortzea ere, Marokok, indar okupatzaileak, era intentsiboan ustiatu baititu.

Mendebaldeko Saharako lurraldeak eta itsasoko urek mundu mailan garrantzitsuak diren baliabide natural asko dituzte, besteak beste fosfato-gordailuak, arrantza-tokiak eta petrolioaren prospekzioa; izan ere, horiek dira Marokok ustiatzen dituen baliabide nagusiak.

## **Noiz hasi zen Maroko Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak kontrolatzen**

Mendebaldeko Saharako fosfatoak 1947an aurkitu ziren lehenengo aldiz Espainiako agintaritza kolonialaren menpe. Espainiako estatuko Industriaren Institutu Nazionalari zegokion Bu-craa edo Fos-Bucraa fosfatuen enpresak erazuten zituen, eta 1975ean, Madrilgo Akordioaren bidez, enpresa horren zati bat Marokoko estatuari transferitu zitzaion<sup>376</sup>. Handik aurrera, Marokok, Fosfatoen Bulego Cherifiaren bidez, Fos-Bucraa meatzea administratu du eta horren irabaziak jaso ditu<sup>377</sup>.

1975eko hirutariko akordioak Marokori eman zion, baita ere, Mendebaldeko Saharako kostaldeetan arrantza egiteko eskubidea<sup>378</sup>, eta Espainiaren eta Marokoren arteko enpresa-lankidetzaz ezarri zuen “Saharako lurraldean ustiapen mineralogikoa burutzeko”<sup>379</sup>. 1976an, lurraldea kontrolatzeko gerra lehertu zenean, Marokok estrategia bat bultzatu zuen baliabide naturalak eskuratzeko ziurtatzeko. Era berean, 1980tik aurrera banatzeko harresia eraikitzearen helburuetako bat honako hau zen, besteak beste: “Mendebaldeko Saharako lpar-mendebaldeko eskualdea kontrolpean izatea, hor kokatzen baitira fosfatoen meatze nagusiak eta bere kostaldeko itsasoko baliabideak; izan ere, Marokoko agintariak beren onurarako ustiatzen dituzte baliabide horiek, Saharako biztanleen nahiak eta interesak kontuan hartu gabe, zeinak ez baitute jarduera horien gaineko inolako errentagarritasunik jasotzen, ezta lan-indar moduan ere”<sup>380</sup>.

---

376 Western Sahara Resource Watch, *P is for Plunder*, 8. or. (2017ko apirila).

377 *Ibidem*.

378 Garatutako elkarrizketetako akta, batetik, Marokoko Erresumaren eta Mauritaniako Errepublikako Islamikoaren ordezkartzen eta, bestetik, Espainiako ordezkartzen artean, Saharako administrazioaren transferentziaren ondorioz sortutako faktore ekonomikoak direla eta (1975eko azaroaren 14a).

379 Marokoren eta Espainiaren arteko elkarrizketetako akta, haien arteko lankidetzaren ondorioz sortutako faktore ekonomikoak direla eta (1975).

380 Rosa Riquelme Cortado, *La Soberanía Permanente del Pueblo Saharaui sobre Sus Recursos Naturales*, 404.-05. or. (2011).

1991ko su-etenak egonkortasun handiagoa sortu zuen eskualdean; baina era berean, Marokok Sahara Mendebaldeko baliabide natural gehiago saldu zituen, Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak aztertzeko eta ustiatzeko akordioak sinatu baitzituen, bai alde biko akordioak, konpainia pribatuekin eta estatuekin, bai aldeanitzeko akordioak, erakundeen eta Estatuetak elkarrean bidez<sup>381</sup>.

### **Marokoren eta Europar Batasunaren arteko akordioak, eta akordio horiek Mendebaldeko Saharari ezartzea inpugnatzeko prozesua**

Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen ustiapenean Marokoren bazkiderik nabarmenena Europar Batasuna izan da. Espainia eta Portugal Europako Ekonomia Erkidegoaren parte izan zirenean 1986an, EEEk Marokoren eta herrialde bi horien artean existitzen ziren arrantza-akordioak berretsi zituen<sup>382</sup>. Akordio horiek iraungi zirenean, akordio zuzenak egin ziren EEEren eta Marokoren artean 1988an eta 1992an; azkeneko akordio hori Europar Batasun sortu berriaren babespean egin zen “Batasuneko arrantzaleek arrantzan egiteko aukera gehiago izan zezaten Marokoko subiranotasunaren edo jurisdikzioaren menpeko uretan<sup>383</sup>. 1996an, Europar Batasunak Elkartzeko Akordio bat sinatu zuen Marokorekin, 2000tik 2012ra indarrean izan zena, eta arrantza-baliabideez haragoko harreman komertzialen oinarriak ezartzen zituena, merkataritza askeko eremu bat ezartzea barne, era berean, produktu industrialak, nekazaritzakoak eta arrantzakoak merkaturatzeko parametroen liberalizazioa ere ezarri zuen<sup>384</sup>.

Mendebaldeko Saharan parametro horiek ezartzen zirela argi ikusi zen. Izan ere, aurreko akordioak iraungi ondoren, arrantza-sektoreko berariazko akordio

---

381 Mendebaldeko Sahararen baliabide naturalen ustiapenean inguruan Marokok sinatutako akordio guztien azterketak txosten honen irismena gainditzen du. Hala ere, Western Sahara Resource Watch erakundearen argitalpenek informazio xehatuagoa ematen dute horren inguruan.

382 Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, Espainiako Erresuma eta Portugalgo Errepublikak Europako Erkidegoetara atxikitzeko prozesuaren gaineko agiria, OJ L 302, 128. or. (1985eko azaroaren 15a); Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, Kontseiluaren Erabakia, 1987ko abuztuaren 13koa, *Ohar Truke erako akordioaren gauzapena dela eta, Europako Ekonomia Erkidegoaren eta Marokoko Erresumaren arteko arrantza-arabidearen gainean, lehentasunezko iazarekin 1987ko abuztuaren 1etik abenduaren 31ra arte ezarri behar dena*, OJ L 232, 18.-19. or. (1987ko abuztuaren 19a).

383 Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, Kontseiluaren Erabakia, 1988ko otsailaren 29koa, *Ohar Truke erako akordioaren gauzapena dela eta, Europako Ekonomia Erkidegoaren eta Marokoko Erresumaren arteko itsas arrantzen arloko harremanen inguruko akordioaren aldi baterako ezarpenari buruz*, Bruselan 1988ko otsailaren 26an sinatu zena, OJ L 99, 45. or. (1988ko apirilaren 16a); Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, *Europako Ekonomia Erkidegoaren eta Marokoko Erresumaren arteko itsas arrantzen arloko harremanen inguruko akordioa*, OJ L 407, 3.-14. or. (1992ko abenduaren 31).

384 Akordio euro-mediterraneo, batetik, Europako Erkidegoen eta bertako estatu kideen eta, bestetik, Marokoko Erresumaren arteko elkarrekin sortzeko (1996ko otsailaren 26a); Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, Kontseiluaren eta Batzordearen Erabakia, 2000ko urtarrilaren 24koa, akordio euro-mediterraneoaren gauzapenari buruzkoa, batetik, Europako Erkidegoen eta bertako estatu kideen eta, bestetik, Marokoko Erresumaren arteko elkarrekin sortzeko (200/204/CE, CECA) OJ L 070 (2000ko martxoaren 18a).

berriak sinatu ziren 1995ean<sup>385</sup> eta 2006an<sup>386</sup>, non akordioa ezartzeko itsasoko portuen zerrenda bat jasotzen zen eta gutxienez Mendebaldeko Saharako hiru portu barne hartzen ziren: Aaiun, Bojador eta Dajla<sup>387</sup>. Horren ondorioz, 2006ko akordioa sinatu aurretik, Arrantza Elkartearen Akordioaren proposamenaren inplikazio legalak kontuan har zitzala eskatu zion Europako Parlamentuko Lege Zerbitzuak Europako Parlamentuko Garapen Batzordeari<sup>388</sup>. 2006ko otsailean, Lege Zerbitzuak bere iritzia eman zuen, eta esan zuen akordioaren testuan argi geratzen ez zenez Mendebaldeko Saharako uretara iristen zela, azterketa zorrotz bat egin behar zela ziurtatzeko nazioarteko zuzenbidearekin bat egiten zuela. Hala ere, Europako Parlamentuko Lege Zerbitzuak emandako iritzia ez zen inoiz ere argitaratu<sup>389</sup>.

Hiru urte geroago, 2009ko otsailean, Lege Zerbitzuak beste iritzi bat eman zuen, ondorioztatuz ezin zela egiaztatu akordioaren menpeko ekarpen finantzarioak Mendebaldeko Saharako herriaren onurarako erabiltzen ari zirenik<sup>390</sup>. Izan ere, Mendebaldeko Saharako arrantza-baliabideen gaineko Europar Batasunaren eta Marokoren arteko akordio ezeinek ez du aipatzen kontratu horien irabaziak Mendebaldeko Saharako biztanleriaren mesederako erabili behar direnik; horren ordez, onartzen dute Marokok irabazi horiek “nahi erara” erabili dituela.

Lege Zerbitzuak akordioaren legezketasunaren gainean egindako azterketaren zati batean oinarriturik, Europako Parlamentuak 2011ko abenduan erabaki zuen Marokorekin zegoen arrantza-akordioaren luzapen-eskaera ez onartzea; hala ere, horrek ez zuen galarazi Europar Batasunaren eta Marokoren arteko arrantza-akordio berri bat negoziatzea<sup>391</sup>. 2013ko uztailaren arrantza-akordio berri bat sinatu zen, Europako Parlamentuak urte horretako abenduan onartu zuena, eta 2014ko hasieran indarrean jarri zena.

---

385 Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, *Accord de coopération en matière de pêches maritimes entre la Communauté européenne et le royaume du Maroc et Protocole fixant les possibilités de pêche et les montants de la compensation financière et des appuis financiers*, OJ L 306, 7-43. or. (1995eko abenduaren 19a).

386 Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, *Europako Erkidegoaren eta Marokoko Erresumaren arteko arrantza-sektoreko lankidetzak-akordioa*, OJ L 141, 4. or. (2006ko maiatzaren 29a).

387 Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, *Batzordearen Erabakia, 1995eko otsailaren 10ekoa, Marokotik etorritako arrantzako eta akuikulturako produktuen inportazioarako baldintza partikularrak onartzeko*, OJ L 042, 95/30/CE, B eranskina (1995eko otsailaren 24a).

388 Europako Parlamentua, *Zerbitzu Juridikoaren Irizpena: Kontseiluko Erregelamendurako Proposamena, Europako Erkidegoaren eta Marokoko Erresumaren arteko arrantza-erloko elkarketa-akordioaren amaierari buruzkoa - Nazioarteko zuzenbideko printzipioekiko bateragarritasuna*, SJ-0085/06, 45. paragr. (2006ko otsailaren 20a); Europako Parlamentua, *Lege Ebazpenaren Zirriborroa*, A6-0163/2006 (2006ko maiatzaren 4a).

389 *Ibidem*.

390 Europako Parlamentua, *Zerbitzu Juridikoaren Irizpena: Europako Erkidegoaren eta Marokoko Erresumaren arteko arrantza-erloko elkarketa-akordioa - Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren (SEAD) Adierazpena, 2009ko urtarrilaren 21ekoa, Mendebaldeko Saharako 200 itsas miliako ekonomia-eremu esklusiboaren gaineko jurisdikzioari buruzkoa, EBko bandera duten ontziek Mendebaldeko Saharako uretan harrapatzen duten arrainaren gainean* (2009ko uztailaren 13a) (Western Sahara Resource Watch erakundeak argitaratua).

391 Juan Domingo Torrejón Rodríguez, “El Parlamento Europeo, el Sáhara Occidental y el Acuerdo de pesca de 2006 entre la Unión Europea y Marruecos,” *Ikerketa Politiko eta Soziologikoen Aldizkaria* (2013).

Gainera, Europar Batasunaren eta Marokoren arteko Elkartze Akordioa, 1996an sinatu zena eta 2000. urtean indarrean jarri zena, zuzendu eta osatu egin zen 2012. urtean, zenbait sektore zehatzetan merkataritza liberalizatzeko elkar-neurriak hautesmaten dituen akordio baten bidez. Liberalizazio-akordio horrek auzia sortu zuen. Izan ere, 2015. urte amaieran, Europako Justizia Auzitegiko Auzitegi Nagusiak Fronte POLISARIOARI Auzitegiaren aurrean ekintza bat gauzatzeko gaitasuna eman zion, eta, ondorioz, “Europar Batasunaren eta Marokoren arteko akordioa baliogabetu zen, Mendebaldeko Saharako nekazaritzako produktuen, nekazaritzako produktu eraldatuen, arrainaren eta arrantzako produktuen gainean”<sup>392</sup>. Erabaki hori, funtsean, 2016ko abenduko apelazio-eskaeran berretsi zen. Hala ere, lege-argumentazioko maniobra baten bidez, Elkartze Akordioa salbu atera zen, akordio hori interpretatzeko “Europar Batasunaren eta Marokoko Erreinuaren arteko harremani ezarri dakizkiekeen Nazioarteko Zuzenbideari dagozkion arauak erabili baitziren, hau da, kontuan izanez arau horiek ez zaizkiola ezartzen Mendebaldeko Saharako lurraldeari”<sup>393</sup>.

2018ko otsailaren 27ko beste epai batean, Europako Justizia Auzitegiak Europar Batasunaren eta Marokoko Erreinuaren arteko indarreko arrantza-akordioaren gaineko azalpena eman zuen, eta 2016an hartu zuen erabakia akordioen interpretazioan oinarritu zuen<sup>394</sup>. Horrela, ulertu zuenaren arabera, arrantza-akordioa, nahitaez, honela interpretatu behar da: “Mendebaldeko Saharako lurraldearen ondoko urak ez dira eremu horretan sartzen”<sup>395</sup>.

Era berean, 2018ko uztaileko epai batek baztertu egin zuen Fronte POLISARIOAK aurkeztutako auzi bat, non 2013ko arrantza-akordioari protokolo bat inpugnatzen zitzaion, eta 2018ko martxoko zuzenketa baten onartzen zen. Auzitegiak agindu zuen Fronte POLISARIOAK ez zuela *locus standi* printzipiorik, hau da<sup>396</sup>, “kontuan izanik Mendebaldeko Saharako lurraldea ez dela Marokoko Erreinuak lurraldearen parte, Mendebaldeko Sahararen ondoko urak ez dira Marokoko arrantza-eremuaren barruan kokatzen”<sup>397</sup>.

---

392 Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2016/355, 73. paragrafoa (2016ko apirilaren 19a); Ikus Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, *Fronte POLISARIOA c. Europar Batasuneko Kontseilua*, T/512/12 Gaia, Epaiak (2015eko abenduaren 10a).

393 Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, *Fronte POLISARIOA c. Europar Batasuneko Kontseilua*, C-104/16 P Gaia, Epaiak, 132. paragrafoa (2016ko abenduaren 21a).

394 Bere azterketan, Justizia Auzitegiaren onerako ere baziren abokatu nagusiaren ondorioak. Ikus Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, *Melchior Wathelet abokatu nagusi jaunaren ondorioak*, C-266/16 Gaia (2018ko urtarrilaren 10a).

395 Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, *The Queen, honako hauexek eskatuta: Western Sahara Campaign UK, eta Commissioners for Her Majesty's Revenue and Customs, Secretary of State for Environment, Food and Rural Affairs*, C-266/16 Gaia, 83. paragrafoa (2018ko otsailaren 27a).

396 Alderdi batek duen gaitasuna demandan inpugnatutako kaltearekin duen lotura erakusteko.

397 Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, *Fronte POLISARIOA c. Europar Batasuneko Kontseilua*, T-180/14 Gaia, 46. paragrafoa (2018ko uztailearen 19a).

Europako epai horiekin, argi geratzen da Marokok ez duela inolako eskubiderik Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak ustiatzeko, azken hori ez baita Marokoko estatuaren parte. Jurisprudentzia horri esker, Europar Batasunak eta beste eragile batzuek Marokorekiko dituzten obligazio legalak argitu daitezke, nahiz eta bitartean, Saharako baliabide naturalak *de facto* ustiatzen jarraitu. Alde horretatik, eta nahiz eta errekurtsio *stricto sensu* batekin lotu ez den, argitu da, baita ere, Mendebaldeko Sahararen aireko espazioa ezberdina dela Marokoren aireko espazioaren aldean. 2006ko abenduaren 12an, Europar Batasunak eta Marokoko Erreinuak Aireko Zerbitzuen gaineko Akordioa sinatu zuten, eta elkarri eman zioten beren lurraldean zehar hegaz egiteko eskubidea, beren lurraldeetan lurreratu eta geldialdirik egin gabe<sup>398</sup>. Akordio hori 2018ko urtarrilean onartu zuen Europar Batasunak formalki<sup>399</sup>. 2018ko azaroan, Europako Justizia Auzitegiak epaia eman zuen, azalduz Akordio horren ezargarritasuna ezingo zela interpretatu Mendebaldeko Saharako aireko espazioari zegokionez, Europar Batasunarentzat lotesleak diren nazioarteko zuzenbideko arauen eta Marokoko Erreinuarekiko harremanean ezarri daitezkeen arauen arabera<sup>400</sup>.

### Nazio Batuetako aholkulari juridikoaren Iritzi Legala

Nazio Batuen Erakundeak kontuan hartu ditu, baita ere, Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen ustiapenen gaineko murrizketak. 2001eko urrian, Marokok bi kontratu sinatu zituen bere Petrolioaren Ikerketen eta Ustiapenen Bulego Nazionalaren bidez: bat Estatu Batuetako petrolio-enpresa Kerr McGee du Maroc Ltd. enpresarekin<sup>401</sup>; eta bestea Frantziako TotalFinaElf E&P Maroc petrolio-enpresarekin. Horren ondorioz, Fronte POLISARIOAK hainbat salaketa egin zituen gatazkari negoziazio-prozesuaren esparruan irtenbide politiko bat emateko. Nazioarte mailako suminduraren eta Marokok Mendebaldeko Saharako baliabideak ustiatzearen gainean egindako presio publikoaren ondorioz, 2001eko azaroan, Segurtasun Kontseiluak iritzia eskatu zion Gai Juridikoetako idazkari nagusi laguntzaileari honako honen gainean: “nazioarteko zuzenbidea –baita Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluari eta Batzar Nagusiari dagozkion ebazpenak, eta Mendebaldeko Saharari dagozkion akordioak ere– kontuan izanik, zer nolako legezketasuna izango lukete Marokoko agintariak hartutako neurriek, hau da, atzerriko enprese-

---

398 Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, *Fronte POLISARIOA c. Europar Batasuneko Kontseilua*, T-275/18 Gaia, 4. paragr. (2018ko azaroaren 30a).

399 *Ibidem*, 12. or.

400 *Ibidem*, 41. or.

401 Hainbat urtean nazioarteko presioa jasan ondoren, Kerr McGee enpresak Mendebaldeko Sahara esploratzeko baimenari iraingitzen utzi zion, eta ez zen baimen hori berritzen saiatu.

kin kontratuak lizitzeko eta sinatzeko neurriek Mendebaldeko Saharan baliabide mineralak ustiatzeko”<sup>402</sup>.

2002ko urtarrilaren 29an Segurtasun Kontseiluko presidenteari zuzendutako gutun batean, Aholkulari Juridikoak Mendebaldeko Saharako lurraldearen izaera juridikoa aztertu zuen, eta adierazi zuen 1975eko azaroaren 14ko akordioa, zeinaren bidez Espainiak ustez transferitu baitzituen lurraldeko potentzia administratzaile moduan zituen ahalmenak eta erantzukizunak, ez zela baliozkoa. “Madrilgo Akordioak ez zuen Lurraldearen gaineko subiranotasuna transferitu, eta ez zion sinatzaileetako ezeini potentzia administratzailearen izaera ere eman; izan ere, izaera hori ezin zuen Espainiak aldebakarrean transferitu. Lurraldearen gaineko administrazio-agintaritza Marokori eta Mauritaniari 1975ean transferitzeak ez zion eragin Mendebaldeko Saharak nazioarte mailan Lurralde ez-autonomo moduan zuen izaerari”<sup>403</sup>.

Era berean, aholkulari juridikoaren ustez, Espainia 1976ko otsailean atera ondoren, eta gero Mauritania 1979an atera ondoren, “Marokok Mendebaldeko Saharako Lurraldea bere kabuz administratu du. Hala ere, Maroko ez da agertzen Lurraldearen potentzia administratzaile moduan Nazio Batuen lurralde ez-autonomoen zerrendan, eta, ondorioz, ez du igorri Lurraldearen gaineko informazioa, Nazio Batuen Gutunaren 73. artikulua e) atalean aurreikusten den moduan”<sup>404</sup>.

Egindako azterketaren arabera, Aholkulari Juridikoak hauteman zuen Estatuek azken aldiak izan duten praktikek *opinio juris* bat erakusten dutela, bai Potentzia administratzaileen zein Hirugarren Estatuaren aldetik, hau da: baliabideak ustiatzeko jarduerak Lurralde ez-autonomoetako herrien onurarako egiten badira eta haien ize-nean edo haien ordezkariak kontsultatuz egiten badira, Gutunaren arabera Potentzia administratzaileari dagozkion obligazioekin bat egiten dutela ulertzen da, eta era berean, Batzar Nagusiaren ebazpenekin eta ‘baliabide naturalen gaineko behin betiko subiranotasunaren’ printzipio errotuarekin ere bat egiten dutela ulertzen da”<sup>405</sup>.

Horrela, ondorioztatu zenaren arabera, petrolioaren ebaluazioaren eta prospekzioaren gaineko kontratuek ez zuten Mendebaldeko Sahararen baliabide mineralak fisikoki erauztea sortzen, eta jarduera horiek, berez, ez ziren legez kanpokoak; hala ere, “esplorazio- eta ustiapen-jarduerak Mendebaldeko Saharako herriaren interesak eta nahiak kontuan izan gabe burutzen jarraituko balira, Lurralde ez-auto-

---

402 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Gai Juridikoetako idazkari nagusi laguntzaileak Segurtasun Kontseiluko presidenteari 2002ko urtarrilaren 29an bidalitako gutuna, aholkulari juridikoa, S/2002/161 (2002ko otsailaren 12a)*.

403 *Ibidem*, 6. paragr.

404 *Ibidem*, 7. paragr.

405 *Ibidem*, 24. paragr.

nomoetako baliabide mineralekin lotutako jardueri ezarri dakizkiekeen nazioar-teko printzipio juridikoak urratuko lirateke<sup>406</sup>.

Nahiz eta iritzi juridiko hori izan, Marokok ez zituen bere jarduerak bertan behera ez utzi ez aldatu, Mendebaldeko Saharako baliabide naturalei zegokienez. 2002ko urrian, Fronte POLISARIOAK kezka azaldu zuen “Marokok bi kontratu sinatu zituelako atzerriko bi petrolio-konpainiarekin, itsasoen petrolio-prospekzioak egiteko, Mendebaldeko Saharako kostaldearen aurrean”<sup>407</sup>.

### **Afrikako Batasunaren Batzordearen iritzi legala Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen ustiapenen gainean**

Europa eta nazioarte mailan deskribatutako prozesuekin batera, 2015ean, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko gobernuak Afrikako Batasunaren Batzordearen Aholkularitza Juridikoko Bulegoaren iritzia eskatu zuen, Marokoko agintariak Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen esplorazioaren eta ustiapenaren inguruan egindako jardueren legezketasunaren gainean<sup>408</sup>. Bere azterketan, Afrikako Batasunaren Batzordearen ustez, “Marokok ez du inolako eskubiderik Mendebaldeko Saharan okupatutako lurraldeetan kokatutako baliabide natural, berriztagarri edo ez berriztagarri ezin esploratzeko edo ustiatzeko, ezta hirugarrenekin baliabide horien inguruko akordioak egiteko ere”<sup>409</sup>. Iritzi zutenaren arabera, “legezkoak izateko, Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak esploratzeko eta ustiatzeko jarduera ekonomikoak Mendebaldeko Saharako herriaren onurarako izan behar dira eta beren gurariak errespetatu behar dituzte”. Mendebaldeko Saharako herriak eta bere legezko ordezkariak (Fronte POLISARIOAK) eta Saharako Errepublikaren gobernuak kontsultatu egin behar dira; baina gainera, horrez gain, beren lurraldean egin beharreko baliabide naturalen esplora-zioaren edo ustiapenaren gaineko edozer akordioaren parte zuzena izan behar dira<sup>410</sup>. Aholkularitza Juridikoko Bulegoak mekanismo bat sortzea proposatzen zuen egin zuen ebaluazioan, Nazio Batuek eta Afrikako Batasunak gainbegiratuko luketena, Marokok Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen inguruan egin dituen akordio guztien onu-ra guztiak Mendebaldeko Saharako herriak disfrutatuko dituela ziurtatzeko<sup>411</sup>.

---

406 *Ibidem*, 25. paragr.

407 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2002/41, 31. paragr. (2002ko urtarrilaren 10a).

408 Afrikako Batasuna, *On the legality in the context of international law, including the relevant United Nations resolutions and OAU/AU decisions, of actions allegedly taken by the Moroccan authorities or any other state, group of states, foreign companies or any other entity in the exploration and/or exploitation of renewable and non-renewable natural resources of any other economic activity in Western Sahara*, Iritzi Legalak (2015).

409 *Ibidem*, 57. paragr.

410 *Ibidem*, 65. paragr.

411 *Ibidem*.

## Saharako biztanleriaren herri-kontsultaren ameskeria

Aurrekari horiek izan arren, 2018ko azaroaren 29an, Europar Batasunak arrantza-akordio berri bat sinatu zuen Marokoko Erreinuarekin. Kasu horretan, esplizituki aintzatesten zen Mendebaldeko Sahararen ondoko uretako arrantza-ontziei ezarriko zela<sup>412</sup>. Okupazioaren menpeko lurraldearen egungo biztanleriarentzako ‘irabazien’ azterketa bat egiteko, Europako Batzordeak Mendebaldeko Saharari akordioa ezartzea justifikatu zuen, eta horretarako, Saharako biztanleriari eta bere ordezkariari ustez egindako kontsultak aipatu zituen<sup>413</sup>.

Akordio hori Arrantza Batzordetik pasa behar da oraindik ere, eta ondoren, Europar Batasuneko osoko bilkuratik ere pasa behar da, 2019an indarrean jarri aurretik; hala ere, akordio horrek ezartzen duen aurrekariak kezka handia sortzen du. Akordio horren azterketa mugatzen badugu Marokok okupatutako lurraldearen egungo biztanleria, Europar Batasunak ez du kontuan hartu ‘herri sahararrak’ duela lurralde horretako baliabide naturalen gaineko behin betiko subiranotasuna. Europako erakundeek ez dute eskumenik kategoria hori nork osatzen duen behin betiko zehazteko, eta hori hala aintzatesten dute. Hala ere, ezin dute kontuan hartu gabe utzi Saharako 173.000 biztanle baino gehiago egun Aljeriako Tinduf inguruko kanpamentuetan bizi direla, edo harresiaren ekialdean sahararrak bizi direla, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan; hala ere, biztanle horiekin ez zen inolako kontsulta-jarduerarik burutu. Era berean, Europar Batasunak ez du kontuan hartu dozenaka milaka marokoar 1976tik aurrera Mendebaldeko Saharan ezarri izanaren gaineko literatura zabala. Ezarpen horiek Marokoko administrazioaren beraren zifretan islatzen dira, eta erakusten dute egun okupazioaren menpe bizi den biztanleria osoa ez dela ‘Saharako herria’. Bestetik, sahararrek Saharako herriaren kide moduan aintzatesten den inor edo erakunde ezein ez dute kontsultatu<sup>414</sup>, eta Fronte POLISARIOARI ere ez diote kontsultarik egin, nahiz eta Nazio Batuek Saharako herriaren legezko ordezkari moduan aintzatesten duen. Egoera horretan, Europar Batasunak itxura batean gauza-

---

412 Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, *Konseiluaren 2018/2068 Erabakia (EB)*, *Europar Batasunaren izenean Europar Batasunaren eta Marokoko Erreinuaren artean arrantza jasagarriko lankidetzak-akordioa sinatzeko prozesuari buruzkoa*, L. 331/1 (2018ko azaroaren 29a).

413 Europako Batzordea, *Informe sobre los beneficios para la población del Sáhara Occidental de la ampliación de las preferencias arancelarias a los productos originarios del Sáhara Occidental y sobre la consulta de dicha población al respecto*, SWD (2018) 346 (2018ko ekainaren 11).

414 Europako Batzordeak horren gainean emandako informazioa kontraesankorra da. Batzordeak esaten duenaren arabera, kontsulta egin dio Fronte POLISARIOARI, baina gero adierazten du Fronte POLISARIOAK uko egin diola kontsultetan parte hartzeari, negoziazioarekin ez zuelako bat egiten. Gainera, Batzordeak aurkeztutako informazioaren arabera, Western Sahara Resource Watch erakundeari kontsulta egin zitzaion, baina erakunde horrek adierazpen bat argitaratu zuen, non parte hartzeko gonbidapenari uko egiten zion. *Ikus Ibidem*, 34. or. Era berean, ikus Western Sahara Resource Watch, “Why WSRW refuses to take part in the EU’s Western Sahara Consultation,” (2018ko otsailaren 7a).



tu duen kontsulta ezin daiteke ulertu Saharako herriaren interesen aldeko ekintza adierazgarri moduan.

Era berean, Europar Batasunak aztertu du akordioa Mendebaldeko Saharari ezartzeak hainbat ustezko onura sortzen dituela, baina azterketa horrek ez du kontuan hartu okupazioaren menpeko lurraldeetan Saharako biztanleriaren aurkako diskriminazioaren eta errepresioaren gaineko literatura zabala. Saharako herria era hain zabalean baztertu izanak Europar Batasunaren jarrera ahultzen du, esaten baitu Mendebaldeko Saharako baliabideen gainean etengabeko subiranotasuna duen biztanleriak azken akordio horren onurak jasoko lituzkeela.

### **Determinazio librea ez izateak Saharako gazteriarri sortzen dizkion ondorioak**

Saharako gazteriarri dagokionez, erreferendum baten baldintzak definitzeko prozesua politizatzeak –non azkenean gatazka baten aurrean alderdi biek onar dezaketen irtenbide bat bilatu nahi den, eta ez herri batek bere determinazio librea gauzatzeko duen eskubidea–, beren etorkizuna kolektiboki eta gizabanako moduan definitzeko aukera kentzen die. Deskolonizazioaren amaitu gabeko prozesuaren ondorioz, okupazioaren aurkako borroka garrantzia politiko eta sozial maximoko gaia bilakatu da Saharako gazterientzat.

Ikerketa egitean, elkarrizketatutako gazte batzuek okupazioari eman zioten errua, Saharako herriaren arreta eta energia exijitzeagatik; izan ere, azaldu zutenaren arabera, horrek zailtasunak jarri dizkie beren gizartea garatzeko arreta jartzean eta beren kultura eraikitzeko lan egitean. Okupatutako lurraldeetako gazte batek deskribatu zuenaren arabera, ezin zen era askotariko sistema politiko bat garatu, okupazioaren aurrean indarrak ezarri behar baitziren, eta horrek ideia eta estrategia berrien eboluzioa atzeratzen baitu. Espainiako estatuan bizi den beste neska gazte saharar baten ustez, erreferenduma ez izateak atzerapena sortu du feminismo saharar baten garapenean ere; izan ere, gai hori atzeratu egin behar izan da Saharako herriaren autodeterminazioaren alde. Denak ados azaldu dira esan dutenean determinazio liberrik ez egoteagatik Saharako herria banatu egin dela fisikoki; izan ere, banaketa horrek erronka jartzen dio kultura sahararrari egungo munduaren errealitateei aurre egiteko unean.

Izan ere, Marokok Mendebaldeko Sahararen baliabide naturalak kontrolatzeak erakusten du ez diola axola nazioarteko araudia, eta nazioarteko komunitateko hainbat aktoreren konplizitatea egiaztatzen du. Gazte askok uste dutenaren arabera, baliabide naturalak ustiatzea Marokok lurraldea anexionatzeko burutu duen etengabeko prozesuaren parte da, eta horrek etorkizunean ondorioak izango ditu, baliabide ez berrizagarriak agortuko baitira. Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak, atzerriko gobernuekin lortutako akordioen esparruan, etengabe eta *de facto* ustiatzeagatik, Saharako herriak subiranotasuna galtzen du bere baliabide

naturalak erabiltzeko moduaren gainean erabakitzeko, eta horrek ondorio larriak ditu etorkizunari begira.

Determinazio librea ez burutzeak ere ondorioak sortzen ditu gaurko gazterientzat. Elkarrizketatutako Saharako gazterientzat, bere baliabide naturalak eskuratzeari uko egiteak gabezia-egoera bat sortu du, non lurraldeko jatorrizko biztanleriak ezin dituen jaso beren lurraldeko legezko subirano moduan dagozkion baliabide naturalen irabaziak; aitzitik, indar okupatzaileak aprobetxatzen ditu baliabide horiek. Kanpamentuetan, elkarrizketatutako gazteek adierazi zutenaren arabera, Marokok burutzen duen ustiapenaren ondorioz, pobrezia sortu da biztanleriaren artean, orokorrean, baita laguntza humanitarioarekiko menpetasuna ere; aitzitik, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Saharako lurraldeetan, gazteria marjinazioan bizi da, beren lurraldeko aberastasunak saltzeagatik irabazi ezeinez disfrutatu gabe. Okupatutako lurraldeetan, gazteek adierazi zutenaren arabera, Marokok Saharako lurraldeko baliabide naturalak ustiatzeak eragin zuzenak ditu lurraldean enplegua sortzean, baita gizarteko ekonomiarentzat eta egungo bizi-baldintzentzat ere. Gazte batek honela laburbildu zuen: “Herrialde aberatsa gara; baina herri oso pobrea gara.”

Orokorrean, Saharako gazteriaren ustez, beren herriak autodeterminazioa ez gauzatzeak giza eskubideen urraketak sortu ditu, atal honetan zehar xehatuko direnak. Ia denek adierazi zutenaren arabera, autodeterminazioa, eta bereziki, independentzia, gainerako eskubideez gozatzeko aurretiazko baldintza da. Mendebaldeko Saharako etengabeko okupazioaren ondorio errealek eta emozionalek beren bizitzan izan duten eta izaten jarraituko duten eragina deskribatu zuten, okupazio horrek determinazio librea hausten baitu.

# Benine

ADINA: 25 URTE | BIZILEKUA: AUSERDEKO KANPAMENTUA, TINDUF INGURUAN, ALJERIA

**“Baldintza egokietan jaio izan banintz, diagnostikoa garaiz egingo zidaten eta ez sei urteko sufrimenduaren ondoren. Hasieratik izango nuen tratamendua”**

**B**ENINE 1993AN JAI O ZEN AUSERDEN, TINDUF (ALJERIA) INGURUETAN KOKA-tutako errefuxiatu sahararrentzako bost kanpamentuetako batean. Haurtzaroan buruko mina eta sukarra maiz pairatzen zituen, bereziki uda gogorretan zehar, eguzkia kiskalgarria zenean. Sei urte zituela, kanpamentuetan bizi diren beste haur askok bezala, Beninek Aljeria utzi eta espainiar estatura bidaiatu zuen, Oporrak Bakean programaren eskutik. Ez zekien bidaia horrek bere bizitza betiko aldatu zuela.

*“Espainiara iritsi nintzenean, nire harrera-familiak medikura eraman ninduen, eta osasun-azterketa egin zidaten. B motako hepatitis a diagnostikatu zidaten. Analisi eta proba asko egin zizkidaten eta, medikuak gaixotasunaz ziur egon zirenean, tratamendua hasi nuen. Madrilgo klinika pribatu espezializatu batera joaten ginen, nahiz eta nire harrera-familia Gaztela-Mantxakoa zen. Botikek on egin zidaten, baina uda amaitzen zenean eta kanpamentuetara itzultzen nintzenean, medikuek tratamenduari eutsi behar niola esan zidaten. Horregatik, urte eta erdi geratu behar izan nuen espainiar estatuan, nire familia ikusi gabe”. Beninerentzat zaila izan zen familiaren-*

gandik urrun egotea; dialekto arabiarra –hassaniya– ia guztiz ahaztu zuen. Bederatzi urte zituela itzuli zen Benine kanpamentuetara, bere familiarekin bizitzeko.

Beninek bi urte igaro zituen gurasoekin eta neba-arrebeekin, bere kulturarekiko loturak berreskuratzen eta eskolara joaten. Baina hamaika urte bete zituenean, berriz ere agur esan behar izan zioten elkarri. *“Garai hartan, hezkuntza-sistema sahararrak ez zuen batxilergo-mailako eskaintzarik, baina, ikasten jarraitu nahi izanez gero, Aljeriako ikastetxeetara joan gintezkeen. Saharako gobernuak hitzarmen bat zuten haiekin, eta prozesu osoa tramitatzen zuten. Niri Saidako ikastetxe bat egokitu zitzaidan, Tindufetik mila kilometro baino gehiagora. Lehen urtea oso gogorra izan zen; familiarengandik urrun nengoen berriz, eta gaixorik nengoen artean. Batxilergoa amaitu nuen, baita unibertsitate-ikasketak ere; ikasketa horiek guztiak Aljerian burutu nituen. Egia da garai hartan egun zoriontsuak ere bizi izan nituela, baina, oro har, oso urte gogorak izan ziren”.*

2016. urtearen amaieran, Beninek al baitari-titulua eskuratu zuen. Titulu hori lortu zuen lehen emakume sahararra da. Orain errefuxiatu sahararrak bizi diren *wilaya* ezberdinetako harategietan saltzen den haragiaren kalitatea aztertzen dihardu lanean.

Haren ustez, bere komunitateari eragiten dion osasun-kontua da. *“Hemen, kanpamentuetan, baditugu osasun-zerbitzuak, baina oso oinarrizkoak, ez dira nahikoak hemengo baldintza eskasei aurre egiteko. Nire kasuan, hepatitisaren kontrola sei hilabetean behin egin beharko dut, baina birusa oraindik nire gorputzean dagoen ala ez baino ezin didate esan; ez dakite infekzioak behera egin duen ala ez, ezta arrisku berriren bat ote dagoen. Hori guztia jakiteko, Aljerrera joan beharko nuke”.*

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

OSASUN-ARRETARAKO ESKUBIDEA, HEZKUNTZA-ESKUBIDEA, FAMILIA-BIZITZARAKO ESKUBIDEA, BIZI-MAILA EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA.

## Diskriminaziorik eza

Saharako gazteriarentzat, diskriminazioaren kontzeptuak hainbat desberdintasun-egoera deskribatzen ditu, haiek aurre egin behar dizkienak, besteak beste: determinazio librearen gabeziaren egungo egoera betikotzen duten nazioarteko politikak, baita hezkuntza, lana eta osasuna moduko bizitzako oinarrizko alderdien gaineko eguneroko errealitateak azaltzen dituzten mugapenak ere. Okupatutako lurraldeetan elkarrizketatutako lagunen arabera, sahararren identitatearen ondorioz, biztanleak disidente moduan sailkatzen dira, eta horrek sahararrei gaztetatik eragiten die. Okupatutako lurraldeetako gazte batzuek deskribatu zutenaren arabera, haurtzaroan diskriminazioari egin behar izan zioten aurre, non, beren izeken eta hizkeraren ondorioz, saharar moduan identifikatu baitzituzten. “Gutxiago ginela sentiarazi gintuzten, gure gizartea eta kultura pobrea delako.” Hasten joan diren neurrian, tratu desberdinari aurre egin behar dieten eremuak handitu egiten dira: unibertsitatea, lan-merkatua, sistema judiziala, ospitaleak, osasun-zentroak, kalea. Toki horietan eta beste hainbat tokitan ere, Marokoko funtzionarioek eta polizia-agenteez eta segurtasun-indarrek sahararrak baztertzeke eta zapaltzeko praktikak erabiltzen dituzte.

Bestetik, Espainiako estatuan bizi diren diasporako gazteek orokorrean Espainiako komunitatearen xenofobiari eta mespretxuari egin behar diote aurre, funtzionario publikoena barne; gainera, erakundeek ez dute ekimenik azaltzen gizarte-marjinazio horri aurre egiteko. Hain zuzen ere, askok azaldu zuten irain arrazistak jaso izan dituztela eskoletan, garraio publikoan eta espazio publikoetan, eta batzuek indarkeria fisikoko gertaerak deskribatu dituzte. Espainiako estatuan bizi den gazte saharar batek honako hausnarketa hau egin zuen: “denek gogorazten dizute gutxiago zarela hemengoa ez zarelako.” Helburu askotarako, migratzaileen ezaugarria dute. Horrela, gazte saharar askok, bizilekua eta Espainiako nazionalitatea eskuratzean, diskriminaziozko politikak jasan izana azaldu dute, eta nabarmendu dute Saharako herriak ez dituela disfrutatzen Espainiako antzinako beste kolonia batzuek dituzten onurekin, eta politika bateratuak falta direla.

## Diskriminaziorik ezaren oinarri juridikoa

Nazioarte mailako diskriminazioaren aurkako babes juridikoa Nazio Batuen Gutunean oinarritzen da, zeinaren 1. artikuluan ezartzen baita Nazio Batuen helburuen artean honako hau jasotzen dela: “giza eskubideak eta denon funtsezko askatasunak errespetatzea suspertzea, arraza, sexua, hizkuntza edo erlijioa dela eta bereizketarik egin gabe”<sup>415</sup>. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, bestetik,

---

415 Nazio Batuen Gutuna, 1. art.

kontzeptu zabalago bat ematen du 2. artikuluan, non giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen tresna lotesleetan iragarritako kontzeptura hurbiltzen den. Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunak (EZPNI) diskriminazioaren aurkako debekua ezartzen du 2. artikuluan: “beren lurraldean dauden eta Itun honetan aintzatetsitako eskubideak beren jurisdikziora atxikita dituzten gizabanako guztiei diskriminaziorik eza bermatu behar zaie, bereizketarik egin gabe arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste erabateko iritzia, jatorri nazionala edo soziala, maila ekonomikoa, jaiotza edo beste edozer baldintza sozial dela eta”. Testu horrek Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (PIDESC) 2. artikulua hizkuntza oso antzekoa erabiltzen du.

Giza Eskubideen Batzordeak PIDCP interpretatzean, zera azaldu du: “diskriminazio’ hitzak, hitzarmenean erabiltzen den moduan, zenbait arrazoitan oinarritutako bereizketari, bazterketari, murrizketari edo lehenespenari eragiten diola, eta helburua edo emaitza duela pertsona guztien giza eskubideen eta funtsezko askatasunen berdintasunezko aintzatespena, gozamina edo gauzatzea baliogabetzea edo gutxiestea”<sup>416</sup>.

Bestetik, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak bereizketak garrantzitsu bat erantsi du diskriminazio zuzenaren eta diskriminazio zeharkakoaren artean: “Diskriminazio zuzena egin da gizabanako batek antzeko egoeran dagoen beste batek baino tratu ez hain mesedegarria jasotzen duenean, diskriminazioan debekatutako arrazoiak batekin lotutako zerbaitengatik, esaterako, hezkuntza- edo kultura-erakundeetako lanpostuetarako kontratazioak egiteko enplegu-eskatzailleen edo enplegatuen iritzi politikoa hartzen direnean kontuan... Zeharkako diskriminazioak itxura batean neutroak dira, baina diskriminazioaren debekatutako arrazoi ondoz eragina izan duten Itunaren eskubideei proportzioz kanpoko eragina sortzen dieten legeak, politikak edo praktikak adierazten ditu”<sup>417</sup>. Batzorde honek argitu zuenaren arabera, PIDESCek eremu pribatuko diskriminazioari ere ekiten dio; esaterako, etxebizitza pribatuetako jabeen diskriminazioari, eta argitzen du “neurriak hartu behar direla, legeak barne, gizabanakoek eta erakundeek diskriminazioaren debekatutako arrazoiak maila pribatuan ezar ez ditzaten”<sup>418</sup>. Gainera, ‘diskriminazio sistematikoaren’ definizio bat eman zuen, hau da: “zenbait lege-arau, politika, praktika edo sektore publikoan edo pribatuan gailentzen diren kultura-jarrera, konparaziozko desabantailak sortzen dituztenak zenbait talderen artean, eta pribilegioak beste batzuen artean”.

---

416 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, 18. Ohar Orokorra: Bereizkeriarik ez, 7. paragr. (1989ko azaroaren 10a).

417 Nazio Batuak - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 20. Ohar Orokorra: Bereizkeriarik eza eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, E/C.12/GC/20, 10. paragr. (2009ko uztailaren 2a).

418 *Ibidem*, 11. paragr.

Afrikaren mailan, Afrikako Gutunaren 2. artikuluan hitz irmoak jasotzen dira, nazioarteko bi akordioarekin batera. Afrikako Batzordeak eskubide horren gainean honako interpretazio hau egiten du: “gizabanakoa diskriminaziotik berehala babestu behar da”<sup>419</sup>. Aitzitik, beste eskubide batzuk modu progresiboagoan gauzatzen dira.

### **Sahararren gaineko *de facto* bazterketak eta murrizketak okupatutako lurraldean**

Okupatutako lurraldearen administrazioa egitean, Marokoko agintarien uztez, Mendebaldeko Sahara Marokoko lurraldearen parte da, eta Marokon indarrean dauden lege nazional berak ezartzen dituzte. Ez da *de jure* bereizketarik egiten sahararrei edo okupatutako lurraldeari ezartzen zaion araudi-esparruan. Lurraldeko biztanleria formalki bereizteko, nortasun agiri nazionalean adierazten den jatorriko eremuaren adierazpena izango da kontuan; Mendebaldeko Saharan bizi direnek, bai marokoarrek, bai sahararrek, ‘SH’ letrak dituzte beren dokumentuetan.

Hala ere, sahararrek Estatuko agenteen beste hainbat praktikari aurre egin behar diete, *de facto* mugatzen dutenek beren beste eskubideak gauzatzea sahararrak izateagatik. Lurraldean bizi diren Marokoko kolonoen artean gutxiengoa direnez, Marokoko agintariek erraz identifika ditzakete sahararrak maila guztietan, zaintza-sare bat baitute: *hassaniya* hizkuntzagatik, ohiko jantziengatik, tribu-afiliazioa adierazten duen izenengatik, ibilgailu komunitarioengatik, eta beren bizitzeko eragatik. Horrela identifikatu ondoren, sahararrei tratu desberdina ematen diete, hainbat zerbitzutatik kanpo uzten dituzte eta beren funtsezko askatasun asko murrizten dizkiete, soilik sahararrak izateagatik.

Okupatutako lurraldean sahararren aurkako diskriminazioa gauzatzeak giza eskubide asko zeharkakotzen dituzten ondorioak ditu. Txosten honen ondorengo atalean xehatzen den moduan, lurralde okupatuko saharar gazteek, soilik sahararrak izateagatik, *de facto* diskriminazio-egoera bat jasaten dute hainbat mailatan, besteak beste: hezkuntzan, non Marokoren administrazioaren menpeko eskoletan tratu desberdina jasotzen duten, eta goi mailako ikasketak egiteko ere tratu desberdina jasotzen duten; lanean, Marokoko kolonoei lehentasunak ematen baitzaizkie Saharako biztanleen kalterako, eta langile sahararrei zuzenean erasotzen baitzaie; justizia-administrazioa, gazte saharar batzuk atxilotuak, prozesatuak eta zigortuak izan baitira Marokoko agintaritzaren eskuetan, inola ere parte hartu ez zuten gertaeren inguruan; eta horrez gain, beste hainbat mailatan ere bai.

---

419 Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea, *Gizakien eta Herrien Eskubideen Gutunean Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Ezarpenari buruzko Printzipioak eta Jarraibideak*, 19. paragr. (2011ko urriaren 24a).

## Saharako independentziaren aldekoen gaineko murrizketak eta Fronte POLISARIOAREN jarraitzaileak lurralde okupatuan

Marokoko legeak zeharkako eran galarazten du Mendebaldeko Saharako independentziaren aldarrikapena, “lurralde-osotasuna zalantzan jartzen duten ekintzak” kriminalizatuz<sup>420</sup>. Giza eskubideen nazioarteko erakundeek ikusi dutenaren arabera, xedapen hori sarritan erabiltzen da Marokok Mendebaldeko Sahararen gainean subiranotasuna duela zalantzan jartzen dutenak prozesatzeko<sup>421</sup>. Alde horretatik, sahararrek determinazio librea gauzatzeko eskubidearen aldarrikapena kriminalizatu egin du Marokoko zigor-sistemak.

Kriminalizazio horren ondorioz, independentziaren aldekoak epaitzeaz gain, lurraldeko sahararren hainbat askatasun eta funtsezko eskubide murriztu dira, giza eskubideen defendatzaileen gainean inpaktu berezia sortuz. Esaterako, elkarriketatutako zenbait lagunek adierazi zutenaren arabera, Mendebaldeko Sahararen independentziaren aldeko hainbat aktibistek hezkuntza-sistematik kanporatuak izateko edo beren lanpostuak galtzeko arriskua dute, beren jarrera politikoaren ondorioz. Manifestazioetan edo mugimendu politikoetan parte hartzeagatik, ikus-entzunezko materiala konfiskatu dute; eta sektore publikoan lan egiten duten pertsonen kasuan, justifikatu gabeko kaleratzeak sortu dira.

Ondorengo ataletan xehatzen den moduan, mugimendu, erakunde edo sarearen batean aktiboki parte hartzen duten gazteek larderia, eraso, eta zenbait kasutan, indarkeria jasan zutela adierazi zuten; sarri atxilotuak eta polizia-kuarteleetan geldiaraziak izan zirela, non batzuek eraso fisikoa, mehatxuak eta torturak jasan zituzten. Gertakari horietako asko manifestazioetan edo beste jarduera politiko batzuetan gertatu zen. Ondorioz, gazte horiek baieztar dezakete iritzi politikoaren ondorioz biktimizatu zituztela. Erasoen, tratu txarren eta askatasuna kentzearen, eta biktimen jarrera politikoaren arteko lotura, gainera, poliziaren, irakasleen eta enplegatzaile publikoen hitzezko adierazpenetan ere azaltzen da. Ekintza horiek, ia gehienetan, biktimak iraintzen direnean gertatzen dira, mespretxuzko adierazpenak egin ondoren, besteak beste ‘Sahara Maroko da’, eta ‘Polisarioak’ deitzen dietenean mespretxuz. Hori, argi eta garbi, lurralde okupatuetao aktibista sahararren aurkako diskriminazio zuzenaren adierazpen argia da, beren iritzi politiko delata eta.

---

420 Marokoko Erresuma, Zigor Kodea, 267.5. artikulua; Marokoko Erresuma, Prentsa Kodea, 71. artikulua.

421 Human Rights Watch, *The Red Lines Stay Red: Morocco's Reform of its Speech Laws* (2017ko maiatzaren 4a); Nazioarteko Amnistia, *Morocco: Submission to the United Nations Human Rights Committee* (2016).



## Sahararrak lehentasunezko bideetatik kanpo geratzea, etxebizitza eta Espainiako nazionalitatea eskuratzean

15 eta 35 urte arteko saharar oso gutxi jaio dira Espainiako estatuan, eta, ondorioz, gehienek migrazio-prozesu bat burutu behar izan dute herrialdeko egonaldia legalizatze<sup>422</sup>. Espainiako estatuan bizi diren sahararrek salatzen dute Espainiako estatuak Saharako Estatu, alegia, SEAD ez aintzatesteko politikak ondorioak dituela. Hortaz, hiru urtean zehar, Erregistroen eta Notaritzaren Zuzendaritza Nagusiak ez zituen aintzatesi SEADek igorritako ziurtagiriaren baliozkotasuna, eta, ondorioz, nazionalitatea eskuratzeko eskaerak osatzea ezinezkoa bihurtu zen<sup>423</sup>. Zuzendaritzak honako hau argudiatu zuen: “Interesdunak, espedientearekin batera, SEADek igorritako zigor-aurrekariak eta jaiotza-ziurtagiriak erantsi ditu, Espainian baliozkotasunik ez dutenak, gure herrialdeak onartu gabeko Estatu batean egin direlako”<sup>424</sup>. Politika horren ondorioz, 400 saharar baino gehiagoren eskaerak blokeatu ziren, eta 2016ko urtarrilean Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Orokorraren politika zuzendu zen, eragindako biztanleriaren eraginaren ondorioz<sup>425</sup>. SEADek igorritako ziurtagiriak aintzatesteko legegintza-zuzenketa bat ezarri behar da eta hori egiteke dago<sup>426</sup>.

Gainera, tratamendu bereizgarria emateko politika ezartzen jarraitzen da, eta horrek Espainiako estatuan bizi diren sahararrei kalte egiten die, Espainiako nazionalitatea eskuratzeko orduan. Bizilekuaren bidezko Espainiako nazionalitatearen kontua Kode Zibilaren 22. artikuluan eraentzen da, non, aldi berean, Espainiako nazionalitatea eskuratzeko “pribilegiozko bide bat” ezartzen baita, Espainiarekin lotura bereziak dituzten zenbait herrialdeko nazionalen kasuan, besteak beste, Iberoamerikako, Ekuatore Gineako, Filipinetako, eta abarretako biztanleen kasuan<sup>427</sup>. Herrialde horietako nazionalen nazionalitatea eskatu ahal izateko pribilegioa dute, bertan bizitzen soilik bi urte izan ondoren<sup>428</sup>. Nahiz eta Espainiako antzinako kolonia horien antzeko lotura historikoak izan, sahararrek ez dituzte pribilegio berak bizitokiaren bidez Espainiako nazionalitatea eskuratzeko orduan. Mendebaldeko Sahara herrialde pribilegiatuaren zerrenda horretan ez dagoenez, Espainiako estatuan bizi diren sahararrek baldintza orokorrak bete behar dituzte, non ezartzen den bizilekua

---

422 Bizi-historia: Jadiyahu.

423 Ikus, *adibidez*, Arartekoa, *Revisión de la denegación del expediente de nacionalidad de un ciudadano saharauí* (2015eko maiatzaren 4a).

424 *La Vanguardia*, “España admite de nuevo los documentos saharauis para tramitar la nacionalidad,” (2016ko otsailaren 1a).

425 *Ibidem*; Espainiako Abokatu Sahararren Elkarte Profesionala, *Komunikatua* (2016ko urtarrilaren 28a).

426 Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala, *Zuzenketak eta artikuluei egindako zuzenketen aurkibidea* (2017ko maiatzaren 4a).

427 Espainiako Erresuma, Kode Zibila, 22.1. art. *Era berean*, ikus Arartekoa, *Gomendioa: Sahararren kolektiboa bizilekuagatik nazionalitatea eskuratzeko bi urteko epe murriztuko onuradunen artean sartzea* (2015eko apirilaren 7a).

428 *Ibidem*.

dutenek Espainiako nazionalitatea lor dezaketela hamar urteko epea bete ondoren<sup>429</sup>. Espainiako nazionalitatea lortzeko epe hain luzean itxaron behar izateak kalte egiten die Espainiako estatuan bizi diren sahararrei.

Espainiako nazionalitateari ezarri dakioken araudi-esparrua ez homogeneizatzeagatik, diskriminazio hori sortzen da sahararren aurka<sup>430</sup>, eta gaur arte, egoera hori konpontzeko saiakerak ez dira oso eraginkorrak izan. 2016ko irailean, Aragoiko Gorteek Espainiako Kode Zibila aldatzeko ekimen bat aurkeztu zuten, estatutu pertsonalaren eta auzotasun zibilararen inguruan<sup>431</sup>. Ekimen hori izapidetzeko esparruan, Justizia Batzordeak proposamenaren zuzenketa asko jaso zituen, eta talde parlamentario batzuek zuzenketak proposatu zituzten 22. artikulua gainean, Sahararrek Espainiako nazionalitatea 2 urteko epean jaso zezaten, Espainiako antzinako gainerako koloniek parekatuz<sup>432</sup>. Zuzenketaren proposamenaren helburua da “Saharako herria berariaz txertatzea Espainiako komunitate historikoko kideen artean”; Diputatuen Kongresuko Justizia Batzordeak onartu egin zuen ekimena<sup>433</sup>. Hala ere, ekimen hori inoiz ere ez zen gehiago bueltatu Kongresura. Ondorioz, oraindik ez dira lege-aldaketak egin, eta etxebizitzaren ondorioz Espainiako nazionalitatea eskatzen duten sahararrek diskriminaziozko tratatu bati aurre egin behar izaten jarraitzen dute.

### Saharako gazteriaren gaineko diskriminazioaren ondorioak

Okupatutako lurraldeetako Saharako biztanleria gaztearen ustez, diskriminazioa eskubide oinarrizkoenak disfrutatzea murrizten duen zeharkako urraketak da. Ondorengo atalean xehatzen den errepresioa Saharako independentziaren aldekoen aurkako diskriminazio-politika batean oinarritu zen, funtsezko eskubideen eta askatasunen, integritatearen eta segurtasun pertsonalaren, eta bizitza publikoan eta bizitza pribatuan parte hartzearen gaineko murrizketak sortuz. Diskriminazio politikoaren ondorioz epaitzea sortzen denean, prozesu-bermeen diskriminaziozko urraketa eta askatasun pertsonalaren gaineko diskriminaziozko mugak sortzen dira. Era berean, gazteen nortasun sahararrak, beren ideologia politikoa alde batera utzita, diskriminazioa sortzen du beste eskubide batzuk erabilt-

---

429 Arartekoa, *Recomendación: Inclusión del colectivo saharauí entre los beneficiarios del plazo reducido de dos años para la adquisición de la nacionalidad por residencia* (2015eko apirilaren 7a).

430 Ikus, *adibidez*, Anthinea Interbartolo, “La garantía del derecho de no discriminación a la población saharauí en acceso a la nacionalidad española,” *Gaztela-Mantxako Bulego Juridikoaren Aldizkaria* (2017ko iraila).

431 Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala, *Kode Zibila Estatutu Pertsonalari eta Auzotasun Zibilarri dagokienez aldatzeko Lege Proposamena* (2016ko irailaren 9a).

432 Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala, *Zuzenketak eta artikuluei egindako zuzenketa aurkibidea - 1. zuzenketa* (2017ko maiatzaren 4a).

433 *Ibidem*.



zean, bereziki, lanerako, hezkuntzarako eta kulturarako eskubidea, beste hainbat eskubide ekonomikoren, sozialen eta kulturalen artean.

Espainiako estatuko gazteria sahararrarentzat, Espainiako estatuak SEAD ez aintzatesteagatiko zailtasunek “Oporrak Bakean programarekin Espainiara iritsi ziren gazte saharar horiei eragiten diete bereziki, zeinak abegi-familiekin geratu baitziren eta hemen bizitzen hamar urte baino gehiago daramatzaten”<sup>434</sup>. Espainiako lege-esparruak kalte egiten dio Saharako biztanleria osoari; hala ere, gazteek eragin berezia jasaten dute. Izan ere, nazionalitatea eskuratzeko inplikazioak sortzen ditu goi mailako hezkuntzako erakundeetan sartzeko eta bekak eskuratzeko, edo sektore publikoan lan egin ahal izateko zenbait oposizio-lehiaketatan parte hartzeko.

## Eskubide zibil eta politikoak

### 1. zatia: bizia, askatasuna eta segurtasun pertsonala

Nazioarte mailan aintzatesten diren lehenengo egiazko eskubideak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikuluan ezartzen dira: “Gizabanako orok bere bizitza, askatasuna eta segurtasuna gauzatzeko eskubidea du”.

---

434 El Mundo, “El Vía crucis de los saharauis que aspiran a ser españoles” (2014ko abenduaren 17a).

## **Bizitzeko eskubidea**

Txosten hau egitean, ia gazte gehienek adierazi zuten okupazioaren ondorioz hil ziren hainbat saharar ezagutzen zituztela. Gerran bizia galdu zuten lagun guztiez gain, biztanleria sahararrak ‘martir’ izena erabiltzen du bere herriaren autodeterminazioaren aldeko borrokan bizia galdu dutenez hitz egiteko. Biktimak izendatu ezin dituztenean ere, bizitzaren eskubide-gabeziaren kasuak asko dira, eta kasu horiek Saharako herriaren iruditeria kolektiboan daude nonahi.

Era berean, biztanleria guztiak ezagutzen ditu mina-leherketek sortutako hildakoez istilu asko sortu zituztela. Kanpamentuetan eta Mendebaldeko Saharako lurraldeetan, harresiko alderdi bietan, harresiaren hurbileko eremuetan bizi diren edo paseatzen duten pertsonak etengabeaurre egin behar diete arrisku horri, eta hori hautematen da.

Okupatutako lurraldeen kasuan, nahiz eta elkarrizketatuen arteko bi izan soilik senide baten heriotzaren biktima zuzenak, gehienek eragin psikologikoak zituztela deskribatu zuten, testuinguru horretan beren bizitzak ez baitaude babestuta. Hala laburtu zuen haietako batek: “Badakigu gure eskubideak exijitzeko kalera ateratzen garan bakoitzean hil egin gaituztela, baina zer beste aukera dugu? Lehenengo aldian, beldurra duzu agian; baina gero gaintitu egiten duzu. Arriskuak ezagutzen ditugu, eta gure gain hartu behar ditugu”.

# Nourddine

ADINA: 27 URTE | BIZILEKUA: GUELMIM ETA AGADIR, MAROKO

**“Nire anaiaren hilketa iker dezaten presio egiten dudanean, mehatxuak jasotzen ditut. Edozertarako gai dira kasua ahantz dadin”**

2018KO MAIATZAREN 19AN, GOIZEAN, NOURDDINE, 27 URTEKOA, AGADIRKO IBN Zohr Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko liburutegian zegoen ikasturte amaierako azterketak prestatzen. Orduan dei bat jaso zuen. Abderrahim anaiak eraso latza jasan berri zuen unibertsitate bereko Letren Fakultatearen aurrean, Nourddine zegoen tokitik kilometro erdira. Nourddine liburutegitik korrika irten zen hiru urte txikiagoa zen Abderrahimengana. Ikasle sahararrez inguratuta zegoen. *“Anaiarengana hurbildu nintzen eta haren zauri larriak aztertu nituen, burua kontuz eusten niolarik. Abderrahim odoletan blai zegoen, eta ez zien nire galderei erantzuten. Oso egoera kritikoan zegoen”*.

Anbulantziaren zain geundela, beste ikasleek –unibertsitatean oso aktiboa zen ikasle ahararren taldekoak ziren denak<sup>435</sup>– gertatutakoa kontatu zioten. *“Goiz hartan, taldeko hain-*

---

435 Marokoko gobernuaren politiken ondorioz, Nourddine eta Abderrahim bezala, saharar asko Marokoko Agadir hirira doaz ikastera, hura baita Mendebaldeko Saharatik hurbilen dagoen unibertsitatea. Ikasle sahararrek osatutako talde bat dago bertan, unibertsitatara iristen diren ikasle saharar berriei laguntza eskaintzen diena eta sahararren kausaren berri ematen eta gainerako ikasleak haren inguruan sentsibilizatzea bilatzen duena.

bat kide elkartu ziren unibertitatean, sahararren kausaren martirien eta preso politikoen aldeko kartelak itsasteko, horietan maiatzaren 20an Fronte Polisarioak abiatutako Mendebaldeko Sahararen askapen-gerraren hasieraren urteurrena ospatzeko ekitaldia iragartzen baitzen. Aurreko egunetan zenbait kartel apurtu zizkieten, eta nire anaia eta haren kideak horiek berritzeko asmoz sartu ziren unibertitatean. Letren Fakultatera sartu zirenean, unibertsiteko ikasle gehienak baino askoz helduagoak ziruditen pertsonak topatu zituzten inguruan; ez zuten haietako bakar bat ere ezagutu. Hala ere, nire anaia eta beste bi ikasle fakultatera sartu ziren, beren kartelak jartzeko. Bat-batean, ezezagunak alde guztietatik hurbildu zitzaizkien eta, eraso baten arriskuaz oharturik, askok ihes egin zuten. Abderrahim ez zen korrika aldendu, ordea. Gainerako sahararrek, artean ihesean zihoazela, atzerantz begiratu eta ezezagunak Abderrahimi eraso egiten ikusi zituzten. Aizto batez jo zuten buruaren atzeko partean eta, gero, hura sabelean, bizkarrean, besoetan eta hanketan barneratu zioten. Abderrahim lurrera erortzen ikusi zuten, baina ez zioten lagundu, beraiei ere eraso egingo zieten beldur zirelako. Erasotzaileek alde egin zutenean, nire anaiarengana hurbildu ziren eta niri deitu zidaten”.

Nourddine 45 minutuz egon zen anbulantziaren zain anaia zaurituaren ondoan, gainerako ikaskideekin batera. Azkenik anbulantzia iritsi zen eta Abderrahim ospitalera eraman zuen. Iritsi bezain laster, medikuak Abderrahim hilda zegoela egiaztatu zuen.

Nourddine bere familiaren etxera itzuli zen nebari lur ematera. Familia osoa atsekabeturik zegoen, shock egoeran. Haren familiak Marokoko agintariek herritar sahararren aurka baliatzen duten indarkeria ondo ezagutzen bazuen ere, inoiz ez zuten pentsatu beren semeetako batek unibertsitean bizia gal zezakeenik. “Amak ikasketak utz nitzan erregutu zidan, beste seme bat galduko zuen beldur zelako. Baina ni Agadirrera itzuli naiz, ez soilik ikasketak amaitzeko, baita nire anaiaren izenean justizia egiteko ere. Zuzenbide ikasle gisa, akats ugari hauteman ditut prozesuan, heriotza-atestatuan eta ikerketari ekiteko orduan izan ziren atzerape-nak, besteak beste”. Nourddinek eta haren familiak mehatxuak jaso dituzte berak erakunde eskudunetara jo duelako kasuari buruzko informazio eske. Unibertsiteko dekanok dena grabatu zuten kameran irudiak ikuskatzeko aukera ukatu dio. Baina Nourddine ez dago amore emateko prest eta ez du etsiko anaiaren hilketa ezagutarazi eta justizia egin arte.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

**BIZI-ESKUBIDEA, OSASUN-ARRETARAKO ESKUBIDEA, ERREKURTSO ERAGINKOR BAT AURKEZTU AHAL IZATEKO ESKUBIDEA, HEZKUNTZA-ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIOERAKO ESKUBIDEA.**

## Bizitzeko eskubidearen oinarri juridikoa

Estatuek bizi-eskubidea babestearen gainean dituzten berariazko obligazioak Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 6. artikuluan islatzen dira<sup>436</sup>. Hain zuzen ere, 6. artikulua honako hau ezartzen du: “Inori ezingo zaio bizia kendu arbitrarioki”. 1980ko hamarkadatik aurrera, Giza Eskubideen Batzordeak hainbat Ohartarazpen Orokorren bidez interpretatu du 6. artikulua<sup>437</sup>. Ohartarazpen horiek ezartzen dutenaren arabera, bizia arbitrarioki kentzearen aurka babesteko, Estatu-parteei neurriak hartu behar dituzte partikularrek gauzatutako bizi-gabetzeak prebenitzeko eta zigortzeko, eta horrek, aldi berean, neurriak hartzea eskatzen du, segurtasun-ingarriak burututako erailketa arbitrario prebenitzeko<sup>438</sup>. Era berean, baieztatzen denaren arabera, bizitzeko eskubidea goreneko eskubidea da, inolako indargabetzerik onartzen ez duena, ezta nazioaren bizia mehatxatzen duten larrialdi-egoeretan ere. Gainera, Ohartarazpen Orokorrek onartzen dute bizi-eskubideak indarkeria-zirikaden eragina izaten duela<sup>439</sup>.

Bizitzeko eskubidea Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutunaren 4. artikuluan ere babesten da, non honako hau adierazten den: “Gizakiak bortxaezinak dira. Gizaki orok bere bizia eta bere nortasunaren osotasuna errespetatzeko eskubidea izango du. Inork ezin du eskubide hori arbitrarioki kendu”. Ohartarazpen Orokorren 3. puntuaren bidez, Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Batzordeak azaldu duenaren arabera, Estatuak bizi-kentze arbitrario horiek prebenitu behar dituzte, eta ikerketa “azkarrak, inpartzialak, zorrotzak eta gardenak” egin behar dituzte, zehaztuz Estatuak delatuz arduraduna agente ofizialen batek bizia modu arbitrarioan kentzeko ekintzaren bat burutzen duenean, eta “mehatxu-mota hori prebenitzeko edo dagokion ikerketa ziurtatzeko eta gauzatutako ekintzen erantzukizunak ezartzeko behar besteko eginbidea burutzen ez duenean”<sup>440</sup>.

---

436 Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak ez du debekatzen heriotza-zigorra; hala ere, Giza Eskubideen Batzordearen 6. zenbakiko Ohartarazpen Orokorrean ezartzen du heriotza-zigorra indargabetzea desiragarria dela, eta ohiz kanpoko neurri moduan erabili behar dela soilik, dagozkion prozesu-bermeak betetzen direnean. Alde horretatik, nabarmendu behar da 1980an, Mohamed Daadesh, orduan 23 urte zituen gazteak, heriotza-zigorra jaso zuela Marokoren okupazioaren aurkako eta Fronte POLISARIOA babesteko jardueren ondorioz. Hala ere, 1994ko epaiak heriotza-zigorren ordez bihurtzeko espetxealdiko zigorra ezarri zion, eta 2001. urtean, Mohamed Daadesh espetxetik askatu egin zuten ustekabeak; 14 urte heriotza-zigorrekin pasa zituen espetxean, jakin gabe zenbat egun, aste, hilabete edo urte biziraungo zuen.

437 Gaur egun, Giza Eskubideen Batzordea Ohar Orokorren testu berri bat idazten ari da, egungo testua ordezkatzeko. Ikus 36. Ohar Orokorra - Errelatoreak prestatutako proiektu berrikusia (2017).

438 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, 6. Ohar Orokorra - Bizitzeko eskubidea, 3. paragr. (1982ko apirilaren 30a).

439 *Ibidem*, 1.-2. paragr.

440 Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea, 3. Ohar Orokorra - Bizitzeko eskubidea, 5.-9. paragr. (2015eko abenduaren 12a).

Esparru formal horiez gain, pertsona bati bizia modu arbitrarioan ez kentzeko eskubidea nazioarteko ohiturazko arau moduan onartu da, baita arau *jus cogens* moduan ere<sup>441</sup>, unibertsalki loteslea dena<sup>442</sup>. Alde horretatik, eskubide hori errespetatzeko obligazioa Estatu guztiei ezartzen zaie, nazioarteko edo eskualdeko tratatuen sinatzaile diren alde batera utzita.

### **Marokoko segurtasun-indarrek gazte sahararrak erail izana okupatutako Mendebaldeko Saharan**

Marokok kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldean hainbat gazte sahararren erailketa-kasuak daude, Marokoko segurtasun-indarrek zuzenean erail zituztenak<sup>443</sup>. Marokok kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldean hainbat gazte sahararren erailketa-kasuak daude, Marokoko segurtasun-indarrek zuzenean erail zituztenak. Al Najem al Kareben kasuak arreta handia izan zuen nazioarte mailan. 14 urteko gazte saharar hori 2010eko urriaren 24an erail zuten Marokoko segurtasun-indarren tiroen bidez, Gdim Izik kanpamentuan sartzera zihoanean<sup>444</sup>. Nazio Batuetako idazkari nagusiak ez eztabaidagarri moduan deskribatu zuen gertaera hori. Izan ere, idazkariak baieztatu zuen ez dela eztabaidatzen gazte hori Marokoko segurtasun-indarrek erail zutenik, edo beste lau gazte saharar gertaera berdinean zauritu zituztenik, nahiz eta kasu horren egoera bereziak argi geratu ez<sup>445</sup>.

Beste kasu adierazgarri batean, 2010eko abenduan, 26 urteko gazte saharar bat, Said Dambar izenekoa, Marokoko poliziak erail zuen okupatutako Aaiungo hirian. Gertaera ikusi zuten lekuko batzuek familiari esan ziotenaren arabera, egun hartan poliziak kalean eraso egin zion Saidi, eta bera defendatzen saiatu zenean, poliziak bi alditan egin zion tiro: lehenik bekokian edo ondoren paparrean<sup>446</sup>.

Giza Eskubideen Batzordeko 6. Ohartarazpen Orokorren arabera, “Estatuko agintariek bizia kentzeak larritasun mailarik handiena sortzen du”<sup>447</sup>. Marokoko indarrek burututako erailketa horiek erakusten dute ustez biztanleria babestean arduratzen den erakunde batek gizakiaren biziari mespretxu larria adierazi dio-

---

441 Nazioarteko zuzenbidearen printzipioa da; nahitaez eta halaberrez bete behar da, eta ezin da inolaz ere indargabetu.

442 Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea, 3. *Ohar Orokorra*.

443 Txosten honetako Marokoko segurtasun-indarren aipamenean barruan honako hauek sartzen dira: polizia nazionala (Segurtasun Nazionalako Zuzendaritza Nagusiko agenteak); militarrek (*gendarmierie royale*); eta segurtasun-ingarriak (*forces auxiliares*).

444 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2011/249 (2011ko apirilaren 1a).

445 *Ibidem*.

446 Ikus Justiziarako eta Giza Eskubideetarako Robert F. Kennedy Zentroa, *Nowhere to Turn: The Consequences of the Failure to Monitor Human Rights Violations in Western Sahara and Tindouf Refugee Camps*, 15. or. (2013ko urtarrilaren 1a).

447 Giza Eskubideen Lantaldea, 6. *Ohar Orokorra*, 3. paragr.



la<sup>448</sup>. Marokoko Estatuko agenteek burututako ekintza horiek erailketa arbitrarioak izan ziren erabat, inolako justifikaziorik gabekoak, eta bizi-eskubidea zuzenean urratzen zituztenak.

### **Marokoko agintariak gazte sahararrak erailtzeagatiko salaketak ikertzea falta da**

Lehen aipatutako Said Dambaren erailketa, gainera, Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan izandako erailketen salaketak ikertzeko jarra-faltaren beste adibide bat da; eta horrez gain, ekintza horien ondorioz erantzunak exijitzen dituzten pertsonak eta senitartekoak xaxatzeko patroiak betiketzen dira.

Hasieran, Saiden senideari esan zioten Aaiungo ospitalean zegoela egoera larrian; baina medikuek inoiz ere ez zieten senideei utzi bisitarik egiten eta zuzenean ikusten nola zegoen; egun batzuk geroago, Marokoko agintariak familiari jakinarazi zion Said hi egin zela. Familiak azalpen bat jaso nahi zuen, zergatik eta nola eraso zioten; baina Marokoko agintariak soilik esan zieten Said terrorista bat zela eta berak eraso egin ziola poliziarri. Agintariak ez zuten ikerketa bat ireki nahi izan salaketari erantzuteko. Familiak autopsia exijitu zuenean, ukatu egin zioten. Protesta moduan, familiak Said lurperatzeari uko egin zion, autopsia egin arte, eta horregatik, Saiden gorpua urtebetean eta zazpi hilabetean geratu zen Aaiungo ospitaleko gorputegian. Ondoren, familiari jakinarazi zioten moduan, agintariak gorpua lurperatu zuten, familiaren baimenik gabe<sup>449</sup>. Oraindik ez dakite ziur Said lurperatu duten edo ez, ezta erailketa nola gertatu zen ere.

Dambar familiak esan zuenaren arabera, Said ez zen Marokoko poliziak edo segurtasun-indarrek erail zuten lehenengo gazte sahararra; baina kasu askoan, Marokoko agintariak eroskeria eskaini zieten familiei isilik egon zitezten. Premia ekonomikoak zirela eta, Dambaren familiak adierazten duenaren arabera, familia horiek onartu egin zuten, eta, ondorioz, inoiz ez da izan beste kasu horien berri.

Ikertzeko borondate-falta Marokoko lurraldean sahararren kontra egindako erailketetara ere zabaltzen da. Orain dela gutxi, 2018ko maiatzaren 19an, Abde-rrahim Badri saharar gaztea Marokoko Agadir unibertsitatean erail zuten; ikaslea zen<sup>450</sup>. Erail ondoren, anaiak salaketa jarri zuen, baina gertakaria ez zen ikertu, eta gaur arte, inor ez dute seinalatu ekintza horren arduradun moduan; hala ere, lekuko asko zeuden eta familiak etengabe egin ditu eskaerak<sup>451</sup>.

---

448 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Legea Betearazi behar duten Funtzionarioentzako Kodea*, 34/169 Ebazpena, 2. art. (1979ko abenduaren 17a).

449 Justiziarako eta Giza Eskubideetarako Robert F. Kennedy Zentroa, *Nowhere to Turn*, 16. or.

450 Ikus Bizi-historia: Nourddine.

451 Cuarto Poder, "Activistas y periodistas que pagan con la vida su labor en el Sáhara ocupado por Marruecos," (2018ko ekainaren 14a).

Giza Eskubideen Batzordeak bizi-eskubidearen gaineko Ohartarazpen Orokor baten berrikuspenaren esparruan aintzatetsi duen moduan, “Itunak bizi-eskubidea babesteko elementu garrantzitsu bat ematen du, hau da, Estatuko agintariek edo partikularrek eta erakunde pribatuek bizia kendu izanaren ondoriozko salaketak nahitaez ikertu eta epaitu behar dira”<sup>452</sup>. Deskribatutako erailketa-kasu ezeinetan ez da ikerketarik egin pertsona horien heriotza sortu zuten gertaeren gainean. Bizitzeko eskubidearen urraketa horrek inplikazioak ditu familientzat eta biktimen ingurukoentzat, baina era berean, disuasio-neurri eta zeharkako mehatxu moduan balio dute gazte sahararrentzat. Abderrahimen lagun gazte saharar baten ustez, bere laguna “Ideia iraultzaileak izateagatik Marokok norbaiti egiten dionaren ikurra da. Hori berriz ere gerta daiteke, *statu quo*a desafiatu nahi duen bat dagoen bakoitzean”. Hortaz, heriotza horiek modu egokian ez ikertu izanak erakusten du erabateko zigorgabetasuna existitzen dela bizi-eskubidearen kaltetan.

### **Pertsonen kontrako minak eta gurdien aurkako minak harresiaren alderdi bietan Mendebaldeko Saharan**

Elkarrizketatutako lagun askok hondarrezko harresia aipatu zuten. Izan ere, Mendebaldeko Saharako lurraldea banatzeaz gain, heriotza-arriskua du, hau da, uste denaren arabera, harresiaren inguruan zazpi milioi mina baino gehiago daude, eta Marokoren eta Fronte POLISARIOAREN arteko gerrako lehergailuen hondakinak eremu horretan banatuta daude<sup>453</sup>. Gerrako lehergailu horien erruz bizia galdu duten minen biktimen historia asko daude, bereziki gurdien aurkako minen ondorioz<sup>454</sup>. Mendebaldeko Saharako lurraldean, minak etengabeko eta ezkutuko mehatxua dira biztanleriaren bizirako.

Hori hala egiaztatu da lurraldean 1991ko su-etenaz geroztik heriotza-leherketa asko gertatu baitira. 1993ko azaroko idazkari nagusiaren txostenean mina baten leherketaren berri eman zen, haur saharar baten heriotza sortu zuenak<sup>455</sup>. Saharako haurtzaroan eta gaztaroan arrisku horiek jasateko aukera handiak daude, bai gazte askok artzaintza-lanak egiten dituztelako, edo harresiaren alde bien inguruko basamortura ibilaldiak egiten dituztelako.

2009an, harresiaren aurka Fronte POLISARIOAREN kontrolpeko lurraldeetan gauzatutako manifestazio baten esparruan, 19 urteko gazte batek pertsonen aur-

---

452 Giza Eskubideen Lantaldea, 36. *Ohar Orokorra - Errelatoreak prestatutako proiektu berrikusia*, 31. paragr.

453 Público.es, “Siete millones de minas antipersonas separan a los saharauis” (2012ko apirilaren 10a).

454 Landmine and Cluster Munition Monitor, *Western Sahara: Mine Action* (2017ko abenduaren 13a).

455 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako egoera, S/26797* (1993ko azaroaren 24a).

kako mina bat zapaldu zuen<sup>456</sup>. Era berean, 2015ean, gazte saharar batek hanka bat galdu zuen gurdien aurkako mina baten leherketa bategatik<sup>457</sup>. Kasu horietan, gazte horiek gorputz-adarrak galdu zituzten eta ez beren biziak; hala ere, minen arriskuak ezin daitezke ez neurtu ez aurreikusitako. Balioetsi denaren arabera, minen 2.500 biktima baino gehiago izan dira Mendebaldeko Saharan 1975 eta 2016 artean<sup>458</sup>.

Orain dela gutxi, 2018ko azaroan, Mansur Lehib, 26 urteko gazte saharar batek, okupazioaren menpeko lurraldeetan bizi zenak, familiari lagundu zion Smara inguruko nekazaritza-eremu batera, abeltzaintza-lanetarako, baina pertsonen aurkako mina bat lehertu eta hil egin zen<sup>459</sup>.

Giza Eskubideetarako Nazio Batuetako Goi Komisarioak, 1996ko Diskriminazioak Prebenitzeko eta Gutxiengoak Babesteko Azpi-batzordearen bidez, honako hau aintzatetsi zuen: “pertsonen aurkako lurreko minak giza eskubideen urraketa larriak sortzen dituzten tresna nagusietako bat dira, bereziki bizi-eskubidearen urraketa”<sup>460</sup>. Gerrako milaka hondakin horiek Mendebaldeko Saharako lurraldean izatea etengabeko iraina da Saharako biztanleria orokorraren eta bereziki gazte-riaren bizi-eskubidearen aurrean.

### Desagerpen behartuak okupatutako lurraldean

Giza Eskubideen Batzordeak adierazi duenaren arabera, gizabanakoak desagertzeagatik, sarritan, bizia modu arbitrarioan kentzen da, eta horrek Estatu-kideei desagertzearen prebenitzeko eta kasu horiek sakonki ikertzeko obligazioa ezartzen diete<sup>461</sup>. Desagerpen behartua Marokoren erregimenak gehien zabaldu zuen estrategien arteko bat izan zen gerra-garaian<sup>462</sup>. Zenbatespenen arabera, 400 saharar baino gehiago izan ziren desagerpen behartuaren biktima<sup>463</sup>. Praktika hori nabarmen jaitsi da; hala ere, oraindik ere biztanleria sahararra erreprimitzeko taktika moduan erabiltzen da<sup>464</sup>.

---

456 Timothy Kustus, “Western Sahara’s ‘Wall of Shame,’” Public Radio International (2009ko abuztuaren 15a).

457 Ikus Bizi-historia: Barka.

458 Mine Action Review, *Western Sahara*.

459 Ez Ahaztu Mendebaldeko Sahara, “Muere un estudiante saharai de 26 años en una explosión de mina terrestre en el Sáhara Occidental” (2018ko azaroaren 28a).

460 Nazio Batuek - Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuetako Goi Komisarioaren Bulegoa, *Pertsonen aurkako lurreko minen oinarritzko eraginak*, E/CN.4/SUB.2/RES/1996/15 (1996ko abuztuaren 23a).

461 Giza Eskubideen Lantaldea, 6. Ohar Orokorra, 4. paragr.

462 Nazioarteko Amnistia, *Marruecos - Rompiendo el muro de silencio: Personas ‘desaparecidas’ en Marruecos* (29/01/93/s) (1993ko apirila).

463 AFAPREDESA, “2018: Año de los desaparecidos saharauis - Verdad y justicia” (2018ko urtarrilaren 1a).

464 Bizi-historia: Ahmed.

2011ko irailean, familiak adierazten duenaren arabera, Mohamed Lamine Krimou, 28 urteko gazte saharar bat desagertu egin zen Dajla okupatutako hirian, non arrantzale moduan lan egiten zuen. Sahararren manifestazio batean ikusi zuten azkeneko aldiz, autodeterminazioa exijitzen. Bere herrikideetako batzuek adierazi dutenaren arabera, bera hantxe zegoen, eta polizia-agente bat bere atzetik ikusi zuten ekitaldiaren ondoren. Mohamed Lamine aktibista zen, eta nahiz eta familiak salaketa asko jarri dituen, Nazio Batuek Marokoko gobernuari eman dio horren berri<sup>465</sup>, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Ez dakite erail duten, baina desagertu zenetik urte asko pasa direnez, familiak okerrena espero du.

Gazte horren egoeraren eta gertatu zitzaionaren inguruko ziurgabetasunak bizi-eskubidea urratzen du, eta lurralde okupatuetako zigorgabetasun-egoeraren beste adibide bat baino ez da, Saharako biztanleria babestu gabe uzten duenak, eta gerta daitekeenaren gainean ziurgabetasuna sortzen duenak.

### **Saharako gazteriari bizi-eskubidea kentzean sortutako ondorioak**

Beren biziak eta beren senideen biziak zuzeneko mehatxuarekin ikusten dituzten pertsonen ondorio zuzenez harago, okupazioaren menpe bizi den Saharako biztanleriaren bizitzaren babesgabetasunak etengabeko zaurgarritasuna sortzen du gazteen artean, okupatutako eremuan gailentzen den zigorgabetasun-egoerak areagotzen duena. Era berean, behartuta desagertzeko aukera hor dago beti, eta hori kontuan izan behar da gazte batek manifestazio batean edo ekintza politiko batean parte hartzea pentsatzen duen bakoitzean. Elkarrizketatutako gazte aktibisten arteko batek honela azaltzen du: “Goizero, esnatzen naizenean, aurpegia garbitu eta kafea hartzen dut, eta pentsatzen dut ez dakidala ziur egunaren amaieran bueltatuko naizen.”

### **Askatasun pertsonalerako eskubidea**

Saharako gazteriaren iruditerian, okupatutako lurraldeetako preso politikoek aintzatespen handia dute, ‘martiriek’ gainditzen dutena soilik. Gaiaren inguruko elkarrizketetan, preso politikoek hainbat talde aipatzen dira, sarritan parte-hartzaileen kopuruaren bidez edo atxilotzeko arrazoien bidez adierazten direnak: Gdim Izik taldea, Uali Ikasle edo Kide taldea, etab. Denek dakite sahararrek eta herriaren autodeterminazioaren aldeko aktibistek atxilotuak eta hautemanak izateko arriskua dutela, errepresio eta intimidazio taktika moduan.

Okupatutako lurraldeetan elkarrizketatutako gazte gehienek hainbat gertaera pertsonal deskribatu zituzten, atxilotzeak eta hautemateak barne, Saharako he-

---

465 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua (Behartutako edo Nahi Gabeko Desagerpenen Lantaldea), *Saio-aldiaren osteko agiria*, 86. paragr. (2014ko azaroaren 27a).

rriaren autodeterminazioaren eskubidea eskatzeko gauzatzen duten aktibismoaren ondorioz. Haien artean hautematen denaren arabera, ziur dakite atxilotuak eta hautemanak izango direla manifestazioetan eta jarduera politikoetan parte hartzeagatik, eta orain, atxilotua izatea pasatu beharreko erritua da beraientzat; hala ere, batzuek adierazi zuten beldurra izan zutela lehenengo aldiz atxilotu aurretik, eta ia beti, lehenengo esperientziaren ondoren konfiantza gehiago izan zutela. Izan ere, adierazi zuten gertaera horien maiztasunak atxilotze arbitrarioa normalizatzea ekarri duela, aktibismo politikoari erantzuteko ohiko praktika moduan.

### Askatasun pertsonalerako eskubidearen oinarri juridiko

Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak honako hau dio, *inter alía*, 9. artikuluan: «Gizabanako guztiek dute askatasun eta segurtasun pertsonalerako eskubidea. Inork ezin izango du atxiloketa edo espetxealdirik nozitu, besterik gabe. Inork ezin izango da askatasunaz gabetu, non ez den legeak jasotako arrazoengatik... Atxilotutako guztiek atxiloketa-unean informazioa jasoko dute atxiloketa-arrazoien inguruan, eta atxilotu horiei lehenbailehen jakinaraziko zaie egotzi zaien akusazioa. Arau-hauste penal baten ondorioz atxilotuta edo preso dauden guztiak atzerapenik gabe jarriko dira epailearen edo... legeak baimendutako beste funtzionario baten esku... eta atxilotu edo preso horiek eskubidea izango dute zentzuzko epean epaiketa izateko edo aske gelditzeko... Atxiloketaren edo espetxealdiaren ondorioz askatasunaz gabetua den pertsona orok eskubidea izango du auzitegietan errekurtsua jartzeko, auzitegiak ahalik eta arinen erabaki dezan bere espetxealdiaren legezotasunaren inguruan eta, espetxealdia legearen aurkakoa balitz, berau aske uztea agin dezan. Legearen aurka atxilotu edo preso hartu den pertsona orok konponketa lortzeko eskubide eragingarria izango du»<sup>466</sup>.

Giza Eskubideen Batzordeak 35. Ohar Orokorrean egiten duen interpretazioaren arabera, «“Arbitrariotasunaren” kontzeptua ez da parekatu behar “legez kontrakoarekin”. Modu zabalagoan interpretatu behar da, desegokitasunarekin, injustiziarekin, aurreikusezintasunarekin eta berme prozesal egokiekin lotutako oharrak barne hartuz, eta arrazoizkotasuna, premia eta proportzionaltasuna kontuan hartuta»<sup>467</sup>.

Komunikazio indibidualen bere berrikuspenean, atxilotze arbitrarioei buruzko Nazio Batuen Lantaldeak bost kategoria ezartzen ditu kasuak sailkatzeko: (1) askatasunaren gabetzea justifikatzeko moduko oinarri juridikorik ez dagoenean; (2) askatasuna beste eskubide babestu batzuk gauzatzearen eraginez kentzen denean, hala nola mugitzeko, iritzia emateko, adierazteko, biltzeko, elkartzeko, politikan

---

466 Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna, 9. artikulua.

467 Nazio Batuen - Giza Eskubideen Batzordea: 35. Ohar Orokorra: 9. artikulua (Askatasun eta segurtasun pertsonalak), 12. paragrafo (2014ko abenduaren 16a).

parte hartzeko eta norbere kulturaz gozatzeko eskubidea gauzatzen denean; (3) epaiketa inpartzial batean akats larri bat gertatzen denean; (4) migrazioaren testuinguruan aplikatzen denean, errekurtsoa jartzeko aukerarik gabe; eta (5) askatasunaren gabetzea diskriminatzailea denean<sup>468</sup>.

Afrikari dagokionez, Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunak honela dio 6. artikuluan: «gizabanako guztiek dute norbere askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Ezin zaio inori kendu askatasuna, legeak ezartzen dituen arrazoiak eta baldintzak gertatzen direnean salbu. Eta, bereziki, ezin da inor modu arbitrarioan atzitu edo atxilotu».

### **Mendebaldeko Sahara okupatuan bizi diren sahararren askatasun-gabetzea, inolako oinarri juridikorik gabe eta beren eskubide babestuak gauzatzeagatik**

Marokok okupatutako lurraldean bada sahararren atxilotze-patroi bat; herritar sahararren eskubideak babesteko manifestazio baketsuen testuinguruan gertatzen dira, inolako oinarri juridikorik gabe eta atestatu edo bestelako erregistrorik gabe, bidegabekeria horien monitorizatzeko-prozesua oztopatuz. Atxiloketa horiek askatasun-gabetzeak izaten dira poliziaren kuarteletan –orduak edo egunak izan daitezke–, ez baita prozesu formalik abiarazten atzitutako pertsonaren kontra; askatasunaren gabetze horretan, galdeketak, larderiak eta tratu txarrak jasana-razten dizkiote zaintzapean dagoen pertsonari. Gainera, gertakari horiek herritar sahararren manifestazioen testuinguruan gertatzen dira, eta horrek argi eta garbi islatzen du horien iritzi politikoa isilarazi nahi dela. Atxiloketa horietako asko kalez jantzitako poliziakideek egiten dituzte, eta horrek are gehiago korapilatzen du gertakarien erantzukizuna Estatuari egozteko aukera.

Ikerketa honen esparruan bildutako testigantzek askatasun-gabetzeen praktika hedatua islatzen dute, inolako oinarri juridikorik gabe, eta beraz, arreta handiago merezi dute. Elkarrizketatutako 18 urteko mutil gazte batek, adibidez, manifestazioetan parte hartzeagatik sei aldiz atzeman dutela adierazi zuen. Bestalde, 35 urteko emakume aktibista bat hiru aldiz atxilotu zuten elkarrizketa egin zitzaion hilabetean bertan. Neska gazte bat 14 urte zituela atzitu zuten lehenengoz, bere ikastetxetik gertu egin zuten manifestazio batean parte hartzeagatik, eta gau osoan zehar izan zuten atxilotuta, poliziaren kuartelean (poliziakideek jipoitu eta pixa egin zioten gainean). Lurralde okupatuetoako beste mutil gazte batek –30 urte ditu eta, gaur egun, Espainiako Estatuan bizi da– jakinarazi digu 2005etik 2011ra bitartean hogeita hamar aldiz atxilotu zutela. Atxiloketa horietako bakar batean

---

468 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua: Atxiloketa Arbitrarioari buruzko Lantaldearen Metodoak (A/HRC/36/38), 8. paragrafo (2017ko uztailearen 13a).

ere ez da atestaturik, erregistrorik edo poliziaren txostenik igorri, karga penalik jarri edo fiskal edo epaile baten aurrean aurkeztu, eta zaintzapean zegoen pertsonari ez zitzaizkion askatasun-gabetzearen arrazoiak jakinarazi.

Marokok Mendebaldeko Sahararen lurraldean aplikatzen duen Zigor Kode Prozesalaren arabera, agente judizialek atxiloketak egin ditzakete aurretiazko ikerketa bat egin ahal izateko, eta atxiloketak 48 orduko iraupena izan dezake helburu horietarako<sup>469</sup>. Denbora-tarte hori beste 24 orduz luza daiteke erregearen fiskalak kasuan kasuko pertsonari entzun ondoren eta hark atxiloketa are gehiago luzatzea baimen dezake, idatziz<sup>470</sup>.

Arau horiek oinarritzat erabil litezke atzipen horietako batzuk arrazoitzeko – barne-zuzenbidearen esparruan behintzat– eta aitzakia gisa erabiltzen dira aktibista sahararren kontrako zirikatzeko-kanpainak egiteko. Atxiloketak 48 orduko gorakoak diren kasuetan ere, zaintzapean dauden pertsonak ez dira epailearen edo fiskalaren aurrera eramaten, eta askotan gainditu egiten dira 72 orduko gehieneko atxiloketak. Oso kasu gutxitan ematen da atxiloketarako baimen judiziala, eta ia inoiz ez da ikerketa legitimorik egiten atxiloketa justifikatzeko. Ikerketarik eza bistakoa da, ez baita *procesale verbale* edo atestaturik, edo beste atxiloketa-erregistrorik izaten. 2014an, Marokok zaintzapean dauden pertsonen erregistratze-prozesua bermatu behar duela gomendatu zuen Lantaldeak, horiek atzematen diren unetik bertatik, erregistro horietako datuak manipulatu egin daitezkeela aitortu arren<sup>471</sup>.

Askatasunaren gabetzea justifikatzeko oinarri juridikorik eza nabarmena da egiten diren atxiloketa kolektiboetan, horien bitartez, indar marokorrek saharar talde osoak hartzen baitituzte zaintzapean, gizabanako bakoitza atzemateko frogarik gabe. Ezagunak dira, esaterako, Gdim Izik Saharako kanpamentua desegin ondoren egin ziren sahararren atxiloketa kolektiboak. Matxinada horretan, ehunka pertsona atzitu zituzten eta, aste batzuk geroago, inolako epaiketarik gabe utzi zituzten aske; atxiloketan zehar tratatu txarrak eta tortura-gertakariak jasan zituztela jakinarazi zuten. Pertsona horiek aske uzteko prozesua oso motela izan zen eta, hiru hilabete igaro ondoren, 150 saharar baino gehiagok jarraitzen zuten Aaiuneko «Kartzela Beltzean» espetxeratuta. Hasiera batean atzeman zituzten ehunka pertsonetatik, azkenean 24 pertsonaz osaturiko talde bat eraman zuten Rabatera (Moroko) eta, bertan, epaiketa militarrik egin ziren (2013ko otsailean zigortu egin zituzten horiek guztiak)<sup>472</sup>.

---

469 Marokoko Erresuma: *Code de procédure pénale*, 68. artikulua, 35.11 zenbakiko egintza (2011ko urriaren 17a).

470 *Ibidem*, 82. artikulua (2011).

471 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua (atxilotez arbitrarioei buruzko lantaldea): *Txostena: Marokorako Misioa, A/HRC/27/48/Add.5*, 45. eta 83. paragr. (2014ko abuztuaren 4a).

472 Gimeno: *Situación de los derechos civiles y políticos en el Sáhara Occidental: de 1999 a la actualidad*, 35. orria.

Oro har, elkarrizketatutako pertsonen oinarri juridikorik gabeko atxiloten praktika hedatua deskribatu zuten, adierazpen politiko sahararra zapaltzeko eta manifestazioak eta bestelako ekitaldi politikoak sakabanatzeko helburuarekin. Askatasuna kentzeko modu horiek atxilotze arbitrarioei buruzko Lantaldeak aitortutako atxilotze arbitrarioen lehen bi kategorietan sartzen dira.

### **Sahararren askatasun-gabetzea Mendebaldeko Sahara okupatuan, tipo penal anbiguoak erabiliz**

Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan egiten diren beste atxilotze arbitrario batzuk aktibista sahararren kriminalizazioan oinarritzen dira, tipo penal anbiguoak ematen baitira; horien artean, «Erresumaren lurralde-osotasunaren kontra zirikatzea» da ohikoena<sup>473</sup>. 2016ko martxoan egin ziren Zigor Kodearen azken aldaketen arabera, ofentsa horretatik eratorritako kondena batek bost urteko espetxeratze-zigorra eta isunak eragin ditzake, eta lanpostu publikoetatik kanpo ere utz daitezke kasuan kasuko pertsonak, hamar urtez gehienez ere<sup>474</sup>. Aldaketa horien aurretik, Marokoko Zigor Kodearen 190. artikulua zioen Marokoko lurraldearen osotasuna arriskuan jartzeak bost eta hogeit hamar urteko espetxeratze-zigorra izan zezakeela batez beste<sup>475</sup>.

Nazioarteko talde askok salatu egin dute tipo penal zehaztugabe hori, baina agintari marokoarrek xedapen horiek erabili dituzte Mendebaldeko Sahararen independentzia aldarrikatzen duten pertsonak auzipetzeko<sup>476</sup>. Lurralde okupatuetan elkarrizketatutako abokatu saharar batek deskribatu zuenez, tipo penal hori aplikatzen da bandera sahararraren erabilera, independentzia defendatzen duten taldeetan parte hartzea edo herri sahararraren eskubideak defendatzeko aktibismoa kriminalizatzeke.

Tipo penal horiek askatasun-gabetzea eragiten edo justifikatzen duten heinean –sahararrak atzemanaz edo horiek espetxeratuz–, diskriminazio politizatuan oinarritutako askatasun-gabetzea islatzen da, eta hori atxilotze arbitrarioei buruzko Lantaldeak aitortutako bosgarren kategorian sartzen da.

### **Lurralde okupatuan bizi diren sahararren askatasunik eza, epaiketa inpartzialen gabetze larriek eraginda**

Justiziaren administrazioari buruzko hurrengo atalean jorratuko den moduan, lurralde okupatuetan, herritar sahararrek irregulartasun askori egin behar diete au-

---

473 Marokoko Erresuma, 73.15 Legea (2016ko ekaina); Marokoko Zigor Kodea, 267-5. artikulua.

474 *Ibidem*. Amnesty International: Morocco - Submission to the United Nations Human Rights Committee, MDE 29/4858/2016 (2016ko irailaren 19a).

475 Marokoko Zigor Kodea, 190. artikulua.

476 Amnesty International: Morocco - Submission to the United Nations Human Rights Committee, 21. orria. Europako Parlamentua: *Délégation ad-hoc pour le Sahara occidental* (2009).



rre epaiketetan, zigor-arloko prozesuaren inpartzialtasuna kaltetuz. Lurralde okupatuetan elkarrizketatutako lau gaztek, gutxienez, urtebete eta lau urte arteko atxilotze- eta espetxeratze-zigorak izan zituzten. Horien arabera, zigor-arloko prozesu bakar batek ere ez zituen errespetatzen beharrezko berme prozesalak. Kasu batzuetan, alegatuek ez zuten babesteko froga bakar bat ere eta errugabetze-frogak (froga zurigarriak, adibidez) ez ziren aintzakotzat hartu. Torturapeko aitorpenak izan ziren ia kasu guztietan, eta horrek nabarmen uzten du ez dagoela oinarri legalik eta legitimorik kasuan kasuko epaietarako eta zigorretarako. Pertsona horiek jasan behar izan dituzten lege-prozesuaren gabeziek argi eta garbi frogatzen dute askatasuna kentzen ari zaiela, epaiketa inpartzialarekin lotutako falta larriak egiten baitira.

Arau-hauste horien larritasuna dela eta –ez dira errespetatzen bidezko epaiketa bat izateko betekizunak–, atxilotze arbitrarioen bitartez egiten dira askatasunaren gabetzeak, eta hori Lantaldearen hirugarren kategorian dago txertatuta.

### **Askatasunaren gabetze arbitrarioak gazte sahararrei eragiten dizkien ondorioak**

Atxilotze arbitrarioak jasaten dituzten lurralde okupatuetako gazte aktibisten kasuan, askatasunaren gabetzeak nabarmen eragiten du pertsona horien ongizate pertsonalean, fisikoan eta mentalean, eta zuzenbidezko estatuarekiko konfiantzarik eza areagotzen du. Atxilotze arbitrarioak zigor moduko bat izaten dira, pertsona horiek gauzatzen duten aktibismoagatik, hala, beste ekitaldi politiko batzuetan parte hartu ez dezaten eta biktimen eta familien artean beldurra instala dadin, baita beste saharar batzuen artean ere, aktibismo politikoan parte hartzek izan ditzakeen arriskuak hauteman ditzaten. Dena den, atxiloketa horiek oso ohikoak dira lurralde okupatuan, eta hura beste erronka bat bihurtu da bertan bizi diren gazte sahararrentzat.

Askatasuna zuzenean kendu zaien pertsona horietatik harantzago ere badituzte ondorioak atxiloketa politikoek. Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharan elkarrizketatutako gehienek senitartekoren bat preso zutela salatu zuten, arrazoi politikoak zirela eta: gurasoak, osabak, anaiak edo lehengusuak<sup>477</sup>. Elkarrizketatutako neska gazte batek bere anaiaren historia kontatu zuen, hura 23 urte zituenean atxilotu baitzuten, aktibismoan jarduteagatik. Talde kriminal bateko kide izateagatik eta poliziari harriak botatzeagatik auzipetu zuten eta, azkenean, urte eta erdiko espetxeratze-zigorra ezarri zioten. Baina, kondenaren ia amaieran, epai-leak berriro egin zuen epaia, eta beste urte eta erdi giltzapean mantentzea agindu zion. Bere arrebaren hitzetan, «familia psikologikoki zigortzeko modu bat izan zen,

---

<sup>477</sup> Bizi-historia: Salma. Emakume sahararrek ere jasaten dituzte atxiloketa eta espetxeratze-zigor politikoak, baina elkarrizketatutako kasu bakar batean ere ez zen deskribatu mota horretako eskubide-urraketak pairatu behar izan dituzten senitarteko emakumeen egoerak.

baita anaia bera ere». Presoen senitarteko gazteek eta belaunaldi osoko pertsonak jasaten duen sufrimendu emozionalari honako hauek gehitu behar zaizkio: espetxeratutako senitartekoen ekarpen ekonomikorik eza, agintarien jazarpena, eta familiako kide baten aurreikusi gabeko eta etengabeko gabeziak eragiten dituen beste zailtasun batzuk.

# Salma

ADINA: 21 URTE | BIZILEKUA: AAIUN, MENDEBALDEKO SAHARA OKUPATUA

## “Aitaren atxiloketak nire bizitzako maila eta alderdi guztietan eragin dit”

SALMAK LAU NEBA-ARREBA DITU, DEN-DENAK AAIUNEN JAI OAK, MENDEBALDEKO Sahara okupatuan. Bera da arreba nagusia. 2010ean, 13 urte zituela, Marokoko poliziak haren aita atxilotu zuen, Gdim Izikeko kanpamentuan parte hartzen ari ziren ama eta arrebetako bat bisitatzeagatik.

“Kasualitatez, nire aita bertan zegoen Gdim Izikeko kanpamentua indarrez desegin zuten asteburuan. Sekula ez zen etxera itzuli. Hainbat egun aritu ginen aitaren bila, auzokoei eta lagunei non egon zitekeen ba ote zekiten galdezka. Inork ez zekien ezer”. Salma eta haren senideak aita hilda egongo zen beldur ziren. “Egun batzuk igaro ondoren, aita atxilotua izan zela, Rabatera eraman zutela eta gorte militar batean prozesatzen ari zirela jakin genuen. Marokoko justiziak gertaerekin batere zerikusirik ez zuten delituak leporatu zizkion; hilketa eta Marokoko segurtasun nazionalari traizio egitea, besteak beste. Fiskalek frogak asmatu zituzten eta epaileek inpartzialtasunik gabe jokatu zuten”. Salmaren aita denboran asko luzatu ziren bi prozesu judizial jasan zituen: bata militarra, eta bestea, zibila. Azkenean, biziarteko kartzela-zigorra ezarri diote.

Salma aitaren atxiloketak hainbat alderditan eragin dio. Gainera, familiak zailtasun ekonomiko larriak izan ditu, aita zelako familia osoko diru-iturri bakarra. “Aita bisitatu ahal

izan nuen lehen aldian, berehala jabetu nintzen haren sufrimenduaz. Torturatua izan zen. Oso zaila izan zen egoera horretan ikustea, hura ukitu edo besarkatu ezin nuela jakinik”. Badira aitaren atxiloketak eragina izan duen beste eremu batzuk ere: eskola eta Marokok kudeatutako erakunde publikoak, esate baterako. Leku horietan, beraien abizena jakin bezain laster, “hiltzaile baten seme-alabak” esaten diete. Horrez gain, une oro zelatatzen dituzte. Behin, polizia indarkeria erabili zuen Salmaren aurka, modu arbitrarioan erabili ere. Kaletik zihola bultza egin zioten eta, besoa zauritzeaz gain, ordenagailu eramangarria apurtu zioten. “Aitak jasotako tratuari, haren atxiloketaren baldintzei eta prozesu judizialen akatsei buruzko sakaketa ugari jarri ditugu, baina Marokoko estatuak haietako bakar bati ere ez dio erantzun”.

Aitari ezarri dioten biziarteko kartzela-zigorrek tristura sakona eta min handia eragin du familian. Hala ere, aitaren atxiloketak Salma okupazioaren aurkako erresistentzia modu aktiboan parte hartzera bultzatu du. “Zuzenbidea ikasten ari naiz Marokoko unibertsitate batean, ez dagoelako unibertsitaterik Mendebaldeko Sahara okupatuan. Abokatua izan nahi dut, nire aita bezala zapalduak izaten ari diren beste saharar batzuk defendatu ahal izateko. Nire aita oso harro dago aukeratu dudana bidez”.

#### **TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:**

**FAMILIA-BIZITZARAKO ESKUBIDEA, ASKATASUNIK GABEKO PERTSONEK BIDEZKO TRATUA JASOTZEKO ESKUBIDEA, ASKATASUN PERTSONALERAKO ESKUBIDEA, TORTURA PRAKTIKATZEKO DEBEKUA, PROZESU JUDIZIALEAN ZEHAZ BERME GUZTIAK IZATEKO ESKUBIDEA, ERREKURTSO ERAGINKOR BAT AURKEZTU AHAL IZATEKO ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIOERAKO ESKUBIDEA.**

## Askatasunik ez dutenen tratu gizatiarrerako eskubidea

Lurralde okupatuetan atzematen eta atxilotzen dituzten sahararren intzidentzia altua ikusita, bertako herritar gazte gehienek lehen eskutik ezagutzen dituzte atxiloteten baldintzak. Okupatutako lurraldeetan bizi diren gazteen bizipen partekatua bihurtu da itxialdien errealitate hori, eta horrek indartu egiten du elkarrekin harremanetan jartzeko gaitasuna eta identitate partekatuaren sentimendua. Lurralde okupatuan elkarrizketatutako guztiak egon dira, gutxienez ordu batzuetan, indar marokoarren zaintzapean, poliziaren kuartelean; horietako batzuei askatasuna ere kendu zaie, lurralde okupatuko nahiz Marokoko kartzelatan.

Gazte saharar guztiak –edonon bizi direla ere– ezagutzen dituzte preso sahararrek egindako gose-grebak, batik bat azken urteetan, jasaten dituzten atxiloteta-baldintzen kontra protesta egiteko asmoz. Greba horiek nolabaiteko sinpatia- eta elkartasun-erreakzioak pizten dituzte, eta preso sahararrak sinbolo bihurtu dira herriaren determinazio askearen aldeko borrokan.

## Askatasunik ez dutenen tratu gizatiarrerako eskubidearen oinarri juridikoa

Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak honako hau dio 10. artikuluan: «Askatasunaz gabetutako pertsona oro tratatuko da gizatasunez eta gizakiari dagokion duintasuna errespetatuz». Giza Eskubideen Batzordeak argitu duenez, eskubide horren baitan behar bezala «bermatu behar da pertsona horien duintasuna errespetatzen dela, aske dauden pertsoneri aplikatzen zaizkien baldintza berdinetan. Askatasunaz gabetutako pertsonak ere Itunean zerrendatutako eskubide guztiak izan behar dituzte, espetxeratze-baldintzetan saihestezinak diren mugei kalterik egin gabe<sup>478</sup>».

Batzar Nagusiak 1990ean onartu zituen giltzapetuen tratamendurako oinarri-zko printzipioek honako hau diote: «Espetxeratuta egoteak sortzen dituen mugen kasuan salbu, presoek beren giza eskubideak eta funtsezko askatasunak izaten jarraituko dute. Eskubide horiek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotzen dira eta, kasuan kasuko estatua horien estatu alderdia denean, baita Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunean eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean eta haren Protokolo Fakultatiboan ere, Nazio Batuen beste tresna batzuetan xedatzen direnak ahaztu gabe<sup>479</sup>».

Afrikan, Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordeak zenbait ildo hartu ditu Afrikan egiten diren atxiloteten, polizia-zaintzaren eta prebentziozko espe-

---

478 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea: 21. Ohar Orokorra: Askatasunaz gabetutako pertsonen tratu gizatiarra, 3. paragr. (1992).

479 Nazio Batuak - Batzar Nagusia: Presoak tratatzeko oinarriko printzipioak, 45/111 Ebazpena (1990eko abenduaren 14a).

txeratzearen baldintzei dagokienez<sup>480</sup>. Nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritz, ildo horiek zehazten dute askatasunaz gabetutako pertsonen funtsezko eskubideen muga jakin batzuk bakarrik aplikatuko zaizkiela, hau da, atxilotetak eragindako mugak baino ez<sup>481</sup>. Ildo horietan, atxilotutako pertsonen bermatu behar zaizkien baldintza fisikoak, prozesuko babesak, komunikazioa eta beste zerbitzu batzuk jasotzen dira<sup>482</sup>.

Genevako laugarren hitzarmenak, lurralde okupatuetako pertsonen babesari buruzko kapituluan, atxilotuei okupazioaren testuinguruan eman behar zaien tratua zehazten du. Honela dio: «Erruztatutako pertsona babestuak herrialde okupatuan atxilotuta geldituko dira eta, kondenatuak izanez gero, han bertan bete behar dute zigorra<sup>483</sup>». Horrez gain, adierazten du pertsona horiei elikadura- eta higiene-erregimen egokia eskainiko zaiela osasun-egoera onean mantentzeko, baita euren osasun-egoerak behar duen mediku-laguntza jasoko dutela ere<sup>484</sup>.

### Preso sahararren atxilotetak Marokoko kartzeletan

Okupatuta dagoen Mendebaldeko Saharako lurraldearen administrazioan, agintari marokoez zigor-arloko prozesu bati atxikita dauden sahararrak Marokora transferitzeko politika bat mantentzen dute, eta han giltzapetzen dituzte. Epaketak lurralde okupatuan egiten direnean ere, elkarrizketatutako pertsonen antzeko praktikak deskribatu zituzten Mendebaldeko Saharatik kanpo (Marokon, alegia) atxilotutako sahararren inguruan. Mendebaldeko Sahara Marokoko Estatuan txertatu zuen legea dugu jatorrian; izan ere, ez da presoek buruzko politika zehatzik behar.

Nazioarteko gizalegezko zuzenbideak barne hartzen dituen xedapen aplikagarriak urratzeaz gain, praktika horrek zenbait ondorio eragiten ditu giza eskubideetan. Torturaren eta tratua txarren erabilerari aurrea hartzeko premiatik sortu zen pertsonak babestu beharra, betiere okupazioaren testuinguruan; izan ere, tratua horiek erraza go gauzatzen dira pertsona bat bere bizilekutik urrun bidaltzen dutenean<sup>485</sup>.

Gainera, senitartekoen ere bisitan joateko aukera gutxiago dute atxilotuak Marokora bidaltzen dituztenean. Elkarrizketatutako pertsona batzuek jakinarazi zuten, agintari marokoez presoak dispertsioa gauzatzen dute, horiek Mendebaldeko Saharatik urrun dauden kartzeletara bidaliz eta, beraz, atxilotuen eta

---

480 Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea: *Afrikako Atxiloteta, Zaintza Polizial eta Behin-behineko Espetxealdirako Baldintzei buruzko Jarraibideak* (2014ko maiatza).

481 *Ibidem*, 23. paragrafoa.

482 *Ibidem*, 24.-28. paragrafoa.

483 Genevako Laugarren Hitzarmena, 76. artikulua.

484 *Ibidem*.

485 Jonathan Horowitz: *Transferring Wartime Detainees and a State's Responsibility to Prevent Torture*, American University National Security Law Brief (2012).

senitartekoen arteko bisitak oztopatuz. Lau urteko kondena bat bete zuen elkarriketatatu baten arabera, lehen espetxeratze-urtean, Tizniteko kartzela batera bidali zuten, Aaiunetik 400 kilometrora baino gehiagora. Hori dela eta, bere senitartekoek zailtasun gehiago izan zituzten bisitan joan ahal izateko. Kasu batzuetan, janzkera tradizional sahararra oztopo bat izaten da kartzelara bisitan joan nahi duten senitartekoentzat, iraindu egiten baitituzte; kasu batean, bisita bera ere ukatu zitzaien.

### **Mendebaldeko Sahara okupatutik datozen sahararren atxilotze- eta giltzapetze-baldintzak**

Atxilotuta eta giltzapetuta egon diren lurralde okupatuetako gazteek adierazi zuten bidegabekeriak jasan behar izan zituztela, bai poliziaren aldetik bai kartzelako gardien aldetik, eta oso kondizio gogorrek deskribatu zituzten, elikagairik eta urik eza, adibidez. Gazte horietako batek jakinarazi zuen bera eta beste preso batzuk giltzapetuta egon ziren zeldak zikinak, ilunak eta hotzak zirela. Beste batek esan zuen ez ziotela janaririk eta urik eman bost egunez jarraian. Marokok okupatutako lurraldeetan elkarrizketatutakoek atxilotze-baldintza iraingarriak eta umiliagarriak deskribatu zituzten, baita agintari marokoarren beste praktika batzuk ere, atxilotuei mina eta sufrimendua sorrarazteko, torturari buruzko atalean xehatzen den moduan.

Atxilotze-baldintzei buruzko testigantza horiek bat datoz torturaren kontrako errelatore bereziak egindako oharrekin, 2012an Aaiuneko hiri okupatura egin zuen bisitaren esparruan. Hark presoen muturreko pilaketa azpimarratu zuen, horrek eragin negatibo garrantzitsua baitu nutrizioaren kalitatean, osasun-zerbitzura sarbidea izateko aukeran eta presoen osasun orokorrean<sup>486</sup>.

Gainera, agintari marokoarrek atxilotzen dituzten herritar sahararrek osasun-arreta jasotzeko zailtasunak izaten dituzte. Elkarrizketatutako gazte batek jakinarazi zuenez, 20 urte zituela gaixotu egin zen, 2017an, lau hilabetez atxilotuta egon zenean: «Sukarra nuela ikustean, sendagilearen arreta eskatu nuen. Baina uko egin zioten eskaerari, eta sendagilea ikusteko baimenik emango ez zidatela esan zidaten, beste parada batean harrokeriaz erantzun nielako». Jakinarazi duenez, bere familiak mediku-arretaren gabezia salatu zuen berak hala eskatuta eta, horregatik, «kartzelako zuzendariak mehatxu egin eta urrutiago zegoen kartzela batera eraman ninduten, errepresalia gisa».

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioak behin baino gehiagotan jakinarazi du espetxeratuta dauden herritar sahararrek bizi duten osasun-arretarik

---

486 Batzar Nagusia: Errelatore bereziak torturari eta beste tratu edo zigor krudel, gizagabe edo degradagarri batzuei buruz egindako txostena, Juan E. Méndez - Marokorako Misioa, 67. paragr.

eza eta «2015ean, hiru preso sahararren heriotzak dokumentatu zituen, besteak beste, medikuaren arduragabekeriagatik, Marokon atxilotuta zeuden bitartean<sup>487</sup>».

### **Atxilotzeko eta giltzapetzeko baldintzek gazte sahararrei eragiten dizkieten ondorioak**

Gazte sahararrek atxiloketak zuzenean bizitzen dituztenean, atxiloketa horiek osasun fisikoan eta, bereziki, mentalean eragiten dizkiete ondorio kaltegarri gehien. Borondatez kontra baldintza gogor horien eraginpean egotea bereziki hunkigarria da prestakuntza-prozesu pertsonal bete-betean dauden gazteentzat, traumak, estresak eta ziurgabetasunak eragin zuzena baitute gazte horien nortasunaren garapenean.

Gazte sahararren atxiloketak eragina du, halaber, hezkuntzan eta, horrenbestez, hurrengo belaunaldiengan. Marokok administratutako kartzeletan ez dago hezkuntza jasotzeko aukerarik, gutxienez preso sahararren kasuan. Elkarrizketatutako batzuen ustez, atxiloketengatik atzeratu egin behar izan dituzte ikasketak eta beste batzuek, berriz, guztiz utzi behar izan dituzte.

---

487 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua: Marokori buruzko Bilduma: Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren Txostena, A/HRC/WG.6/27/MAR/2 (2017ko otsailaren 20a).



# Ayoub

ADINA: 18 URTE | BIZILEKUA: AAIUN, MENDEBALDEKO SAHARA OKUPATUA

**“Lehenago ere poliziaren indarkeria jasandakoa nintzen, baina ez nuen inola ere espero 4 x 4 ibilgailu batekin harrapatuko nindutenik”**

**1** 8 URTE IZANIK, AYOUBEK BATXILERGOKO AZKEN IKASTURTEAN EGON BEHAR-ko luke Aaiun okupatuko ikastetxean. Baina, horren orde, hiltzeko zorian egon zen Marokoko poliziak 4 x 4 ibilgailu batekin jo zuelako manifestaldi baketsu batean zehar.

*“Mendebaldeko Sahara okupatuko gazte askok bezala, txikitan hasi nintzen manifestaldietan eta okupazioaren aurkako erresistentzia zibileko beste ekitaldi batzuetan parte hartzen. Soilik 8 urte nituen lehen ekitaldira joan nintzenean. Mendebaldeko Saharako okupazioa salatzen duen edonor isilarazi nahi duen Marokoko poliziak jo eta zapaldu ninduen. Hala ere, sekula ez naiz haien beldur izan eta ekitaldian parte hartzen jarraitu dut. Nire herriaren askapenerako borroka energiaz betetzen nau”.*

2018ko ekainaren 28an, Ayoub Smara kalera zuzendu zen, Mendebaldeko Saharako Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren Mandatari Berezia den Horst Köhlerren aurrean sahararren egoera ikusarazteko asmoz antolatutako ekitaldi batean parte hartzera. Ayoub autodeterminaziorako eskubidea eskatzeko kalean bildu ziren sahararrei batu zitzaien. “Hamar poli-

zia-auto ikusi nituen, eta polizia eta militar asko; batzuek uniformeak jantzen zuten, eta beste asko kalez jantzita zeuden. Köhlerrek eta Nazio Batuen gainerako langileek manifestariok ikustea ekidin nahi zuten. Horregatik, Marokoko poliziek indarkeria erabili zuten. Horretara ohituta gaude jadanik”. Ezustean, Marokoko segurtasun-indarren autoetako bat –kolore urdineko Toyota Prado bat– Ayoubengana zuzendu zen abiadura handian. “Ez nekien zer gertatzen ari zen. Shockean nengoen 4 x 4 ibilgailuaren lehen kolpea sentitu nuenean. Bigarren kolpearekin, ordea, argi ikusi nuen gidatzen ari zen poliziaren aurpegia: haren gorrotozko begirada hauteman ahal izan nuen”.

4 x 4 ibilgailuaren bigarren kolpeak lurrera bota zuen Ayoub. Poliziek bertatik alde egin zuen eta kide sahararrek lagundu zioten, kaletik atereaz eta hurbileko etxe batera eramanez.

“Apenas erantzun ahal izan nien kideei, eta ezin nintzen zutitu. Nire gorputzaren beheko partek ez zituen nire aginduak betetzen, eta mina nuen alde guztietan. Berehalako osasun-arreta behar nuen, baina nire kideek bazekiten ez zegoela anbulantzia bati deitzeko aukerarik. Poliziaren eta osasun-erakundeen arteko adostasuna dela-eta, beldur ziren anbulantziak, ni ospitalera eraman beharrean, Marokoko segurtasun-indarrek esandako beste norabait eramango ote ninduen, hilketa edo desagerpen behartu bat burutuz niri eragindako kalteak ezkutatzeko”. Horregatik, kideek auto batean eraman zuten Aaiungo ospitale publikora. “Ospitalean biluzi egin ninduten, baina ez zidaten osasun-arretarik eskaini. Medikuek bere sakelako telefonoarekin argazkiak ateratzera mugatu zen. Laster etorri zen polizia. Oso zorabiatuta nengoen arren, polizia bat auto pribatu batek harrapatu ninduela behin eta berriz errepika nezan saiatu zen. Oraindik ez dakit poliziak nigan testigantza faltsu bat lortu nahi izan zuen edo gertatutakoari buruz nituen oroitzapenak manipulatzeko ahalegindu ziren”.

Hurrengo egunean, medikuek ebakuntza egin zioten Ayoubi, eta hari eta haren familiarari azaldu zieten barne-odoljariora eta pelbisean lesioa zuela. Hala ere, ospitaleak ez zien inolako osasun-txostenik eman. Ebakuntza eta gero, Ayoubek eta haren familiariak jakin zuten elkarte saharar batek Ayouben aurkako erasoak salatu zuela Nazio Batuen bulegoan, eta Horst Köhlerrek bisita egin nahi ziola, haren egoera ezagutzeko eta gertatutakoa ulertzeko. “Berehala, polizia batzuk etorri ziren eta amari eta niri nire egoera oso larria zela eta Marrakexera aldatu behar nindutela esan ziguten, bertan osasun-arreta hobea jaso nezan. Polizia-auto batera sarrarazi ziguten, Aaiungo aireportura eraman gintuzten eta, hantxe, hegazkin batera igo ginen. Aireratu eta minutu gutxira, hegazkina beherantz zuzendu zen berriz, lur hartu beharko balu bezala. Bagenekien ez geundela Marrakexen. Poliziek esan ziguten hegazkinarekin arazo bat egon zela eta Tarfayako hirian lur hartuko zuela, Mendebaldeko Sahararen eta Marokoren arteko mugatik hurbil. Bost minutu beranduago, hegazkina Aaiuneranzko bidean zen berriz”. Orduan ulertu zuten gertatutakoa Ayoubek eta haren amak: poliziak ospitaletik aldentu zituen Mendebaldeko Saharako Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren Mandatari Beziarekin topo egitea ekiditeko.

Hala ere, Ayouben osasunak hobera egiten ez zuela ikusita, ekainaren 30ean Marrakexera aldatu zen. Bi hilabete igaro zituen bertako ospitalean, une oro Marokoko poliziaren zaintzapean eta osasun-arreta egokirik jaso gabe. “Niri osatzen laguntzeko borondaterik ez

zutela konturatu ginen. Nire egoera eragin zuen gertaeraren berri izan zutenean, medikuek ahalik eta gutxien egin zuten nire zauriak sendatzeko”.

Ospitalean alta eman ziotenean, Ayoubek eta haren familiak etxe bat alokatu behar izan zuten Marrakexen, osasun-segimendurako hitzorduetara bertaratu ahal izateko. Horrek beraiena bezalako familia xume bati ekarri zion zama ekonomikoaz gain, Ayoubi ikasturte hura burutzea eragotzi zion.

Hala eta guztiz ere, Ayoubek bere herriaren autodeterminazioaren alde borrokatzeko erabakimen irmoa du oraindik. “Nire herrialdearen independentzia da nire oinarrizko eskubideez gozatzeko modu bakarra”. Ayoubek ikasketak amaitzea du amets, eta Mendebalde Sahara lurralde askea denean, diplomatikoa izan nahiko luke, bere herrialdea munduko txoko guztietan ordezkatu ahal izateko.

**Eguneratzea:** 2018. urtearen amaieran, Ayoub zutik jartzeko eta, makuluen laguntzaz, ibiltzeko gai zen.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

IRITZI- ETA ADIERAZPEN-ASKATASUNA; BILTZEKO ETA ELKARTZEKO ASKATASUNA; OSASUN-ARRETARAKO ESKUBIDEA; HEZKUNTZA-ESKUBIDEA; INOR TORTURATZEKO ETA INORI TRATU KRUELA, BIDEGABEA EDO UMILIAGARRIA EMATEKO DEBEKUA; ERREKURTSO ERAGINKOR BAT AURKEZTU AHAL IZATEKO ESKUBIDEA; AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA.

## **Torturaren eta bestelako tratu krudel, anker edo apalesgarrien debekua**

Herritar gazteen artean, lurralde okupatuetan bizi diren sahararren kontrako bidegabekeriaren sinonimo bihurtu dira torturak. Gazteek hitz hori erabiltzen dute zuzenean bizi dituzten indarkeria mota guztiei erreferentzia egiteko (lurralde okupatuan bizi direnen kasuan), baita kanpamentuetara, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetara eta diasporako gazteen-gana iristen diren bideoen, irudien edo txostenen bitartez ikusten duten guztiari erreferentzia egiteko ere. Indar marokoarrek erabiltzen duten indarkeria da irudi nagusia –lurralde okupatuan egiten diren herritar sahararren manifestazio bakesuen kontra–, baita sahararrek jasaten dituzten zaurien, ubelduren eta bestelako lesioen irudiak ere. Administrazio marokoarrak atxilotutako preso sahararrekin ere lotzen da tortura, kalean ikus daitezkeen tratu txarren hedapen gisa, eta horiek areagotu egiten dira ikuspegi publikotik isolatzen direnean.

### **Torturaren kontrako debekuaren oinarri juridikoa**

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak honako hau dio 7. artikuluan: «Inork ez du torturarik pairatuko, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrikerik ere». Bere Ohar Orokorrean, Giza Eskubideen Batzordeak zenbait jarraibide ematen ditu eskubide hori interpretatzeko: «Atxilotua babesteko, hark sendagile eta abokatuen zerbitzuak jaso ahal izango ditu azkar eta aldi behin, baita senitartekoei ere, modu egokian ikuskatuz eta ikerketarako beharrezkoa denean<sup>488</sup>». Gainera, honela dio: «Salaketak azkar eta inpartzialtasunez ikertu beharko dira agintari eskudunen aldetik, errekurtsioa eraginkorra izan dadin<sup>489</sup>». Gainera, «Estatuek egintza horiek ikertu behar dituzte eta behar bezala bermatu behar dute beren jurisdikzioan horrelakorik gertatzen ez dela eta etorkizunean ere gertatuko ez dela. Estatuak ez diete kenduko partikularrei konponketa eraginkorrerako eskubidea, ahalik eta indemnitaziorik eta errehabilitaziorik handienak barne<sup>490</sup>».

Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako konbentzioak honela definitzen du tortura 1. artikuluan: «Pertsona bati begira gauzatzen den egintza oro, hala nahita min edo sufrimendu larriak, fisikoak nahiz mentalak eragiten dizkiona, horren helburua dela berarengandik edo hirugarren batengandik informazioa edo aitortpenen bat lortzea, gauzatu duen edo ustez gauzatu duen egintza batengandik zigortzea, edo pertsona hori edota beste batzuk ikaratzeko edo derrigortzeko, edota edozein bereizkeria motatan oinarritutako arrazoi

---

488 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, 20. Ohar Orokorra: Tortura eta bestelako tratu edo zigor krudelak debekatzea, 11. paragr. (1992ko martxoaren 19a).

489 *Ibidem*, 14. paragr.

490 *Ibidem*, 15. paragr.

batengatik, betiere, min edo sufrimendu horiek eragiten baditu funtzionario publiko batek nahiz funtzio publikoak gauzatzen dituen pertsona batek, edo halakoek bultzatuta edo halakoen baimenarekin edo oniritziarekin jarduten dutenek<sup>491</sup>».

Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunak honela dio 5. artikuluan: «Pertsona orok izango du gizakiari dagokion duintasuna errespetatzeko eta lege-statusa aitortzeko eskubidea. Gizakiaren esplotazio eta degradazio mota guztiak debekatu dira, bereziki esklabotasuna, esklaboen merkataritza, tortura, zigorra eta tratu krudel, ankerra edo apalesgarria».

### **Indarraren gehiegizko erabilera lurralde okupatuko sahararren manifestazio baketsuak sakabanatzeko**

Okupatutako lurraldean jarduten duten indar marokoarrek manifestazio sahararrak sakabanatu ohi dituzte indarra erabiliz. Praktika hori jasota dago txostenetan<sup>492</sup>, artikuluetan<sup>493</sup> eta argazkietan<sup>494</sup>. Askotan, segurtasun-indarrei edo horien lankideei laguntzen dieten zibilez jantzitako polizia taldeak izaten dira. Polizia uniformedunek manifestatzaileak inguratzen edo horien joan-etorriak mugatzen dituzten bitartean jarduten dute kalez jantzitako poliziakideek, manifestatzaileak irainduz, bultzatuz, kolpatuz eta ostikoak emanez. Horrela, errepresioa areagotzen dute, bandera sahararrak erakuts ez ditzaten, independentziaren aldeko kontsignak abestu ez ditzaten edo sahararren eskubideen aldeko beste aldarrikapen batzuk egin ez ditzaten. 2010ean, indar marokoarrek indarrez eraitsi zuten Gdim Izikeko kanpamentua, eta agerian geratu zen indarraren neurritz gaineko erabilera. Operazio horretan, segurtasun-indar marokoarrek gas negar-eragileak erabili zituzten kanpamentuan zeuden herritar babesgabeen kontra, baita ur beroko kanoiak, borra eta gomazko balak ere<sup>495</sup>.

Manifestazio politikoren batean parte hartu duten lurralde okupatuetako elkarrizketatu guztiek jasan behar izan dute neurritz kanpoko indarra agintari marokoarren aldetik. Aaiuneko hiri okupatuaren erdigunetik gertu bere familiarekin bizi zen neska gazte batek gertakari ugari deskribatu zituen. Jakinarazi zuenez, polizia marokoarrek jo egin zion aurpegiari, baita 2008an eta 2009an ere, bigarren

---

491 Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako konbentzioa, 1. artikulua (1) (1984ko abenduaren 10a).

492 Ikus, adibidez, idazkari nagusiaren txostenak. 2014an, esaterako, idazkari nagusiak aitortu zuen «segurtasun-indarrek indarra erabili zuten kasuen albiste sinesgarriak izan zituztela». Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/2014/258, 5. paragrafoa*.

493 ElDiario.es: La represión de Marruecos a los saharauis que la ONU se resiste a vigilar (2015eko apirilaren 30a).

494 Ikus, adibidez, Equipe Media agentziaren web-orria.

495 Gimeno: Situación de los derechos civiles y políticos en el Sáhara Occidental: de 1999 a la actualidad, Bakerako Ikerketako Mintegia Fundazioa, 34. orria.

mailako ikaslea zenean eta manifestazioetara joaten zenean. Era berean, 2011ko beste gertakari bat deskribatu zuen. Gertakari horretan, saharar talde batek manifestazio bat antolatu zuen, bere etxearen aurrean, bere anai zaharrenaren atxiloteta politikoa salatuz; orduan, polizia iritsi eta indarra erabiltzen hasi zen bildutako pertsonak sakabanatzeko, eta behin eta berriz jo zioten, konorterik gabe utzi arte. Dirudenez, beste anai bat etorri zitzaion laguntzera eta etxera eramatera, eta hari ere harri bat bota zioten burura.

Elkarrizketatutako beste mutil gazte batek 2013an pairatutako gertakari bat deskribatu zuen, 26 urte zituen: indar marokoarrek eraso egin zioten manifestazio baten esparruan, masa sahararrak sakabanatzeko indarra erabiltzen zuten bitartean. Behin eta berriz jo zioten buruan, eta bost egunez ospitaleratu behar izan zuten; horregatik, min handiak izan zituen, gutxienez, beste hogeitun egunez.

Ayoub El Ghanen kasua oso entzutetsua izan zen<sup>496</sup>. 18 urteko gazte saharar hau 4x4 batekin harrapatu zuen polizia marokoarrak, 2018. urtearen erdialdera aldera, Aaiuneko hiri okupatuan manifestazio bat egiten ari ziren bitartean. Egintza horren nahitasuna argi eta garbi frogatuta geratu zen, Ayoubi bi aldiz egin baitzioten eraso poliziaren ibilgailu berarekin, agertokitik ihes egin arte.

Torturari buruzko errelatore bereziak berretsi du nazioarteko zuzenbideak debekatu egiten duela indarraren gehiegizko erabilera eta, zigorraren eta eragindako sufrimenduaren larritasunaren arabera, indarraren gehiegizko erabilera tratu krudel, anker edo apalesgarri gisa har daitekeela, baita tortura gisa ere<sup>497</sup>. Legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioen jokabide-kodearen 3. artikulua (Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartua) «horiek behar-beharrezkoa denean bakarrik erabili ahal izango dutela indarra, beren jardunetarako beharrezkoa denean, alegia». Dena den, indarraren erabilerak salbuespenezkoa izan behar duela aitortzen du<sup>498</sup>.

Estandar horiek aztertu ondoren (2012an Aaiuneko hiri okupatura egindako bitartean esparruan), errelatore bereziak ondorioztatu zuen manifestatzaileek gehiegizko indarkeria jasaten dutela Marokoko funtzionarioen aldetik<sup>499</sup>. Gainera, Marokori eskatu zion, manifestazioak baimenduta egon ala ez, agintari marokoarrek nahitaez bete behar dituztela indarra erabiltzearen premiari eta proportzionalta-

---

496 Bizi-historia: Ayoub.

497 Batzar Nagusia: Errelatore bereziak torturari eta beste tratu edo zigor krudel, gizagabe edo degradagarri batzuei buruz egindako txostena, Juan E. Méndez - Marokorako Misioa.

498 Nazio Batuk - Batzar Nagusia: Legea Betearazi behar duten Funtzionarioentzako Kodea, 34/169 Ebazpena (1979ko abenduaren 17a).

499 Batzar Nagusia: Errelatore bereziak torturari eta beste tratu edo zigor krudel, gizagabe edo degradagarri batzuei buruz egindako txostena, Juan E. Méndez - Marokorako Misioa, 62. paragr.

sunari buruzko nazioarteko estandarrak, baita bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea errespetatu behar dutela ere<sup>500</sup>.

### Lurralde okupatuetan bizi diren emakumeak umiliatzeko estrategiak

Biztanle sahararren kontrako tratu txar orokortuez gain, aktibisten kontra bereziki, lurralde okupatuetako emakumeek beren eskubideak urratzeko modu partikularrei egiten diete aurre. Elkarrizketatutako emakume batzuek jakinarazi zuten sexu-jazarpenak jasan behar izan zituztela atzeman ondoren, batzuetan poliziaren kuartelera joateko bidean eta, beste batzuetan, berriz, atxilotze-zeldetan. Horietako baten arabera, atzitu ondoren hiriaren kanpoaldera eraman zuten eta, bertan, poliziakide batzuk bera bortxatzen saiatu ziren.

Zuzenean jasan ez badute ere, elkarrizketatutako neska guztiek ondo baino hobeto dakite poliziak umiliazioak eta sexu-indarkeria erabiltzen dituela. Elkarrizketatutako emakume batek adierazi zuen polizia marokoarrak eskua sartu ziola 2018ko abuztuan, Aaiunen egin zen manifestazio batean. Izan ere, polizia emakume talde bat kale nagusitik beste txiki batera mugiarazten saiatu zen, beste herrikide eta behatzaile batzuek ikus ez zituzten. Deskribatu zuenez, «bularrak zapaldu zizkiguten eta gorputzeko atal guztietan jarri zituzten hatzak».

Elkarrizketatutako neska gazteen arabera, azken urteetan polizia marokoarrak inoiz baino gehiago kendu dizkiete *mehlfak*, eta gora egin dute emakumeen kontrako irainek eta erasoek, manifestazioak sakabanatzen saiatzen direnean<sup>501</sup>. Horrek bere ondorioak ditu, jakina, eta ez emakumeen artean bakarrik, gizarte saharar osoarentzat baizik. «Emakume sahararronganako errespetua galtzen dela ikustea oso kaltegarria da gazteentzat. Gazteengan ondorio psikologikoak eragiten ditu beren amak, arrebak, izebak eta emazteak eraso horiek nola jasaten dituzten ikusteak; gu babestea beren ardura dela sentitzen dute, baina badakite, hori eginez gero, beraiek ere arriskuan egongo direla».

Testigantza horiek bat datoz Marokoko administrazioak emakume sahararren kontra erabili duen indarkeriaren patroia historikoarekin<sup>502</sup>. Horiek berretsita geratu dira Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluari aurkeztutako informazioarekin, Aldizkako Azterketa Unibertsalean egindako Marokoren azken berrikuspenaren

---

500 Batzar Nagusia: *Errelatore bereziak torturari eta beste tratu edo zigor krudel, gizagabe edo degradagarri batzuei buruz egindako txostena*, Juan E. Méndez - Marokorako Misioa, 73. paragr.

501 Bizi-historia: Maalouma.

502 DiagonalPeriodico.es: *Las mujeres saharauis sufrimos la violencia del Gobierno de Marruecos* (2013ko apirilaren 9a). Irantzu Mendia eta Gloria Guzmán Orellana: *Memoria histórica de las mujeres en el Sáhara Occidental*, Hegoa (2016).

esparruan<sup>503</sup>. Tratu horiek apalesgarriak eta zitalak dira eta, sexu-indarkeriaren kasuan, horien larritasun-maila torturaren parekoa da.

### **Administrazio marokoarrak atxilotutako sahararren kontrako torturak eta tratu apalesgarriak eta zitalak**

Marokok okupatutako lurraldeetan elkarrizketatutako gazte sahararrentzat, polizia marokoarrak atzeman eta atxilotutako pertsonen kontrako tortura eta tratu txarrak behin eta berriz errepikatzen den errealitate bat dira. Atxiloketa lege-prozesu bati atxikita egon ala ez, elkarrizketatutako aktibista askok guztiz normalizatu dituzte agintari marokoarren aldetik jasotako bidegabekeria fisikoak eta psikologikoak.

Mutil gazte batek 2013ko bere atxiloketa deskribatu zuen, 18 urte zituela, erregratu gabe geratu zen atxiloketa baten harira: «Hura izan zen aurre egin behar izan diodan atxiloketarik korapilatsuenetako bat. Zibilez jantzitako poliziakide batzuek atzitu ninduten; beren kamioian biluztu eta gogor jo ninduten soka batekin, hiru orduz jarraian. Zigarroak itzali zituzten nire gorputzean eta konorterik gabe utzi ninduten, biluzik, hiritik kanpo».

Elkarrizketatutako biktimek eta horien senitartekoek deskribatu dituzten torturen artean, honako hauek ditugu: makila bidezko kolpeak, azazkalak kentzea, sudurretik produktu kimikoak sartzea, egarri ziren presoan ahoetan pixa egitea, isolamendua, bortxaketa-mehatxuak eta burua ur hotzetan sartzea, besteak beste.

Elkarrizketatutako emakume batek deskribatu zuenez, poliziakideek bere buruz kontra eman zioten musu, berak begiak estalita zituen bitartean, eta bularrak ukitu zizkioten, baimenik gabe. Ez da sexu-indarkeriaren historiarik jaso zaintzapeko emakumeen aldetik, seguruenik, biktimen sexu-erasoek gizarte sahararrean estigma handia sortzen dutela. Bestalde, elkarrizketatutako beste pertsona batzuek adierazi zuten beren familietako gizonak bortxaketak jasan zituztela botilak erabiliz, agintari marokoarren zaintzapean zeuden bitartean.

2013ko abenduan, atxilotze arbitrarioei buruzko Nazio Batuen Lantaldeak Gdim Izikeko kanpamentuarekin lotuta kondenatutako 22 saharar elkarrizketatu zituen. Lantaldea oso kezka agertu zen, atxilotuek egindako torturen eta tratu txarren salaketak ikertu gabe geratu zirelako, ia bi urteko prebentziozko atxiloketa osoan zehar. Gainera, azterketa medikoak egiteko aukera ukatu zitzaizen atxilotutako pertsona horietako askori, horiek jarritako sexu-bortxaketen salaketetan<sup>504</sup>.

---

503 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua: *Alderdi interesdunek Marokori buruz egindako komunikazioen laburpena*, A/HRC/WG.6/27/Mar/3, 69. paragr. (2017ko otsailaren 20a).

504 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua (atxilotze arbitrarioei buruzko lantaldea): *Txostena: Marokorako Misioa*, 68. paragr.



Lantaldeak ondorioztatu zuen, Marokoko konstituzioak tortura debekatu arren, Estatuaren segurtasunarekin lotutako kasuetan –horien artean, Mendebaldeko Sahararren independentzia–, torturaren eta tratu txarren nolabaiteko patroï bat betetzen dela poliziako ofizialek atzeman eta atxilotu egiten dituzten bitartean, bereziki Zaintza Zuzendaritza Nazionaleko agenteen kasuan<sup>505</sup>. Era berean, ondorioztatu zuen «pertsona asko aitortzera hertsatu dituztela eta horiei espetxeratze-zigorak ezarri zaizkiela, aitorten hori bakarrik oinarritzat hartuta»<sup>506</sup>.

Horrez gain, torturari buruzko errelatore bereziak aitortu zuen torturarekin eta tratu txarrekin lotutako lekukotza sinesgarriak jaso zituela (Aaiuneko kartzelan), bereziki bortxaketekin, jipoeekin eta zenbait astetako isolamenduekin lotuta<sup>507</sup>. Manifestazioetako parte-hartzaileen salaketak aitortu zituen, horiek jipoiak, irainak eta galdeketak jasaten baitituzte espetxera garraiatzen dituzten bitartean edo poliziako kuartelara iristen direnean. Oso kezkatuta agertu zen, halaber, era-soen ondoren biktimak landa-eremuetan botata uzten dituztela jakitean<sup>508</sup>.

Nazio Batuetako idazkari nagusiaren arabera, «(Giza Eskubideen) Batzordea kezkatuta agertu da tortura eta tratu krudel, anker edo apalesgarrien etengabeko salaketen-gatik. Funtzionario publikoak izaten dira horien egileak, Marokon nahiz Mendebaldeko Saharan, eta terrorismoko susmagarrien kontra edo segurtasuna edo “Estatuaren lurralde-osotasuna” mehatxuan jartzen dutenen kontra egiten dituzte, Marokoren arabera, Mendebaldeko Sahara ere lurralde horren barnean sartzen delako»<sup>509</sup>.

Testigantza horiek sahararren kontrako torturen patroï sistematiko bat parte-katzen dute, eta Marokok okupatutako lurraldeetako aktibistei eragiten die batez ere. Talde horretan, gazte asko daude eta, manifestazio publikoetan eta beste erresistentzia-ekintza batzuetan izaten duten partaidetza altua dela-eta, etengabe mehatxatuta eta bortxatuta ikusten dute beren osotasun pertsonala.

---

505 *Ibidem*, 73. paragr.

506 *Ibidem*, 74. paragr.

507 Batzar Nagusia: Errelatore bereziak torturari eta beste tratu edo zigor krudel, gizagabe edo degradagarri batzuei buruz egindako txostena, Juan E. Méndez-Marokorako Misioa.

508 *Ibidem*, 63. paragr.

509 Segurtasun Kontseilua, Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/2017/307, 68. paragr.

# Hassanna

ADINA: 30 URTE | BIZILEKUA: DONOSTIA, EUSKADI

**“Niretzat, asiloa inoiz ez da behin betiko helburua izan. Nire herrialdean bizi nahi dut, baina oraintxe itzuliko banintz espetxean sartuko nindukete”**

**2**011KO AZAROAN, ESPAINIAR ESTATUAN ZEGOELA, HASSANNAK JAKIN ZUEN Mendebaldeko Saharan, bere jaioterrian, Marokoko agintari judizialek bera atzemateko agindua eman zutela. Hassanak Aaiunera itzultzeko planak zituen, baina atxilotutako beste aktibista batzuen egoera ezagututa, hasierako asmoak aldatu eta espainiar estatuan asilo politikoa eskatu zuen.

Bere herrialdean, Hassanna Marokoko okupazioaren aurkako erresistentziaren aktibista ospetsua zen. 2005eko maiatzean, 17 urte zituela, Hassanna *intifadan*<sup>510</sup> modu aktiboan parte hartzen hasi zen, baita errepresioaren bortizkeria modu zuzenean jasaten ere. “2005 eta 2011 bitartean, Marokoko polizia 30 aldi baino gehiagotan atxilotu ninduen; atxiloteta luze-

---

510 Arabierazko hitzak “erresistentziari” aipamen egiten dio.

nak bi aste iraun zituen. Atxiloketa horietako bakar batean ere ez zuten nire aurkako kargurik aurkeztu, ez zen prozesu judizialik egon. Horregatik, beste atxilotu saharar batzuk bezala, beldur nintzen atxiloketa Marokoko polizien zaintzapean gertatzen diren desagerpen behartu horietako bat bihurtuko ote zen. Atxiloketa guztietan ohikoak ziren gehiegizko galdeketak, sexu-bortxaketarekin lotutako mehatxuak eta tortura fisiko eta psikologikoa”.

Hala ere, 2010eko azaroan, Marokoko segurtasun-indarrek Gdim Izikeko kanpamentua desegin zutenean, Hassannak bazekien ondorioak are larriagoak izango zirela. Bere izena kanpamentuaren antolakuntzan eta kudeaketan modu aktiboan parte hartzea leporatzen zitzaizen ehunka sahararren zerrendan zegoela jakin zuen. Hassannak senide baten etxean ezkutatu zen. Bi hilabete geroago, bizitza osoa ezkutuan igaro nahi ez zuela erabaki zuen. Etxetik irten bezain laster atxilotu zuten. “Hiru egun igaro nituen Marokoko polizia-etxean, oso baldintza txarretan eta torturapean. Azkenik, epaitegira eraman ninduten eta hantxe jakinarazi zizkidaten nire aurkako karguak<sup>511</sup>: banda kriminal baten partaide izatea, segurtasun-indarren aurkako indarkeria, etab. Epaileari azaldu nion nire aitortza torturapean lortu zutela eta polizia-etxean jasandako abusuen ondorio ziren zauriak erakutsi nizkion. Hilabete geroago, sekula bete ez duten lau urteko espetxe-zigorra ezarri zidaten”. Prozesu horren ondoren, Hassanna ohiko bizimodura itzuli zen; izan ere, Madrilén zegoen 2011ko maiatzean, epaileak bera atzemateko agindua eman zuenean.

Hassannaren asilo-eskaera Marokoko poliziengandik jasotako tratu txarretan oinarrituta zegoen eta, horrez gain, Mendebaldeko Saharara itzultzen bazen torturatua izango zela argudiatu zuen, Amnistia Internazionala erakundearen<sup>512</sup> eta beste nazioarteko behatzaile batzuen txostenak aurkeztuz epaiketaren izaera politikoa frogatzeko, baina agintari espainiarrek ez zituzten aintzat hartu. “Elkarrizketara deitu zidatenean, itzultzaile marokoar baten zerbitzuak eskaini zizkidaten, eta horrek zalantza eginarazi zidan itzulpenaren fideltasunaz. Elkarrizketaren ondoren, atzerritartasun-autoritateek denbora luzea behar izan zuten nire asilo-eskera tramitatzeko”. Aldi horretan, Marokoko justiziak Hassannaren aurkako azken epaia jakinarazi zuen: biziarteko espetxe-zigorra auzi-ihesagatik<sup>513</sup>. Informazio hori ezaguturik, 2015ean, Hassannak eskaera egin eta hiru urtera, espainiar estatuak asiloa ukatu zion eta 15 eguneko epea eman zion Marokora itzultzeko.

“Itxaropena galduta nengoen arren, banekien bizirik jarraitu nahi banuen ezin nintzela Marokora itzuli. Nire abokatuaren eta beste elkartasun-erakunde batzuen laguntzaz, errekurtsioa aurkeztu ahal izan nuen Entzutegi Nazionalan, eta epaileak ni herrialdetik kanporatzeko agindua bertan behera utzi zuen errekurtsioa ebatzi bitartean”. denbora horretan zehar, Hassann-

---

511 Ikus Human Rights Watch, *The 25 Gdeim Izik Defendants Tried in February 2013*, (2013).

512 Amnistia Internazionala, *El juicio militar contra civiles saharauis, defectuoso desde el principio* (2013ko otsailaren 1a).

513 Ikus Giza Eskubideen Behaketarako Nazioarteko Elkarteak, *Informe sobre el juicio celebrado ante el tribunal militar permanente (Rabat, 1-17 de febrero de 2013) en relación con los hechos acaecidos en el campamento de Gdeim Izik (Sahara Occidental)* (2013ko martxoaren 18a).

nak espainiar estatuan barrena bidaiatzen jarraitu zuen, Mendebaldeko Sahararen egoerari buruzko hitzaldiak ematen eta erakunde eta autonomia-erkidego askotako parlamentari-ekin biltzen. *“Trenean nindoala, Burgosetik hurbil, Polizia Nazionalak gelditu ninduen eta agiriak eskatu zizkidaten. Aurkeztutako errekurtsua ebatzi arte herrialdean gera nintekeela adierazten zuen Entzutegi Nazionalako dokumentuak erakutsi nizkienean, horrekin nahikoa ez zela esan zidaten eta trenetik jaistera behartu ninduten. Polizia-etxera eraman ninduten autoz eta han, gerrikoa eta oinetakoak kendu ondoren, gela batera eraman ninduten”*. Hassannak bere abokatuarekin eta egoera hura ezagutzera eman zezaketen beste aliatu batzuekin harremanetan jarri zen, eta hainbat komunikabide polizia-etxera deika hasi ziren. *“Egoera horren aurrean, azalpen gehiago eskatu zizkidaten eta, komunikabideen arretaz libratzeko, polizia-etxeko buruak aske utzi ninduten”*. 2016ko urrian, Entzutegi Nazionalak Hassannaren aldeko ebazpena jakinarazi zuen, eta haren asilo-eskaera onartu zuen.

Gaur egun, Hassannak espainiar estatuan gelditzeko eta bere estatusaren onurez gozatzeko eskubidea du, baina, hala ere, honakoa aitortzen du: *“Niri dagokidanez, hauxe ez da konponbidea. Itxaropena dut egunen batean nire herrialdera itzuli eta bertan aske bizi ahalko naizela, atzean utzi ditudan senide, lagun eta kideekin batera”*.

#### **TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:**

**ASKATASUN PERTSONALERAKO ESKUBIDEA; INOR TORTURATZEKO ETA INORI TRATU KRUELA, BIDEGABEA EDO UMILIAGARRIA EMATEKO DEBEKUA; ERREKURTSO ERAGINKOR BAT AURKEZTU AHAL IZATEKO ESKUBIDEA; DISKRIMINAZIORIK EZA; IRITZI- ETA ADIERAZPEN-ASKATASUNA; MUGIMENDU-ASKATASUNA; AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA.**

## Espainiako Estatuak tortura-arriskuan dauden sahararrak itzultzea

Torturaren aurkako Konbentzioak honela dio 3. artikuluan: «inork ez du pertsona bat beste estatu batera kanporatu, itzuli edo estraditatu, oinarritutako arrazoen arabera, uste bada pertsona horrek tortura jasateko arriskua izan dezakeela. Arrazoi horiek ote dauden zehazteko, agintari eskudunek kontuan hartuko dituzte egoki diren inguruabar guztiak, baita, bidezkoa denean, kasuan kasuko estatuan egoera iraunkorra izatea ere, giza eskubideak modu agerian, nabarian eta ugarian urratzearen inguruan». Zentzu berean, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 2. artikuluan galarazi egiten zaie Estatuei lurraldetik inor estraditatzeari, deportatzeari edo kanporatzeari, hark min konponezina jasateko benetako arriskua dagoela pentsatzeko arrazoi nahikoak daudenean.

Hala eta guztiz ere, Espainiako Estatuan oraindik ere oso mugatua da sahararrei eskaintzen zaien nazioarteko babesa<sup>514</sup>. Hassanna Aaliyaren kasuan, adibidez, ga-bezia asko islatzen dira babesa eskuratzeko prozeduretan: itzultzaile marokoarren erabilera, prozesamenduen atzerapenak, eskaera eragin duen funtsaren kontsiderazio desegokia lehen instantziako Asilo eta Babes Bulegoaren aldetik, errekurtsoaren etete-ondore automatikorik eza, eta koordinaziorik eza legea betearazteaz arduratzen diren funtzionario publikoekin. Hassanaren eskaera 2016an onartu zuten, eskaera egin eta ia bost urte geroago, kalitate oneko lege-laguntza bati eta bere kasua ikusgai egin zuten elkarteek laguntzari esker.

Dena den, Hassannaren eskaerari emandako onespena ez da batere ohikoa Espainiako Estatuan nazioarteko babesa eskatzen duten sahararrentzat. CEAR Euskadiren arabera, 2015ean nazioarteko babesa eskatzeko 15 eskabide erregistratu ziren Mendebaldeko Saharatik etorritako pertsonen aldetik<sup>515</sup>, eta 31 2014an<sup>516</sup>. Hala eta guztiz ere, urte horietan ez zen nazioarteko babes-emakidari onartu sahararrentzat<sup>517</sup>. 2016an, Barne Ministerioak jakinarazi zuen, urte horretan, 13 eskaera jaso zituela Mendebaldeko Saharako nazionalen aldetik, eta horietatik bat bakarrik onartu zuen, Hassannarena seguruenik<sup>518</sup>. 2017an, Barne Ministerioak nazioarteko 258 babes-eskaera jaso zituen nazional sahararren aldetik<sup>519</sup>. Urte horretan bertan, sahararren 114 eskaera onartu

---

514 Espainiako Estatuan, 12/2009 Legearen 23.1. artikulua arautzen du asiloa edo beste babes subsidiario bat eskatzeko eskubidea.

515 Ezinezkoa da sahararrek zenbat asilo-eskaera egin zituzten jakitea, askotan, Espainiako agintariek Marokoko nazional gisa sailkatzen dituztelako.

516 Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea - Euskadi: La audiencia nacional reconoce la protección internacional al activista saharauí Hassanna Aalia (2016ko urriaren 5a).

517 *Ibidem*.

518 Espainiako Erresuma - Barne Ministerioa: *Asiloa zenbakitan*: 2016 (2017ko urria).

519 Espainiako Erresuma - Barne Ministerioa: *2017ko Urtekari Estatistikoa*, 126. orria (2018ko uztaila).

eta 66 ukatu ziren<sup>520</sup>. Oraindik ez dakigu izapidetzeko geratu ziren eskaera guztietatik zenbat onartu ziren. Barne Ministerioak ez ditu oraindik argitaratu 2018ko zifrak.

Kasu horiek zifretatik harantzago doaz eta arriskuan dauden pertsonen giza eskubideak babestearen nazioarteko obligazioa islatzen dute. Ikerketa honen esparruan, lurralde okupatuko mutil gazte saharar baten kasua jakinarazi zen; izan ere, 2018ko uztailean nazioarteko babes eskatu zuen Espainiako Estatuan. Agintari marokoarrek askotan atxilotu zuten gaztea eta tortura fisikoak ere jasan behar izan zituen, baina mugako migrazio-agintari espainiarren ustez, informazio horrekin ezin zen interpretatu «eskatzaileak jazarpenak jasateko moduko garrantzi politikorik edo sozialik ba ote zuen». Agintarien ustez, eskatzaileak manifestazioetan parte hartu izanak «ez du esan nahi jazarpen indibidualizatua xede denik». Horrela, bada, atxiloteta masiboek ez dute frogatzen etorkizunean jazarpenak jasateko arriskua dutenik eta, beraz, xehetasun gehiago aurkeztu beharra iradoki zuten, pertsona hori aurkari gisa identifikatuta dagoela frogatu ahal izateko. Hori dela eta, torturak jasateko arriskupean bizi arren, bere eskaerari uko egin eta Marokora deportatu zuten. Kasu horretan argi eta garbi ikusten da nazioarteko babesik eza, nazioarteko zuzenbideak jasotzen dituenak baino baldintza gehiago eskatzen baitira, hura behar duten pertsonen babes mugatuz.

Espainiako Estatuaren asilo-sistemako gabezia horiek nabarmenak dira sahararren kasuan, eta babes eskaintzeko gaitasunik eza islatzen dute. Hori izan zen, hain zuzen ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak atera zuen ondorioa. Izan ere, 2014an bere iritzia eman zuen Espainiaren nazioarteko babes-politikaren inguruan (sahararrei dagokionez)<sup>521</sup>. 2011tik 2012ra, Espainiako Estatuak uko egin zien lurralde okupatuko hogeita hamar sahararrekin egindako nazioarteko babes-eskaerei, Gdim Izik suntsitu ondoren errepresaliak jasango zituztelakoan<sup>522</sup>. Europako Auzitegian errekurtsioa jarri zutenean, eskatzaileek berme eraginkorrik eza inpugnatu zuten Espainiako prozeduraren eraginez gertatu ziren kanporatze arbitrarioen harira. Europako Auzitegiak bere epaian azpimarratu zuenez, Espainiako prozedura judizialen etete-izaerarik ezak (nazioarteko babes-eskaerei dagokionez) guztiz urratu zuen konponbide eraginkorrerako eskubidea<sup>523</sup>.

### **Torturak eta tratu krudel, anker eta apalesgarriek gazte sahararrei eragiten dizkien ondorioak**

Lurralde okupatuan, torturaren eta tratu krudel, anker eta apalesgarrien patroiek zuzenean eragiten diete beren eskubideak aldarrikatzeko asmoz manifestazio baketsuetan parte hartzen duten gazte sahararrei. Testuinguru horretan, gazteak

---

520 *Ibidem*, 140.

521 Giza Eskubideen Europako Auzitegia: *Gaia: A.C. eta beste batzuk c. España*, Epai (2014ko apirilaren 22a).

522 *Ibidem*, 7.-40. paragr.

523 *Ibidem*, 112. paragr.

gehiegizko indarraren arriskupean jartzen dira kalera protesta egitera irteten direnean edo beren iritzizko politikoak emateko beste adierazpen babestu batzuetan parte hartzen dutenean. Gainera, emakumeek badakite etengabeko umiliazioak jasango dituzketela indar marokoarren aldetik. Azken finean, faktore horiek sekulako babesgabetasun- eta zaurgarritasun-egoera sortzen dute lurralde okupatuan bizi diren gazte sahararren artean.

Poliziak erabiltzen duen indarkeriaren biktimen zuzenak ez badira ere, emozionalki sufritzen dute beren senitartekoak eta lagunak jipoitu eta umiliatu egiten dituztela ikustean. Lurralde okupatuetan elkarriketatutako gazte gehienek ezagutzen zituzten (gehienetan, ikusi ere bai) poliziaren indarkeria-kasuak beren guraso, izeba-osaba, anai-arreba eta, batzuetan, aitona-amonen kontra. Beren senitartekoak mota guztietako indarkeriak jasaten ari zirela ikustean, elkarriketatutako askok ezintasuna, amorrua eta frustrazioa sentitu zituztela adierazi zuten.

Gainera, Marokoko administrazioak espetxeratutako preso sahararren kontrako torturak are gehiago handitzen du erakunde marokoarrenganako konfiantzarik eza, eta gizartearen polarizazioa sustatzen du. Tratu txar fisikoek eta psikologikoek ondorioak izaten dituzte biktimen osasunean eta ongizatean, eta horrek pertsona horien egunerokotasuna oztopatzen du aske geratzen direnean.

Bestalde, Espainiako Estatuan nazioarteko babesa emateko sistema egokirik ez dagoenez, jazarpenetik ihes datozen eta tortura jasateko arriskuan dauden sahararrentzat oso zaila da beren segurtasuna bermatuta dagoela ikustea. Mugimendu-askatasunean oztopoak aurkitzen dituzten lurralde okupatuetako gazteentzat, gertuen duten asilo-herrialdeko prozedura-gabeziak beste muga garrantzitsu bat dira, eta horien osotasun pertsonalean eragiten dute.

## **Eskubide zibil eta politikoak**

### **2. zatia: justizia-administrazioa<sup>524</sup>**

#### **Beharrezko berme prozesalerako eskubidea**

Lurralde okupatuko gazteen artean nabarmena da Marokoko erakundeenganako mesfidantza, eta ez okupazioari guztiz uko egiten diotelako bakarrik, sahararren kontrako lege-prozesuetan bidegabekeria asko egin direlako baizik. Gaur egungo gazteek aktibista sahararren atxiloteta-kanpaina ugari bizitu dituzte eta, tekno-

---

524 Lurralde okupatuetako gazteek ez bezala, kanpamentuetan, diasporan eta Frente POLISARIOAREN kontrolpeko Mendebaldeko Saharako lurraldeetan bizi diren gazteek ez zuten ezagutzarik, kezkarik edo zuzeneko nahiz zeharkako esperientziarik deskribatu herrialde horietako sistema judizialekin edo espetxe-sistemarekin lotuta. Horregatik, atal honetan ez dira gai horiek jorratu.

logiak erabiliz, gertutasun handiagoarekin kontrolatu ahal izan dute kasu bakoitzaren garapena. Tortura-salaketak, senitartekoen testigantzak eta nazioarteko begiraleen txostenak gero eta gehiago hedatzen ari dira eta, lurralde okupatuko gazteentzat, lege-sistema marokoa legez kontrakoa eta bidegabeta da.

### **Beharrezko berme prozesalerako eskubidearen oinarri juridikoa**

Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak berdintasuna babesten du legearen eta justiziaren aurrean, eta honako hau dio 14. artikuluan: «Pertsona guztiak berdinarak dira auzitegien eta justizia-gorteen aurrean. Pertsona guztiak eskubidea izango dute, eurek esan beharrekoa behar bezalako bermekin entzun dezan legeak ezarritako auzitegi eskudun, independente eta inpartzial batek, euren aurka azaldutako akusazioetatik edozein bideratzean, akusazio horiek zigor-arlokoak direnean, edo arlo zibilean dituzten eskubide eta betebeharrak zehazteko». Artikulu horrek beharrezko neurriak zehazten ditu: errugabetasun-presuntzioa; atzerapenik gabe informazioa zehatz-mehatz jasotzea, euren aurka azaldutako akusazioaren izaeraren eta arrazoen inguruan; epaiketa izatea, bidegabeko atzerapenik gabe; nor bere buruaren aurka adierazpenik ez egitea edo nor bere burua errudun ez aitortzea; eta abar.

32. Ohar Orokorrean, honako hau argitu zuen Giza Eskubideen Batzordeak: «Botere judizialaren eta botere betearazlearen funtzioak eta eskumenak argi eta garbi be-reizten ez direnean, edo azken horrek lehenengoa kontrola edo bidera dezakeenean, lehenengoa bateraezina izango da auzitegi independentearen kontzeptuarekin<sup>525</sup>». Era berean, dio: «Inpartzialtasunaren baldintzak bi alderdi ditu. Lehenik eta behin, epai-leek ez dute ahalbidetu behar beren epaiak isuri edo kalte pertsonalen eragina izan dezan, eta ez ditu aurrez pentsatutako ideiak izan behar azterketaren xede den gaiari dagokionez; era berean, ez dira baten interesak sustatuko bestearen kalterako. Bigarrene-rik, epaimahaiak ere inpartziala izan behar du arrazoizko begirale baten ustetan<sup>526</sup>».

Afrikan, berdintasuna legez babesten da, Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunaren 3. artikulua bitartez: «Pertsona guztiak berdinarak izango dira legearen aurrean. Pertsona guztiak legearen babes berbera jasotzeko eskubidea izango dute». Afrikako Gutunaren 7. artikuluan zehatz-mehatz zehazten dira lege-prozesu baten esparruko babesak: «epaimahai eskudun batek haren erruduntasuna frogatu arte errugabe gisa hartzeko eskubidea; defentsa-eskubidea, norberak aukeratutako abokatu batek defendatzeko eskubidea barne; (eta) arrazoizko denbora-tarte ba-tean epaitua izateko eskubidea, epaimahai inpartzial baten aldetik».

---

525 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea: 32. Ohar Orokorra - 14. artikulua, Auzitegien eta justizia-gorteen aurrean epaiketa inpartzialerako eta berdintasunerako eskubidea izatea, CCPR/C/GC/32, 19. paragra. (2007ko abuztuaren 23a).

526 *Ibidem*, 21. paragra.



## **Epaiketa gehiegi atzeratu gabe egiteko eskubiderik eza lurralde okupatuan bizi diren sahararrentzat**

Marokoko sistema penalak prozesatuta egon diren (kargu politikoak direla eta) edo senitartekoren bat prozesatuta izan duten elkarrizketatutako saharar guztiek adierazi zuten atzerapen luzeak jasan behar izan dituztela kasuen txostena lortu ahal izateko. Preso politiko baten alabak deskribatu zuenez, bere aitaren epaiketa lau hilabete atzeratu zen, eta horrek izugarri eragin zuen familia osoaren gogoal-dartean. Kargu politikoekin atzeman eta prozesatu zuten beste neska gazte bat aske utzi zuten atzitu ondoren, baina bere aurkako karguak irekita eta ebazteko geratu ziren, nolabaiteko ziurgabetasun-egoera sortuz.

Jende asko kexu da Marokoko agintariak prozesu penalak arrazoizko epean ebazten ez dituztelako, eta kexa horiek bat datoz Nazio Batuetako idazkari nagusiak emandako informazioarekin. 2013an jakinarazi zuenez, bi urte baino gehiago igaro ondoren, oraindik ere ebazteko zeuden 100 saharar baino gehiagoren kausak, Gdim Izikeko kanpamentuarekin lotuta salatu zituztenak<sup>527</sup>.

Bestalde, atzeratu egiten diren prebentziozko atxiloteta horiek oso ohikoak dira Marokoko sistema judizialak prozesatutako sahararren kasuetan. 2009ko urrian, hiru aktibista saharar prebentziozko izaeraz atxilotu zituzten Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara egin zuten bidaiari batengatik. «Marokoko barne-segurtasunari kalte egiteaz» salatu zituzten, eta 18 hilabetez izan zituzten atxilotuta, 2011ko apirilean behin-behinean aske utzi zituzten arte<sup>528</sup>.

Lekukotza horiek argi eta garbi frogatzen dute lurralde okupatuetako sahararrek gehiegi berandutzen diren epaiketak jasaten dituztela.

## **Lurralde okupatuko sahararren kontra hertsatutako aitorpenen erabilera<sup>529</sup>**

Marokoko sistema judizialean, torturapean lortutako aitorpenak erabiltzen dira erruduntasunaren froga bakar gisa. Lurralde okupatuetako gazte saharar askok adierazi zuten, polizia aitorpenak egitera behartu zituen, horretarako torturak erabiliz<sup>530</sup>. Horietako bat 20 urte zituenean atzeman zuten eta, jakinarazi zuenez, polizia marokorrek makilekin jipoitu eta behin eta berriz iraindu zuten, aitorpena sinatu zuten arte. Epaietara joan zenean, torturapean sinatu zuela esan zion

---

527 Segurtasun Kontseilua: Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/2013/220, 84. paragr.

528 Segurtasun Kontseilua: Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/2012/197, 75. paragr.

529 Preso sahararrek torturapean sinatu zituzten aitorpenen adibideak ikusteko, ikus Human Rights Watch erakundearen «Police statements attributed to two of the defendants in the Gdeim Izik Trial». Hemen: *Just Sign Here: Unfair Trials Based on Confessions to the Police in Morocco* (2013).

530 Bizi-historia: Ali.

behin eta berriz epaileari, baina kasua ikertu gabe geratu zen, eta bere aitortpena ere ez zen ebidentzia-taldetik kanpo geratu, Marokoko zuzenbideak eskatzen duen moduan<sup>531</sup>. Elkarrizketatutako beste lau pertsonak ere antzeko esperientziak izan zituzten, torturapean lortutako aitortpenak salatu zituztenean.

«Segurtasun nazionalaren kontrako mehatxuekin» lotutako kasuetan, torturari buruzko errelatore bereziak joera bat erreparatu zuen agintari judizial marokoarren aldetik, horiek salaketak onartzen baitzituzten epai batera iristeko proba bakar gisa, eta tortura eta tratu txarren salaketak ikertzeko gaitasunik eza nabarmendu zuen<sup>532</sup>.

Nazioarteko zuzenbideak debekatu egiten du onargarritasuna froga gisa erabili ahal izatea salaketen prozesu penalak abokaturik gabe egiten direnean, bereziki poliziaren zaintzapean egiten diren salaketetan<sup>533</sup>. Gainera, salaketa horien erabilera ez dator bat torturaren kontrako konbentzioaren 15. artikuluekin: «Estatu alderdi orok ziurtatuko du inolako prozeduratan adierazpenak ezin izango direla alegatu froga moduan, baldin eta egiaztatzen bada adierazpenok torturaren ondorioz egin direla, salbu eta adierazpenok egiten direnean torturarengatik akusatu den pertsonaren aurka, hain zuzen, adierazpen hori egin izanaren froga gisa». Zigor Kode Prozesalean *de jure* debekatu da aitortpen horien erabilera, baina, errelatore bereziak erreparatu zuenez, Marokoko auzitegiek horrelako aitortpenak onartzen jarraitzen dute, froga gehigarriekin alderatzen saiatu gabe eta, askotan, froga gehiagorik gabe ematen dituzte epaiak<sup>534</sup>.

Aitortpen horien erabilerak sekulako inpartzialtasunik eza islatzen du Marokoko sistema judizialaren aldetik, akusatu sahararren kalterako, eta praktikan, beren buruaren kontra deklaratzera behartzen dituzte, legeak jasotzen duen berdintasun-eskubidea urratuz.

---

531 Marokoko Erresumaren Zigor Kode Prozesala, 293. artikulua.

532 Batzar Nagusia: Errelatore bereziak torturari eta beste tratu edo zigor krudel, gizagabe edo degradagarri batzuei buruz egindako txostena, Juan E. Méndez - Marokorako Misioa, 27. paragr.

533 Giza Eskubideen Kontseilua (atxilotze arbitrarioei buruzko lantaldea): Txostena: Marokorako Misioa, A/HRC/27/48/Add.5, 78. paragr.

534 Batzar Nagusia: Errelatore bereziak torturari eta beste tratu edo zigor krudel, gizagabe edo degradagarri batzuei buruz egindako txostena, Juan E. Méndez - Marokorako Misioa, 27. paragr.

# Ali

ADINA: 29 URTE | BIZILEKUA: TAN TAN, MAROKO; AAIUN, MENDEBALDEKO SAHARA OKUPATUA

## “Epaileari hainbat aldiz adierazi nion aitortza torturapean sinatu nuela, baina hark espetxera bidali ninduen”

**A**LI MAROKOKO TAN TAN HIRIAN JAIO ZEN, MENDEBALDEKO SAHARAREKIKO hegoaldeko mugatik hurbil. Marokon bizi zen haur saharar gisa, auzokoak ez bezalako sentitu zen beti. Gaztetan, Alik helduengandik ikasi zituen Mendebaldeko Sahararen historia eta okupazioaren aurkako borrokaren ingurukoak, eta orduan hasi zen erresistentzian parte hartzen. *“Hasieran, lagunekin batera kolektibo sekretutan antolatu ginen. Kausa sahararrari buruzko mezuekin betetzen genituen kaleak eta jendea sentsibilizatzen genuen herri sahararraren errealitateaz. Manifestaldi publiko batean parte hartu nuen lehen aldian berehala atxilotu ninduten eta polizia-etxean igaro nituen 48 orduetan zehar tratu txarrak eta mehatxuak jasan nituen”.*

Atxiloketa horretan, Marokoko polizia aktibista saharar gisa fitxatu zuen. Zaintza etengabea izan arren, bere herriaren independentziaren aldeko mobilizazioetan parte hartzen jarraitu zuen. 2008an, 20 urte zituela, otsailaren 27a ospatzeko manifestaldi batean parte hartu zuen, egun horretan sortu baitzen Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa. *“Egun hartan, saharar asko bildu ginen Tan Taneko kaleetan. Istiluak izan ziren polizia iritsi zenean manifestariok sakabanatzeko eta erreprimitzeko”.* Alik ez zuen gertatutakoa ulertu; Marokoko agintarien esa-

netan, norbaitek harri bat jaurti eta, horren ondorioz, polizia bat hil zen. “Hurrengo egunetan, Tan Taneko kide asko atxilotuak izan ziren, polizia hura hiltzea leporatuta. Hainbat hilabete geroago, prozesuan izandako akats ugariak eta tortura-salaketak gorabehera, batzuk lau urteko espetxe-zigorrra eta beste batzuk hamabost urteko espetxe-zigorrra kondenatuak izan ziren”.

Manifestaldiaren ondoko bederatzi hilabeteetan, Alik beste ikasle saharar batzuekin batera bidaia bat egin zuen Casablancara. Poliziak tren-geltokian atxilotu zituen, polizia-etxera eraman zituen eta bertan galdekatuak izan ziren. Aliren lagunak Casablancan aske utzi zituzten, baina Ali Agadirrera eraman zuten. “Han eskuburdinak jarri zizkidaten, berriz ere galdekatu ninduten, eta Marokoko poliziek jo egin ninduten. Aitortza bat sinatzera behartu nahi zidaten eta, ezetz esan nienean, tortura fisikoak jasan nituen. Tortura saihesteko beste aukerarik ez nuela ikusita, dokumentua sinatu nuen”.

Agadirreko espetxean igaro zuen denboran zehar, Ali behin eta berriz kexatu zen dokumentua torturapean sinatu zuela. “Epailearen aurrera lehen aldiz eraman nindutenean, dokumentua torturapean sinatu nuela azaldu nion, baina epaileak ez zidan jaramonik egin”. Prozesu judizial luze eta akatsez beterikoaren amaieran, Aliri lau urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Izaera politikoko epaia dela-eta, Ali 20 urtetik 24 urtera bitartean egon zen Marokoko espetxe ezberdinetan. Haietan, baldintza penagarrietan bizi izan zen eta tratu bidegabea jaso zuen. Kondena bete zuenean, aske geratu zen 2012ko abenduan.

Torturaren erabilera, epaiketa justu bat ez izatea eta espetxeetako baldintza ezegokiak ez dira salbuespenak; izan ere, Amnistia Internazionalak ohar bat zabaldu zuen garai hartan, 2008ko otsailaren 27an Tan Tan hiriko istiluetan atxilotutako saharar guztiek beren aitortza torturapean –kolpeak, hanketatik buruz behera zintzilikatzea, lo egiten ez uztea– sinatu izana salatu zutelada adieraziz<sup>535</sup>.

“Nik banekien errepresio-politikak oso zabaldua zeudela eta sistematikoki aplikatzen zituztela. Horregatik, espetxetik irtetean, beste preso politiko batzuen eta herri sahararraren askatasunaren aldeko manifestaldietan parte hartzen jarraitu dut”. Alik batxilergoko ikasketak amaitu ditu eta Aaiunera aldatu da, bere familiarengandik hurbil egoteko. Oraindik ere atzetik du polizia eta, batez ere bidaian doanean, jazarpena eta galdeketak jasaten ditu. Bizitza arrunt bat izateko eskubidea ukatu diote.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

**ASKATASUN PERTSONALERAKO ESKUBIDEA; ASKATASUNIK GABEKO PERTSONEK BIDEZKO TRATUA JASOTZEKO ESKUBIDEA; INOR TORTURATZEKO ETA INORI TRATU KRUELA, BIDEGABEA EDO UMILIAGARRIA EMATEKO DEBEKUA; PROZESU JUDIZIALEAN ZEHAR BERME GUZTIAK IZATEKO ESKUBIDEA; ERREKURTSO ERAGINKOR BAT AURKEZTU AHAL IZATEKO ESKUBIDEA; AUTODETERMINAZIOERAKO ESKUBIDEA.**

---

535 Ikus nazioarteko Amnistia, Marruecos y Sáhara Occidental: Deben investigarse las denuncias de tortura de un defensor saharauí de los derechos humanos (2009ko maiatzaren 12a). Hementxe dago eskuragarri: <https://www.amnesty.org/en/documents/mde29/004/2009/en/>

## Legezko laguntzara jotzeko aukerarik eza lurralde okupatuan

Prozesu judizialen eta zigor penalen xede izan diren pertsona elkarrizketatuek jakinarazi zuten ez zutela legezko laguntzarik jaso beren kontra aurkeztutako karguetatik defendatu ahal izateko. Salatu zuten, ofiziozko abokatuak ez ziren beti joaten epaiketetara eta, beste batzuetan, ez zieten orientaziorik ematen; pertsona horien ustez, ez zuten ezertxo ere egiten zuribide-frogak edo bezeroen errugabetasunari buruzko alegatuak aurkezteko. Prozesatuta egon diren gazte elkarrizketatuen arabera, ofiziozko abokatuak ez zieten laguntza egokirik eskaini; ez zizkieten azaldu karguak zein gertakaritan oinarritzen ziren, ezta horiek saihesteko moduak ere.

Elkarrizketatutakoek egindako salaketa horiek bat datoz atxilotze arbitrarioei buruzko lantaldeak egindako oharrekin. Azken horrek ondorioztatu zuenez, kasu penal arruntetan atxilotuek abokatu baten zerbitzuak jasotzeko eskubidea dute atxilotetaren hurrengo 24 orduetan (Marokoko Zigor Kode Prozesalean babesten da<sup>536</sup>), baina, praktikan, berme hori ez dela inola ere errespetatzen<sup>537</sup>.

## Beharrezko berme prozesalik ezak sahararrei eragiten dizkien ondorioak

Marokoko sistema judizialari zuzenean aurre egin dioten gazte sahararrek kalte fisikoak eta psikologikoak jasaten dituzte. Prozesu judizialen atzerapenak ziurgabetasuna sortzen du, eta horrek zuzenean eragiten du funtsezko beste askatasun eta eskubide babestu batzuetan, hala nola mugimendu-askatasunean, hezkuntzan eta lanean. Oro har, lurralde okupatuan bizi diren herritar sahararren berme prozesalik ezak inolako babesik gabe uzten ditu beren eskubideak, are zaurgarritasun-egoera handiagoan utziz<sup>538</sup>.

## Errekurtso eraginkorrerako eskubidea

Gazte sahararrek mesfidantza eta gaitzespena sentitzen dute Marokoko erakundeengan, hein handi batean, Marokok ez duelako inoiz eskaini errekurtsio eraginkorrik herritar sahararren kontrako gehiegikerientzat. Agintari marokoarren aurrean salaketa bat jartzearen ideiak isekak eta sinesgogortasuna sortzen ditu herritar gazteen aldetik, horiek argi eta garbi ikusten baitute aurreko belaunaldiek justizia eta konponketa eskatzeko asmoz abiarazi dituzten ekimenek emaitza eskasak izan dituztela.

---

536 Marokoko Erresumaren Zigor Kode Prozesala, 66. artikulua.

537 Giza Eskubideen Kontseilua (atxilotze arbitrarioei buruzko lantaldea): Txostena: Marokoko Misioa, A/HRC/27/48/Add.5, 77. paragr.

538 Nazio Batuetako idazkari nagusiak 2018an deskribatu zuen moduan, NBGEGKBk «hainbat jakinarazpen jaso zituen abokatuen eta senitartekoek aldetik, eta epaiketa inpartzial baten printzipioen urraketa larriak jakinarazi zituzten». Ikus idazkari nagusiaren txostena, S/2018/277, 70. paragr.

## Errekurtso eraginkorrerako eskubidearen oinarri juridikoa

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak honako hau dio 8. artikuluan: «Pertsona orok du konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarriko eskubideak hausten dituzten egintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi eskudunetan errekurtsu eraginkorra jartzeko eskubidea».

Ideal hori betebeharrak lotesle batean itzuli da Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 2(3). artikulua bitartez, honako hau baitio: «Itun honetan aitortutako eskubideak edo askatasunak urratzen direnean, halakoak urratu dituzten pertsonak errekurtsu eragingarria jarri ahal izatea, nahiz eta urratze hori gauzatu eginkizun ofizialak betetzen ziharduten pertsonak. Agintari eskudunak, halakoak izan daitezkeela epaiketa-, administrazio- edo legegintza-arlokoak, edo estatuko lege-sistemak ezarritako agintari eskudunetatik beste edonork, erabakitzea errekurtsua jartzen duen pertsonaren eskubideen gainean, eta errekurtsu judizialaren aukerak garatzea».

Errekurtso eraginkorrerako eskubidea ere babesten du egoera zehatzetan. Atxilotze arbitrarioak jasan dituzten pertsonari dagokienez, honako hau dio 9(5). artikulua: «Legearen aurka atxilotu edo preso hartu den pertsona orok konponketa lortzeko eskubide eragingarria izango du».

Giza Eskubideen Batzordeak egiten duen interpretazioaren arabera, eskubide horrek «beharrezko esparru juridikoa ezartzera behartzen ditu estatu alderdiak, hala, biktimei konponketa eskaintzeko; horrela, bada, eskatu egin daitekeen eskubide bat izango da, eta ez izatera barregarria edo hautazkoa izango duen zerbait. Errekurtsora jotzeko bidea ez da teoria hutsean geratuko, eta modu eraginkorrean funtzionatu beharko du; gainera, ordainketa arrazoizko epean egin beharko da<sup>539</sup>». Batzordearen arabera, «atxiloketen legezkotasunik eza beste giza eskubide batzuk urratuz gertatzen denean –adierazpen-askatasuna, adibidez–, Estatu alderdiak kalte-ordain bat edo beste konponketa bat eman beharko du beste urraketa horiekin lotuta<sup>540</sup>».

Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunak ez du berariazko xedapenik txertatzen errekurtsu eraginkorrerako eskubideari dagokionez, baina Afrikako Batzordearen jurisprudentziak eta praktikak argi eta garbi zehaztu du, kontuan hartu dituen kasuen bitartez, errekurtsu batek erabilgarria, eraginkorra eta nahikoa izan behar duela urraketa hori konpontzeko<sup>541</sup>. Izan ere, honako hau dio Afrikako Gutu-

---

539 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea: 35. Ohar Orokorra: 9. artikulua (Askatasun eta segurtasun pertsonalak), CCPR/C/GC/35, 50. paragr.

540 *Ibidem*, 52. paragr.

541 Godfrey Musila: The right to an effective remedy under the African Charter on Human and Peoples' Rights, African Human Rights Law Journal (2006).

naren 7. artikulua: «Pertsona orok du eskubidea bere kasua azter dadin. Horrenbestez, pertsona orok izango du organo nazional eskudunei apelatzeko eskubidea, indarrean diren hitzarmen, lege, ordenantza eta ohiturek aitortzen eta bermatzen dituzten funtsezko eskubideak urratzen dituzten egintzen kontra».

### **Salaketa-sistemaren gabeziak okupatutako Mendebaldeko Saharan**

Okupatutako lurraldeetan elkarrizketatutakoek salatu zuten erabateko babesgabetasuna sentitzen zutela, hein batean, salaketa-prozesu eraginkorrik ez izateagatik. Deskribatu zuten, biztanle saharar askok aktiboki salatzen dituzte bidegabeke-riak, desesperazio hutsagatik edo errekurso eraginkorrik eza frogatzeko (kasuak nazioarteko instantzietara eraman ahal izateko); bestalde, beste saharar batzuek ez dute salaketarik jartzen agintarien aurrean, indar okupatzailearen kontrola ez legitimatzeko, hain zuzen ere. Horien arabera, «manifestazio bakoitzaren ondoren, hamar edo hamabi salaketa egoten dira manifestarien aurka erabilitako gehiegizko indarragatik, atxiloketengatik, torturagatik, jazarpenagatik eta larderiagatik, eta atxilotze arbitrarioengatik. Hala eta guztiz ere, ez dugu ia inoiz erantzunik jasotzen».

Giza eskubideen urraketaren bat salatu zuten elkarrizketatutako guztietatik bakar batek ere ez zuen egiazko erantzunik jaso agintari marokoarren aurrean egindako erreklamazioengatik. Nazio Batuetako idazkari nagusiak aitortu duenez, agintari marokoarrek ez dute erantzunik ematen, ezta giza eskubideen urraketa larriak salatu diren kasuetan ere: «Ustezko biktimen senitartekoei aurkeztutako ordena judizialik gabeko atxiloketen, torturen eta tratatu txarren, eta entzunaldien atzeratze errepikakorren kasuek ez dute erantzunik izan<sup>542</sup>».

Torturaren aurkako konbentzioaren 12. artikulua arabera, «Estatu alderdi orok zainduko du agintari eskudunek ikerketa azkar eta inpartziala egitea, arrazoiak daudenean uste izateko bere jurisdikzioan tortura-egintza bat gauzatu dela». Dena den, goian aipatutako preso sahararren torturapeko aitortpenen kasu bakar batean ere ez da ikerketarik egin tortura-salaketei dagokienez. Ezta elkarrizketatutako bi gazte aktibistaren kasuetan ere, epailei torturak eragindako zauriak erakutsi arren. Ustezko tortura-egintzei buruzko frogak aurkeztu zituzten, baina ez zen ikerketarik egin kasuarekin lotuta.

Elkarrizketatutako gazte gehienek mesfidantza agertu zuten indar okupatzailearen agintariekiko, ezagunek bizitu dituzten esperientzien eraginez; gainera, hori da beren eskubideen urraketak ez salatzei arrazoi nagusia. «Ezin dut salatu», esan zuen batek, «salaketa auzitegira iritsi arren, ez dutelako inoiz ikertzen. Kutxa batean sartu eta kopia bat bidaltzen diote Marokoko (giza eskubideen) Kontseilua-

---

542 Segurtasun Kontseilua: Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/2014/258, 79. paragr.

ri, sahararrok beraien mekanismoa erabiltzen dugula erakusteko, baina guk bada-kigu ez dutela ezertxo ere egiten. Beren diskurtso politikoa baliozkotzeko bakarrik erabiltzen dituzte salaketak».

Herritar sahararrek egindako salaketa horiek erreminta gisa erabiltzen dituzte sistema sinesgarria dela erakusteko, eta horrek are gehiago murrizten du salaketak jartzeko gogoia. «Agintari legitimo gisa aitortzen ez badituzte, ez da salatu behar», esan zuten gazteetako batek. «Beren agintaritzea legitimatzeko zeharkako modu bat da».

Neska gazte aktibista batek bere familiak 2006an egindako salaketa baten kasua azaldu zuten, manifestazio batean bere amaren aurka erabili zuten indarkeriarekin lotuta. Deskribatu zuenez, familiak ondo ezagutzen zuten ama jipoitu eta hura ko-nortetik gabe utzi zuten pertsonaren identitatea, baina salaketa berraztertu zuten epaileak erantzun zuten salatutako pertsonak ez zituela gauzatu familiak deskri-batutako egintzak, eta uko egin zion kasua aztertzeari. Elkarrizketatutako mutil gazte batek honela laburbildu zuten dena: «Marokoko auzitegiak ez dira bidezkoak, ezta independenteak ere».

### **Lurralde okupatuko sahararren kontrako errepresaliak salaketak egiteagatik**

Elkarrizketatutako batzuek adierazi zuten, bidegabekeria-egoeraren bat sa-latzen duten bakoitzean errepresaliak jasotzen dituzte. Horietako askok salaketak jarri zituzten beren atxiloteta-baldintzen inguruan, eta horrek kaltetu egin zuten beren egoera, mehatxuen edo tratu txarren bitartez edo, kasu batzuetan, Mende-baldeko Saharatik urrunago zegoen edo atxilotu sahararrik ez zegoen beste kartzela batzuetara lekualdatuz. Horrek oztopatu egin zuten senitartekoen aldetik bisitak jaso ahal izateko aukera, eta ondorioak izan zituen atxilotuen gogo-aldartean.

Era berean, bidegabekeria historikoengatik konponketa eskatu zuten gazte zein zahar batzuek deskribatu zuten antolatu egin behar izan zutela beren kasuak ikus-gai egiteko, beren eskaerak berresteko manifestazio publikoak eginez. Lurralde okupatuetako biztanle sahararren beste protesta politiko batzuetan bezala, egint-za horietako asko indarrez sakabanatu dira polizia marokoarraren aldetik, eta ho-ri ere errepresalia-neurri baten gisa har daiteke. Manifestazio horietako batean, 2018ko irailean, 30 urteko mutil gazte batek lesioak jasan zituen indar marokoarrek erantzun gisa erabili zuten indarkeriaren ondorioz, sudurra hautsi baitzioten.

### **Bidegabekeria historikoen zigorgabetasuna eta erremedio eraginkorrik eza lurralde okupatuan**

Giza Eskubideen Batzordeak aitortu du zigorgabetasunaren kontrako borroka funtsezko elementua dela giza eskubideen urraketei aurrea hartzeko. Hain zuzen ere, Batzordeak adierazi du «urraketa horiekin lotutako zigorgabetasunaren ara-zoa... elementu eragile garrantzitsua izan daitekeela bortxaketak errepikatzeko».



Testuinguru horretan, pertsona oroaren errekurtso eraginkorrerako eskubidea ezinbestekoa da giza eskubideen etorkizuneko urraketari aurrea hartzeko. Gainera, eskubide-urraketaren salaketak ez ikertu izana bera ere arau-hauste bat izan daiteke Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituneko alderdientzat<sup>543</sup>.

2004an, Marokoko erregeak Ekitatearen eta Adiskidetzearen Erakundea (IER) sortu zuen justizia trantsizionalerako mekanismo gisa, Marokon 1956tik 1999ra gertatu ziren giza eskubideen urraketekin lotutako erreklamazioei erantzuteko helburuarekin; Mendebaldeko Sahararen modu inplizituan aplikatu zen<sup>544</sup>. IERk zenbait entzunaldi publiko aurreikusi zituen 2004 eta 2005. urteen artean, baina Mendebaldeko Sahararen kasuan programatu zen entzunaldia bertan behera geratu zen arrazoi politikoak eta «segurtasun-arrazoiak» zirela eta<sup>545</sup>. IER-ren azken txostenaren lehen liburukia 2005eko azaroan argitaratu zen<sup>546</sup>. IERk aztertutako desagerpen behartuen kasu gehienak Mendebaldeko Sahararen gertatu baziren ere –txostenean jasotzen denez, preso saharar asko Kelaat Mgouna edo Agadezeko kartzela sekretuetan hil ziren–, herritar sahararrei bideratutako konponketak bestelakoak edo osatugabeak izan dira<sup>547</sup>. IERk kudeatutako konpentsazio-programari buruzko txosten horren esparruan, elkarrizketatutako sahararrek diskriminazioa salatu zuten espedienteen berrikuste-prozesuan; gainera, legez kontra atxilotu dituzten marokorrek sahararrek baino konpentsaziozko ordainketa gehiago jasotzen dituztela esan zuten. IER-ri buruzko txosten batean, Amnesty International erakundeak jakinarazi zuen bere kezka handienetako bat biktima sahararrek pairatu behar izan zuten diskriminazioa zela, erakundeak entzunaldi publikorik egin ez zuelako eta lurraldea konponketa kolektiboen programatik kanpo geratu zelako, hain zuzen ere<sup>548</sup>.

Gainera, konponketa-programa horren irismena oso mugatua izan da, indar marokorrek inolako erregistrorik gabeko atxilotetak egiten zituztelako. Horren ondorioz, biktima eta senitarteko gehienek ez dute atxilotetaren frogagirik eta, beraz, ez dute ordainik jaso. Preso ohi baten alabak deskribatu zuenez, «oso arbitrarioa da. Batzuek ordainak jasotzen dituzte, eta beste batzuek ezertxo ere ez. Ez dago irizpide edo estandar finkorik». Baina «saharar gehienek eta, bereziki, biktimen baldintza sozioekonomiko gogorrek direla-eta, horiek oso kantitate eskasak onartu behar izan dituzte eta, itxuraz,

---

543 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea: 31. Ohar Orokorra: Ituneko Estatu alderdiei ezarritako betebeharrak juridiko orokorraren izaera, 15. paragrafoa.

544 Marokoko Erresuma, Dahir 1.94.42 (2004ko apirilaren 10a).

545 Nazio Batuak - Batzar Nagusia: *Lantaldeak Behartutako eta Nahi Gabeko Desagerpenei buruz egindako Txostena* - Marokorako Misioa, A/HRC/13/31/Add.1, 34. paragrafoa. (2010eko otsailaren 9a).

546 Marokoko Erresuma - Ekitatearen eta Adiskidetzearen Instantsia: *Egia, berdintasuna eta adiskidantza* - 1. liburukia (2005eko azaroa).

547 Batzar Nagusia: *Lantaldeak Behartutako eta Nahi Gabeko Desagerpenei buruz egindako Txostena*, A/HRC/13/31/Add.1, 45. paragrafoa.

548 Amnesty International: *Broken Promises: The Equity and Reconciliation Commission and its Follow-up* (2010).

biktima marokoarrek jasotakoak baino txikiagoak. Era berean, azpimarratu behar da pertsona askori ez zaizkiela espedienteak izapidetu, eta oraindik ez dute ordainik jaso<sup>549</sup>».

Dena den, espedienteak onartu direnean ere, ordaina bera tresna politiko bihurtu da. Elkarrizketatutako batzuen arabera, aurrez atxilotutako pertsona bati taxi-zerbitzua ezarri zioten neurri konpentsatzaile gisa, baina gero kendu egin zioten haren aktibismo politikoa zela eta. Izan ere, emakume onuradunak emakume sahararren elkarte bat sortu zuen, eta maiz elkartzen ziren bere etxean. Elkarteko kide izan ziren emakumeek esan dutenez, bi urte igaro ondoren, eta funtzionario publikoekin harremanetan jarri ondoren, taxia berreskuratzea lortu zuen, betiere elkarte ixtea, manifestazioetan ez parte hartzea eta SEADen bandera ez erakustea hitzeman ondoren. Honela deskribatu zuen horietako batek: «Ordain gisa erabiltzen dituzte onura horiek, baina gero gu hertsatzeko erabiltzen dituzte».

### **Errekurtso eraginkorrerako eskubiderik ezak gazte sahararrei eragiten dizkien ondorioak**

Sahararrek jarritako salaketak aztertzen ez direnez, elkarrizketatutako gazteen arabera, nolabaiteko zigorgabetasun-egoera gailentzen da Marokok okupatutako lurraldeetan, eta justizia eskatzeko modurik ez dagoela ere sentitzen dute batzuek. Preso ohien eta horien senitartekoen eskubideak aldarrikatzeko elkarteak eta ekimenak egon arren, oso mugatuak izan dira urraketa historikoengatik lortutako erremedio eraginkorrak. Elkarrizketatu batek deskribatu zuen moduan, «gaur egun, kalera irten eta bertan topo egin dezakezu zu torturatu zaituzten pertsonekin, zure familia eta herria suntsitu dituztenekin. Kargu publikoetan egoten dira, botere handiko postuetan. Ez da konturik ematen eta, gainera, saritu egiten dituzte sortutako sufrimenduagatik».

## **Eskubide zibil eta politikoak**

### **3. zatia: funtsezko askatasunak eta bizitza publiko eta politikoan parte hartzea**

#### **Iritzi- eta adierazpen-askatasuna**

Oro har, iritzi- eta adierazpen-askatasuna bereziki garrantzitsua da gazteentzat, beraiek baitira prozesu politikoetako parte-hartzaile berriak. Horrenbestez, askatasun hori are garrantzitsuagoa da gazte sahararentzat, oinarritzko eskubide askoren urraketari egin behar baitiote aurre. Munduko gainerako gazte guztiek bezala, sahararrek ere beren ideiak eta ikuspegi berriak dituzte, eta beren errealitatean eragiteko eta errealitate horiek aldatzeko gogoia dute. Hala eta guztiz ere, lurralde okupatuan bizi diren gazte sahararrek beren iritzien diskriminazio sistematiakoari

---

549 Gimeno: Situación de los derechos civiles y políticos en el Sáhara Occidental: de 1999 a la actualidad, 23. orria.

eta kriminalizazioari aurre egiten diete –adierazpen politikoaren eta kazetaritzaren kontrako errepresioa erabiliz–, baita lurraldean sartzeko murrizketei ere, eta horrek are gehiago iraurarazten du blokeo mediatikoaren egoera.

### **Iritzi- eta adierazpen-askatasunaren oinarri juridikoa**

Iritzi- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea jasota dago Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 19. artikuluan: «Edonork du iritziak emateko eskubidea, inolako trabarik izan gabe. Pertsona guztiek dute adierazpen-askatasunerako eskubidea; eskubide horretara biltzen da era guztietako informazioak eta ideiak bildu, jaso eta zabaltzeko askatasuna, mugak kontuan hartu gabe».

Giza Eskubideen Batzordeak jakinarazi duenez, eskubide horrekin bateraezina da «iritzi bat emateko eskubidea delitu gisa kalifikatzea. Pertsona baten jazarpena, larderia edo estigmatizazioa, bere iritzia emateagatik atxilotzea, prebentzioz espexeratzea edo giltzapetzea barne, eskubide horren arau-hauste bat» izango lirateke<sup>550</sup>. Estatu baten adierazpen-askatasunaren inguruan jarritako mugek legez zehaztuta egon behar dute, eta behar-beharrezkoak izan behar dute helburu legitimo eta ez oso zabal bat lortzeko<sup>551</sup>. «Gertakari historikoei buruzko iritzien adierazpena zigortzen duten legeak bateraezinak dira Itunak Estatu alderdiei ezartzen dizkien obligazioekin, betiere iritzi- eta adierazpen-askatasunei dagokienez. Itunak ez ditu baimentzen iraganeko gertakarien okerreko iritziak edo interpretazioak adieraztearen gaineko debeku penalak<sup>552</sup>».

Bestalde, Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunak iritzi- eta adierazpen-askatasuna bermatzen du 9. artikulua bitartez: «Gizabanako orok izango du informazioa jasotzeko eskubidea. Pertsona orok izango du bere iritziak adierazteko eta hedatzeko eskubidea, betiere legea errespetatzen badu».

Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Batzordeak Adierazpen Askatasunari buruzko Printzipioen Afrikako Adierazpena onartu du, eta debeku bat ezarri du injerentzia arbitrarioen kontra. Era berean, honako hau aitortu du: «hedabideetako profesionalak eta adierazpen-askatasunerako eskubidea gauzatzen duten beste pertsona batzuk beldurtzeak eta mehatxatzeak, eta komunikazio-instalazioen deuseztapen materialak nabarmen ahultzen ditu kazetaritza independentea, adierazpen-askatasuna eta publikoari informazioa modu askean helarazi ahal izatea<sup>553</sup>».

---

550 Giza Eskubideen Batzordea: 34. Ohar Orokorra, 9. paragr. (2011ko irailaren 12a).

551 34. Ohar Orokorra, 24.-37. paragr.

552 34. Ohar Orokorra, 49. paragr.

553 Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Batzordea: *Resolution on the Adoption of the Declaration of Principles on Freedom of Expression in Africa*, Res.62(XXXII)02 (2002ko urriaren 23a).

## Marokoren errepresioa Mendebaldeko Sahararen aldeko independentzia-adierazpenen aurrean<sup>554</sup>

Mendebaldeko Sahararen independentzia aldarrikatzen dutenen aurkako diskriminazioak mugatu egiten du beste eskubide batzuen erabilera, hala nola iritzi- eta adierazpen-askatasuna. Elkarrizketatutako gazte batzuen arabera, lehen hezkuntzan bertan hasten ziren marrazten SEADen bandera eta Fronte POLISARIOAREN lotutako mezuak edo sinboloak zituzten kartelak egiten. Beste batzuen arabera, bigarren hezkuntzako ikasleak zirela, manifestazioetara joan, hiriko hormak graffitiz margotu (independentziaren aldeko eskaerak eginez) eta bideo txikiak grabatzen zituzten Internet bidez zabaltzeko. Gazteentzat, beren iritzia adierazteko modu bat zen. Elkarrizketatu batek deskribatu zuen moduan, «hau nahi nuela sentitu nuen. Nire adinagatik, ez nuen hitzik izan nire inguruan gertatzen ari zen guztiarekiko zer sentitzen nuen deskribatzeko, baina guztiz irudikatuta sentitu nintzen beste aktibista batzuen mezuarekin».

Baina adierazpen politikorako modu horiek errepresioa izaten dute erantzun gisa. Ikastetxeetan, irakasleek –ia denak marokoarrak– poliziarri erakusten zizkioten marrazki eta mezu politikoak, batzuetan, familiaren kontrako indarkeria-mehatxuak eragin edo ikaslea ikastetxetik kanporatuz. Marrazki horiek Mendebaldeko Sahararen independentziaren aldeko mugimenduaren sinboloak dira eta ez daude baimenduta ikastetxeen barruan.

Kalean izaten diren adierazpen politikoko egintzak are indarkeria handiagoarekin zigortzen dira. Askotan, arestian aipatu diren manifestarien kontrako jipoiak, irainek eta galdeketek iritzi-adierazpena murriztea izaten dute helburu, Mendebaldeko Sahararen independentziaren aldeko edo biztanle sahararren eskubideen aldeko iritzi politikoak emateko orduan. Ghali Zoghamen adibideak argi eta garbi islatzen du hori guztia: 30 urteko gazte saharar honek Smara hiriko linea elektrikoan zintzilikatu zuen txikia zenean ikastetxeko mahaian marrazten zuen bandera berbera. Bizitegi-auzo bateko eraikin baten teilatuan Saharako bandera zintzilikatu zuenean, Ghadik borra bidezko kolpeak eta ostikoak jaso zituen polizia marokoarren aldetik<sup>555</sup>.

Gainera, Mendebaldeko Sahararen independentzia babesten dutenen kontrako –«durraldearen osotasunerako» mehatxu bat dela ulertzen dutelako– kriminalizazioa erabiltzen da iritzi politikoen adierazpen-askatasuna murrizteko, eta ez sahararren aldetik bakarrik. 2016an, Ali Anouzla kazetari marokoarra auziperatu zu-

---

554 Marokoko unibertsitateetan ikasten duten sahararrek ere jasaten dute errepresio hori. Horiek adierazi zuten, indarrez eten behar izan zituzten Saharako kulturaren eta historiaren inguruko sentsibilizazio-jarduerak eta informazioaren hedapena.

555 Norwegian Students' and Academics' International Assistance Fund: *Acting with Impunity: Morocco's Human Rights Violations in Western Sahara and the Silence of the International Community*, Annex of human rights violations.

ten, Alemaniako aldizkari baten arabera, Mendebaldeko Sahara lurralde «okupatu» gisa deskribatu zuelako<sup>556</sup>.

Tratu txar motak eta horien intentsitatea aldatu egiten dira gazteen aktibismoaren arabera, baina iritziz politikoko adierazpenak etengabe jazartzen dira.

### **Kazetaritza saharararen errepresioa eta kriminalizazioa lurralde okupatuetan**

Ikerketa hau egiten ari ginen bitartean, lurraldeari eragiten dion okupazio-egoerari buruzko informazioa dokumentatzen eta hedatzen lan egiten duten lurralde okupatuko gutxienez lau saharar talderekin jarri ginen harremanetan. Horietako batzuek albisteak idazten dituzte, beste batzuk argazkiak atera edo grabaketak egiten dituzte, eta beste batzuek, berriz, edizioan eta hedapenean lan egiten dute. Horien lana adierazpen-modu bat da, eremu okupatuetan gertatzen diren bidegabekeriaren egoera dokumentatzen eta hedatzen lan egiten baitute.

Horregatik, errepresio-kanpaina baten xede izaten dira agintari marokoarren aldetik, eta atxilotetak nahiz arestian aipatutakoen gisako torturak jasaten dituzte, baita kazetaritza-jardueretarako erabiltzen diren ekipo eta materialen konfiskazioak ere. Bidegabekeria horiek lan-esparruan gertatzen direnez –egoera jakin baten argazkiak ateratzen edo informazioa biltzen duten bitartean–, bistakoa da bidegabekeriaren xedea kazetaritza erreprimitea dela. Elkarrizketatutako gazte batek, adibidez, 2007an atxilotu egin zutela deskribatu zuen, komunikazio-lanetan ibiltzen ziren beste bi lankiderekin batera. Lau egunez izan zituzten atxilotuta. Eskuburdinak jarrita izan zuten denbora guztia, biluzik eta torturapean; gero, aske utzi zuten, lege-prozesu bakar batetik ere igaro gabe. Beste gazte bati 2010ean egin zioten eraso Marokoko Rabat hirian, Gdim Izikekin lotutako epaiketei estaldura ematera joan zenean. Dirudienez, poliziak indarra erabiliz kendu zion grabagailua, eta iraindu eta jipoitu egin zuten. Elkarrizketatutako beste pertsona baten arabera, zazpi polizikidek (bi uniformedunek eta zibilez jantzitako beste bostek) jipoitu zuten, 2016an, gertuko teilatu lau batetik manifestazioko argazkiak ateratzen ari zela. Elkarrizketatutako beste neska gazte batek adierazi zuen, 2016an, indarkeria erabiliz konfiskatu ziotela kamera, emakumeen manifestazio bat grabatzen ari zen bitartean<sup>557</sup>.

Kazetari sahararrek ere zuzenean jasaten dute kriminalizazioa<sup>558</sup>. Asko dira kazetari-lanekin lotutako jarduerengatik kondenatu dituzten berriemaileak, blogariak eta

---

556 Human Rights Watch: Morocco: Leading journalist facing trial (2016ko otsailaren 8a).

557 Bizi-historia: Nazha

558 Telebista- eta irrati-programa batzuetan eta beste hedabide batzuetan identitate sahararra irudikatu nahi duten pertsonak txertatu edo, ustez, «Saharako eskualdearekin» lotutako gaiak jorratu arren, horiek Marokoko Estatuak gauzatutako anexion-proiektuaren propaganda gisa erabiltzen dira, sahararren ustez. Beste nortasun saharar bat edo Sahararen autodeterminazioa aldarrikatzen duten kazetariak jazarpeneren xede izaten dira.

argazkilariak, «lurraldearen osotasunari» kalte egiteagatik. Elkarrizketatuek 2013an gertatu zen talde mediatikoetako kideen atxiloketa-kanpaina bat deskribatu zuten, horietako asko ezagunak dagoeneko. Kasu gehienetan, pertsona horiek ez zuten lege-prozesurik izan, eta galdeketak eta mehatxuak jasan behar izan zituzten aske utzi aurretik.

2016ko urrian, Marokoko parlamentuak Prentsa eta Argitalpen Kode berri bat onartu zuen. Horrek hobekuntza esanguratsuak eragin ditu sektorean, baina modu zabalagoan aplikatzen diren Zigor Kodeko xedapenen jarraitutasunak erreprezioaren ondorioak mantentzen ditu kazetaritza sahararrean<sup>559</sup>. Prentsa eta Argitalpen Kode horretan ezabatu egiten dira espetxeratze-zigorak –adierazpen-laido baketsuen zigor gisa–, baina neurria hutsala dela esan genezake, Zigor Kodeko hornidurek oraindik ere espetxeratze-zigorrekin zigortzen baitituzte adierazpen baketsuko moduak, horien artean, «lurralde-osotasunaren kontra zirika egitea<sup>560</sup>». Dena den, Zigor Kodeak ez du delitu horren definiziorik jasotzen, eta seguruenik orain arte bezala aplikatzen jarraituko da Mendebaldeko Sahararen autodeterminazioaren aldeko eskaera baketsuak kriminalizatzeko<sup>561</sup>. Zigor Kodeak sei hilabete eta bost urtera arteko espetxeratze-zigorak ezartzen ditu, isunaz gain<sup>562</sup>.

Kriminalizazio horrek oso modu larrian urratzen du adierazpen-askatasuna, baina Marokoko gobernuak justifikatu egiten du murrizketa, «lurraldearen osotasuna Konstituzioan xedatutako identitate marokoarraren oinarrietako bat delako. Horrenbestez, haren kontrako ziriken kriminalizazioa ez da hartzen adierazpen-askatasun baketsuaren murrizketa gisa. Ohikoa denez, legeak zigor bat ezarri behar du irain horri aurre egiteko<sup>563</sup>».

### **Atzerriko kazetariak eta ikerlariak Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan sartzeko mugak**

Adierazpen-askatasunari dagokionez, Giza Eskubideen Batzordeak jakinarazi du, oro har, eskubide horrekin bateraezina dela «kazetariak edo adierazpen-askatasuna gauzatu nahi duten beste batzuek (giza eskubideei buruzko bileretara joan nahi dutenek, adibidez) Estatu alderditik kanpo bidaiatzeko duten eskubidea mugatzea, herrialde jakin batzuetatik datozen atzerriko kazetariak Estatu alderdian

---

559 Human Rights Watch: *The Red Lines Stay Red: Morocco's Reform of its Speech Laws* (2017)

560 *Ibidem*, 4. orria.

561 *Ibidem*, 21. orria.

562 *Ibidem*.

563 *Ibidem*, 22. orria.

sartzen ez uztea, edo kazetarietara eta giza eskubideen ikerlariei Estatu alderdiaren barruan modu askean mugitzeko askatasuna mugatzea<sup>564</sup>».

Kazetaritza- edo ikerketa-lanak egiten dituzten atzerritarrei askotan ukatu zaie Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan sartu ahal izatea, eta hori jasota dago agirietan<sup>565</sup>. Gdim Iziken testuinguruan, atzerriko kazetarietara eta nazioarteko begiraleei Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan sartzeko aukera ukatu zitzaientzen, baita Rabateko egoitzetan urteak lan egiten zeramatzatenei ere, *pertsona non grata* aitortu baitzituzten<sup>566</sup>. Ordudanik okerrera egin du joerak. 2014an, Nazio Batuetako idazkari nagusiak aitortu zuen «kasu batzuetan, Marokoren interesen kontrakotzat jotzen zituzten bisitarietara Lurraldean sartzeko aukera ukatu zitzaientzen edo Lurraldeetik bota zituztela». Urtebete geroago, 2015ean, honako hau jakinarazi zuen idazkari nagusiak: «18 delegazio eta 8 bidaiari baztertu edo kanporatu zituzten, gehienak Mendebaldeko Sahararen determinazio askearen aldeko europarrak, ikerlariak eta hedabideetako langileak, ustez, beren asmoak faltsutu, ordena publikoa asaldatu edo agintarietara elkarlanean jarduteari uko egin ziotelako<sup>567</sup>». 2017an, Marokoko Gobernuak NBGEGKri baieztatu zion gutxi gorabehera 187 atzerritar kanporatu zituztela okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetatik, indarra erabiliz eta, ustez, imigrazio-arauak ez betetzeagatik edo «segurtasun nazionalari kalte egiteagatik<sup>568</sup>».

Kontrol mediatikoaren politika horrek laurogeita hamarrekota hamarkadan du jatorria. Nazio Batuetako idazkari nagusiak 1998an adierazi zuen moduan, urte horretan, «Aaiuneko aireportuko agintarietara Tindufen sartzeko galarazi zieten berriemaile britainiar bati eta Portugaleko telebista-talde bati, MINURSOren hegaldiei uko eginenez; argazkilaria argentinar bati ere galarazi zioten Tindufen eta Asmaran sartu ahal izatea<sup>569</sup>». Urte horretan bertan, idazkari nagusiak jakinarazi zuen «MINURSOko komunikazio-taldea (bi hilabetez) atzemandako egon zela Aaiuneko aireportuan, herrialde anfitrioietara Nazio Batuen bakea mantentzeko eragiketara guztietara eman ohi dizkieten pribilegioekin eta immunitateekin kontraesanetan<sup>570</sup>». Urte horren amaieran, Nazio Batuetako idazkari nagusia konturatu zen «(MINURSOren) jarduteko gaitasunak

---

564 Nazio Batuek - Giza Eskubideen Batzordea: 34. Ohar Orokorra – 19. artikulua (iritzi- eta adierazpen-askatasuna), CCPR/C/GC/34, 45. paragrafoa. (2011ko uztailaren 29a).

565 The Guardian: Morocco expels 19 journalists from Western Sahara (2012ko azaroaren 8a). The Norwegian Support Committee for Western Sahara: 5 Norwegian groups expelled from Western Sahara this year (2014). Europako Parlamentua: Parliamentary questions: European lawyer traveling to Western Sahara expelled from Morocco (2015eko irailaren 11). The New Yorker: Is one of Africa's oldest conflicts finally nearing its end? (2018ko abenduaren 29a).

566 República: Marruecos declara la 'guerra' a la prensa española (2010eko azaroaren 12a).

567 Segurtasun Kontseilua: Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/2015/246, 4. paragrafoa.

568 Segurtasun Kontseilua: Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/2017/307, 72. paragrafoa.

569 Segurtasun Kontseilua: Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/1998/634, 19. paragrafoa.

570 Segurtasun Kontseilua: Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/1998/775, 10. paragrafoa.

mugatuta egoten jarraitzen zuela komunikazio-talderik ezagatik, Marokoko agintariek ez baitute ahalbidetu Aaiuneko aireportutik irten daitezela<sup>571</sup>». Esklusio horiek komunikazio-arloko langileen kontraok izaten ziren beti.

Mendebaldeko Saharako lurraldean sartzeko aukera murrizten duen politika marokoarrak blokeo mediatikoa eragin duela esan daiteke. Nazioarteko kazetarientzat ezinezkoa da lurraldean sartzea eta, beraz, baita zuzeneko erreportajeak egitea ere. Gainera, lurraldean bertan kazetaritzan diharduten aktibista sahararrek errepresioa jasaten dute eta, horrela, Marokok guztiz kontrolatzen du Mendebaldeko Sahararen inguruan atera daitekeen informazio guztia. Azken finean, asko izan dira lurraldean sartzeko aukerarik izan ez duten nazioarteko kazetariak eta ikerlariak (lurralde okupatuko bizi-baldintzen inguruko informazioa emateko helburuarekin), eta egintza horiek bateraezinak dira lurraldeko adierazpen-askatasunarekin.

### **Iritzi- eta adierazpen-askatasunik ezak gazte sahararrei eragiten dizkien ondorioak**

Gazte sahararrentzat bereziki garrantzitsua da okupatutako lurraldeetan bizi dituzten errepresioaren eta bidegabekeriaren egoera hedabideen bitartez komunikatzea, lurraldearen gaineko blokeo mediatikoa aitortu egin den neurrian. Blokeo hori lortzeko, nazioarteko kazetariak lurraldean sartzeko galarazten zaie eta bertatik ateratzen den informazio guztia kontrolatzen dute; horrez gain, kazetaritzan parte hartzen duten sahararren errepresioa eta kriminalizazioa gauzatzen dute. Errepresio-baldintza horiek direla-eta, komunikabideetako gazte aktibistek modu klandestinoan lan egin behar dute, eta egintzak dokumentatu ahal izateko arriskuak onartu behar dituzte, argazkiak ateratzera teilatu lauetara igotzen direnean edo bitanle sahararren eskubideak urratzen diren lekuetara gerturatu behar dutenean.

Kazetari sahararrek bizi duten jazarpen-egoerak izugarri eragiten die gazteei, horiek gehiago erabiltzen baitituzte informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, bereziki sare sozialak, eta horien bitartez hedatzen dute informazioa, salaketa publikoa egiteko.

---

571 Segurtasun Kontseilua: *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/1998/1160, 15. paragr. (1998ko abenduaren 11).



## Nazha

ADINA: 27 AÑOS | AAIUN, MENDEBALDEKO SAHARA OKUPATUA

“Ez dut nahi horrela lan egin behar izatea, edozein unetan eraso egin eta nire lantresnak konfiskatu ahal dizkidayatela jakimik. Kazetaritza askea egin nahi dut”

**A**ZKEN URTEOTAN, MENDEBALDEKO SAHARA OKUPATUAK BIZI DUEN BLOKEO mediatikoa ikusita, gazte saharar askok kazetaritzaren bidetik jo dute, blokeoa gainditzeko eta beren identitatea eraikitzeko asmoz. Nazha da gazte horietako bat. Txikitatik ezagutzen ditu sahararrek okupaziopean jasaten dituzten abusuak. “Soilik 8 urte nituela, nire neba nagusia urtebetez atxilotu zuten, okupazioaren aurkako erresistentzian modu aktiboan parte hartzeagatik”. Atxiloturik igaro zuen aldia oso gogorra izan zen familierentzat, baina, hala ere, aske utzi zutenean, Nazha nebaz oso harro sentitu zen. Harrezkero, “beste ikasle saharar batzuekin batera, okupazioari aurre egiten hasi nintzen, manifestaldietan parte hartuz eta eskolan aktibismoa praktikatuz. 14 urterekin atxilotu ninduten lehen aldiz. Ondo gogoan ditut polizien borra-kolpeak, eta beste emakume batzuekin jasan nuen umiliazioa poliziek gainean txiza egin zigutenean. Galdeketak gau oso bat iraun zuen eta, ondoren, aske utzi ninduten eta familiarekin itzuli nintzen, okupazioaren aurka borrokatzeko are gogo handiagoz”.

2010ean, Gdim Izi-keko kanpamentuan egin ziren manifestaldi baketsuen aurrean poliziak indarkeriaz erantzun zuenean, Nazha eta haren ahizpa gertatzen ari zena dokumentatzen hasi ziren. *“Ehunka pertsonaren atxiloketak dokumentatu genituen, poliziaren indarkeria, denboran luzatzen ziren atxiloketak, tortura-kasuak...”*. Kazetaritza-ikasketarik izan gabe, Nazhak eta haren ahizpak txostenak eta berriak idatzi zituzten, eta komunikabideekin eta nazioarteko elkartasun-erakundeekin harremanetan jarri ziren, Marokoko poliziak Gdim Izi-keko kanpamentua desegitean erabili zuen indarkeriaren berri emateko. Pixkanaka-pixkanaka ikasi zituen sahararren errealitatea jendeari ezagutarazteko formulak. *“Kazetaritza gustuko nuela eta okupazioaren aurreko sahararren erresistentziarako funtsezko elementua dela ohartu nintzen”*.

Gdim Izi-keko kanpamentuko gertaeren ondoko urteetan, Nazha kazetaritza ikasten eta arlo horretako ekimenetan parte hartzen jarraitu du; Europara ere bidaiatu du, argazkigintzari buruzko ikastaro bat egiteko. *“Aaiunera argazki-kamera batekin armaturik itzuli nintzen, eta hura erabiltzen hasi nintzen manifestaldi baketsuak eta Marokoko poliziaren erantzun bortitza dokumentatzeko. 2016an, manifestaldi horietako batean zehar, poliziek kamera kendu zidaten, indarkeria erabili zuten ni atxilotzeko eta polizia-etxera eraman ninduten. Gau hartan, iraindu eta mehatxu egin zidaten; argazkiak ateratzeari eta dena dokumentatzeari uzten ez banion, ‘larrutik ordainduko’ nuela esan zidaten. Kamera konfiskatu zidatela salatu nuen, baina sekula ezin izan dut berreskuratu”*.

Mehatxuak eta atxiloketak ez dira nahiko izan Nazha geldiarazteko. Hainbat komunikazio-talderekin eta komunikabiderekin lanean dihardu, Mendebaldeko Sahara okupatuko errepresio-egoeraren berri emanaz. Orain 27 urte ditu, unibertsitatean ikasten ari da eta, aldi berean, okupazioaren historiak dokumentatzeko eta zabaltzeko konpromiso irmoari eusten dio. *“Kazetaritzak aukera ematen dit besteen bizitzetan murgiltzeko, munduko jendea-rengandik ikasteko eta haien arazoan eta borrokan partaide bihurtzeko”*.

\*\*Eguneratzea: 2018ko abenduaren 4an, Nazha Aaiungo hiri okupatua atxilotua izan zen, saharar talde batek beren herriaren autodeterminazioa aldarrikatzeko antolatutako manifestaldi batean. Nazha jo eta polizia-etxera eraman zuten, eta bertan sakelako telefonoa konfiskatu zioten. Bere atxiloketan zehar grabatu zuen bideoak zabalkunde handia izan zuen sare sozialetan eta, horren ondoren, aske utzi zuten. Titulua izan gabe kazetaritzan jardutea leporatu diote, beraz, 2 urteko kartzela-zigorra edo 500 euro arteko isuna ezar diezaiokete.\*\*

TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

**IRITZI- ETA ADIERAZPEN-ASKATASUNA; INOR TORTURATZEKO ETA INORI TRATU KRUELA, BIDEGABEA EDO UMILIAGARRIA EMATEKO DEBEKUA; ASKATASUN PERTSONALERAKO ESKUBIDEA; AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA.**

## **Biltzeko eta elkartzeko eskubidea**

Gizarte kolektibista gisa, bileretara dei egitea eta helburu desberdinetarako elkarte formal edo informalak osatzea fenomeno ezaguna da herri sahararrarentzat. Lurralde okupatuko gazte sahararren kasuan, beren lurraldean bertan gutxiengo bat bihurtu izanak ezinbestekoa egiten du elkarrekin elkartzea, borrokan testuinguru horretan, beren buruak eta beren identitate kulturala babesteko. Jarduteko modu horietan, gazteek muga ugarirekin topo egiten dute elkartzeko, publikoki manifestatzeko eta elkarreak sortzeko orduan.

Errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren gazteentzat funtsezkoa izan da elkarrekin biltzearen kultura hori, bizi dituzten erbeste-baldintzek ez baitute elkarreak eratzea ahalbidetzen.

### **Biltzeko eta elkartzeko eskubidearen oinarri juridikoa**

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 21. artikulua «bilera baketuak egiteko eskubidea aitortzen du» eta, 22. artikulua arabera, «persona orok eskubidea du beste batzuekin askatasunez elkartzeko». Giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko garaiko errelatore bereziak esan zuenez, «beste batzuekin elkartzeko eskubideak biltzeko modu asko hartzen ditu barne: bizileku jakin bateko bilerak edo leku publikoetan egiten diren bilerak eta konferentziak izan daitezke, baita manifestazioak, bijiliak, ibilaldiak, piketeak eta elkartzeko beste modu batzuk ere, barnean nahiz aire zabalean, betiere giza eskubideak sustatzeko eta babesteko helburuarekin. Gobernuak kanpoko erakunde batek, sindikatu batek, talde berezi batek, gizarte-mugimendu batek edo eztabaidatzeko gai bat planteatu nahi duten edo mota guztietako giza eskubideen urraketen kontra agertu nahi duten defendatzaileek antolatutako bilerak izan daitezke<sup>572</sup>».

Afrikan, askatasunez elkartzeko eskubidea bermatzen da gizabanako ororentzat, betiere legea betetzen bada<sup>573</sup>. Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunak honela dio 11. artikuluan: «persona orok izango du beste batzuekin askatasunez elkartzeko eskubidea».

### **Sahararren manifestazio baketsuen prebentzioa eta dispertsioa okupatutako lurraldeetan**

Mendebaldeko Sahararen okupazioan, Marokok kontrolatutako lurraldeetako sahararrek manifestazio baketsuak erabili dituzte beren giza eskubideak aldarri-

---

572 Nazio Batuak - Batzar Nagusia: Idazkari Nagusiaren Ordezkarri Bereziak Giza Eskubideen Defendatzaileen Egoerari buruz egindako Txostena, A/61/312, 31. paragrafoa. (2006ko irailaren 5a).

573 Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutuna, 10(1). artikulua.



katzeko bitarteko gisa. Elkarrizketatutako gazteek adierazi zutenez, oso gaztetatik hasi ziren «kalera irteten», beste saharar batzuekiko komunitate-sentimenduak eta lurralde okupatu osoan zapalduak izan diren taldeen elkartasunak bultzatuta. Irtzi politikoa adierazteko moduak ez ezik, manifestazio horiek elkartzeko modu bat ere izaten dira eta, beraz, hala babesten dituzte nazioarteko zuzenbidearen arauak.

Nazio Batuetako idazkari nagusiak honela esan zuen 2015. urtean: «nolabaiteko atsekabea hautematen zen Mendebaldeko Saharako herritarren artean, bermaren mendebaldean... Horrek aldizkako manifestazioak eragin zituen Aaiunen eta beste udalerrri batzuetan. Giza eskubideekin lotutako kezka, gai sozioekonomikoak eta aldarrikapen politikoak azpimarratzea zen egintza horien xedea, determinazio askerako eskubidea barne. Gazteek enplegu-aukerarik eza nabarmendu zuten eta elkarte informalak antolatu zituzten irtenbideak eskatzeko». Manifestazio baketsuetan antolatzeko joera horrek bere horretan jarraitu du urtez urte. Marokoko agintariek NBGEGKi jakinarazi zioten moduan, 2016an 776 protesta antolatu ziren lurraldean, horietatik 343 Aaiunen<sup>574</sup>.

---

574 Segurtasun Kontseilua: Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/2017/307, 73. paragr. (2017ko apirilaren 10a).

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren arabera, «giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak manifestazio eta protesta sozialerako eskubidea aintortzen du, adierazpen- eta iritzi-askatasunaren, biltzeko askatasunaren eta elkartzeko askatasunaren eskubidea modu harmonikoan eta bateratuan babestuz»<sup>575</sup>. Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bultzatzeko eta babesteko duten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpenak<sup>576</sup> ere babesten du eskubide hori, 5(a) artikuluan: «Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bultzatzeko eta babesteko helburuarekin, gizabanakoek modu baketsuan biltzeko eta manifestatzeko eskubidea izango dute, banaka nahiz taldean, nazioan nahiz nazioartean...».

Marokok okupatutako lurraldeetan elkarrizketatutakoek Sahararen autodeterminazioarekin eta independentziarekin lotutako manifestazio politikoei aurrea hartzeko zenbait taktika deskribatu zituzten, baita manifestazioen kontrako errepresio-testuinguru bat ere, manifestazioak egitea lortzen dutenean. Errepresio hori parte-hartzaileen kontrako indarkeria fisikoan, irainetan, atxiloketetan eta kriminalizazioan oinarritzen da batez ere.

Gainera, elkarrizketatu batzuek eraso-mehatxuak jaso zituzten manifestazioetara joan aurretik, kale-jantziko poliziakideen aldetik. Beste batzuek esan zuten poliziak beren etxeak zaintzen zituztela eta, batzuetan, indarra erabiltzen zutela manifestazioetara joateko etxetik irteten zirenean. Elkarrizketatutako pertsona bakar batek ere ez zuen oroitzen polizia marokoarrak sakabanatu gabeko manifestaziorik. Honela laburbildu zuen 27 urteko neska aktibista batek: «Izugarri gustatuko litzaidake indarkeriarik edo atxiloketarik gabeko manifestazio batean parte hartzea, baita 15 minutuz bakarrik balitz ere»<sup>577</sup>.

Polizia marokoarrak manifestazio baketsuak sakabanatzeko eta saihesteko helburuarekin gauzatu dituen mehatxuen eta indarkeriaren lekukotza horiei Nazio Batuetako idazkari nagusiak hainbat txostenetan egindako erreferentziak gehitu behar zaizkie. 2015ean, adibidez, honako hau jakinarazi zuen: «askotan, segurtasun-indarrek erabilitako indarraren neurritz kanpoko erabileraren salaketa sinesgarriak jaso ziren, baita manifestariak indar horri erantzuteko gauzatu zituzten ekintzei dagokienez ere»<sup>578</sup>.

---

575 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa: *Manifestaldi eta Protestaldi Sozialak Behatzeko Jarraibideak*, 12. orria (2016ko abenduaren 2a).

576 Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Adierazpena ere esaten zaio.

577 Batzar Nagusia, A/RES/53/144 (1999ko martxoaren 8a).

578 Segurtasun Kontseilua: *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2015/246, 5. paragrafoa.

Bestalde, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak adierazi duenez, giza eskubideen printzipioak betetze aldera, Estatuak nahitaez «sustatu eta babestu behar dituzte giza eskubideak manifestazio baketsuen testuinguruan, eta eskubide horiek urratu ez daitezela bermatu behar dute<sup>579</sup>». Modu baketsuan biltzeari eta elkartzeari buruzko errelatore bereziak «sutsuki defendatu zuen inork ez duela zigorrik edo mehatxurik jaso behar, edo indarkeria, jazarpena, irainak, larderia edo errepresaliarik jasan behar modu baketsuan biltzeko eta elkartzeko askatasunaren eskubideak gauzatzeagatik<sup>580</sup>».

Era berean, 2013an egindako Marokoko egoerari buruzko hausnarketan, giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko garaiko errelatore bereziak jakinarazi zuen kezkatuta jarraitzen zuela agintari marokoarrek gauzatzen zituzten murrizketak zirela eta; izan ere, horiek oztopo garrantzitsu bat izaten dira giza eskubideen aldeko defendatzaileentzat, bereziki Mendebaldeko Saharan jarduten dutenentzat<sup>581</sup>. Adierazi zuenez, manifestazioetan egiten den indarraren gehiegizko erabilera mehatxu bat da defendatzaileen osotasun fisikorako eta psikologikorako<sup>582</sup>.

Manifestazio baketsuen prebentzio- eta sakabanatze-testuinguru horrek murrizketen patroia bat islatzen du biztanle sahararren biltzeko eta elkartzeko eskubideari dagokionez, baita autodeterminaziorako eskubidea aldarrikatzeari dagokionez ere, giza eskubideak nabarmen urratuz.

### **Elkarte sahararrak erregistratzearen ukapena Marokok okupatutako lurraldean**

Lurralde okupatuan hainbat egitura eta formalitatetako gazte sahararren taldeak daude, baina ez dago Marokoko administrazioan erregistratutako gazte sahararren erakunde edo elkarte bakar bat ere. Elkarrizketatutako saharar guztiek ondo baino hobeto ezagutzen dute agintari marokoarren politika, Marokoren erregistro-sisteman sartzeko aukerarik gabe uzten baititu talde sahararren elkar-teak. Marokoko Estatuak gauzatutako giza eskubideen urraketa larrietako biktimen elkarte sahararra (ASVDH) da agintari marokoarrekin erregistratu ahal izan duen erakunde saharar bakarra. 2005ean, ASVDH sortu eta berehala, agintari marokoarrek elkartearen egoitza itxi eta erregistratzeko eskubidea ukatu zioten.

---

579 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua: 25/38 Ebazpena: Giza eskubideen sustapena eta babesa manifestaldi baketsuen testuinguruan, A/HRC/25/L.20, 2. paragr. (2014ko apirilaren 11).

580 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua, Errelatore bereziak bakean biltzeko eta elkartzeko askatasunari buruz egindako txostena, A/HRC/38/34, 39. paragr. (2018ko uztailaren 26a).

581 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua, Errelatore bereziak giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruz egindako txostena, Margaret Sekaggaya, A/HRC/22/47/Add.4, 300. paragr. (2013ko otsailaren 27a).

582 *Ibidem*.

Gertakari horien aurrean, 2006an, ASVDHk egintza horiek salatu zituen Agadirreko Auzitegi Administratiboaren aurrean eta, 2007an, ASVDHk erregistratzeko legezko baldintza guztiak betetzen zituela epaitu zuen hark. Nolanahi ere, administrazio marokoarrak ez zuen epaia bete zenbait urtetan zehar. Prozesua modu arrakastatsuan amaitu zen 2015eko urrian, 10 urtez luzatu ziren auzi juridikoen eta administratiboen ondoren<sup>583</sup>.

Giza eskubideen defendatzaileek bizi duten egoerari buruzko errelatore bereziak bere kezka agertu zuen Mendebaldeko Saharako elkarteek agintari marokoarren aurrean erregistratzeko izaten dituzten zailtasunak direla eta<sup>584</sup>. Lurralde okupatuetan taldeetan antolatuta dauden elkarrizketatutakoen artean, batzuek beren taldeak erregistratzen saiatu dira, arrakastarik gabe. Giza Eskubideen Defendatzaile Sahararren Kolektiboari (CODESA), adibidez, behin baino gehiagotan egin diote uko. Horren aurrean, honakoa esaten zuen Marokoko gobernuak: CODESAk Mendebaldeko Saharan eta Marokoren hegoaldeko hirietan betetzen zuen giza eskubideen aldeko kulturaren sustapenak diskriminazioa xaxatzen zuela. Era berean, esan zuen «gizarte marokoarraren zati jakin bat antolatzearen eta ordezkatzearen helburuak, beste batzuk kanpo utziz... zuzenean urratzen duela Elkarteen Legea<sup>585</sup>».

Erregistroa galarazteko politika berberak aplikatzen zaizkie sindikatu egin nahi duten langileen elkarteei ere. Lurralde okupatuko gazte sahararren elkarrizketetan gai horren inguruan ez hitz egin arren, bertan nabarmena da sindikalismoa, agintariaren kontrolpean bada ere<sup>586</sup>. Bada herritar sahararren sindikatu bat: Langile Sahararren Konfederazio Sindikala<sup>587</sup>. Espainiako koloniaren garaian sortutako mugimendu hori ez dago erregistratuta agintari marokoarren aurrean, eta ez dute aitorenpenik jaso Marokoren aldetik<sup>588</sup>. Dena den, Konfederazioak langile sahararren eskubideak bultzatzeko eginkizun garrantzitsua betetzen du, argitalpenen eta sare sozialen bitartez informazioa zabalduz, eta manifestazioetan eta topaketetan parte hartzera dei eginez<sup>589</sup>.

---

583 ElDiario.es: Una asociación saharai logra en Marruecos la legalización en zona ocupada (2015eko urriaren 4a).

584 Giza Eskubideen Kontseilua: *Errelatore bereziak giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruz egindako txostena*, Margaret Sekagaya, A/HRC/22/47/Add.4, 301. paragrafoa.

585 Human Rights Watch: *The Red Lines Stay Red: Morocco's Reform of its Speech Laws*, 34. orria.

586 Langile saharar batzuk Marokoko Langileen Batasun Orokorreko kide dira. Ikus, adibidez, Sahara Resource Watch: *Discrimination over the right to housing in OCP, local workers say* (2012ko apirilaren 5a).

587 Landaluce et al.: *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, 38. orria.

588 EuropaPress: *Una delegación sindical europea denuncia la 'falta de libertades' de los trabajadores en el Sahara* (2011ko urtarrilaren 26a).

589 Landaluce et al.: *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, 38. orria.

Gaur egun, elkarte sahararrei urtez urte erregistratzeko aukera ukatu ondoren, aktibista talde askok –gazteen taldeek batez ere– alde batera utzi dute, legítimoak izateko, okupazio-agintarien onespena behar dutela jasotzen duen ideia. Elkarte bateko kide den neska aktibista baten ustez, «Saharako elkarte gehienek Fronte POLISARIOARE-KIN egin dute erregistroa, eta hori nahikoa da. Maroko ez da ezer». Beste aktibista baten hitzetan, «ezin dugu legezko ezer eskatu legez kontrako okupazio batean».

Marokoren erregistroari uko egiten dioten pertsona eta talde asko egon arren, estatus legal bat izateak onura garrantzitsuak eskaintzen ditu, hala nola aktibisten segurtasuna eta horiek nazioartean ikusgai egitea. ASVDH elkarteko kide baten arabera, «agintari marokoarren aldetik jazarpena jasaten ari ginelako abiarazi genuen erregistro-prozesua, erregistratu gabeko erakunde batean parte hartzen ari ginela leporatzen baitziguten. Erregistroak kriminalizazioaren kontra babesten gaitu, printzipioz behintzat».

### **Lurralde okupatuan erakunde eta elkarte sahararren jardunari jartzen zaizkion oztipoak**

Lurraldeko erakunde eta elkarte sahararren kasuan, xaxatze- eta bileren sakanatze-politikek eta bestelako praktikek oztopatu egiten dute jarduerak normaltasunez bete ahal izatea. ASVDH elkarteari nortasun juridikoa aitortu eta hura «legeztatu» arren, elkarteak etengabeko zirikatze-egoerari aurre egin behar izan dio administrazio marokoarren aldetik, eta ASVDHren Zuzendaritza Batzordeko zenbait kide espetxeratu egin dituzte denbora-tarte luzeetan zehar<sup>590</sup>. Momentura arte jasan behar izan dituen bidegabekeriak direla-eta, ASVDHk ezin izan du antolakuntza-kongresurik egin haren eraketa eta funtzionamendua zehazteko.

Gainera, Marokok izugarri kontrolatzen du Mendebaldeko Saharan sartzeko aukera, eta erakunde eta elkarte sahararrek atzerriko eta nazioz kanpoko beste erakunde batzuekin elkarlanean jardutea galarazten du, nazioarteko elkartasunaren eta lankidetzaren esparruan. Elkarrizketatutako emakume aktibista batzuen arabera, Espainiako Estatuko eta Europako beste herrialde batzuetako zenbait elkartasun-erakunde jarduerak planifikatu dituzte, askotan, Mendebaldeko Saharan, gaitasunak sendotzeko, esperientziak partekatzeko eta sare transnazionalak eraikitzeko, hain zuzen ere; baina, kasu gehienetan, ezin izan dira horrelako jarduerak garatu, pertsona horiek lurraldetik kanporatzen dituztelako.

Mendebaldeko Saharan egiten dituzten migrazio-kontrolen bitartez, elkarte eta talde sahararrak beste aliatu, kide eta ordezkari publiko batzuekin elkartu ez dai-

---

590 Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa: *Observatory for the Protection of Human Rights Defenders Annual Report 2006 – Morocco* (2007ko martxoaren 14a).



tezela lortzen du Marokoko Gobernuak. Eta jarrera horrek, lurraldeko estatutu juridikoarekin bateragarria ez izan arren, muga garrantzitsuak eragiten ditu talde eta elkarte saharar horiek beren jarduerak gauzatu ahal izateko eskubideari dagokionez.

### **Elkarteak sortzeko baldintza desagokiak kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan**

Kanpamentuetan, isolamendu eta ezegonkortasun handiko baldintzetan bizi dira gazteak, eta horrek are gehiago oztopatzen du elkarteak eratu ahal izatea. Biztanleak bizi diren bost wilayah bata bestearengandik banantzen dituzten distantzia luzeek izugarri zailtzen dute talde horiek elkarrekin bilerak egin ahal izatea. Wilaya horien eta Rabuniko administrazio-gunearen artean egunero autobus-zerbitzu publikoa egon arren, baita taxi-sare pribatu bat ere, diru-sarreraren iturri bat duten familiek bakarrik gasta dezakete dirua garraioan. Isolamenduaren arazoa areagotu egiten da Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetan, biztanleak modu sakabanatuagoan bizi baitira bertan, eta garraiatzeko are erraztasun gutxiago dituzte. Arazo logistiko horiek oztopatu egiten dute kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetan elkarteak eratzeko aukera<sup>591</sup>.

Edonola ere, kanpamentuetan bizi diren saharar batzuek «masa-erakundeak» deiturikoen jardueretan parte hartzen dute, hala nola Gazteen Batasunean (UJSARIO), Ikasleen Batasunean (UESARIO) eta Emakume Sahararren Batasun Nazionalean (UNMS), gizarte zibileko erakundeek parte hartu nahi duten esparruetan nagusi diren erakunde ia politikoak<sup>592</sup>. Kanpamentuetako gazte askorentzat, erakunde handi horiek wilaya bakoitzean betetzen duten eginkizunari esker errazago da noiz edo noiz jarduera horietan parte hartzea. Gainera, AFAPREDESA eta Indarkeria Aktiborik Ez (NOVA) gisako elkarteek kanpamentuetako gazteen partaidetza sustatu dute azken urte hauetan.

Azpimarratu behar da kanpamentuetan edo Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetan elkarrizketatu ditugun gazte bakar batek ere ez zuela administrazio-arloko mugarik deskribatu elkarteetan eta erakundeen eraketari dagokionez. Hori bat dator Human Rights Watch erakundeak egindako oharrekin, 2014an adierazi zuenaren arabera, SEADeko agintariak ez baitute inoiz galarazi gizarte zibileko taldeen eraketa edo eginkizuna<sup>593</sup>. Dena den, eta SEADen beraren konstituzioan jasotzen denez, hark ez du elkarteak eratzeko eskubiderik izango Mendebaldeko Sahara independente izan arte<sup>594</sup>.

---

591 Human Rights Watch: *Off the radar: Human rights in the Tindouf refugee camps*, 38. orria (2014).

592 *Ibidem*.

593 *Ibidem*, 38.-39. orriak.

594 Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Konstituzioaren 30. artikulua.

### **Biltzeko eta elkartzeko askatasunaren mugek gazte sahararrei eragiten dizkieten ondorioak**

Lurralde okupatueta nahiz kanpamentuetan bizi diren gazteek muga motaren bati aurre egin behar diote biltzeko eta elkarteak eratzeko orduan, baita oso bestelako arrazoiengatik bada ere. Marokok kontrolatutako lurraldeetan, zirikatze-politikak eta elkarte sahararrak erregistratzeko ukapena direla-eta, gazteak klandestinitatean elkartzen dira, eraldaketa soziala lortzeko aukera guztiak ahulduz. Kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetan, bizi-baldintzek eta laguntza humanitarioarekiko mendekotasunak –ezintasun- eta etsipen-sentimenduak pizten ditu gazteen artean– are gehiago oztopatzen dute elkarteak eratu eta horietan parte hartu ahal izatea, gazteen artean indibidualismoa areagotuz<sup>595</sup>.

---

595 Vilches Plaza eta Esparza Fernández: *La juventud refugiada en los campamentos saharauis*.

# Malada

ADINA: 26 URTE | BIZILEKUA: DAKHLAKO KANPAMENTUA, TINDUF INGURUAN, ALJERIA

**“Asko gustatuko litzaidake botikak fabrikatzen lan egitea, hemen oso beharrezkoa baita. Asko gozatu nituen Fisika eta Kimika ikasketak, baina hemen ez dago sektore horretan lan egiteko aukerarik”**

**M**A LADAK BEDERATZI NEBA-ARREBA DITU, BAINA EZ DITU NAGUSIENAK ezagutzen. Ama ezberdin bat dute eta Mendebaldeko Sahara okupatuan bizi dira. Minaz beteriko horma batek bereizten du lurralde hura errefuxiatuen kanpamentuetatik, eta gatazkak bere horretan dirau azken lau hamarkadetako blokeo politikoaren ondorioz. “Okupazioaren erruz, bereizita gaude. Ezin izan ditu ezagutu. Oso sentsazio bitxia da, haien falta nabari dudalako, haien beharra banu bezala”.

Haren bizitzan zehar, Malada ikasle ona izan zen. “Bederatzi urtez familiarengandik urrun bizi behar izan nuen nire ikasketak amaitzeko. Batxilergoa eta unibertsitate-ikasketak Aljerian burutu nituen arren, oso garestia zen nire familiarentzat, beraz, horretaz kontziente nintzenez, ahalegin handia egin nuen. Hezkuntza doakoa da eta diru-laguntzak jasotzen ditugu oinarritzko gastuei aurre egiteko, baina familiak dirua eman behar zidan janaria erosteko eta nire beharreta-

rako. Haien ahaleginari esker, nire ikasketak amaitu ahal izan nituen. Fisika eta Kimikako titulua eskuratu nuen 2016an, zientziak gustuko izan ditudalako betidanik”.

Munduko beste leku batzuetako unibertsitate-ikasleek ez bezala, Maladak ezin izan du bere arloko espezializazio-ikasketarik egin. “Gustatuko zitzaidan master bat egitea. Aita ados zegoen, baina amak nire beharra zuen etxeko lanak egiteko. Unibertsitate-ikasketak amaitzean, kanpamentuetara itzuli nintzen”. Dakhlan, Malada bigarren hezkuntzako fisika irakasle moduan hasi zen lanean. “Ez da nik amestutako lana, botikak fabrikatzeko prestatu nintzelako. Baina hemen ezinezkoa da arlo horretan lan egitea, eta behintzat irakasle-lanak nolabaiteko diru-sarrera bermatzen dit”. Hala ere, Maladak aitortzen duenez, oso diru gutxi jasotzen du. “Ez da egiazko soldata, hiru hilean behin ordaintzen diguten diru kopuru txiki bat baizik. Sinbolikoa. Diru apur hori eta bestelako diru-laguntzak izan arren, ez da nahikoa gure oinarrizko beharrak asetzeko”.

Beste aukerarik ezean, lanak ikasten eta hazten jarraitzeko aukera eskaintzen dio Maladari, eta familiarengandik hurbil egon daiteke. “Nire familia da garrantzitsuena, eta bizimodu duina izan dezagun nahi dut”.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

HEZKUNTZA-ESKUBIDEA, FAMILIA-BIZITZARAKO ESKUBIDEA, BIZI-MAILA EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA, LAN-ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIOARAKO ESKUBIDEA.

## **Bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea**

Biztanle saharar guztiak batzen dituen determinazio askearen aldeko borroka argi eta garbi islatzen du herri sahararrak zer nolako garrantzia ematen dion bizitza publikoan parte hartzeari eta erakunde politiko propio bat eratzeke etengabeko borrokari. Elkarrizketatutako gazte askorentzat, autodeterminazioa mekanismo bat bihurtu da, haren bitartez, dagokien herrialdean hitza izateko eta beren gizartearen garapenean parte hartzen hasteko. Sahararrei etengabe kendu zaie determinazio askerako eskubidea, eta horrek partaidetza publikoaren are balorazio handiagoa sortu du gazteen artean. Horrela, bada, diasporan bizi diren gazte askok Espainiako Estatuko esparru politikoetan parte hartzen dute eta gazteek kanpamentuetan, lurralde okupatuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetan bizi duten larrialdi-egoera elikatzen dute. Gainera, horietako askok sare sozialen bitartez adierazten dituzte beren ikuspegiak.

### **Bizitza publikoan parte hartzeko eskubidearen oinarri juridikoa**

Bizitza publikoan parte hartzeko eskubidearen sustraiak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aurkituko ditugu. Adierazpenaren 21. artikulua arabera, pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eta funtzio publikoan sartzeko eskubidea, eta honako hau azpimarratzen du: «herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria» eta hura benetako hauteskundeetan adieraziko da<sup>596</sup>.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak bizitza publikoan parte hartzeko eskubidearen babesak jasotzen ditu 25. artikuluan: (a) arazo publikoetan parte hartzea, zuzenean edo askatasunez hautatutako ordezkarien bidez; (b) botoa ematea eta hautagaitzak aurkeztea aldizkako hauteskundeetan, halakoak egiten direnean sufragio unibertsal eta berdinen bidez eta hautesleen borondatea askatasunez agertzea bermatzen duen boto sekretuaren bidez; (c) berdintasun-baldintza orokorretan sarrera izatea euren herrialdeko funtzio publikoan. Bestalde, Giza Eskubideen Batzordeak honako hau zehazten du 25. Ohar Orokorrean: «herritarrek ere gai publikoen zuzendaritzan parte hartzen dute, eztabaidaren eta elkarrizketa publikoen bitartez, eta elkarrekin antolatzeke gaitasunari esker<sup>597</sup>».

Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunaren 13. artikulua bermatzen du «herritar orok izango duela bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea» eta «herritar orok izango duela bere herrialdeko zerbitzu publikoan sartzeko eskubidea».

---

596 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 21. orria (1948ko abenduaren 10a).

597 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea: 25. Ohar Orokorra - 25. artikulua (Gai publikoetan parte hartzea eta boto-eskubidea), HRI/GEN/1/Rev.7, 8. paragr. (1996).

## **Lurralde okupatuko sahararrek Marokoko politikan parte hartzeko aukerarik eza**

Marokok Mendebaldeko Sahara bere lurralde nazionalaren barruan hartzen du ofizialki eta, beraz, lurralde okupatuan bizi diren sahararrek, *de jure*, nazional marokoarren boto-eskubide berbera dute. Horrenbestez, Saharan ere egiten dira hauteskundeak Marokoko hauteskunde nazionaletan. Hala eta guztiz ere, lurraldearen determinazio askea defendatzen duten pertsona gehienek ez dute hauteskunde horietan parte hartzen, Marokok lurraldearen anexioa legitima ez dezan. Zentzu horretan, Mendebaldeko Sahararen estatutu juridikoa okupatutako lurralde ez-autonoma gisa aitortzen duen saharar bat bera ere ez da aurkeztu hauteskundeetara, alderdi politiko baten bitartez edo hautagai gisa.

Sahararrek Marokoko hauteskunde-sistemaren barruko alderdi politiko gisa antolatu nahi izango balute ere, alderdi hori debekatu eta desegin egingo lukete. Hala gertatu zen, 2008an, Amazigh Alderdi Demokratiko Marokoarrarekin, debekatu egin baitzuten Amazigh etniakoa izateagatik<sup>598</sup>. Aurrekari horiekin, herri sahararraren interes zehatzak (horien artean, determinazio askerako eskabidea) ordezkatzen saiatuko litzatekeen alderdi saharar orok patu bera izango luke seguruenik.

Horregatik guztiagatik, eta, teorian, sahararrek Marokoko prozesu politikoetan parte hartzeko muga formalik eta administratiborik ez izan arren, errealitatea oso bestelakoa da: herri sahararraren determinazio askerako eskubidea defendatzea bateraezina da Marokoren sistema legal eta politikoko oinarrietako batekin –«lurraldearen osotasuna», monarkiak kontzeptu hori ulertzen duen moduan– eta, beraz, sahararrek ez dute egiaz parte hartzen Marokoko politikan.

## **Parte-hartze politikoaren atzerapena kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetan**

Kanpamentuetako eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeetako bizitza arautzen duen SEADen konstituzioak haren antolamendu politikoa zehazten du. SEADen Konstituzioaren 32. artikulua herritar ororen botatzeko eta hautatua izateko eskubidea aitortzen du; 33. artikulua, berriz, pertsona orok funtzio publikoetarako hautagai gisa aurkezteko eskubidea izango duela jasotzen du. Dena den, konstituzioak independentziaren ondorenerako gordetzen ditu herri sahararraren bizitza politikoko zenbait alderdi eta, praktikan, prozesu horietan parte hartzeko aukera geroratzen du, hala nola alderdi politikoak sortzeko eskubidea eta Fronte POLISARIOA ez den beste aukera batzuk izatea<sup>599</sup>.

---

598 Le Nouvel Afrik: Dissolution du Parti démocrate amazigh marocain: la communauté berbère condamnée, (2008ko apirilaren 22a).

599 Human Rights Watch: *Off the radar: Human rights in the Tindouf refugee camps*, 83. orria.

Araudi horrek argi eta garbi islatzen du ezin izango dela erakunde publiko baten (SEAD) gai publikoetan parte hartu erakunde politiko hori eratzen den arte, haren eskuduntza guztiekin (Saharako lurraldea). Horregatik, herri saharararren determinazio askerik ezak (belaunaldiz belaunaldi) iraunkor bihurtu du aldi baterako izaera zuen administrazio-egoera bat, eta horrek ondorioak izan ditu herritarren eskubideetan<sup>600</sup>.

Izan ere, eta hauteskunde-prozesuak izan arren, ez da benetako oposizio politikorik ahalbidetzen, eta horrek bereziki eragiten die gazte sahararrei. 2017an argitaratutako azterketa baten arabera, «gazteek apurtu egin nahi dute gizarte saharararren zati handi batek bereganatu duen konformismo erlatiboa, baita hura zuzentzen duen egitura politikoa ere<sup>601</sup>». Azterketa horren arabera, gazte sahararrek «belaunaldien arteko aldaketa bat nahi dute boterean, hala, gazteek ere sistema politikoan parte hartu ahal izan dezaten, tribu-sistemaren pribilegioak alde batera utzita<sup>602</sup>».

Politikan modu formalean parte hartzeko aukera behin eta berriz atzeratzen da, baina kanpamentuetako gazteek eztabaidaren bitartez eta ideiak partekatuz parte hartzen dute bizitza politikoan; horrela, «publikoki kritika dezakete POLISARIOAREN eta haren buruzagien gobernantza<sup>603</sup>». Idazkari nagusiaren arabera, «2011. urte amaieran eta 2012ko martxoan, Tindufen gazte taldeen zenbait manifestazio egin ziren Fronte Polisarioko buruzagiari, Abdelaziz jaunari, alderdian erreformak egin zitzala eskatzeko<sup>604</sup>». Era berean, Human Rights Watch erakundeak kanpamentuetako disidente taldeen berri eman zuen 2014an, SEADen buruzagiak alda zitzatela eskatzen zutenak<sup>605</sup>.

### **Bizitza publikoan parte hartzeko eskubidearen murrizketek gazte sahararrei eragiten dizkieten ondorioak**

Lurralde okupatuetan eta kanpamentuetan nahiz Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan, gazte sahararrei modu esanguratsuan kentzen zaie bizitza publikoan parte hartzeko aukera. SEADen jurisdikzioan bizi direnentzat, beren lurraldearen okupazioak gero eta gehiago atzeratzen du mugimenduak garatzeko gaitasuna eta, beraz, beren borondatea eta ikuspegi politikoa adierazteko aukera. Gazteen sektore horrek politikako alderdi batzuetan parte har dezake botoaren bidez, baina, Marokok okupatutako lurraldeetan, Marokoko prozesu politikoetan parte

---

600 Bizi-historia: Mohamed.

601 Vilches Plaza eta Esparza Fernández: *La juventud refugiada en los campamentos saharauis*, 48. orria.

602 *Ibidem*, 49. orria.

603 Human Rights Watch: *Off the radar: Human rights in the Tindouf refugee camps*, 39. orria.

604 Segurtasun Kontseilua: *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2012/197, 7. paragrafoa.

605 Human Rights Watch: *Off the radar: Human rights in the Tindouf refugee camps*, 41. orria.

hartzen badute uko egin behar diote estatu saharar bat aldarrikatzeari, determinazio askerako eskubidea indargabetuz eta eskubide hori berme hutsal bat bihurtuz.

## **Mugimendu-askatasuna**

Lurraldeen artean modu askean mugitzeko aukera bereziki garrantzitsua da gazte sahararrentzat, horiek sorterrri baten inguruan eraikitzen baitute beren identitate partekatua, horietako askok ezagutu ere egiten ez duten lurralde baten inguruan. Lurralde okupatuan sartzea galarazten duten mugek zuzenean eragiten diete diasporan, kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAREN kontrolpeko Saharako lurraldeetan bizi diren sahararrei, beren senitartekoen jaioterritik urruntzen baitituzte. Elkarrizketatutako guztiek izendatu ahal izan zuten gaur egun okupatuta dagoen lurraldeko beren familien jaioterrria, eta leku horiek ezagutzeko gogoia adierazi zuten denek. Bestalde, lurralde okupatuan bizi direnek beste oztopo batzuei egin behar diete aurre nazioarteko bidaiak egiteko, kanpamentuetara bisitan joateko edo bizi diren lurraldetik kanpoko beste leku batzuetara mugitzeko orduan.

### **Mugimendu-askatasunaren oinarri juridikoa**

Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunak mugimendu-askatasuna bermatzen du 12. artikuluan: «Estatu baten lurraldean legearen arabera dagoen pertsona orok eskubidea izango du, lurralde horretan zehar askatasunez joan eta etortzeko eta lurralde horretan bizilekua askatasunez aukeratzeko. Pertsona orok eskubidea izango du askatasunez irteteko edozein herrialdetatik, baita norberaren herrialdetik ere». Babes horren baitan, pertsona bati ezin izango zaio nahierara kendu bere herrialdean sartzeko eskubidea.

Giza Eskubideen Batzordeak, 27. Ohar Orokorrean, zenbait ildo ezarri zituen mugimendu-askatasunerako eskubidearen interpretazioari dagokionez. Horien arabera, eskubide horrek ez du ahalbidetzen pertsona bati lurraldearen zati jakin batean ez sartzeko eta ez egoten uztea<sup>606</sup>. Gainera, «Estatu baten lurraldetik irteteko askatasuna ez da beste helburu batzuen menpekkoa izango... Era berean, pertsona orok aukeratu ahal izango du bere norako Estatua, berme juridikoaren barnean»<sup>607</sup>. Zentzu horretan, Batzordeak dio, Estatutik irteteko eskubidea gauzatu ahal izateko, bidaiatzeko beharrezko agiriak eskuratu behar direla<sup>608</sup>. Batzordearen arabera, mugimendu-askatasunaren eskubide horren barnean, pertsona orok itzuli ahal

---

606 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea: 27. Ohar Orokorra – Zirkulazio-askatasuna (12. artikulua), CCPR/C/21Rev.1/Add.9, 7. paragr. (1999ko azaroaren 2a).

607 *Ibidem*, 8. paragr.

608 *Ibidem*, 9. paragr.



izango du bere herrialdera, handik irten eta gero: «Itzultzeko eskubidea oso garrantzitsua da beren borondatez aberriratu nahi duten errefuxiatuentzat<sup>609</sup>».

Mugimendu-askatasunerako eskubidea ez da erabatekoa, baina, nazioarteko zuzenbidearen arabera, eskubide horren salbuespen orok baimendutako helbururen batekin egon behar du lotuta, eta ezinbestekoa izan behar du helburu horiek lortu ahal izateko, betiere proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritz. Gainera, salbuespena ahalik eta modurik arinenean gauzatu behar da helburu horiek lortzeko orduan<sup>610</sup>.

Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunak ere babesten du mugimendu-askatasunerako eskubidea, 12. artikulua bitartez: «Pertsona orok du Estatu baten mugen barnean mugitzeko eta bizitzeko eskubidea, legeak zehaztutakoa betetzen badu. Pertsona orok izango du edozein herrialdetatik irteteko (berea barne) eta hara itzultzeko eskubidea».

### **Mendebaldeko Saharako bi zatien artean mugitzeko askatasunaren muga fisikoak**

Mendebaldeko Saharan bada hondarrezko hesi bat, poliziak zaindua eta pertsonen kontrako milaka minaz inguratua. Hesi horrek guztiz urratzen du sahararrek beren lurraldean zehar aske mugitzeko eta handik irten eta itzultzeko duten eskubidea. Mendebaldeko Sahararen barnean pertsonen joan-etorri askeak galarazteko balio du hesiak; horrela, mendebaldean bizi diren sahararrek ezin dute bizi hesiaren ekialdeko aldean bizi diren beren senitartekoeekin eta herrikiideekin, ezta Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan bizi direnekin ere.

Minaz betetako lurralde batean ibiltzeak eragin ditzakeen arriskuez gain, Mendebaldeko Saharatik Aljeriara joateko bidea –banatzeko horma hori gurutzatuz– agintari marokoz beteta dago. Izan ere, horiek hesiaren inguruko eremu guztia zaintzen dute, Fronte POLISARIOAREN aldeko pertsonen jarduerak eta Marokoren ustezko «desertzioa» saihesteko.

Elkarrizketatutako pertsona askok ezagutzen dituzte hesiaren ekialdera edo Aljeriara lurrez joaten saiatu diren sahararren kasuak, Marokok gune militar gisa zedarritzen duen gunera gerturatuz. Elkarrizketatuek 1998 eta 1999. urteetako gertakariak gogoratu zituzten: MINURSOko agenteek gazte sahararren taldeak atzeman eta armada marokozarren eskuetan utzi zituzten horiek. Gero, 2000. urtean, atzemandako gazteei zenbait hilabetetarako espetxeratze-zigorak ezarri zitzaizkien.

---

609 *Ibidem*, 19. paragr.

610 Nazioarteko Justizia Auzitegia: Palestinako lurraldeko okupatuko harresiaren eraikuntzaren ondorio juridikoak, Kontsulta-iritzia, 136. orria.

Elkarrizketatutako gazte saharar batek adierazi zuen bera ere hiru aldiz saiatu dela okupatutako lurraldetik Aljeriara lurrez joaten. Lehen bi saiakeretan hainbat hilabetetarako espetxeratu zuten, baina, azkenekoan, gazteak hesitik gertuago iriste lortu zuen eta Marokoko armadak atzeman egin zuen postu militar batean. Marokoko armadaren aldetik jasan behar izan zituen tortura gogorrez beteriko hamabi egunak deskribatu zituen, lau hilabeteko espetxeratze-zigorra ezarri aurretik, Marokotik «desertatzen» saiatzeagatik.

Hesiari zuzenean aurre egin ez badiote ere, lurralde okupatuetan bizi diren gazte sahararrek badakite hark herrialdetik irtetea galarazten diela. Ezagunen edo senitartekoen esperientzietatik ikusi ahal izan dute zein arriskutsua izan daitekeen herrialdetik ekialdetik irteten saiatzea. Gazte batek jakinarazi zuen, 10 urte zituela, bere aitak Aljeriara joan nahi zuela errefuxiatuen kanpamentuetara, bere amarekin egotera. Agintariek behin eta berriz ukatu zitoten pasaporteak, airez ateratzea galaraziz eta, beraz, hesia zeharkatzera behartuz. Gaztearen arabera, bere aita ez zen gehiago itzuli; buruan tiro egin eta hil egin zuten.

Praktikan, okupatutako eremuetan bizi direnek ez dute lurraldearen ekialdera eta Aljeriara lurrez irteteko aukerarik, hesiaren egitura, pertsonen kontrako minak eta kriminalizazio-politikak direla eta. Fronte POLISARIOAK kontrolatutako zatian edo Aljeriako errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren pertsonen ere galarazten zaie mugitzeko aukera eta, beraz, leku batetik bestera bidaiatzeko modurik merkeena eta eraginkorrena ukatzen zaie biztanle sahararrei.

Hesiak ez du helburu legitimorik eta ez da beharrezko neurri proportzional bat. 1999ko martxoan berretsi zuten hori, Marokoko Errege Armadak eta MINURSOk akordio bat sinatu zutenean, *inter alia*, indar marokoarrak pixkanaka berma eraiten hasi zirenean<sup>611</sup>.

### **Mugimendu-askatasunaren administrazio-arloko mugak lurralde okupatuan**

Agintari marokoarrek ezarritako praktika eta politika askok murriztu egiten dute lurralde okupatuan mugitzeko askatasuna, eta ekialdetik sartzea edo irtetea galarazten dute. Horrek bereziki eragiten die pasaporte marokoarra erabiltzen duten lurraldeko pertsonen, baita diasporako eta kanpamentuetako sahararrei ere, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan sartu nahi dutenean.

Poliziaren kontroltan ibilgailuak eta bidaiariak berraztertzen dituzte, eta poliziakideek galdeketa egiten dizkiete; horrek izugarri oztopatzen du okupatutako lurraldean askatasunez zirkulatzeko aukera oro. Kontrol horiek arbitrarioak izaten

---

611 Segurtasun Kontseilua: Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena, S/1999/307, 13. paragrafoa.

dira gainera; ez dira beti leku berdinetan egiten eta ez dute ibilgailuak geldiarazteko arrazoi edo helburu zehatzik. Agintarien diskrezionalitate hori dela eta, oso erraza da sahararren kontrako egintza bidegabeak eta diskriminatzaileak gauzatea, eta atxilotetak edo bestelako bidegabekeriak ere eragin ditzake. «Beste hiri batera joateko», dio elkarrizketatutako gazte batek, «kontrol asko gainditu behar dira eta horietan zenbait orduz geldiaraz zaitzakete». Poliziaren kontroletan behin baino gehiagotan atxilotu duten 31 urteko mutil gazte honen arabera, gure bizilekuetatik ez mugitzea lortzen dute, mota horretako tratuen xede ez izateko.

Lurralde okupatuan bizi diren sahararrek nazioartean bidaiak egin ahal izateko aukerari dagokionez, bidaiatzeko agiriak eskuratzeko kontroletan sortzen dira arazoak. 1979an, Marokok Marokoren barneko lurralde gisa aitortu zuen Mendebaldeko Sahara, eta lurralde osora hedatu zuen bere herritartasun-legea<sup>612</sup>. Baina, oro har, herritar sahararrei ez zaizkie bidaia-agirien (pasaporte marokoarrak) eskaerak onartzen. Konfiskazio- eta zirikatze-praktika batek jarraitu dio pasaporteen ukapen-politika historiko horri. Izan ere, praktika hori maiz erabiltzen da nazioarteko bidaiak galarazteko eta izaera politikoko bidaiak egiten dituzten pertsonak zigortzeko.

2008an, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluaren esparruko Aldizkako Ebaluazio Unibertsalean lehen aldiz parte hartu zuenean, Marokok bere arrazoiak eman zituen 14 aktibista sahararri pasaporteak konfiskatzeko politikaren inguruan; izan ere, aktibista horiek Genevara bidaiatu nahi zuten nazioarteko konferentzia batzuetan parte hartzera eta, Marokoren arabera, jarduera horietan parte hartzeak Marokoren «lurralde-osotasunari» kalte egiten zion, beren eskaeretan Mendebaldeko Sahararen independentzia islatzen zutelako<sup>613</sup>.

Jarduera akademikoetan eta kulturaletan parte hartzeko asmoz lurralde okupatutik irteten saiatu diren sahararrei ere galarazi zaizkie nazioarteko bidaiak. Elkarrizketatutako gazte batek esan zuenez, Erresuma Batura bidaiatzeko baime-na ukatu zioten ingeleseko bere ikasketekin lotutako jarduera batera joan nahi zuenean; seguruenik agintari marokoarrekin izan zuen arazo batengatik izango zela adierazi zion Marokoko irakasle batek, bere aktibismo politikoaren harira. Ez da izaera horretako lehen gertakaria. 2010ean, idazkari nagusiak sei gazte sahararren kasua jakinarazi zuen, horiei Erresuma Batura bidaiatzeko eskubidea ukatu baitzitzairen, konferentzia batean parte hartzera gonbidatu zituztenean<sup>614</sup>.

---

612 EUDO Citizenship Observatory: *Country Report: Morocco* (2011ko urria).

613 Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua: Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak prestatutako bilduma - Maroko, A/HRC/WG.6/1/MAR/2, 25. paragr. (2008ko martxoaren 31).

614 Segurtasun Kontseilua: *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2010/175, 61. paragr.

Era berean, agintari sahararrek zigortu egiten dituzte nazioarteko bidaiak egiten dituzten saharar asko, bidaia horiek izaera politikoa dutela uste dutelako. Elkarrizketatutako neska gazte aktibista baten arabera, poliziak Gdim Izikeko kanpamentua suntsitu zuen 2010ean herrialdetik kanpo bidaiatzen ari zela. Marokoko lurraldean geldialdia egin zuenean, jendarme marokoarrek atxilotu eta Aaiunera eraman zuten. Gertakari horren harira, pasaporte marokoarra konfiskatu zioten sei hilabetez, herrialdetik kanpo bidaiatzeko aukera oro gabetuz. Beste gazte batek ere galdeketa ugari erantzun behar izan die Aaiuneko aireportuan, nazioarteko bidaia batetik itzultzen zen bakoitzean. Hark 2014ko gertakari bat deskribatu zuen, polizia marokoarrak hiru orduko galdeketa bat egin baitzion aktibista sahararrekin zuen loturaren inguruan.

Bestalde, nolabaiteko kriminalizazio-politika hautematen da errefuxiatuen kanpamentuetara bidaiatzeko pasaporte marokoarrak erabiltzen dituzten lurralde okupatutako biztanle sahararren kontra. Nazio Batuetako idazkari nagusiak 2010eko gertakari baten berri eman zuen. Bertan, «Tindufeko kanpamentuetara bidaiatu zuten aktibista saharar ezagun batzuk atxilotu zituzten itzulerako bidaian (publizitate handiko bisita bat izan zen), eta auzitegi militar batek traizioa egiteagatik salatu zituen<sup>615</sup>».

Diasporan bizi diren sahararrentzat, lurraldean sartzeko isilpeko ukapenen kasuek guztiz galarazten dute Mendebaldeko Sahara okupatura askatasunez bidaiatu ahal izatea. Espainiako Estatuan elkarrizketatutako saharar batzuen arabera, Espainiako pasaporte izanda ere ezin izan zuten Marokok kontrolatutako Mendebaldeko Saharan sartu. Horiek ere ezagutzen zituzten Aaiuneko aireportutik bueltan bidali zituzten sahararren kasuak, sartzea ahalbidetzen zien pasaporte espainiar bat izan arren. Elkarrizketatutakoen ustez, lurraldean sartzeko ukapen hori isilpean egiten den diskriminazio-egintza bat da, eta ez agintari marokoarren politika uniforme bat. 2013an, lurralde okupatuan sartzeko ukatu zioten nazionalitate frantseseko gazte saharar baten berri eman zuten komunikabide askok, hark herri sahararren autodeterminazioa babesten zuelako<sup>616</sup>.

### **Mugimendu-askatasunerako mugak kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatzen duen Mendebaldeko Saharako lurraldean bizi direnentzat**

Lekualdatuak diren heinean, kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldean bizi direnek hainbat mugimendu-mugari egin behar diete aurre, bereziki Marokok okupatutako lurraldean. Kanpamentuetan (Aljeriako lurretan) eta hesiaren ekialdeko Saharan bizi direnen kasuan, lurralde okupatura iristeko beste bide batzuk pentsatu behar dituzte oztopo fisiko hori dela eta, baina horietan guztietan Marokoren mugako postuetatik edo kontroletatik igaro

---

615 *Ibidem*, 62. paragr.

616 Marca: Marruecos impide entrar a El Aaiún a un atleta saharai (2013ko uztailaren 18a).

behar dute. Marokoren legedian lurralde hori Marokoko estatuaren barnean sartzen dela kontuan hartuta, agintari marokoarrek bidaia-dokumentu bat (pasaporte) eta bidaiatzeko baimena aurkeztera behartzen dituzte lurraldean sartu ahal izateko, betiere sarbidea ukatzeko eskubidea mantenduz, diskreziozko arrazoiak daudenean. Horrenbestez, kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldean bizi diren sahararrentzat ia ezinezkoa da okupatutako lurraldera bidaiatzea.

Kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldean bizi diren sahararrak Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko herritarrak dira eta SEADek igorritako pasaporteak eskura ditzakete, baina pasaporte horiek SEAD estatu gisa hartzen duten herrialdeetara bidaiatzeko bakarrik balio dute<sup>617</sup>. Momenturen batean edo bestean laurogeita lau estatuk aitortu dute SEAD estatu gisa, baina horietatik berrogei inguruk mugatu edo aldatu egin dute aintzatespen hori. Marokok uko egiten dio SEADi eta, beraz, pasaporte saharararekin bidaiatzen duten pertsonak ez dute Marokoren baimenik hark okupatutako lurraldean sartzeko.

Aljeriako pasaportearen dute gazte saharar batzuek lurralde okupatuan sartzea lortu dute, baina bisita horiek agintari marokoarren diskreziopean egin dira beti. Gainera, lehenik eta behin Marokon (airez) edo Mauritanean (lurrez) sartu behar dute, eta bi aukerak garestiegiak dira herritar gehienentzat.

Kanpamentuetan bizi diren sahararrek Aljeriako pasaportearen lor dezakete, harri-herrialde gisa, Aljeriak lurraldean sartzen eta lurraldetik irteten utzi behar baitie errefuxiatuei, horiei bidaia-dokumentuak helaraziz<sup>618</sup>. Hala eta guztiz ere, kanpamentuetan elkarriketatutako batzuen arabera, denboraldi luzeak itxaron behar izan zituzten Aljeriako bidaia-dokumentua lortzeko. Adierazi zuten, prozesuak hainbat urrats hartzen ditu barne: lehenik eta behin, eskaera bat egin behar zaie agintari sahararrei, horiek kasuan kasuko barne-izapideak egin ditzaten; eta gero gauza bera egin behar da Aljeriako agintariekin. Beren ikuspuntutik, pasaporte bat jasotzeko betekizunak eta epeak ez daude argi zehaztuta, eta eskaera egiten dutenek bidaia-dokumentua lortzeko eskaera onartzen denean bakarrik jasotzen dute bai- zpena. Elkarriketatutako kasu batean, bidaia-dokumentua eskatu zuen neska batek urtebete baino gehiago itxaron behar izan zuen bere eskaeraren egoeraren berri izateko eta, beste kasu batean, prozesuak sei hilabete iraun izan zituen gutxienez.

Lekukotza horiek bat datoz bigarren mailako beste iturri batzuetatik jasotako informazioarekin, horiek ere pasaporte aljeriarren aldi baterako konfiskazio-praktikak

---

617 Saharako pasaportearekin bidaiatu ahal izateko ezinbestekoa da xede-herrialdeak eta igarotze-herrialdeak (geldialdiak egin behar direnean) SEAD aitortzea.

618 Errefuxiatuen Estatuari buruzko 1951ko Hitzarmena, 28. artikulua (1951ko uztailaren 28a).

identifikatu baitzituzten Aljeriako lurretara itzultzerakoan<sup>619</sup>. Aljeriako agintariek Human Rights Watch erakundeari azaldu zioten moduan, sahararrek erabiltzen dituzten Aljeriako pasaporteak portuetan eta aireportuetan jasotzen dira, ordainagiri baten truke, Aljeriako SEADen enbaxadara bidali aurretik eta, hara iristean, sahararrek beren pasaporteak berreskura ditzakete<sup>620</sup>. Halere, prozesu hori aste asko luza daiteke eta, prozesua abian den bitartean, sahararrei mugatu egiten zaie Aljeriatik berriz itzultzeko askatasuna. Prozedura horrek izaera administratiboa baino ez izan arren, agintari sahararrek dioten moduan, kasu batzuetan mugatu egin dezake kanpamentuetan bizi diren errefuxiatu sahararrek herrialdetik irten ahal izatea.

Kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldean bizi diren gazteentzat bada garrantzi handiko beste gai bat: bi aldeen arteko eta Aljeria barruko joan-etorriak. Kanpamentuen eta hesiaren ekialdeko Saharako lurraldearen artean bidaiatu nahi duten sahararrek baimen bat eskuratu behar dute agintari sahararren aldetik; agiri horrek argi eta garbi ziurtatu behar du ibilgailuak bidaia egiteko nahikoa hornidura duela eta petrolioia edo bes-telako kontrabandorik ez daramala<sup>621</sup>. Oro har, baimena arazo handiegirik gabe lortzen da, korridore horretatik barrena joan-etorriak erraztuz.

Sahararren Aljeria barruko mugimenduari dagokionez, berriz, kanpamentuan bizi diren guztiek inolako izapiderik egin gabe bidaia dezakete Tinduferra. Dena den, 2014an zenbait erregulazio ezarri ziren (poliziaren kontrolak eta etxeratze-aginduak) kanpamentuetan sartu eta horietatik irteteko, segurtasun-arrazoiak direla eta. Hala eta guztiz ere, dokumentu baliagarriak dituzten pertsonak askatasunez bidaia dezakete<sup>622</sup>.

Aljerian, Tindufetik harantzago bidaiatzeko, sahararrek bidaiatzeko baimen bat izan behar dute. Baimen hori Tindufeko koordinazio-bulego baten bitartez eskuratzen da, SEADen Barne Ministerioaren menpekoa, Aljeriako komunikazio militarren bulegoarekin egin beharreko kudeaketan bitartez, azken hori baita bidaiatzeko baimenak onartzen dituena. Prozesu hori zenbait egunez luzatzen da normalean eta bidaiatzeko baimenek hiru hilabeteko indarraldia izaten dute<sup>623</sup>.

### **Mugimendu-askatasunaren mugek gazte sahararrei eragiten dizkien ondorioak**

Gazte sahararren kasuan, muga horiek izugarri eragiten dute bizi diren lurraldeetatik jatorriko lurraldera edo munduko beste herrialde batzuetara askatasunez mugitze-

---

619 European Asylum Support Office: *Sahrawi citizenship/nationality in Western Sahara, Morocco and Algeria* (2015eko azaroaren 16a).

620 Human Rights Watch: *Off the Radar: Human Rights in the Tindouf Refugee Camps*, 88. orria.

621 *Ibidem*, 26. orria.

622 Segurtasun Kontseilua: *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2014/258, 83. paragrafoa.

623 Human Rights Watch: *Off the Radar: Human Rights in the Tindouf Refugee Camps*, 25-26. orriak.

ko gaitasunean. Ezagutzeko, ikasteko eta gozatzeko aukera oztopatzen du, eta ez hori bakarrik, kultura-, hezkuntza- eta politika-arloko jardueretan parte hartzeko aukera ere galarazten baitu, baita senitartekoekin elkartzeko aukera ere. Okupazio-egoeratik eratorritako mugimendu-askatasunaren mugak are gogorragoak dira mundu globalizatu honetan. Kanpamentuetan elkarrizketatutako neska gazte batek esan zuen moduan, «gu ez gara herrialde bat duten pertsonak bezalakoak; guk ezin dugu bidaiatu».

Elkarrizketatutako gazteek ez dute sentitzen errefuxiatuak kanpamentuetan halabarrez atzemanda daudela, eta garrantzitsua da hori azpimarratzea<sup>624</sup>. Tesi marrokoar hori ez da benetako babes bakar batean ere oinarritzen. Bestalde, kanpamentuetako gazteek behin baino gehiagotan agertu zuten beren haserrea lurralde okupatuan sartzea galarazten dieten politikei dagokienez, beren senitartekoengandik bananduz.

## Herritartasun-eskubidea

Herritartasuna nahiko kontzeptu konplexua da berrogei urte baino gehiago determinazio askerako prozesu baten zain daraman herri batentzat, haren bitartez, beren egitura politikoa zehaztu ahal izateko. Gazteentzat oso garrantzitsua da herritartasuna, hark ematen dituen eskubide eta pribilegio praktikoengatik, eta sortzen duen jabetza-sentimenduagatik. Asko dira biztanle sahararrei aplikatzen zaizkien herritartasun-sailkapenak: sahararrak, aljeriarrak, marokoarrak, espainiarrak eta herrigabeak<sup>625</sup>.

### Herritartasun-eskubidearen oinarri juridikoa

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak honako hau bermatzen du 15. artikuluan: «Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea. Inori ezin izango zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere<sup>626</sup>». Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 24(3). artikulua dio «haur guztiek dutela naziotasunen bat eskuratzeko eskubidea».

2015ean, Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunak azterketa bat argitaratu zuen Afrikako herritartasun-eskubidearen inguruan<sup>627</sup>. Bertan, onartu zen Afrikako kontinentean herritartasun-eskubidea ez dela guztiz aitortzen funtsezko eskubide gizatiar baten gisa, eta Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunean herritartasun-eskubideari buruzko protokolo bat txerta zezatela gomendatu zen<sup>628</sup>.

---

624 Human Rights Watch erakundea ere ondorio horretara iritsi zen. *Ibidem*, 24. paragr.

625 European Asylum Support Office (EASO): *Sahrawi citizenship/nationality in Western Sahara, Morocco and Algeria*, 4. orria (2015eko azaroaren 16a).

626 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 15. artikulua.

627 Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Batzordea: *The Right to Nationality in Africa* (2014ko maiatza).

628 *Ibidem*, 50-53. orriak.

## **Kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldean jaio direnen herritartasun sahararren aintzatespenik eza**

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, kanpamentuetan edo Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldean jaio diren sahararrek herritartasun sahararra dute, SEADen bitartez. SEAD Afrikako Batasuneko estatu kide bat da eta Estatu Eskubide eta Betebeharrei buruzko Montevideoko Hitzarmenaren betekizunak betetzen ditu: biztanle iraunkorrak ditu, lurralde zehaztua da, gobernu bat du eta beste estatu batzuekin harremanetan jartzeko gai da<sup>629</sup>. Saharako estatua eta haren estatu-baldintzaren aintzatespena independenteak izan arren, nazioarteko komunitateko estatu askok eta Nazio Batuen Erakundeak ez dute SEAD aintzatesten, eta horrek inolako lege-ondoriorik gabe uzten du herritartasun sahararra munduko leku askotan. Hori dela eta, sahararrei herritar gisa dagozkien eskubide eta pribilegio asko kentzen zaizkie, horien artean, herrialdeen artean mugitzeko askatasuna, ikasketetarako bekak eskuratzeko eskubidea eta mota horretako beste aukera batzuk<sup>630</sup>. Era berean, zailtasunak sortzen ditu migrazioarekin lotutako baldintza batzuk betetzeko orduan; arestian aztertu dugun moduan, esaterako, horiek ezin dute herritartasunik lortu Espainiako Estatuan.

## **Sahararrek Espainiako Estatuan lor dezaketen herrigabeen izaera**

Espainiako jurisdikzioaren arabera, jatorria kanpamentuetan duten sahararrak herrigabe gisa sailka daitezke Espainiako Estatuan, espainiarrak edo beste edozein estatuko nazional gisa aitortzeko aukera oro ukatuz<sup>631</sup>. Erabakia zenbait urtez luzatutako auzi baten ondorioa izan zen, 2012an ebatzi zena; izan ere, Espainiako Auzitegi Gorenak ondorioztatu zuen Aljeriako pasaporteak dituzten sahararrak ez direla aljeriarrak<sup>632</sup>. Horrela, bada, «Aljeriako pasaporte horiek berariaz zehaztuta daude eta ez dute herritartasun-eskubiderik ematen<sup>633</sup>».

Ordudanik, herrigabe izateko eskaeren kopurua handitu egin da Espainiako Estatuan. 2012an 479 eskaera egin ziren eta 2013an, berriz, 1.142. Espainiako Barne Ministerioak argitaratutako azken zifren arabera, 2016an, herrigabe gisa izendatzeko 1.401 eskaera jaso ziren<sup>634</sup>. Urte horretan bertan, oraindik ebatzeteke zeuden

---

629 Estatu Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Hitzarmena, 1. artikulua (1933ko irailaren 26a).

630 SEAD ez aitortu izanak eragina du, halaber, Espainiako Estatuan bizi diren sahararrak kontabilizatzeko orduan. Mónica Sente-Varga: Una fuerza transnacional: los saharauis en España, Historia Actual Online (2012).

631 López Baroni: Apátridas saharauis en España: Europa y su memoria.

632 Espainiako Erresuma - Auzitegi Gorena (Administrazioarekiko Auzien Sala), 5. Sekzioko epaia - RJ 2008/6875 (2008ko uztailaren 18a); Espainiako Erresuma - Auzitegi Gorena (Administrazioarekiko Auzien Sala), Epaia - 3. Sekzioa, RJ 2012/6407 (2012ko apirilaren 27a).

633 European Asylum Support Office (EASO): *Sahrawi citizenship/nationality in Western Sahara, Morocco and Algeria*.

634 Espainiako Erresuma - Barne Ministerioa: *Asiloa zenbakitan*: 2016, 67. orria.



2.151 eskaera ebatzi ziren, eta 1.871 kasuk aldeko emaitza izan zuten<sup>635</sup>. Espainiako Estatuan sahararrenak dira herrigabeen estatuturako eskabide ia guztiak<sup>636</sup>.

Herrigabe baldintzak herritartasunean oinarritutako hainbat eskubide berreskuratzea ahalbidetzen die sahararrei, hala nola mugitzeko eta politikan parte hartzeko eskubidea, botoaren bitartez; dena den, ez du guztiz konpontzen jasaten duten herritartasunik ezaren egoera, ez baita SEAD aitortzen, beren estatua<sup>637</sup>.

### **Herritartasun marokoarraren ezarpena okupatutako lurraldean**

Lurralde okupatuan, Marokok herritar marokoar gisa hartzen ditu sahararrak. Lurralde okupatuko sahararrei herritartasun marokoarra ezartzeak urratu egiten du nazioarteko zuzenbidea, Marokok ez baitu subiranotasunik gauzatzen Mendebaldeko Saharan, *de facto* kontrola baizik, lurraldearen indarkeriazko inbasioa dela eta<sup>638</sup>. Beste egoera batzuetan, Espainiako Auzitegi Gorenak herritartasun marokoarraren derrigorrezko ezarpenaren kontrako epaitza eman du, «ezin baita ezarri jatorrizkoa ez den beste herritartasunik<sup>639</sup>».

Era berean, lurralde okupatuko sahararrek beren borondatez pasaporte marokoarra eskuratu izanak ez du esan nahi herritartasun marokoarra askatasunez aukeratzeko dutenik. Mendebaldeko Sahararen okupazio luzatuaren testuinguruan, determinazio askerik ez dagoela eta nazioarteko komunitateak ordezkari aukerarik eskaintzen ez duela ikusita, sahararrentzat pasaporte marokoarra izan da Mendebaldeko Saharako lurralde okupatua uzteko eta hara berriz sartzeko aukera bakarra.

### **Herritartasun-eskubidearen mugek gazte sahararrei eragiten dizkien ondorioak**

Nazioarteko komunitateak SEAD aitortzen ez duenez, gazte sahararrei ukatu egiten zaie beren identitate kolektiboa islatzen duen herritartasun bakarra, herri baten kide diren heinean. Estatua-nazioa logika duen mundu honetan, pertsonen herritartasun-izaeran oinarritzen dira funtsezko eskubide asko, eta sahararrek herritartasunarekin lotutako hainbat irudi juridiko hautatu behar izan dituzte beren eskubideetako batzuk gauzatu ahal izateko.

---

635 *Ibidem*.

636 El País: Los saharais buscan ser apátridas en España (2017ko maiatzaren 26a). ACNUR: ACNUR y AECID inauguran la exposición "Apátridas. El laberinto de los invisibles, in Caixa Fórum Madrid (2018ko azaroaren 14a).

637 Ikus bizi-historia: Muna.

638 Open Society Justice Initiative: Report: Human Rights in the Context of Automatic Naturalization in Crimea, 31. paragr. (2018ko ekaina).

639 López Baroni: Apátridas Saharais en España: Europa y su Memoria, 404. orria.

# Muna

ADINA: 23 URTE | BIZILEKUA: BILBO, EUSKADI

**“Mendebaldeko Saharako herritar sentitzen naiz. Amorrua ematen dit nire agiri guztietan ‘aberrigabe’ irakurtzeak. Sahararra naiz. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko herritarra naiz”**

**M**UNAK ZAZPI URTE ZITUEN JAIOTAKO ERREFUXIATU SAHARARRENTZAKO kanpamentuak lehen aldiz utzi zituenean. Orduan ez zekien Oporrak Bakean programaren barruan espainiar estatura egindako bidaiak bere bizitzako urte askoan zehar izango zuen bizimoduaren aurrekariak izango zirela. 2007an, Muna kanpamentuak utzi zituen eta espainiar estatura joan zen bizitzera. “Nire aita hemen bizi zen jada, haren gurasoei esker lortu zuen herritartasun espainiarra, nire aitona-amonak espainiarrak baitziren Sahara Espainiako kolonia zen garaian”. 2007tik 2012ra bitartean, ordea, Muna ezin izan zen kanpamentuetara itzuli, haren lege-estatusa zela-eta. “Aljeriako pasaportearekin etorri nintzen Espainiara, horixe delako sahararrentzako bidaia-txartel berezia. Aitaren lagun batek eman zidan bisa batekin sartu nintzen herrialdean, eta nire harrera-familiarekin bizitzen jarri nintzen. Ez genuen paperei buruzko ideia handirik. Bisa horrekin Espainian sartu, eta hemen gelditu nintzen. Baina ez nuen lege-estatusik, eta laster ohartu ginen ezingo nuela herrialdea utzi”.

Bost urtean zehar, Munak eta haren aitak bost autonomia-erkidegotan aurkeztu zuten egoitza-eskaera, baina askotan ukatu zieten. Azkenik, 2012an egoitza-baimena lortu zuten eta Munak errefuxiatuen kanpamentuetara eramango zuen hegazkina hartu zuen. Han, ama eta neba-arrebekin elkartu zen berriz, bost urtez banatuta egon eta gero. Ikasteari ekin zion berriz, baina laster utzi behar izan zituen kanpamentuak. *“Kanpamentuetan eskaintzen zen azken hezkuntza-maila amaitu nuen eta, ikasten jarraitu nahi izanez gero, Aljeriara edo Espainiara jo behar nuen. Familiarekin egoteko itzuli eta denbora gutxira, berriz alde egin behar izan nuen”*. Gurasoen tema ikusita, eta bere herritartasun espainiarraz baliaturik, Muna espainiar estatura itzuli zen bere ikasketak jarraitzeko.

Munaren egoitza-baimena 2016an iraungitzen zen. Aita lan-kontuengatik bidaian zegoen eta ez zegoen herrialdean Munaren egoitza-baimena berritzeko eskaera babesteko. Amak bultzaturik, 2016ko uztailean Munak aberrigabetzat onartu zuen bere burua atzeritartasun-autoritateen aurrean. *“Ez nuen beste aukerarik izan, lege-estatusik gabe ezingo nitzkeelako unibertsitate-ikasketak hasi”*.

Eskaera onartu zioten arren, esperientzia hark sentsazio gazi-gozoa utzi zuen Munarengan. *“Ni ez naiz aberrigabea. Sahararra naiz, espainiarra ere baden saharar baten alaba. Nire aberrigabe-estatusa onartzeko, Europar Batasuneko egoitza-baimenari uko egin behar izan nion. hala egin behar izan nuen, ordurako ikasten hasia bainintzen Euskal Herriko Unibertsitatean. Estatus horrek baditu bere abantailak, noski. Kanpamentuetara askatasun osoz bidaiatu ahal izan dut bitan, eta Aljerian ez didate pasaportea kentzen, Aljeriako bidaia-txartelekin bidaiatzen duten sahararrei gertatzen zaien bezala. Orain, Espainiako aireportuan, Europar Batasuneko pertsonen ilaratik pasatzen naiz. Legearen barruan lan egin dezaket, eta Euskadiko herri-hauteskundeetan botoa eman dezaket”*. Baina Munarentzat ez da bidezkoa bera aberrigabeen kategorian sailkatzea: *“Hamaika tramite egin eta mespretxatzen zaituzten herri-bulego askotara jo eta gero, azkenean zure eskubideak bermatzen dituen baina, aldi berean, identitatea lapurtzen dizun agiri bat ematen dizute”*.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

HEZKUNTZA-ESKUBIDEA, DISKRIMINAZIORIK EZA, HERRITARTASUN-ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIO-RAKO ESKUBIDEA.

## **Eskubide zibilak eta politikoak**

### **4. zatia: bizitza pribatua eta familiarra**

#### ***Bizitza pribatua eta familiarra izateko eskubidea***

Okupazioaren garaian jaio diren gazteek oinordetzan hartu dute familiarengandik aldentzeak sortzen duen mina. Bizi diren lekuetan elkarrizketatutako gazte askorentzat, beren anai-arreba, lehengusu eta aitona-amonengandik banandu izana da okupazioak beren bizitzetan eragin duen kalterik handienetako bat. Gaur egungo teknologiek familia sahararren arteko komunikazioa ahalbidetu arren, oraindik ere horien gabezia nabaritzen dute ezkontzetan eta bestelako familia-ospakizunetan, erlijio-jaiegunetan eta jaiegun nazionaletan, edo gaixotasunak edo ezusteko heriotzak gertatzen direnean. Gainera, gazte sahararrei oso zaila egiten zaie etorkizunean familiako bizitza izango dutela irudikatzea, lurralde okupatuan jasaten dituzten errepresio- eta marjinazio-baldintza gogorrek eta sahararrek kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldean bizi duten ziurgabetasun- eta ezegonkortasun-egoera dela eta.

#### **Bizitza pribaturako eskubidearen oinarri juridikoa**

Nazioarteko tresna askok babestu egiten dituzte bizitza pribatuarekin eta familiarekin lotutako giza eskubideak. Horiek Nazio Batuen Adierazpen Unibertsalaren bitartez artikulatu ziren lehenengo, 12. artikuluan: «Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan esku sartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere». Era berean, honako hau dio 16. artikulua: «Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du».

Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunak familia jorratzen du 23. artikuluan, eta Adierazpen Unibertsalaren antzeko terminoak erabiltzen ditu: «Familia gizartearen osagai natural eta funtsezkoa da, eta familiak eskubidea du gizarteak eta Estatuak berau babes dezaten». Artikulu horretan, ezkontzeko eta familia osatzeko eskubidea jasotzen da. Bestalde, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak honakoa dio 10. artikuluan: «Familiari, gizartearen osagai natural eta funtsezkoa den heinean, eman behar zaio ahalik eta babesik eta laguntzarik handiena».

Giza Eskubideen Batzordeak 19. Ohar Orokorrean adierazten duen moduan, familia bat osatzeko eskubideak elkarrekin bizitzeko aukera hartzen du barne eta, horretarako, «neurri egokiak hartu behar dira, barnean eta, hala badagokio, beste Estatu batzuekin elkarlanean, betiere familien batasuna edo bateratzea bermatzeko helburuarekin, bereziki familiako kideak elkarrengandik banantzen direnean, arrazoi politikoak edo ekonomikoak, edo antzeko beste arrazoi batzuk direla eta». Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren arabera, «askatasunaz

gabetutako pertsonak ere badute familiako bizitza izateko eskubidea, eta horiei ere beren familiarekin harremanetan jartzeko aukera eman behar zaie, legetan ezartzen diren arrazoizko murrizketak bakarrik aplikatuz<sup>640</sup>».

Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunak aitortzen du «familia izango dela unitate naturala eta gizartearen oinarria. Estatuak babestu egingo du familia, eta haren osasun fisikoaz eta moralaz arduratuko da<sup>641</sup>».

### **Familia sahararren banantze luzeak**

Ikerketa hau egin den leku guztietan, beren gertuko nahiz urrutiko ahaide-enganetik indarrez banandu izanak min handia sortzen duela deskribatu zuten elkarrizketatuek, beren lurraldearen okupazioak eraginda. 1975. urtetik aurrera, biztanle zibil saharar askok Aljeriako kanpamentuetara ihes egin zuten eta familia sahararrak elkarrengandik bananduta egon dira ordudanik, batzuk kanpamentuetan eta beste batzuk gerra gertatzen ari zen lurraldean eta, gero, lurralde okupatuan. Bi lurraldeak bereizten dituen minaz inguratutako hesiak areagotu egin zuen banaketa hori. Su-etenaren inguruko negoziazioek eta prozesu politikoarekin lotutako eztabaidek herritar zibil sahararrak bere lurraldera itzultzea barne hartzen badute ere, errealitatean, pertsona horiek –eta horien ondorengoei– lekualdatuta jarraitzen dute, okupatuta dagoen Mendebaldeko Saharan sartu ahal izan gabe.

Politika marokoar horren salbuespen bakanak ACNURen bitartez gauzatu dira, hark garatu duen senitartekoen arteko bisita-programaren esparruan. 2004an, adibidez, sahararren arteko hartu-eman batzuk egin ziren okupatutako lurraldeen eta errefuxiatuen kanpamentuen artean, biztanleen arteko «konfiantza sustatze-ko» neurri gisa<sup>642</sup>. Bisita horiek agintari marokoarren zaintzapean egin ziren, eta horietan parte hartu zuten elkarrizketatutakoek sentimendu gazi-gozen nahasketak bat deskribatu zuten, senitartekoak ikusi ahal izan bazituzten ere, errepresalien etengabeko mehatxua sentitu zutelako agintari marokoarren aldetik.

Dena den, bisiten programa horrek oso ibilbide mugatua izan zuen (2004tik 2014ra) eta ezin izan zuten saharar guztiek parte hartu<sup>643</sup>. Alderantziz, saharar gehienek ezin izan zuten programan parte hartu eta hamarkadak daramatzate be-

---

640 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa: *Familiaren babesa: Familiaren ekarpena bertako kideen bizi-maila egokirako eskubidea betetzeko, baina, batez ere, txirotasuna desagerraraztean eta garapen jasangarria lortzean daukan zereginaren bidez*, A/HRC/31/37, 34. paragr. (2016ko urtarrilaren 29a).

641 Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutuna, 18. artikulua.

642 Segurtasun Kontseilua: *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako Egoerari buruz egindako Txostena*, S/2017/307, 24.-30. orriak (2004ko apirilaren 23a).

643 Tufts University: *A frozen conflict and a humanitarian program that works: UNHCR's Confidence Building Measures in Western Sahara* (2017).

ren senitartekoekin elkartu gabe. Ikerketa honetarako egin diren elkarrizketen esparruan, pertsona batek bakarrik parte hartu zuen senitartekoen bisita horietan.

### **Zaintza eta mehatxuak lurralde okupatuko defendatzaile sahararren senitartekoen kontra**

Marokok okupatutako lurraldeetan bizi diren sahararrentzat ia hutsala da bizitza pribatuaren kontzeptua. Aktibistek jakinarazi dute poliziak etengabe zaintzen dituela beren etxeak, eta gizarte-jardueretan ere etengabeko jazarpen-egoera jasaten dutela; eta jakina, hori guztiz bateraezina da aktibisten intimitatearekin. Etengabeko zaintza hori aurreko ataletan identifikatutako patroien barnean sartzen da, baina ondorio partikularrak ditu pertsonen bizitza pribatuetan.

Defendatzaileen senitartekoek ere jasaten dituzte zirikatze-estrategia horien ondorioak. Okupatutako lurraldeetan, mehatxuak gauzatzen dira aktibisten senitartekoen kontra, eta indar marokoa larderia-estrategia gisa erabiltzen dituzte mehatxuak. Familia sahararren arteko gertuko harremanaz baliatuz, kalez jantzitako poliziakideak sahararren jardura politikoa sakabanatzen saiatzen dira, senitartekoen kontrako indarkeria-egintzak gauzatuko dituztela mehatxu eginez.

Bost seme-alaba dituen ama batek azaldu zuenez, bere seme-alabei min egingo dietela mehatxu egiten diote, manifestazioetan parte hartzeari edo bere senararren alde justizia egin dadila (preso dago) eskatzeari uzten ez badio. Bere ustez, bere seme-alabak arriskuan daude elkarren artean familia-loturak izateagatik bakarrik. Hiru seme-alaba dituen beste emakume aktibista batek ere ondorengoa deskribatu zuen: «Gure aktibismoaren ondorioz, gure seme-alabak giltzapetu egingo dituztela mehatxu egiten digute. Etxea poliziaren zaintzapean dago beti, eta haurrak ere kontrolatzen dituzte ikastetxetik irteten direnean».

Aktibistei mehatxuak zuzenean helarazteko ere erabiltzen dituzte aktibisten senitartekoak. Neska aktibista baten arabera, agente marokoa bere familia presionatzen saiatu dira berak aktibismoa utz dezan, eta atxilotzen duten hurrengoan bere anai-arrebak bortxatuko dituztela esaten diote.

Elkarrizketatutako askok deskribatu zutenenez, beren seme-alabek, gurasoek, anai-arrebek eta abarrek ahozko bidegabekeriak jasan behar izan dituzte, baita indarkeria-mehatxuak, beren jabetzen kontrako kalteak eta beste larderia mota batzuk ere, errepresaliak adibidez, gauzatzen duten aktibismoa dela eta. Pertsona horiek guztiek aitortu zuten beren senitartekoak bidegabekeria horien xede izaten direla, eta ez halabeharrez, beren aktibismoak eraginda baizik; izan ere, kalez jantzitako poliziakideek askotan aipatu izan dute aktibismoa mehatxu egiten zieten bitartean edo senitartekoei eraso egiten zieten bitartean. Aktibisten seme-alaba txikien kasuan nabarmena da mehatxuak beldurtzeko erabiltzen dituztela, horiek ez baitute jardura politikotik beren kontura parte hartzeko nahikoa adina.

## **Preso sahararrei bisita egiteko oztopoak lurralde okupatueta**

Arestian azpimarratu dugun moduan, Marokok okupatutako lurraldeetan, preso sahararren senitartekoek oztopo askori aurre egin behar izaten diete beren senitartekoak bisitatzeko eskubidea gauzatu ahal izateko. Gainera, horiek Marokoko lurraldean espetxeratzen dituzte, Mendebaldeko Saharatik urruti. Jardun horrek urratu egiten ditu presoek eskubideak, baina ez presoek bakarrik, baita senitartekoek ere.

Elkarrizketatutako aktibista batek honako hau azpimarratu zuen: «Atxiloketek suntsitu egiten dituzte familiak». Preso dauden beren senitartekoekin ezer ez partekatu ahal izateak eten egiten du elkarren artean duten harremana, baita aske utzi ondoren ere. Kasu bakoitza desberdina da, jakina, baina senitarteko bat Marokoko kartzela batean sartzen dutenean mugatu egiten da familiako gainerako kideek familian bizitzeko duten eskubidea.

## **Familia bat osatzeko baldintza egokirik eza**

Okupatutako lurraldeetan, elkarrizketatutako askok gauza bera sentitzen zuten: ezin dute familia bat osatu okupatutako lurraldean, senitartekoek jasan ditzaketen larderiak direla eta. Termino orokorretan, okupazioaren bidegabekeriak eta etengabeko errepresio-baldintzek eraginda, gazte askok mugarik gabe atzeratu behar izan dute familia bat osatzeko aukera, eta seme-alabak baldintza horietan hazteak zentzurik ba ote duen ere birplanteatzen dute askok.

Seme-alaba txikiak dituzten beste guraso saharar gazte batzuentzat, okupazio-egoerak muga asko ezartzen ditu seme-alabei eman diezaieketen bizitzan. Egoera hori argi eta garbi islatzen da, esaterako, hezkuntza-sisteman –nabarmena da sahararren kontrako diskriminazioa– nahiz helduen baldintza ekonomiko zailetan, ezin baitute lanpostu duinik lortu. Baldintza horietan, okupatutako lurraldean bizi diren sahararren hurrengo belaunaldiarentzat oso iluna da etorkizuna. Honako hau adierazi zuen, adibidez, bi alaba txiki dituen ama aktibista batek: «Ez dakit zer nolako bizitza izango duten hemen». Lehen semea izan duen 31 urteko aita gazte batek, berriz, «seme bat izateagatik errudun» sentitzen zela adierazi zuen, ezin izango diolako askatasunean eta eskubideetan oinarritutako etorkizunik eskaini.

Sentipen berbera artikulatu zuten kanpamentuetan bizi ziren zenbait gazte ere. Han elkarrizketatutako gazte gehientzat, lan egonkorrik ez izateak nabarmen eragiten du familia bat osatzeko gaitasunean. «Lanik gabe», dio batek, «ezinezkoa da ezkontza bat prestatzea edo familia bat mantentzea». Beste pertsona batzuek adierazi zuten ez dutela errefuxiatuen beste belaunaldi bat sortu nahi horien patua zer nolakoa izango den jakin arte. Prozesu politikoaren inguruko ziurgabetasunak zuzenean eragiten du gazteen amesteko gaitasunean, hau da, beren etorkizuna irudikatze eta, beraz, familia bat osatzearekin amets egiteko gaitasunean.

Kanpamentuetan bizi diren gazte sahararren beste azterketa batek ere ondorio berbera atera zuen: «Baliabide ekonomikorik ez dutenek ezin diete aurre egin ezkontzak edo *jaima* baten eraikuntzak eragiten dituen gastuei eta, baliabide ekonomiko egonkorrik gabe, ezin dute bermatu adingabeen hazkuntzari dagokion bizi-prozesua. Horrenbestez, bikote ezkondu berriak sortzea nahiko korapilatsua da, kanpamentu horietan bizi diren gazteen langabezia-tasa handia dela eta. Kasu batzuetan, egoera horrek familia osoak zorpetzen ditu, eta jarduera irregularrak ere sortzen dira noiz edo noiz. Kanpamentuetan, lanik ezak eta ezkontzen eskasiak bizi osorako krisialdiak sortzen ditu askotan, eta nahasmendu psikologikoak ere eragin ditzake mugako egoeretan<sup>644</sup>».

### **Bizitza pribatuaren eta familiarraren gaineko mugek gazte sahararrei eragiten dizkieten ondorioak**

Familien banaketa luzea dela-eta, gazte askok nolabaiteko deserrotze-sentipe-na izaten dute, kanpamentuetan nahiz diasporan. Familia osoa etxean elkarrekin ez egoteak eta hori norberak hartutako aukera bat ez dela jakiteak are deskonexio handiagoa sortzen du bizi diren lurrarekiko. Lurralde okupatuan, aktibisten senitartekoen kontrako errepresio-praktikek kaltetu egiten dituzte gazteak, eta kanpamentuetako baldintza gogorrek eta Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldeen isolamenduak arriskuan jartzen ditu, ez belaunaldi hau bakarrik, gazte sahararren etorkizuneko belaunaldiak baizik.

---

644 Vilches Plaza eta Esparza Fernández: *La juventud refugiada en los campamentos saharauis*, 38. orria.



# Salec

ADINA: 21 URTE | BIZILEKUA: DAKHLAKO KANPAMENTUA, TINDUF INGURUAN, ALJERIA

**“Nire herrialdean egon izan banintz,  
famiarengandik hurbil egon eta ikasten  
jarraitu ahalko nuen, bata ala bestea aukeratu  
beharrik gabe”**

**S**ALEC DAKHLAKO KANPAMENTUAN JAIO ZEN, ETA TXIKITATIK IZAN DA IKASLE serio eta saiatua, etorkizuna hobetzea baitu buruan. “Lehen hezkuntzako sei ikasturteak kanpamentuetan burutu nituen, bigarren hezkuntzako bi ikasturteak Tindufen, eta gero Aljeriako beste eskualde batean jarraitu nituen ikasketak. Batxilergoko hiru ikasturteak egin nituen, eta unibertsitatean nengoan ikasteari utzi behar izan nionean”.

Aljerian goi-hezkuntza doakoa bada ere kanpamentuetako sahararentzat, unibertsitatean urtebete zeramanean, Salecek ezin izan zuen denbora gehiagorik jasan bere familiarengandik urrun egotea. “Unibertsitateko lehen ikasturtea amaitu ondoren, kanpamentuetara itzuli nintzen. Nire aita parkinsonak jota dago eta nire beharra du, ni hurbil egotea nahi du. Haren gaixotasuna oso fase aurreratuan dago. Nire laguntza behar du mugitzeko. Botikak hartzen ditu, eta horrekin ere laguntza behar du. Orain hemen nagoenez, harekin egon naiteke, eta behar duen guztian lagundu. Horregatik itzuli nintzen”.

Salec pozik dago aitari lagundu ahal izateagatik, baina amorrua sentitzen du ikasketak utzi behar izan dituelako. *“Ikasten jarraitu nahiko nuke, zientzia teknikoei buruz gehiago jakiteko eta agian egunen batean informatikari gisa lan egiteko. Baina bizi-egoera honetan ezinezkoa da ikastea eta aldi berean aita zaintzea. Aukeratu beharra daukat, eta ezin diot aitari beharrezkoa duen laguntza ukatu”.*

Salecen iritziz, aukeratu behar hori Mendebaldeko Saharako okupazioaren ondorio zuzena da. *“Okupazioak oso ondorio negatibo bat du: familia sahararrak banatzen ditu. Kanpamentuetan eta eremu okupatuetan banatuta gaude, baina hemen ere badira banatuta dauden familiak, gazteok bizimodu duin baten, hezkuntzaren edo enplegu-aukeren bila kanpora goaz-eta. Aurrera egin ahal izateko, gure familiengandik urrundu behar izaten dugu, eta horrek asko sufriarazten digu”.*

**TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:**

**HEZKUNTZA-ESKUBIDEA, FAMILIA-BIZITZARAKO ESKUBIDEA, BIZI-MAILA EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA.**



## Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak

Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen kategoriak gizakiaren duintasunari eta identitatearen garapen askeari atxikitako bermeak hartzen ditu barne<sup>645</sup>. Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (EESKNI) argi eta garbi islatzen du Itun honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dutela «zenbait neurri hartzeko... ahalik eta baliabide gehien erabilita, hemen aitortutako eskubideen eraginkortasun osoa mailaz maila erdiesteko» (Itunean daude jasota)<sup>646</sup>. Zentzu horretan, «Itunak horien pixkanakako garapena aurreikusten du, eta eskura dituen baliabideen mugetatik eratorritako murrizketak hartzen ditu kon-tuan<sup>647</sup>». Nolanahi ere, hartutako neurriek «adostuak eta zehatzak izan behar dute, eta Itunean aitortutako betebeharrak asetzera bideratuta egon behar dute<sup>648</sup>».

---

645 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 22. artikulua.

646 Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, 2.1. artikulua.

647 Nazio Batuak - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea: 3. Ohar Orokorra, Estatu alderdien betebeharrak, 1. paragr. (1990eko abenduaren 14a).

648 *Ibidem*, 2. paragr.

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak zehaztu du, neurri legegileak, garrantzitsuak izan arren, ez direla beharrezko neurri bakarrak eskubideak gutzituz gauzatu ahal izateko. Horrenbestez, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalekiko errespetuak honako hau izan behar du oinarri: «beharrezko neurri guztiak hartu behar dira», «eskubide bakoitzaren funtsezko gutxieneko mailak asetzen direla bermatu behar baita<sup>649</sup>». Horregatik, Estatuak «frogatu egin behar du ahalik eta baliabide gehien erabili dituela gutxieneko betebeharrorietan lehentasunez asetzeko<sup>650</sup>». Helburu horietan lortzeko orduan, «Estatu baten barnean dauden baliabideak eta nazioarteko komunitateak eskura jartzen dituenak hartu behar dira kontuan, nazioarteko lankidetzaren eta laguntzaren bitartez<sup>651</sup>». Gainera, atzeraeraginezko izaera duten neurriak gutzituz frogatu daitezela eskatzen du pixkanakako eraginkortasunaren kontzeptuak<sup>652</sup>.

## Hezkuntza-eskubidea

Gazte sahararrentzat, hezkuntzak alderdi askotan du garrantzia, beren gaitasun intelektual eta pertsonalak garatzea eta, aldi berean, etorkizunean izango dituzten lanbideetarako prestatzea ahalbidetzen dien neurrian. Hezkuntza sahararren bizi-esperientziaren parte da, nahiz eta muga ezberdinak dauden gazte horietan bizi diren tokiaren arabera, biztanleria osoari eragiten dion okupazio-testuinguruaren ondorioz.

### Hezkuntza-eskubidearen oinarri juridikoa

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 26. artikuluan ezartzen da pertsona guztiak hezkuntza-eskubidea dutela. Eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 13. artikuluan hau ere zehazten da: “Lehen hezkuntzak derrigorrezkoa eta denontzat doakoa izan behar du. Bigarren hezkuntzak, haren modalitate ezberdinetan, baita bigarren hezkuntza teknikoa eta profesionala ere, orokorra izan eta denon eskura egon behar du, eta, horretarako, beharrezkoak diren baliabide guztiak bermatu behar dira eta, apurka-apurka, hezkuntzaren doakotasuna ezarri. Goi-mailako hezkuntzak ere denon eskura egon behar du, bakoitzaren gaitasunaren arabera, eta, horretarako, beharrezkoak diren baliabide guztiak bermatu behar dira eta, apurka-apurka, hezkuntzaren doakotasuna ezarri”.

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen esanetan, 13. artikulua “denon eskura egongo den hezkuntza mota bat aurreikusten du, izatez eta es-

---

649 *Ibidem*, 4. eta 10. paragr.

650 *Ibidem*, 10. paragr.

651 *Ibidem*, 13. paragr.

652 *Ibidem*, 9. paragr.

kubidez, batez ere talde zaugarrienen eskura, inolako diskriminaziorik gabe<sup>653</sup>. Era berean, Batzordeak adierazi du, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna betetzeko, hezkuntzak erabilgarritasuna, eskuragarritasuna –diskriminaziorik ezari eta eskuragarritasun material edo ekonomikoari dagokionez–, onargarritasuna eta moldagarritasuna izan behar dituela ezaugarri nagusi<sup>654</sup>.

Afrikari dagokionez, Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen 17. artikuluan ezarrita dago “pertsona orok duela hezkuntza-eskubidea”. Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarrak adierazi du hezkuntza-eskubidearekiko gutxieneko betebeharrak hauek direla: lehen hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa izatea, eta lehen hezkuntza erakunde pribatuetan jasotzearen gastuak desagerrarazi edo murriztuko dituzten politikak abian jartzea<sup>655</sup>.

### **Diskriminazioa eta gabeziak lurralde okupatuko sahararrentzako lehen eta bigarren hezkuntzan**

Lurralde okupatuko hezkuntza-sistema publikoa Marokoko Hezkuntza Nazionalako Ministerioak kudeatzen du, eta Saharako biztanleei zabalik dago ofizialki. Marokoko legeak zehazten du lehen hezkuntza derrigorrezkoa, unibertsala eta doakoa dela<sup>656</sup>. ‘Hegoaldeko eskualdea’ deritzonean, Marokoko gobernuaren esanetan, lehen hezkuntzan eskolatzea %100 da, eta bigarren hezkuntzan bertaratze-datuak altuak dira<sup>657</sup>.

Hala ere, lurraldean ikastetxeak egoteak ez dakar nahitaez horiek eskuragarriak izatea. “Kokapen fisikoaz gain, ikastetxe asko baldintza txarretan daude. Aaiunen, bigarren hezkuntzako ikasle askok beste auzo batzuetako ikastetxeetara joan behar izaten dute. Bidea are luzeagoa da landa-inguruetan, herri guztietan ez dagoelako ikastetxerik, ezta inguruko herri guztietan ere; horregatik, askotan ikasleek luzaroan ibili behar dute ikastetxera joateko”.

Zailtasun horiek albo batera utzita eta Marokoko hezkuntza-sistema sahararrei zabalik dagoela onartuta, lurralde okupatuan elkarrizketatutako pertsonetako askok tratu arrazista salatu zuten eskolako eta lehen eta bigarren hezkuntzako

---

653 Nazio Batuak - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 13. Ohar Orokorra (1999ko azaroaren 29a).

654 *Ibidem*, 6. paragr.

655 Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra, *Principles and guidelines on the implementation of economic, social and cultural rights in the African Charter on Human and Peoples' Rights* (2011).

656 Ikus Nazio Batuak - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren ezarpena: Marokori buruzko Hasierako Txostena*, E/1990/5/Add.13, 123. paragr. (1993ko apirilaren 28a).

657 Marokoko Erresuma - Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen Batzordea, *Comisión ad-hoc encargado del asesoramiento sobre el Nuevo Modelo de Desarrollo de las Provincias del Sur del Reino: Evaluación de la efectividad de los derechos humanos fundamentales, económicos, sociales, culturales y ambientales de las provincias del sur*, 99. paragr. (2013ko maiatza).

ikastetxeetako irakasleen aldetik. Tratu laidogarri hori ikasle sahararren aurkako irainetan datza eta, zenbaitetan, diskriminazioa agerikoa da ikasle sahararren ebaluazio okerrean eta beren hizkuntza (*hassaniya*) erabiltzeko debekuan. Elkarrizketatutako gazteetako batek dioenez, “klasera iritsi nintzenean, ezkutu behar nuela sentitu nuen, ezin nintzela besteen aurrean naizen modukoa agertu”. Errepresio-baldintza horiek ez datoz bat hezkuntzaren helburuekin eta, askotan, ikasle sahararren ikaskuntza-prozesua etenarazi zuten, autoestimua eta gutxiagotasun-komplexuak eraginez. Hori nahikoa ez balitz bezala, kalifikazio-sistema ez da batere objektiboa, Marokoko irakasleek beti gutxiesten baitituzte ikasle sahararren lana eta aurrerapausoak. Horrek gazte sahararren notak artifizialki baxuak izatea edo errendimendu akademiko handiko ikasleek irakasgaiak ez gainditzea dakar. Aktibista gazte batek, hezkuntzan izandako esperientzia gogoan, hauxe esan zuen: “Ikasle onena izanda ere, sekula ez duzu notarik onena lortuko”.

Elkarrizketatutako aktibistetako batzuek diotenez, dirua duten familiek nahiago dute seme-alabek hezkuntza-sistema pribatuan ikastea, diskriminazioa saihesteko. Eskola pribatuetan badira irakasle sahararrak eta, oro har, errespetua askoz handiagoa da eskola publikoetan baino. Gainera, irakasleek maila handiagoa izan ohi dute<sup>658</sup>. Hala ere, eskola pribatuak ez daude familia guztien eskura, haien kostu handia dela eta.

Lurralde okupatuan herritar sahararrei eskaintzen zaien hezkuntza eskasa da; izan ere, ikasleak hezkuntza-guneetako militarizazioaren eta indarkeriaren arrisku-pean daude. Lurraldeko ikastetxeak hainbat aldiz militarizatuak izan dira, Saharako herriaren autodeterminazioaren aldeko aktibismoa kontrolatzeko helburuz. Elkarrizketatutako pertsonetako batzuek 2004tik aurrera beren lehen hezkuntzako ikastetxeetan egunero tanke militarrik ikusi izana gogoratu zuten. Beste batzuek gogoan zuten, 2006ko eta 2007ko manifestaldien ondoren, Marokoko poliziak kontrolgune moduko bat jarri zuela ikastetxeko atarian, Aaiungo hiri okupatuan. Beste gazte batek aipatu zuen 2008ra arte ‘Heriotzaren Taldea’ delakoari zegozkion poliziak egon ohi zirela bere ikastetxean, bertako administrazioarekin harremana baitzuten. Indarkeriako eta presentzia militarreko giro hori ez da bateragarria irakaskuntzaren helburuekin, eta ikasleak beren ongizate fisikoaren eta segurtasunaren aurkako arriskuak onartzera behartzen ditu, ikasketak burutu nahi badituzte.

Lurralde okupatuan, lehen eta bigarren hezkuntzaren beste gabezia bat da haren politizazioa, doktrinamendua bilatzen dutelako, hausnarketa kritikoa sustatu beharrean.

---

658 Okupatutako lurraldeetan, hezkuntzaren kalitatea nahiko eskasa da, elkarrizketatutako aktibistetako batzuek deskribatu zuten. Lehenik, irakasleen maila baxua da, horien kontratazioa lurralde horretan lan egiteagatik jasotzen dituzten dirulaguntzek sustatua baita. Horrez gain, beren lanarekiko konpromiso zalantzazkoa dute, eta ez dago apenas ikuskapenik; hezkuntza-zerbitzuak eskaintzeko oinarritzko betebeharra errespetatzen dutelako itxurak egitean datza kontua, eta horretarako edozein pertsona aukeratzen dute irakasle gisa. Ondorioz, gutxi dira azterketa nazionalak gainditzen dituzten Mendebaldeko Saharako ikasleak.

Marokoko curriculumaren bidez, hango hezkuntza-agintariak Mendebaldeko Sahararen historiaren bertsiio deformatua zabaltzen dute. “Okupaziorik ez zela erakutsi ziguten, eta ‘martxa berdea’ izenekoa lurraldea berreskuratzeko egin zuten martxa bakesua izan zela, gure historiako une loriatsu bat. Hori ikastera behartuta geunden”. Horrez gain, elkarrizketatutako pertsonak kontatu zuten, lurralde okupatueta eskola publikoetan ikasleak behartuta daude egunero Marokoko himno nazionala abestera.

Lekukotasun horiek oinarri sendoa dute; izan ere, beste behatzaile batzuek Mendebalde Saharako hezkuntzari buruz esandakoarekin bat datoz. 2011ko irailan Dakhla hiri okupatura egindako bisitan, eskubide kulturalen arloko Aditu Independentek adierazi zuen ikasle sahararrek, beren kultura eta historia ikasi beharrean, soilik Marokoko historia ofiziala ikastea ez da bateragarria hauren eskubideekin edo kultura aniztasunaren printzipioekin<sup>659</sup>.

### **Lehen eta bigarren hezkuntzaren gabeziak eta irismen mugatua kanpamentuetan**

Errefuxiatuen kanpamentuetako gazteei eskaintzen zaizkien hezkuntza-aukerak Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren Hezkuntza Ministerioaren mende daude<sup>660</sup>. Ministerioaren arabera, hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da 6 eta 17 urte bitartean, eta lehen hezkuntza ikastetxe-sare baten bidez eskaintzen da; kanpamentuak osatzen dituzten bost wilaya delakoetako daira bakoitzean ikastetxe bat dago gutxienez. Ministerioaren ustez, ikastetxe kopurua nahikoa da, kanpamentuetako gazteentz lehen hezkuntzako ikasketak eskaintzeko, baina hezkuntza-eskaintzak muga garrantzitsuak ditu bigarren hezkuntzari dagokionez.

Saharako hezkuntza-agintariak, nazioarteko laguntzaren bultzadaz, bigarren hezkuntzako hamar ikastetxeren funtzionamendua bermatu dute: hiru Smarako kanpamentuan, bat Bojadorrekoan eta bina Auserd, Aaiun eta Dakhloko wilaya delakoetan. Hezkuntza Ministerioak onartzen du eskaintza hori ez dela nahikoa ikasleentz beharrezkoak asetzeko eta Saharako agintariak behartzen dituela beste aukerak batzuk koordinatzera gazte sahararrentzako bigarren hezkuntzako ikasketak bermatzeko. Hori Aljeriako agintarietatik itunen bidez egiten da, eta haiek ikasle sahararrei Aljeriako lurraldean sakabanatutako bigarren hezkuntzako ikastetxe-sarean ikastea ahalbidetzen diete.

Kanpamentuetan elkarrizketatutako ia gazte guztiek Aljeriako beste eskualde batzuetara joan behar izan zuten bigarren hezkuntzako ikasketak egiteko, baina denek

---

659 Giza Eskubideen Batzordea, *Eskubide Kulturalen Arloko Aditu Independentearen Txostena, Farida Shaheed, A/HRC/20/26/Add.2*, 71. paragrafoa.

660 Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren Hezkuntza Ministerioari elkarrizketa, egilearen oharra.

ezin izan zituzten amaitu<sup>661</sup>. Saharako agintarien gestioei esker kanpamentuetako gazteek bigarren hezkuntzako ikasketak egitea bermatuta badago ere, beti ez da posible izaten ikasleak Aljeriara aldatzea. Familia askok ez dituzte adin txikiko seme-alabak etxetik hain urrun bidali nahi, arrazoi emozionalengatik (ez dutelako familia desegin nahi) edo arrazoi ekonomikoengatik (maiz familia kide gazteenen ekarpenaren mende dago, haiek rol garrantzitsua dutelako etxeko gastuei aurre egiteko eta mendekotasun-egoeran dauden senideak zaintzeko orduan). Hala, herritar guztiek ez dute bigarren hezkuntzako ikasketak egin eta burutzeko aukerarik.

Kanpamentuetako hezkuntza-eskaintzaren mailako gabezia nabarmen horiez gain, agerikoa da bertako eskolen azpiegitura falta. Hala adierazi zuen Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarrak 2012an horietara egindako bisitan<sup>662</sup>.

### **Hezkuntza jasotzeko aukera mugatua Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharan**

Fronte POLISARIOAREN kontrolpean dagoen Saharako lurraldean ere, Saharako Errepublik Arabiar Demokratikoaren Hezkuntza Ministerioak kudeatzen du hezkuntza-sistema. Hala ere, hezkuntza-zentroen sarea askoz mugatuagoa da. Lehen hezkuntzako ikastetxe ugari daude lurraldean zehar sakabanatuta. Ez dago, ordea, bigarren hezkuntzako ikastetxe bakar bat ere; beraz, bertako gazteak lehen hezkuntza amaitu eta gero ikasketak uztera edo kanpamentuetara aldatzera behartzen ditu.

Saharako eremu horretan elkarrizketatutako ia pertsona guztiek ikasketak utzi behar izan zituzten lehen hezkuntza amaitzean; eta ikasketak burutzea lortu zuten apurrak kanpamentuetara aldatu ziren horretarako. Lehen hezkuntza amaituta bertan ikasten jarraitzeko aukera ukatzen zaienean, gazteak artzaintzan aritzen dira, edo senideak zaintzen dituzte, edo etxearen mantenuaz arduratzen dira<sup>663</sup>.

### **Unibertsitaterik eza lurralde okupatuan eta ikasle sahararren sarbide diskriminatzailea eta ez-ziurra Marokoko unibertsitateetan**

Ez dago unibertsitaterik ez bestelako goi-ikasketa zentrorik Mendebaldeko Saharako eremu okupatuan<sup>664</sup>. Ikasten jarraitu nahi duten bertako sahararrek Marokoko unibertsitate-sarera jo behar dute, nahiz eta unibertsitate jakin batzuetara baino ez diren joan.

---

661 Ikus Bizi-historia: Salec.

662 Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra, *Report of the fact-finding mission to the Sahrawi Arab Democratic Republic*, 2012ko irailaren 24-28a, 51. paragr.

663 Ikus Bizi-historia: Fatimeta

664 Errefuxiatuei Laguntza Emateko Espainiako Batzordea, *Sahara Occidental: Situación de jóvenes y manifestantes* (2013ko abenduaren 5a).



Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan unibertsitaterik ez egotea biztanle sahararren aurkako diskriminazio argia da<sup>665</sup>. Ikasten jarritzeko beren herrialde-  
tik kanpo joan beharrak sahararren eta berezkozat aldarrikatzen duten lurralde-  
aren arteko urruntzea dakar. Marokon ikasteak kostu handiak eragiten ditu; familia  
saharar batzuek ezin dituzte horiek ordaindu, eta beste hainbatetan ikasleek ikas-  
keta-aldia luzatzea beste aukerarik ez dute, sei hilabetez edota urtebetez unibert-  
sitateara joateari utzi behar diotelako senideak zaintzeko. Egoera horrek bereziki  
eragiten die emakume gazteei, beren gain hartzen baitute familia zaintzeko rola  
eta, hortaz, zailtasun handiagoak dituzte etxetik kanpo egoteko. Horregatik, kasu  
askotan, Marokon ikastea ezinezkoa da Saharako emakume gazteentzat.

Goi-ikasketei lotuta Marokoko agintariak garraio- eta ostatu-mailako gastue-  
tarako diru-laguntzak ematen dituzten arren<sup>666</sup>, askotan ikasle sahararrei ukatu  
egiten zaizkie diru-laguntza horiek. Elkarrizketetan, unibertsitateek onartu ez  
dituzten edo Marokoko gobernuaren garraiorako diru-laguntzak ukatu zaizkien  
gazteen salaketak jaso dira. Ikasleek udan Saharako kanpamentuak bisitatzea izan  
zen ukazio horien arrazoa.

Gainera, unibertsitate-ikasketak egin nahi dituzten gazte sahararrek ezin di-  
tuzte libreki aukeratu Marokoko unibertsitatea eta ikasketa-programa. 2005ean,  
Rabateko unibertsitatean matrikulatutako ikasle sahararrek manifestaldi handiak  
egin zituzten hirian, eta, harrezkero, Marokoko agintariak gazte sahararrei de-  
bekatu egin diete bertan ikastea. Gaur egun, eremu okupatuko gazte sahararrek  
Agadir edo Marrakexeko unibertsitateen artean aukera dezakete soilik, eta haien  
programak eta espezializazioak mugatuak dira<sup>667</sup>. Hain zuzen, ikasle sahararrek  
debekatuta dute unibertsitate horietan zientziaren alorreko ikasketetan matriku-  
latzea; baita letretako batzuetan ere, kazetaritzan, esaterako<sup>668</sup>.

Era berean, badira ikasle sahararren espediente akademikoaren kudeaketa-mai-  
lako irregulartasun-salaketak; azterketen emaitzei zein ikasturtearen balorazio  
orokorrari dagozkienak, besteak beste. Gazteetako batek kontatu zuenez, beste

---

665 Marokoko Erresuma - Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen Batzordea, *Comisión ad-hoc encargado del asesoramiento sobre el Nuevo Modelo de Desarrollo de las Provincias del Sur del Reino: Evaluación de la efectividad de los derechos humanos fundamentales, económicos, sociales, culturales y ambientales de las provincias del sur*, 413. paragr.

666 Neurri hauek 1999ko intifadaren emaitza dira, orduan eskatu baitzituzten sahararrek Marokoko unibertsitateetara bidaiatu eta haietan ikasi ahal izateko diru-laguntzak. Gaur egun, beren nortasun-agirietan "SH" izendapena duten pertsona guztiak izan daitezke ikasleentzako garraio- eta ostatu-mailako diru-laguntzen onuradun, batez ere kolono marokoarrak.

667 Marokoko Erresuma - Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen Batzordea, *Comisión ad-hoc encargado del asesoramiento sobre el Nuevo Modelo de Desarrollo de las Provincias del Sur del Reino: Evaluación de la efectividad de los derechos humanos fundamentales, económicos, sociales, culturales y ambientales de las provincias del sur*, 226. paragr.

668 Landaluce, et. al., *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*.

unibertsitate batera aldatu behar izan zuen ikasketak amaitzeko, bere espedientearen kudeaketa diskriminatzailearen ondorioz.

Diskriminazio-giroaz gain, bada Marokoko unibertsitateetan ikasten duten gazte sahararren aurkako indarkeria-historia luzea ere. 2007an, orduan 25 urte zituen Sultana Khaya aktibista sahararrak eraso jasan zuen ikasketak egiten ari zen Marrakexeko unibertsitatean izan zen manifestaldi batean. Marokoko poliziak hainbat aldiz jo zuen, borra begian sartu zion eta begia eskuz erauzi zion; eta horrek begia galtzea eragin zion Sultanari<sup>669</sup>.

2015. urtearen amaieran, Agadirreko unibertsitatean ikasten zuen Adnan Rahali sahararra desagertu egin zen ikaskide marokoarren eraso basatia jasan ondoren. Unibertsitatean izan zen Saharako ikasle taldearen manifestaldi batean gertatu zen<sup>670</sup>. Adnan lau hilabetez egon zen desagertuta, Marokoko poliziak unibertsitate-egoitzan haren gorpua aurkitu zuen arte. Agadirreko unibertsitate berean, 2018ko maiatzean, Abderrahim Badri hil zuten. Pertsona talde batek unibertsitateko campusean eraso egin zion eta sastakaiz hil zuen<sup>671</sup>.

Gazte sahararrek goi-mailako ikasketak burutzeko dituzten muga ugariek eragina dute haien ikaskuntzan eta garapen intelektualean, baita haien nortasunean eta enplegu-aukeretan ere. Elikatze Eskubideari buruzko errelatore berezia kezkatuta agertu zen Mendebaldeko Saharako biztanleek unibertsitate-ikasketak burutzeko dituzten zailtasunen aurrean, eta nabarmendu zuen “hezkuntza-aukerarik ezean, enplegurako aukerak mugatuak direla”<sup>672</sup>.

---

669 Democracy Now, “Manifestaciones políticas y represión en la última colonia de África” (2016ko azaroaren 25a).

670 Adala ES, “La vida de muchas personas en peligro por la falta de una investigación imparcial sobre el homicidio de un estudiante saharai” (2016ko maiatzaren 6a).

671 Ikus Bizi-historia: Nourddine.

672 Batzar Nagusia, *Report of the Special Rapporteur on the Right to Food on her Mission to Morocco*, A/HRC/31/51/Add.2, 60. paragr.

# Habiba

ADINA: 30 URTE | BIZILEKUA: TIFARITI, FRONTE POLISARIOAK KONTROLATUTAKO MENDEBALDEKO SAHARA

**“Herrialde aske batean biziko banintz, ez nintzateke zerbait gertatuko zaidan eta salbatuko ezingo nauten beldur izango. Gaixorik jar naiteke, edo mina bat zapal dezaket. Beldurrez bizi naiz”**

ABIBA AUSERDEKO KANPAMENTUAN JAIO ZEN, TINDUFETIK HURBIL, ALJERIAN. Bere *dairako* lehen hezkuntzako eskolan hasi zituen ikasketak. Lehen hezkuntza amaitu bezain laster, Habibak ikasteari utzi behar izan zion, familiarekin batera landara joan baitzen bizitzera, Fronte Polisarioak kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurralde batera. “*Ama gaixorik zegoen eta ‘badiya’n bizi nahi zuen, han airea garbiagoa delako, eta bizimodua lasaiagoa. Oso frustragarria izan zen ikasten jarraitu ezin izatea, baina garrantzitsua zen elkarrekin egotea. Gustatuko zitzaidan medikuntza ikastea eta mediku izatea. Gero, ama hil egin zen, baina bihotzez eskertu zigun azken une haietan berarekin egon izana.*”

Hurrengo urteetan, Habiba eta haren familia Tifariti eta Auserd artean bizi izan ziren, eta batzuetan kanpamentuetara itzultzen ziren, familiarekin denbora apur bat igarotzeko. 2005ean, Habiba eta haren neba-arrebak Tifaritira aldatu ziren behin betiko, amonaren

etxera. “Hamazazpi urte nituen Tifaritin bizitzen jarri ginenean. Ezkondu egin nintzen eta, handik gutxira, haurdun gelditu nintzen. Lehen aldia izanda, beldur handia nuen. Zama astunik ez eramaten ahalegindu nintzen, baina gainerako familiengandik hain isolaturik bizi garenez, batzuetan ez nuen inoren laguntza. Erditu nintzenerako, alaba hilda zegoen. Gure ‘jaiman’ jaio zen, inongo medikurik laguntzarik gabe. Emagina geroago etorri zen, eta alaba hilda zegoela egiaztatu zidan. Tifaritiko hilerrian lur eman genion”.

“Zenbaitetan hemen aurki daitezke behar ditugun zerbitzuak, baina beste batzuetan kanpamentuetara jo beharra dago. Badira garai onak, adibidez, botikak iristen eta banatzen direnean, edo mediku talde bat datorrenean. Baina, orokorrean, erabat isolatuta gaude”.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

HEZKUNTZA-ESKUBIDEA, OSASUN-ARRETARAKO ESKUBIDEA, FAMILIA-BIZITZARAKO ESKUBIDEA, BIZI-MAILA EGOKIA  
IZATEKO ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIOARAKO ESKUBIDEA.

## Goi-hezkuntzako erakunderik eza kanpamentuetan

Errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren gazteek ere ez dute goi-hezkuntzako erakunderik inguruan. Horregatik, ikasten jarraitu nahi dutenak behartuta daude Aljeriara edo Kubara joatera<sup>673</sup>, non Saharako agintarien eta herrialde haietakoen arteko akordioez balia daitezkeen<sup>674</sup>. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiteko Aljeriara joan behar duteneztat familiarengandik urrun egotea muga bat den modu berean, kanpamentuetako gazte askok unibertsitatean ez ikastea erabakitzen dute, familiaren ondoan geratzeko. Joera hori are handiagoa da kanpamentuetan langile gaiturik behar ez dela ikusita, horrek unibertsitate-ikasketak baztertzeraz bultzatzen baititu gazteak. Horrez gain, urteek aurrera egin ahala, atzerrian ikasteko plazak pixkanaka-pixkanaka murrizten joan dira.

Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarrak aitortu zuen, Saharako agintariek herritar gehienek hezkuntza jasotzeko aukera izan dezaten ahalegin handiak egin badituzte ere, oraindik ere zailtasun handiak daudela; alde horretatik, kanpamentuetan goi-hezkuntzako erakunderik ez egotea eta Saharako gobernuaren Aljeria, Espainia, Libia eta Kubako unibertsitateekiko elkarlanarekiko mendekotasuna nabarmendu zituen<sup>675</sup>. Batzordeak 350 ikasle sahararren kasua aipatu zuen: Libiako 2011ko krisiak haien ikasketak eten zituen, eta horrek asko zaildu zuen ikasle horiek ordura arte egindako ikasketei buruzko dokumentazioa eskuratzea.

## Hezkuntza-eskubidearen mugen ondorioak Saharako gazteriarentzat

Saharako gazteen etorkizuneko ongizatean hezkuntzak duen garrantzia aintzat hartuta, Saharako gazteek eremu ezberdinetan gaintitu behar dituzten era guztietako gabeziek eragin larria dute haien bizitzan. Lurralde okupatuan, diskriminazioak eta hezkuntzaren manipulazioak hezkuntza librea eta politizatu gabea jasotzeko aukera eragozten du, eta horrek bazterkeriari eta gizartearen polarizazioari bide ematen die. Era berean, biztanle sahararren goi-hezkuntza jasotzeko aukera mugatzen duen politika diskriminatzaileak haien garapen pertsonala eta profesionala oztopatzen ditu. Kanpamentuetan, hezkuntzaren arloko gabeziek gazteek ikasketak amaitzea zailtzen dute, eta familiak elkarrekin jarraitzearen eta seme-alabentzako etorkizun hobe baten artean aukera egitea behartzen ditu. Bestal-

---

673 Unibertsitate-ikasketak Kuban edo Aljerian egiteko Saharako ikasleei ematen zaizkien diru-laguntzei buruzko informazio gehiagorako, ikus Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Estatu kideek lurralde ez autonomoetako bizilagunei eskainitako ikaskuntza-erraztasunak eta lanbide-heziketa*, A/73/73, (2018ko martxoaren 6a).

674 Espainiako estatuan, Venezuelan, Estatu Batuetan, Qatarren eta Frantzian ikasten ari diren gazte sahararrak ere badira. Zenbaitetan, ikasteko aukera Saharako agintarien eta atzerriko gobernuen arteko elkarlanaren emaitza da; beste batzuetan, ikasleen ahaleginaren ondorio da.

675 Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra, *Report of the fact-finding mission to the Sahrawi Arab Democratic Republic*, 2012ko irailaren 24-28a, 51. paragr.

de, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Saharako lurraldean gazteek bizi duten egoerak ikasketak uztea eragiten du maiz, gazteen etorkizuna kaltetuz.

## Lanerako eskubidea

Lan-bilaketa da gazte sahararren kezka nagusietako bat, mundu osoko gazteei gertatzen zaien bezala. Bizi diren eremua gorabehera, enpleguak aldaketa nabarmenak dakartza pertsonen bizitzako hainbat arlotan: bizi-baldintza material hobekuntza, bidaiatzeko aukera handiagoa izatea edota bizitza sozial eta kultural aberatsaz gozatzea... Saharako gazte gehienentzat lana funtsean diru-sarrerak bermatzen dituen jarduera bat den arren, lanbide bat, hots, gizartean rol jakin bat izatearen garrantziaz kontziente dira. Alde horretatik, kanpamentuetan zein lurralde okupatuan, Saharako gazteriarentzat lana beren ekarpena egitea eta beren gaitasunak garatu ahalko dituzten gunek ere bada.

### Lanerako eskubidearen oinarri juridikoa

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 6. artikulua lanerako eskubidea babesten du, eta horrek “pertsona orok libreki aukeratzeko eta onartutako lan baten bidez bizimodua ateratzeko eskubidea” barne hartzen du. Eskubide hura bermatzeko, estatuak hainbat neurri hartu behar ditu; orientabide eta prestakuntza tekniko-profesionala eta garapen eta okupazio osora eta emankorrera zuzendutako ekimenak, besteak beste. Bestetik, Itun beraren 7. artikulua “pertsona orok lan-baldintza justuak eta zuzenak izateko eskubidea” babesten du, hau da, lanari dagokion soldata egokia jasotzea, langilea eta haren familia bizi-baldintza duinak izatea ahalbidetuko duena, eta, aldi berean, lanean segurtasun- eta higiene-neurri egokiak izatea.

Afrikan, lanari lotutako eskubideak Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Konstituzio Afrikarraren 15. artikuluan jasota daude: “Pertsona orok izango du baldintza justu eta zuzenetan lan egiteko eskubidea, eta lanari dagokion soldata jasoko du”. Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarrak onartzen du eskubide hori funtsezkoa dela norbanakoak gizartean duen rolari dagokionez, baita ezinbestekoa ere bizi-iraupenerako eta giza garapenerako<sup>676</sup>. Estatuak gizartearen norbanako guztien enplegu osoa xede izango duen giro baten sorrera erraztea eskatzen du eskubide horrek<sup>677</sup>. Hura bermatzeko gutxieneko baldintzen artean dago justifikaziorik gabeko lan-kaleratzeen eta bestelako lan-jokaera bidegabeen aurreko babesa<sup>678</sup>.

---

676 Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra, *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Ezarpenari buruzko Printzipioak eta Jarraibideak Gizakien eta Herrien Eskubideei buruzko Afrikako Gutunean*, 57. paragr.

677 *Ibidem*, 58. paragr.

678 *Ibidem*, 59(c). paragr.

## Sahararren aurkako lan-diskriminazioa lurralde okupatuan

Lurralde okupatuaren ekonomia Marokoko gobernuak kudeatzen du. Herrialdean langabezia-egoera larria dela onartzen du, “35 urtetik beherako graduatuen artean”<sup>679</sup> be-reziki. Lurralde okupatuan bizi diren gazte sahararrentzat, lana lortzea are zailagoa da, inguru hartako lan urrietan jardutea eragozten dien politika diskriminatzailea dela eta<sup>680</sup>.

Elkarrizketatuko pertsona askok Marokoko Barne Ministerioak osatutako aktibis-ta sahararren ‘zerrenda beltz’ bat aipatu zuten, zeinaren erruz aurrekari politikoak dituzten pertsonak ezin duten lanik lortu. Lan batean pertsona saharar baten hau-tagaitza aintzat hartzeko unean, erakundeak edo enpresak zerrenda hori kontsul-tatzen du eta, bertan hautagaiaren izena ageri bada, enplegua ukatzen zaio. Horrek adierazpen politikoaren gaineko “eragin beldurgarria” du<sup>681</sup>. Behin, historia titulua-ren jabe zen 28 urteko aktibista saharar batek Historia eta Geografiako irakasle iza-teko azterketak gainditu zituen, baina urteak igaro ziren hezkuntza-erakundeak pla-za bat eskaini zion arte; Aaiungo hirian berriki ireki den liburutegiko lanpostuetako batean aritzeko ere ez dute kontuan hartu. “Lehenik, uste dut aktibista izateagatik ez didatela ezer esan”, adierazi zuen. “Eta, bigarrenik, Marokoko politikak kolono ma-rokoarrak lehenesten ditu hemengo lanpostuetan, demografia aldatzen jarraitzeko”.

Lekukotasun hauek bat datoz duela gutxi argitara eman den txosten batean adie-razitakoarekin: “Gazte saharar askok administrazioan, sektore publikoan, lan egitea dute amets. Eremu horretan lan-baldintzak hobeak dira, baina oztopo askori aurre-egin behar diete enplegu horietan aritzeko”<sup>682</sup>. Hezkuntzaren sektorea da Saharako pertsonak kontratatuak izateko aukera duten apurretakoa, baina lanpostuak Ma-rokoko lurraldean eskaintzen dizkiete beti, Mendebaldeko Saharatik urrun”<sup>683</sup>.

Enpresa publikoen ardura da lurralde okupatuan oinarritzko zerbitzuak eskaint-zea eta hezkuntza-sistema kudeatzea. Enplegatzailerik publiko garrantzitsuenak dira, baina oso gutxitan kontratatzen dituzte herritar sahararrak. Adibidez, elkarrizke-tatutako pertsonak azaldu zuten 2015ean Fos-Bucraa izeneko fosfato enpresa pu-blikoak 500 lanpostu eskaini zituen lurralde okupatuan, ustez kontratazio-prozesu garden baten bidez<sup>684</sup>, baina 470 lanpostutan kolono marokoarrak kontratatu zi-

---

679 Nazio Batuak – Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, *Estatu alderdiek 2009an aurkeztu behar zituzten aldezikako laugarren txostenak*: Maroko, E/C.12/MAR/4, 53. paragr. (2014ko martxoaren 24a).

680 Ikus Bizi-historia: Khalil.

681 Landaluce, et. al., *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, 39. or.

682 Landaluce, et. al., *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, 29. or.

683 *Ibidem*, 29. or.

684 Western Sahara Resource Watch, “Hunger striking against OCP discriminatory employment” (2016ko urtarrilaren 12a).

tuzten, eta herritar sahararrek 30 lanpostu baino ez zituzten lortu. Elkarrizketatutako pertsonen salatu zutenek, fosfatoen sektorean lan publikoak egiteko aukeratutako pertsonen % 10 baino gutxiago izan ziren Mendebaldeko Saharan jaiotako herritarrak; kolono marokoarrak, aldiz, % 90 baino gehiago izan ziren.

Lan arloko diskriminazioa sahararren lan-kaleratzeetan ere islatzen da. “Lan-kaleratze bidegabe baten arrazoiak albo batera utzita –arrazoi etnikoak, politikoak edota langilea aktibista ezaguna izateagatik–, lan-kaleratzeak sekula ez dira idatziz egiten, irregulartasunaren eta diskriminazioaren frogarik egon ez dadin”<sup>685</sup>.

2004an Marokok onartutako Lan Kodeak langile marokoarrak lan-kaleratze bidegabeen aurrean babestea du helburu, baina zalantzazkoa da haren aplikazioa Mendebaldeko Saharan<sup>686</sup>. Gobernuak eskualdearen garapenaren aldeko diskurtsoa zabaltzen du eta Mendebaldeko Saharako pertsonentzako lanpostuak sortzen ditu, baina sahararrak hautaketa-prozesutik kanpo geratzen dira, edo oso atzean; salatzen dutenez, lanpostuak kolono marokoarren seme-alaben artean banatzen dira. “Mendebaldeko Saharan aplikatzen den lan-araudiaren ahultasunak egiturazko indarkeria elikatzen du eta, horrekin batera, Saharako herritarrak ekonomiarentzat bereziki garrantzitsuak diren sektoreetatik kanpo uzteko politika sendotzen du; hori gertatzen da lurraldearen ondasunak eta baliabide naturalak ustiatzen dituzten industrietan, eta herri-administrazioaren goiko eta tarteko karguen kasuan”<sup>687</sup>.

Lan-inguruko diskriminazioaren ondorioz, gazte sahararren langabezia-tasa oso altua da. Oso egoera konplexua da, aukera-falta dela eta; “lurralde okupatuan ez dago enpresa-sare sendorik, ez industria egonkor eta garaturik”<sup>688</sup>.

Estatistika ofizialek ere islatzen dute Mendebaldeko Saharako langabezia-tasa Marokon baino askoz altuagoa dela: % 15,2 eskualdean, eta % 8,9 nazio-mailan<sup>689</sup>. Joera berarekin erakusten dute Saharako gazte langabetuen talde eta erakunde ugariak, eta lurralde okupatuan gazte sahararrek aurre egin behar dieten lan-diskriminazioaren ondorioek. Taldetan antolatuz, gazte langabetuek manifestazioak egin ohi dituzte aldizka, sahararrek lana bilatzeko unean jasaten duten diskriminazio-egoera ikusarazteko; era berean, kontratazio publikoan gardentasun handiagoa aldarrikatzen dute, hautagaien zerrenda argitara ematea eskatuz. Horrez gain, beren lurraldeko lanpostuetarako sarbide ez-dis-

---

685 Landaluce, et. al., *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, 43. or.

686 Marokoko Erresuma, Lan Kodea (2004).

687 Landaluce, et. al., *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, 44. or.

688 *Ibidem*, 29. or.

689 Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen Batzordea, *Comisión ad-hoc encargado del asesoramiento sobre el Nuevo Modelo de Desarrollo de las Provincias del Sur del Reino: Evaluación de la efectividad de los derechos humanos fundamentales, económicos, sociales, culturales y ambientales de las provincias del sur*, 23. paragr.



kriminatzailea eskatzen dute. Ordura arte, elkarrizketatutako gazte sahararretako baten esanetan, “sahararren lan bakarria manifestaldietan parte hartzea izango da”.

Elikatze eskubideari buruzko errelatore bereziaren gomendioek herritar sahararrek lurralde okupatuan bizi duten lan-egoera kaskarraren irudia indartzen dute. Dakhla hiri okupatua bisitatu eta gero, Marokori eskatu zion “langabezia modu nabarmenean murrizteko eta herri sahararra gaitzeko programak ezartzeko neurriak har zitzan, eta enplegatzaileen artean gazte sahararren kontratazioa susta zezan, inor diskriminatua izan ez zedin”<sup>690</sup>.

### **Lan-aukera falta eta soldata desegokia kanpamentuetan**

Errefuxiatu sahararren kanpamentuetan, biztanleriaren parte txiki batek baino ez du lan egiten, aukera faltaren ondorioz. Kanpamentuetan, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak kudeatzen du sektore publikoa, eta Herri Funtzioko eta Prestakuntza Profesionaleko Ministerioaren bidez koordinatzen du. Horiek kudeatzen dute pertsona sahararren enplegua Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren herri-erakunde ezberdinetan; horien artean daude, esaterako, hezkuntza-sistema eta osasun-sistema, funtzionario publiko gehien hartzen dituztenak.

Elkarrizketatutako gazteek frustrazioa sentitzen zuten kanpamentuetako lan-egoeraren aurrean, eta lan-aukeren eskasiaz kexu ziren, haietako batzuek unibertsitate-tituluak bazituzten ere. Ingeniaritza, arkitektura, zientzia politikoak edota bestelako ikasketak izan arren, ez zuten lanik aurkitu kanpamentuetan.

Saharako administrazioak kanpamentuetako langabezia-tasen estatistika ofizialik ez badu ere, Herri Funtzioko eta Prestakuntza Profesionaleko ministroak adierazi zuen ez dagoela lan-aukera askorik eta langabezia kezka handia dela Saharako gobernuarentzat. Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra bat etorri zen; 2012an, kanpamentuak bisitatu ondoren, “kanpamentuetara itzultzen diren graduatuentzako lan-aukera falta oso kezagarria dela”<sup>691</sup> adierazi zuen.

Bada kanpamentuetako lan-egoerari lotutako ezaugarri bat: soldata araugabeak eta ez-nahikoak. Elkarrizketetan, enpleguren bat topatutako sahararrek adierazi zuten ez zieten soldatarik ordaintzen lanagatik, baizik eta modu arautu gabean hiru hilean behin ordaintzen zieten diru kopuru sinboliko bat<sup>692</sup>, lan gogorretan aritu arren. Hala esan zuen Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan irakasle zebilen emakume gazte batek: “Gogor lan egiten dugu, baina ez dugu hainbeste kobratzen”. Saharako

---

690 Batzar Nagusia, *Report of the Special Rapporteur on the Right to Food on her Mission to Morocco*, A/HRC/31/51/Add.2, 95. paragr.

691 Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra, *Report of the fact-finding mission to the Sahrawi Arab Democratic Republic*, 24-28 September 2012, 51. paragr.

692 Ikus Bizi-historia: Maalada.

Errepublika Arabiar Demokratikoko Hezkuntza Ministerioak baieztatu zuen irakasleek 33 dolar estatubatuarren baliokidea kobratzen dutela hiru hilean behin.

Agintari sahararrentzat lan egiten duten pertsoneri ordaintzen zaien diru kopurua guztiz sinbolikoa da, ez baitu langileen zeregina behar bezala konpentsatzen. Egoera horrek hainbat azalpen ditu: alde batetik, kanpamentuetako biztanle sahararrek nazioarteko laguntzaren mende bizi dira; diru kopuru hori ordaintzeko funtsek laguntza humanitarioan eta nazioarteko lankidetzaren ekintzetan dute jatorria. Alde horretatik, herrialde boteretsuenek Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa ez aitortzea laguntza eta haren kudeaketa murrizten ditu, finantzatzaile atzerritarrek kanpamentuetan egin daitekeen funts horien erabilerari muga zehatzak jartzen dizkioten neurrian.

Sektore publikoetako enpleguetan aritzeaz gain, zenbait gaztek nazioarteko lankidetzako erakundeen proiektuei lotuta lan egiten dute, nahiz eta oso gutxik dituzte lanpostu finkoak sektore horretan. Beste gazte batzuk eraikuntzan, lantegi mekanikoetan, taxi-gidari, elikagai- eta arropa-saltokietan eta antzekoetan aritzen dira, beren familien oinarritzko beharrak asetzeko asmoz. Enplegu horiek soldata eskasa izan ohi dute, eta ez dira nahikoak herritar guztiak haietan jarduteko.

Aukera horiek pertsona batzuei diru apur bat irabaztea ahalbidetzen dieten arren, ez dituzte erabat setzen biztanle gazteen enplegu-nahiak. Errefuxiatuen kanpamentuetan egindako gazte sahararrei buruzko azterketa batean, egileek nabarmendu zuten “lanak bizi-proiektuak eraikitzeko eta horiei aurre egiteko itxaropena dakarrela; egungo familia mantentzearena, baina baita bizi-proiektu berriei ekitekoa ere. Gainera, okupazioa eskaintzen du, eta buru-osasuna bermatzen, giza-kiok lanik ezean aisiari emanak bizi garen jardunaldi luzeetako asperdura-aldiak saihesten dituen heinean. Adin txikikoen denbora betetzen duten eskola-jarduerak dira salbuespen bakarra. Langabetuek nahiko lukete lan-munduarekin lotutako prestakuntzak betetzea beren aisia, hura autoenpleguaren ingurukoa balitz ere, baina betiere arlo profesionalari lotuagoa unibertsitate-ikasketei baino”<sup>693</sup>.

### **Lana lortzeko mugen ondorioak Saharako gazteriarentzat**

Lana lortzeko aukera faltak prekaritate sozioekonomikora zigortzen ditu gazte sahararrak eta haien familiak, kanpamentuetan eta lurralde okupatuan. Okupaziopean bizi diren biztanleen kasuan, lan-merkatutik kanpo egotea etorkizun duin bat izatea eragozten dieten muga ugarietako bat da, baina kanpamentuetan hezkuntzaren gainera ikuspegi-aldaketa ere eragiten du. “Nerabeek ikasten jarraitzeari uko egiten diote, atzerriko unibertsitateetan tituluak lortu dituzten aurreko belaunaldiak beren denbora zerekin bete aurkitu ezinik ikusten dituztelako, gainerako guztiak bezalaxe”<sup>694</sup>.

---

693 Vilches Plaza eta Esparza Fernández, *La juventud refugiada en los campamentos saharauis*, 28. or.

694 *Ibidem*.

# Khalil

ADINA: 32 URTE | BIZILEKUA: AAIUN, MENDEBALDEKO SAHARA OKUPATUA

**“Sahararra naizenez eta goi-kontakturik edo inor erosteko dirurik ez dudanik, ezinezkoa da lana lortzea”**

**2**009. URTEAN BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASKETAK AMAITU ZITUENEAN AAIUNEN, Khalilek prestatzen jarraitu nahi izan zuen. Bazekien hezkuntza zela bere etorkizuna eraikitzeko modurik onena. Mendebaldeko Sahara okupatuan unibertsitatearik ez zegoenez, Marokora joan behar izan zuen ikasten jarraitzeko<sup>695</sup>. Okupazioaren ondorioz bere herrialdea utzi behar izatearen eta ikasketek iraun bitartean ordaindu beharreko bidaia- eta ostatu-gastuen bidegabekeria gorabehera, Khalil Marrakexera aldatu zen Historia ikastera. Unibertsitatean, ordea, sekula ez zuen Mendebaldeko Sahararen historia-rekin lotutakorik ikasteko aukera izan.

Ikasketak amaitzean, Khalil Aaiunera itzuli zen eta berehala ohartu zen, unibertsitate-titulu bat izan arren, ezingo zuela bertan lanik topatu. *“Aaiunen, Mendebaldeko Sahara okupatu*

---

<sup>695</sup> Marokoko gobernuak sahararrek soilik Agadirko edo Marrakexeko unibertsitateetan ikastea baimentzen du, Mendebaldeko Sahara okupatutik 600 eta 800 kilometrora, hurrenez hurren.

osoan bezala, ia ez dago sektore pribatu edo independenterik; Marokoko gobernuari lotuta dago dena. Sahararrok, aktibistak izan ala ez, diskriminazioa jasaten dugu eta kolono marokoarrek lehenetasuna dute lanpostu guztietan”.

Horregatik, Khalilek administrazio publikora jotzea erabaki zuen, lanpostuak ustez gardena eta objektiboa den azterketa baten bidez lortzen direlako. “Eguzki-energiako teknikaria izateko ikastaro bat hasi nuen Elektrizitatearen eta Ur Edangarriaren Bulego Nazionalan lan egiteko azterketara aurkeztu aurretik. Baldintza guztiak bete eta azterketa ondo egin nuen arren, hiru urtean zehar –2015, 2016 eta 2017– ukatu didate lanpostu publiko bat administrazio horretan. Esplizituki adierazi ez badidate ere, prozesua benetan gardena eta objektiboa ez delako jarraitzen dut langabezian. Sahararra naizenez eta goi-kontakturik ez dudanez, administrazio publikoan lan egiteko aukera ukatu didate”. Hala ere, 2018. urtearen amaieran berriz ere saiatzea erabaki du, ez baitu Aaiunen lana topatzeko beste aukerarik<sup>696</sup>.

Azken urtean, Khalilek eta beste kide batzuek elkarte bat sortu dute herritar sahararrek jasaten duten diskriminazioa salatzen eta ezagutzera emateko, eta lan egiteko eta bizimodu duina izateko eskubidea eskatzeko. “Zenbaitetan beste elkarte batzuekin batera manifestaldiak antolatzen ditugu Aaiungo kaleetan barrena, eta maiz Marokoko poliziaren errepresioa eta indarkeria jasaten ditugu. Hala eta guztiz ere, niretzat ezinbestekoa da aktibismoa, gure eskubideez gozatu ahal izateko, gure duintasuna defendatzeko eta gure etorkizuna eraikitzeko”.

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

HEZKUNTZA-ESKUBIDEA, LAN-ESKUBIDEA, DISKRIMINAZIOK EZA, BIZI-MAILA EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA, BILTZEKO ETA ELKARTZEKO ASKATASUNA, AUTODETERMINAZIOARAKO ESKUBIDEA.

---

696 Administrazio publikoan lanean diharduten sahararrei buruzko datuak ezagutzeko, ikus X.

## Bizi-maila egokia izateko eskubidea

Gazte sahararrentzat, beren herriaren autodeterminazio-prozesuaren atzerapen onartezina da biztanle gehiengoak pairatzen dituen bizi-baldintza gogorrek betikotzearen arrazoia. Ustez aldi baterakoa zen milaka errefuxiatuen egoeraren luzatzeak kanpamentuetako biztanleak laguntza humanitarioarekiko mendekotasunean haztea eragin du, beren bizi-baldintzak hobetzeko aukerarik gabe. Tokialdatze behartu horren ondorioak Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldean bizi diren gazteek ere pairatzen dituzte. Isolamenduak zaildu egiten du bizi-baldintzei eusteko ezinbestekoak diren ondasunak eta materialak bertara iristea. Bestetik, lurralde okupatuko gazteek okupazioaren aurreko erresistentzia modu gisa baloratzen dute beren herrikideek kanpamentuetan eta Fronte POLISARIOAREN kontrolpeko lurraldean jasaten dituzten baldintza gogorrak. Okupaziopean bizi diren gazteak, ordea, beren bizitza hobetzen saiatzen dira bazterketa eragiten eta berdintasunik eza sustatzen duten Marokoko politiken testuinguruan.

## Bizi-maila egokia izateko eskubidearen oinarri juridikoa

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikulua ezartzen du “pertsona orok duela bizi-maila egokia izateko eskubidea, beretzat eta bere familiarentzat; baita elikadura, janzkera eta etxebizitza egokiak izatekoa eta bere bizi-baldintzak etengabe hobetzekoa ere”.

12. Ohar Orokorren bidez, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak elikadura egokia izateko eskubidearen interpretatzeko gidalerroak eskaintzen ditu. Hartan, Batzordeak onartzen du eskubide hori ez dela “era estu eta murriztailean interpretatu behar, kaloria, proteina eta bestelako elikagarri zehatzen multzora mugatuz”<sup>697</sup>. Horren ordez, elikadura egokia izateko eskubideak “elikagaiak norbanakoen beharrak asetzeko kopuru eta kalitate nahikoan izatea eskatzen du, substantzia kaltegarririk gabeak eta kultura jakin baterako onargariak direnak; [eta] elikagai horien eskuragarritasuna modu iraunkorrean, gainerrako giza eskubideez gozatzea zaildu gabe”<sup>698</sup>.

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak hala interpretatzen du Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikulua: “ura eskura izateko eskubidea bizi-maila egokia bermatzeko ezinbestekoen kategoriari dagokio, hain zuzen bizirik irauteko beharrezko baldintzetako bat de-

---

697 Nazio Batuak – Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, *Elikadura egokirako eskubidea* - 12. Ohar Orokorra, E/C.12/1995/5, 6. paragr. (1999ko maiatzaren 12a).

698 *Ibidem*, 8. paragr.

lako”<sup>699</sup>. Ura eskura izateko eskubideak behar negatiboak –askatasunak– eta behar positiboak –eskubideak– eragiten ditu: “askatasunak dira ura eskuratu ahal izateko eta haren horniduran etenik ez izateko edo ur-baliabideak ez kutsatzeko eskubideak. Eskubideen artean daude, ordea, biztanle guztiei uraz gozatzeko aukera berdinak eskaintzen dizkien uraren hornidura eta kudeaketa”<sup>700</sup>.

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikuluan azaltzeaz gain, 4. Ohar Orokorrak etxebizitza egoki bat izateko eskubidea jasotzen du<sup>701</sup>. Hartan, Batzordeak adierazten du “pertsona eta familia orok dutela etxebizitza egoki bat izateko eskubidea, adina, egoera ekonomikoa, talde-filiazioa, gizarte-maila edo bestelako faktoreak gorabehera”<sup>702</sup>. Gainera, hala definitzen du ‘etxebizitza egokia’ kontzeptua: “nahi izanez gero, bertan isolatzeko leku bat; gune egoki bat, argiztapen eta aireztatze egokiak eta oinarrizko azpiegitura egokia dituen, eta lanetik eta oinarrizko zerbitzuetatik distantzia egokira dagoena; hori guztia zentzuzko kostu baten truke”<sup>703</sup>. Hauek dira etxebizitza baten egokitasunerako funtsezko elementuak: haren jabetzaren gaineko segurtasun juridikoa; zerbitzuen, materialen, erraztasunen eta azpiegituraren eskuragarritasuna; gastu onargarriak; bizigarritasuna; kokapena, eta kultura-egokitasuna.

Era berean, osasun-eskubidearen baitan bizitza duin baterako gutxieneko baldintzak ere aipatzen dira: “oinarrizko elikadura, nutritiboa eta segurua dena eta inork gosea pasatzea galarazten duena”<sup>704</sup>. Horrez gain, gogoratu beharra dago Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak ur garbi eta edangarriaz gozatzeko eskubidea eta osasun-baldintza egokietarako eskubidea aitortu dituela, baita elikagai osasuntsuen hornidura egokia, elikadura egokia eta etxebizitza egokia izatekoa ere, horiek guztiak funtsezko osasun-faktoreak dira eta<sup>705</sup>.

Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Konstituzio Afrikarrak esplizituki jasotzen ez badu ere, haren artikuluetako askok babesten dute bizitza duin bat izateko eskubide unibertsala. Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzordearen jurisprudentziak elikadura egoki bat izateko eskubidearen aitorpena ekarri du,

---

699 Nazio Batuak – Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 15. Ohar Orokorra: *ur-eskubidea*, E/C.12/2002/11, 3. paragr. (2003ko urtarrilaren 20a).

700 *Ibidem*, 10. paragr.

701 Nazio Batuak - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 4. Ohar Orokorra: *etxebizitza egokirako eskubidea* (1991ko abenduaren 13a).

702 *Ibidem*, 6. paragr.

703 *Ibidem*, 7. paragr.

704 Nazio Batuak - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 14. Ohar Orokorra: *ahalik eta osasun-maila handiena eskuratzeko eskubidea*, E/C.12/2000/4, 43(b). paragr. (2000ko maiatzaren 11).

705 *Ibidem*, 11. paragr.



pertsona orok maila fisiko eta ekonomikoan elikadura egokia lortu ahal izatean edota hura lortzeko beharrezko baliabideak izatean datzana<sup>706</sup>. Jurisprudentzia horrek berak pertsonak gutxienez beroki bana izateko betebeharra ezartzen du<sup>707</sup>. Alde horretatik, Batzorde Afrikarrak onartzen du pertsona orok duela ur nahikoa, segurua, onargarria, fisikoki eskuragarria eta merkea izateko eskubidea, erabilera pertsonal eta domestikorako zein nekazaritzan baliatzeko<sup>708</sup>.

Era berean, okupazio-egoeretan aplikatzen duen araudiak bizi-baldintza duinak bermatzearekin lotutako betebeharrak aplikatzen ditu. Genevako Laugarren Hitzarmenaren 44. artikulua ezartzen du okupazio-indarrei dagokiela okupatutako lurraldeko biztanleria hornitzea, eta arau horrek elikagaiak barne hartzen ditu<sup>709</sup>.

### **Elikagaiak eta ura eskuratzeko aukera ez-nahikoak kanpamentuetan**

1975ean Tindufen (Aljeria) kanpamentuak jarri zirenetik, elikaduraren gaia oso konplexua izan da lurraldearen baldintzengatik eta nekazaritzarako aukerarik ez

---

706 Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra, *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Ezarpenari buruzko Printzipioak eta Jarraibideak Gizakien eta Herrien Eskubideei buruzko Afrikako Gutunean*, 83-85. paragr.; Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra, *Social and Economic Rights Action Center (SERAC) and Center for Economic and Social Rights (CESCR) v. Nigeria*, 155/96 epaia (2001eko urriaren 27a).

707 *Ibidem*, 77-79. paragr.

708 *Ibidem*, 88. paragr.

709 Genevako Hitzarmenaren 1. protokolo gehigarria, 51. artikulua.

dagoelako. Zorionez, ur-putzu ugari daude inguruan. 1986an, Aljeriako gobernuak eskatuta, Nazio Batuen agentzia humanitarioek lanean dihardute kanpamentuetan eta, Saharako Ilargi Erdi Gorriarekin elkarlanean, laguntza eskaintzen diote bertako biztanleriari<sup>710</sup>. Laguntza horren bitartez, pertsona bakoitzak oinarritzko produktuz betetako saski bat jasotzen du hilero; 2.100 kilokaloria egunean, gutxi gorabehera. Orokorrean, saskiak irina, arrosa, landare-olioa, lekaleak eta elikagai konposatuak dakartza<sup>711</sup>. Horrez gain, produktu freskoak ere banatzen dituzte; tipula eta patatak, adibidez. Pertsona bakoitzeko bi kilo elikagai fresko egunean, gutxi gorabehera, nahiz eta produktu freskoen banaketa nahiko irregularra den, funtsen araberakoa baita<sup>712</sup>.

Elkarrizketatutako gazteen iritziz, beren elikadura-egoeraren gabeziak agerikoak dira. Hazi ahala malnutrizio-sintomak azaleratzen doaz, eta haietako batzuei anemia diagnostikatzen zaie. Egoera are larriagoa da atzerrira doazenean, Oporrak Bakean programaren bidez gehienetan, oso egoera ezberdinarekin topo egiten dutelako. Kanpamentuetako gazte batek dioenez, kanpoan eskura dituzten elikagai mordoak ikusi ondoren beren kanpadendetara itzultzen direnean, “fruituen, barazkien eta haragiaren falta sumatzen dugu”.

Nazioarteko agentziek ere ohartarazten dute elikagaien aniztasun falta larriaz, biztanleriaren ongizatean eragin zuzena duena, batez ere jada luze dirauen errefuxiatu-egoerak nutrizio-mailako gabeziak are larriago bihurtzen dituela kontuan hartuta<sup>713</sup>. Epe laburrean nahiko izan daiteke oinarritzko elikadura, baina hari bizitza osoan zehar eutsiz gero, kalteak eragin ditzake. Era berean, elikagaien banaketarekiko mendekotasuna onartzen dute, eta familietako askok ez dutela beste elikadura-iturri osagarririk.

Gazteak bat datoz: “Dirua izanez gero, behar duzun guztia eros dezakezu”. Ait-zitik, “baliabide ekonomikoen gabeziak oinarritzko dieta merkatuan eros daitekeen haragiarekin, barazkiekin, lekaleekin edo fruituekin osatzea eragozten du”<sup>714</sup>.

Urari dagokionez, inguruan putzuak badaude ere, hura ateratzea, tratatzea, hornitzea eta banatzea zail xamarra da, eta horrek eragiten du biztanleriak ur kopuru egokirik ez izatea. Nazioarteko agentziek onartzen dute ur edangarriaren hornidura pertsona bakoitzak egunean beharko lituzkeen 20 litrotik askoz beherago dagoela, hori izan arren estandar humanitarioen gutxieneko neurria; kanpamentuetako biztanleek batez beste 10 litro ur baino ez dituzte eskuratzen egunean<sup>715</sup>.

---

710 Interagency Group, *Humanitarian Needs Assessment of Sahrawi Refugees in Algeria*, 2018-19.

711 *Ibidem*, 8. or.

712 *Ibidem*, 8. or.

713 *Ibidem*, 9. or.

714 Vilches Plaza eta Esparza Fernández, *La juventud refugiada en los campamentos saharauis*. 69. or.

715 Interagency Group, *Humanitarian Needs Assessment of Sahrawi Refugees in Algeria*, 2018-19, 10. or.



## **Etxebizitza egokien eskuragarritasun mugatua kanpamentuetan**

Kanpamentuetako muturreko egoera klimatikoak direla eta, bereziki garrantzitsua da etxebizitza egoki bat izatea. Saharako familiak Aljeriako lurraldeetako aldi baterako lotura islatzen duten etxebizitza xumeetan bizi dira. Oihalezko kanpadendak eta adobezko eraikuntza xumeak aurki daitezke bost *wilaya* edo kanpamentuetako bakoitzean. *Jaima* izeneko bada ere sahararren etxe tradizionala, hura herri nomada baten kulturari zegokion, iraganean sahararrek abereekin batera libre ibiltzen zirelako basamortuan barrena. Era horretako etxebizitzak ez datoz bat, ordea, egungo bizimodu sedentarioarekin, are gutxiago Aljeriako eremu horretako baldintza klimatikoekin. Kanpamentuetan lanean diharduten nazioarteko agentziek oihalezko kanpadendak banatu ohi dituzte, baina aitortzen dute horiek aldi berean behin berritu behar direla<sup>716</sup>.

Errefuxiatuak Aljeriara erbesteratu zirenean, *jaima* delakoetan bizi izan ziren, baina denborak aurrera egin ahala, aldaketak izan dira kanpamentuetan. Pixkanaka-pixkanaka, beste material batzuk –kasu honetan, adobe eta hareaz egindako buztina– lortu ahal izan zituzten familiek aukera baliatu dute egonaldi mugagabe baterako egokiagoak diren egiturak eraikitzeko. Horrela, eguraldi txarraren aurkako babes hobea eskaintzen duten etxeak eraiki dituzte.

Hala ere, oinarrizko etxebizitza horiek ez da oso fidagarriak, batez ere euri-jasa gogorrek daudenean. 2006ko otsailean, “50.000 eta 60.000 errefuxiatu bitartean gelditu ziren etxerik gabe, buztinezko adreiluz eraikitako etxeek ez zutelako zutik iraun uholdeen erruz”<sup>717</sup>. Kanpamentuetako biztanleriaren parte handi baten etxebizitzen suntsiketa bertako errefuxiatu sahararren zaurgarritasun-egoeraren isla da. Uholdeen ondoren etxe gehienak berreraiki dituzten arren, ez dago etxebizitza egokiagoak eraikitzeko aukerarik errefuxiatuentzat. Horren erakusgarri da 2015ean gertatutakoa, uholdeek milaka etxe suntsitu zituztenean kanpamentuetan<sup>718</sup>. Familia gehienek beren etxeak berreraiki ahal izan badituzte ere, beste batzuek ezin izan dute oraindik beren etxea berreskuratu.

## **Elikagaiak eta ura eskuratzeko aukera ez-nahikoak Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurralde sahararren**

Kanpamentuetan bizi diren eta Fronte POLISARIOAREN kontrolpeko Mendebalde Saharan dauden biztanleen arteko jarioa handia bada ere, elikagaiak eta ura

---

716 InterAgency Group, *Humanitarian Needs Assessment of Sahrawi Refugees in Algeria*, 2018-19, 11. or.

717 Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharari buruz egindako Txostena*, S/2006/249, 17. paragr. Zenbait kasutan, familiek zementuzko blokez egindako etxe bat eraikitzeko diru nahikoa lortu dute; hori da klima gogorri aurre egiteko modurik onena, baina baita garestiena ere.

718 *Ibidem*.

eskuratzeo aukerak ezberdinak dira leku batean eta bestean. Saharako Ilargi Erdi Gorriaren arabera, ezberdintasun hori nazioarteko agentzien politikei egotz dakieke, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldean nazioarteko laguntza humanitariao banatzea eragozten dutelako, nahiz eta lurralde ez-autonomia izan eta MINURSOren (Mendebaldeko Saharan Erreferendum bat egiteko Nazio Batuen Misioa) presentzia gorabehera. Horregatik, bertan eskaintzen den laguntza bakarra Saharako erakundeena eta inguru hartako biztanleak babesteko interes espezifikoa duten atzerriko elkarte txikien ekimen urriena da.

Eremu horretan elkarrizketatutako gazteek adierazi zuten, Aljeriako mugatik hain urrun daudenez, bertara iristeko bide asfaltaturik ez dagoenez eta Saharako gainerako lurraldetik horma batek bereizten dituen, isolamenduak denda txikietan edo Mauritaniarekiko mugatik hurbil dauden merkatuetan saltzen diren elikagai urriak oso garestiak direla. “Hemen ia inork ezin du fruiturik ez barazkirik jan”, azaldu zuten elkarrizketatuko nesketako batek.

Era berean, zaila da ura eskuratzea Fronte POLISARIOAREN kontrolpeko lurraldean. Nahiz eta putzu ugari dauden, ez dago banaketa-sistematik, eta pertsonak behartuta daude putzuetara joatera ur bila. Jarduera hori sahararren tradizio nomadari dagokion arren, pertsonen kontrako minek eta hormak ezartzen dituen oztopoek iturri ezberdinetatik ura eskuratzea zailtzen dute, historikoki betidanik horien mende egon badira ere.

Txosten honetarako elkarrizketatutako erakunde sahararrek adierazi zuten zailtasun handiak dituztela biztanleriari buruzko estatistika-datuak biltzeko, eta kultura nomada aipatu zuten lurraldearen eremu horretan ura eta elikagaiak eskuratzeo aukeren azterketa zehatzagoa egin ezin izateko arrazoi gisa.

### **Kalitatezko ura eta elikagaiak eskuratzeo aukera ez-nahikoak lurralde okupatuan**

Marokok okupatutako Mendebaldeko Sahararen lurraldean, gizartearen bizimodu sedentarioak merkatu-ekonomiaren inposaketa eragin du; haren bidez, pertsonak Marokoko merkataritzako elikagaiak erosten dituzte. Ez dago laguntza-ekimenik, eta nekazaritza-jarduera urria da eremuan, biziraupena asmo duenik ere ez. Ur-horniduraz Marokoko Elektrizitatearen eta Uraren Bulego Nazionala arduratzen da, eta hileroko tarifaren ordainketa eskatzen du.

Oro har, Saharako biztanleak txirotasun-egoeran bizi dira; lana lortzeko aukera urriek modu egokian elikatzeo produktuak erostea zailtzen dute. Merkatuan badira elikagaiak, baina salneurri garestiegiak dira lurralde okupatuan bizi diren sahararrentzat.

Ez dago informazio estatistiko zehatzik sahararrek lurralde okupatuan elikagaiak edo ura eskuratzeo dituzten aukerei buruz. Hala ere, Nazio Batuen Elikadurarako eta Nekazaritzarako Erakundearen arabera, Marokoko hegoaldeko eskualdeek –hau

da, Mendebalde Saharako lurraldea– dituzte haur nutrizioko maila eskasak eta malnutrizio tasa altuenak, Marokoko gainerako eskualdeekin konparatuta<sup>719</sup>.

Elkarrizketatutako pertsonen esanetan, okupatutako lurraldeko etxeetara iristen den ura ez da edangarria, eta horrek behartu ditu ur-botilak erostera. Elikagaiak erosteko aukerak murrizten dituzten baldintza sozioekonomiko berberrek mugatzen dute ur edangarria erosi ahal izatea.

Horrez gain, herritarrek etxeetara iristen den uraren prezio altuaz kezak dira. Marokoko Elektrizitatearen eta Uraren Bulego Nazionalak eskualde ezberdinetako ur edangarriaren tarifak argitaratzen ditu, ‘Saharako Probintzien Eskualdekako Zuzendaritzakoak’ izan ezik, neurri batean Saharako lurraldeari dagozkionak<sup>720</sup>. Era berean, Marokoko Elektrizitatearen eta Uraren Bulego Nazionalaren barruan Uraren Kalitatearen Kontrolerako Sail Nagusi bat bada ere, ez da eskualde horretako uraren kalitateari buruzko daturik argitaratu. Uraren konposizioari eta substantzia kaltegarrien presentziari buruzko informazio zehatzaren faltak Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuko biztanleen osasunerako arriskuak egon daitezkeela pentsarazten du, eta horrek kezka handia eragiten du herritarrengan.

### **Etxebizitzen kultura-desegokitasuna eta segurtasun falta lurralde okupatuan**

1975ean lurraldea inbaditu zuenetik, Maroko Erresumak milaka marokoar zibil bidali ditu Saharako lurralde kolonizatzerako. Horrek argi islatzen du Marokoko estatuko duen lurraldearen demografia aldatzeko asmoa<sup>721</sup>. Izan ere, marokoar zibilen birkokapena sustatzen duten politiken bidez, Saharako biztanleak beren lurraldean gutxiengo izatea lortu dute<sup>722</sup>. Genevako Laugarren Hitzarmenaren 49. artikulua debekatu egiten du estatu okupatzaileak bere biztanleria zibilarren parte bat okupatutako estatura lekualdatzea<sup>723</sup>. Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak azaldu duenez, printzipio hori da nazioarteko zuzenbidearen oinarria<sup>724</sup>.

Lurralde okupatuan, okupazioaren hasieratik, herrixkak hazi egin dira Marokoko pertsona eta enpresen eraikin eta etxeen eraikuntzaren ondorioz. Enpresek halako proiektuetarako diru-laguntzak jasotzen dituzte. Horregatik, etxebizitza

---

719 Nazio Batuak – Elikadurarako eta Nekazaritzarako Erakundea, *Maroko - Laburpena*.

720 Marokoko Erresuma – Elektrizitatearen eta Ur Edangarriaren Bulego Nazionala, *Les tarifs de l'eau potable*.

721 Beste testuinguru batzuetan, Segurtasun Kontseiluak halako ekimenak salatu ditu. Israelgo lurralde okupatuei dagokien egoerari buruz, ikus 446 Ebazpena (1979ko martxoaren 22a); 452 Ebazpena (1979ko uztailaren 20a); 476 Ebazpena (1980ko ekainaren 30a); eta Irakek Kuwaiten bizi duen egoerari buruz, ikus 677 Ebazpena (1990eko azaroaren 28a).

722 Marokoko Erresuma, 2-76-85 dekretua; 2-76-122 dekretua (1976ko martxoaren 1a); 2-76-205 dekretua (1976ko apirilaren 12a); eta 1-76-496 dekretua (1976ko uztailaren 10a).

723 Genevako Laugarren Hitzarmena, 49. artikulua, 6. paragrafoa.

724 Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea, *IHL Database: Rule 130. Transfer of own civilian population into Occupied Territory*.

gehienak marokoar jabetzakoak dira, eta egoera horrek bertako sahararrak marokoar kolonoei alokairua ordaintzera behartzen ditu. Lurralde okupatuan elkarriketatutako sahararrei onartezina iruditzen zaie marokoar bati ordaindu beharra beren lurraldean dagoen etxe batean bizi ahal izateko.

Tentsioa da nagusi biztanle sahararren eta marokoar kolonoen arteko elkarbizitzan. Izan ere, zenbait familia sahararren etxeen aurkako erasoak izan dira. 2011ko otsailean, adibidez, Dakhlan musika-jaialdi bat antolatzen ari zirela, hainbat eraso izan ziren inguru hartako biztanle sahararren aurka, eta haien hirurogeita hamar etxe erre zituzten<sup>725</sup>. Indarkeria mota hura jasateko arriskuak biztanle sahararrek etxebizitza egoki bat izateko eskubidea kaltetzen du.

### **Bizi-maila egoki batez gozatzeko gabezien ondorioak gazteria sahararrentzat**

Kanpamentuetan zein lurralde okupatuan, etxebizitzaren segurtasun faltak are larriagoa egiten du gazteen zaurgarritasun-egoera, eta babesgabetasun-sentsazioa sorrazten die, beren familiei eta beren bizitzari berari eragiten diena. Gainera, elikadura egokia eta ur nahikoa izateko oztopoek ondorioak dituzte kanpamentuetan, Fronte POLISARIOAREN kontrolpeko lurralde sahararrean eta lurralde okupatuan bizi diren gazteen hazkuntza osasuntsuan eta haien ongizate fisiko eta emozionalean.

## **Osasun-eskubidea**

Munduko leku askotan, gazteek normalean ez diote osasunari arreta handirik eskaintzen, hain zuzen gazteak direlako. Baina gazte sahararren kasuan alderantziz gertatzen da. Beren esperientziak osasun-arreta jasotzeko dituzten mugak ezagutzera eramane dituzte. Oporrak Bakean programan izandako bizipenak direla eta, kanpamentuetako gazte sahararrak bertako osasun-zerbitzuen gabeziez jabetu ziren, ordura arte ezagutzen zuten errealitate bakarria Espainiako osasun-sistemarekin konparatu ondoren. Lurralde okupatuan, gazteek aitortu zuten lurraldean zeharreko osasun-zerbitzuen eskaintza-mailako gabeziak eta osasun-langileen eta agintarien arteko konplizitatea politika diskriminatzailearen parte direla.

### **Osasun-eskubidearen oinarri juridikoa**

Nazioartean, osasun-eskubidearen babes handiena Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. artikuluan adierazita dago, horrek bermatzen baitu “pertsona orok ahalik eta osasun fisiko eta buru osasun onena izateko eskubidea”.

---

725 Giza Eskubideen Batzordea, Eskubide Kulturalen Arloko Aditu Independentek egindako Txostena, Farida Shaheed, Marokorako Misioa, A/HRC/20/26/Add.2, 76. paragr.

Eskubide horrek estatu sinatzaileak haurren heriotza-tasa murrizteko eta gaixotasunak prebentzio eta tratamendurako neurriak hartzera behartzen ditu, eta, aldi berean, gaixo orok osasun-zerbitzuen arreta jasotzeko baldintzak bermatzen ditu.

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak hala interpretatzen du 12. artikulua: “osasun-eskubidea ahalik eta osasun-mailarik handiena lortzeko beharrezkoak diren erraztasunez, materialez, zerbitzuez eta baldintzez gozatzeko eskubidetzat hartu behar dugu”<sup>726</sup>. Batzordearen esanetan, osasun-eskubideak elementu hauek bermatzea eskatzen du: eskuragarritasuna, onargarritasuna eta kalitatea<sup>727</sup>. Gainera, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. artikuluan aipatutako ‘ahalik eta osasun-mailarik handiena’ kontzeptuak “kontuan hartzen ditu norbanakoen oinarrizko baldintza biologiko eta sozioekonomikoak eta estatuen baliabideak”<sup>728</sup>. “Osasun-eskubidea bermatzeko eskura dituen baliabide guztiak erabiltzeko prest ez dagoen estatuak 12. artikuluan agertzen diren betebeharrak urratzen ditu”.

Estatuek osasun-eskubidea errespetatzeko duten betebeharrak edozein pertsonari –baita presoei edo atxilotuei ere– osasun-zerbitzuak ukatzeko debekua eskatzen du. Osasun-eskubidearen oinarrizko betebeharratiko bat da osasun-zentro, material eta zerbitzuak biztanleriaren eskura jartzea, inolako diskriminaziorik aplikatu gabe<sup>729</sup>. Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak adierazi du osasun-eskubidearen betebeharraren urratze argia dela, adibidez, “izatezko diskriminazioaren ondorioz, pertsona edo gizatalde jakin batzuei osasun-zentro, material eta zerbitzuak ukatzea”<sup>730</sup>.

Bestalde, Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarrak hau ezartzen du 16 artikuluan: “pertsona orok du ahalik eta egoera fisiko eta buru-egoera onenaz gozatzeko eskubidea”, eta, horretarako, estatuak “herritarren osasuna babesteko eta gaixorik daudenean osasun-arreta bermatzeko neurriak hartu behar dituztela”. Alde horretatik, “eskubide inklusibo bat da, ez baitu soilik osasun-arreta egokia barne hartzen, baizik eta oinarrizko osasun-faktore garrantzitsuak ere”<sup>731</sup>.

Nazioarteko zuzenbide humanitarioak ere osasunaren arloan aplikatzekoak diren arauak ezartzen ditu okupazio-testuinguruetarako. Genevako Laugarren Hitzarmenaren 56. artikulua adierazten du indar okupatzaileari dagokiola

---

726 Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 14. Ohar Orokorra: ahalik eta osasun-maila handiena eskuratzeko eskubidea, E/C.12/2000/4, 9. paragr.

727 *Ibidem*, 12. paragr.

728 *Ibidem*, 9. paragr.

729 *Ibidem*, 43(a). paragr.

730 *Ibidem*, 50. paragr.

731 *Ibidem*, 11. paragr.

“osasun-zentroak eta zerbitzuak eta herri-osasuna eta higiena ziurtatzea eta mantentzea lurralde okupatuan”.

### **Osasun-material eta zerbitzu ez-nahikoak kanpamentuetan**

Kanpamentuetako osasun-zerbitzuak eta arreta nahiko mugatua da herritarren beharrak kontuan hartuta, bertan bizi diren errefuxiatuen osasun-egoeraren kalterako. Legeak bermatzen du osasun-arreta kanpamentuetan, Saharako errepublika Arabiar Demokratikoaren Herri Osasuneko Ministerioaren mende dauden osasun-programen eta profesionalen bidez<sup>732</sup>. Ministerioak argitaratutako datuen arabera, 27 osasun-zentro, eskualdekako 5 ospitale eta ospitale nazional bat dago. Osasun-arretaz profesional sahararrak arduratzen dira, eta nazioarteko lankidetzarako erakundeek babesak mediku eta erizainei ordainketa xumeak egitea ahalbidetzen du; kanpamentuetan, osasun-arreta doakoa da<sup>733</sup>.

Osasun-arretarako zentroak egon arren, eskaintza mugatua da, “ospitaleetan medikuntza orokorra eta obstetrizia zerbitzuak baino ez dira eskaintzen, eta noizbehinkako pediatria-kontsultak”<sup>734</sup>. Kanpamentuetan, osasun-sistemak azpiegitura eta ekipamendu mailako gabezia larriak ditu. Elkarrizketatutako gazteetako batek eskualdeko ospitale batean bizitakoa azaldu zuen. Udako hilabeteetan jo behar izan zuen hara, beso bateko lesioa artatu ziezaioten. Egun hartan 48 °C-tik gora zituzten arren, ez zegoen argindarrik ospitalean eta, hortaz, aireztatze-sistematik edo aire giroturik ere ez. “Batzen, baldintzak hain txarrak dira, ospitalera joateak are okerrago sentiarazten baitizu”, laburbildu zuen.

Kanpamentuetan elkarrizketatutako gazteek baieztatu zuten osasun-zentroak eta ospitaleak biztanle guztiei zabalik daudela, baina, aldi berean, mediku espezializatuak, azpiegitura egokia eta lan-tresnak falta direla adierazi zuten. Zehazki, espezialitate batzuetan noizbehinkako arreta eskaintzen duten medikuak daude; horiek atzerriko batzordeetako kide izan ohi dira eta, beraz, zerbitzu espezializatuak ez daude bermatuta. Egoera hori dela eta, baliabide ekonomiko nahikoak dituzten familiek Tindufeko hirira (Aljeria) jotzen dute osasun-laguntza espezializatu bila.

Gazteen gogoeta horiek bat datoz kanpamentuetako osasun-sistemari buruzko beste adierazpen hauekin: “Arretaren kalitatea eskasa da, ospitaleak oso egoera txarrean daude, batzuek abandonatuak dirudite. Adobezko eraikinak dira, kristalik gabeko lehoi txikiak dituzte, ez dute argirik ez ur korronterik, materiala falta

---

732 Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa – Herri Osasuneko Ministerioa, *Plan Estratégico de Salud 2016-2020*.

733 El País, “Salud para las víctimas del olvido” (2015eko abenduaren 15a).

734 Belén García Villora, “Discapacidad en situaciones de refugio: sistema sanitario y atención a las personas con necesidades especiales en los campamentos de refugiados saharauis de Tinduf,” *Universidad Pontificia Comillas*, 21. or. (2016).

dute, mediku orokor bat edo laguntzaile batek artatzen ditu gaixoak. Lan-tresnen eta botiken gabezia oso larria da<sup>735</sup>.

Era berean, elkarrizketatutako gazteek adierazi zuten kanpamentuetako ospitaleetan ezin izan zizkietela osasun-proba edo azterketa jakin batzuk egin, beharrezko ekipamendurik ez zegoelako. Haietako batzuen kasuan, horrek beren gaixotasunen jarraipena zaildu zuen<sup>736</sup>. Biztanle gazteez ari garela, “truke-programetan parte hartu dutenak kekatzen dira atzerrian asma, anemia edo alergiak diagnostikatu zizkietela, baina kanpamentuetara itzultzean ezin izan zietela herrialde horietan hasitako tratamenduei eutsi”<sup>737</sup>.

Osasun-arreta jasotzeko aukera urriko eta kalitate mugatuko egoera hori oso kaltegarria da kanpamentuetan bizi diren sahararrentzat, are gehiago herritarrek pairatzen dituzten gaixotasun ugariak kontuan hartuta. Hauek dira 2017an argitaratu zen kanpamentuetako gazteria sahararrari buruzko azterketa baten ondorioak: “Gazteen artean nagusitzen ari diren gehiegizko aisialditik, langabeziatik, ezkontzeko zailtasunetatik eta pobreziatik eratorritako egoerek (kontsumo-gizartearen eredia zabaltzen ari da, gazteek telebistan, teknologia berrien bidez edota atzerrira egindako bidaietan ikusitakoagatik) kalte egiten diete gazteriaren zati baten osasun fisikoari eta buru-osasunari. Inguru gogorrek, elikadura-mailako murrizketa gero eta handiagoek, kanpamentuetako batzuetako uraren gatz-kopuru handiak, prebentziorako osasun-baliabideen gabeziak eta abarrek eragin zuzena dute biztanleriaren osasun-egoeran”<sup>738</sup>.

Azterketa horrek berak nabarmendu zuen “gatazka laster konponduko delako itxaropenik eza dela buru-osasunarekin lotutako arazoaren oinarrian dagoen faktoreetako bat”<sup>739</sup>. Alde horretatik, errefuxiatuek egoera horretan hainbat belaunaldi daramatzatela kontuan hartuta, osasun psikosozialaren arloko profesional eta zerbitzuen gabezia are kezagarriagoa da.

### **Osasun-zentro, material eta zerbitzu ez-nahikoak Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako lurraldean**

Saharako zuzenbidearen aplikazioa hormaren ekialdera dagoen Mendebaldeko Saharako lurraldera ere zabaltzen denez, Saharako errepublika Arabiar Demokratioaren Herri Osasuneko Ministerioari dagokio osasun-zerbitzuen eskaintza. Lu-

---

735 Marisa Mundina, “Sistema sanitario del Sáhara Occidental” (2018ko apirilaren 19a).

736 Ikus Bizi-historia: Benine.

737 Vilches Plaza eta Esparza Fernández, *La juventud refugiada en los campamentos saharauis*, 69. or.

738 *Ibidem*, 29. or.

739 *Ibidem*, 44. or.

rralde horretan badira zenbait ospitale eremu militarretatik eta biztanle-guneetatik hurbil, nahiz eta beti ez duten osasun-arretarik eskaintzen<sup>740</sup>.

Inguru horretako herrixken isolamenduak eta biztanle kopuru urriak muga garrantzitsuak dira osasun kalitate gorenaz gozatzeko<sup>741</sup>. Lurralde hartan bizi diren pertsonetako askoren bizimodu nomadak ospitaletik eta osasun-zentroetatik fisikoki urruntzen ditu, osasun-arreta behar dutenean horietara jotzea zailduz. Medikuen ikuspegitik, biztanle nomadekin lan egiteak gaixoen jarraipena egiteko aukerak mugatzen ditu<sup>742</sup>. Ospitaletara jotzen duten gaixoen urritasuna da leku horietara mediku gehiago ez bidaltzeko arrazoietako bat. Faktore horiek guztiak lurraldean osasun-arreta egokia izatea oztopatzen dute. Saharako agintariek muga horiek onartzen dituzte, “kooperazioaren bidez jasotzen dugun laguntza ezin delako leku horietara bidali”<sup>743</sup>.

### **Osasun-zentro, material eta zerbitzuen eskuragarritasun, onargarritasun eta kalitate ez-nahikoa lurralde okupatuan**

Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharako osasun-arreta Marokoko Osasun Ministerioko agintariek kudeatzen dute. Bi eskualdek dute lurralde okupatuari osasun-arreta eskaintzeko ardura, lurraldean barrena sakabanatutako lau ospitaletan<sup>744</sup>.

Osasun-zentro horiek gorabehera, badira lurralde okupatuan osasun-arreta espezializatua jasotzeko aukera falta frogatzen duten lekukotasun ugari. “Lurralde okupatuetan medikuntza orokorra baino ez da eskaintzen, ez dago arreta espezializaturik, ezta ebakuntza-gelarik ere. Medikuntza espezializatuaren, tratamendu zehatzen edo ebakuntza baten beharra dutenean, lurralde horretako biztanleak beste norabait joatera behartuta daude”<sup>745</sup>. Esate baterako, elkarriketatutako gazteen esanetan, ez dago inolako laguntza psikosozialik; saharar askok traumak eta bestelako buru-gaitzak pairatzen dituzte luze dirauen okupazioaren gogortasunaren ondorioz<sup>746</sup>, baina horiek ez dira diagnostikatzen ez tratatzen. Egoera horrek islatzen du zein eskasa den inguruko osasun-arreta; badirudi lurralde ez-autonomoan bizi diren sahararren aurkako politika diskriminatzaile baten emaitza dela, osasun-arreta espezializaturako aukerak askoz handiagoak baitira Marokoko lurraldean<sup>747</sup>.

---

740 Marisa Mundina, “Sistema sanitario del Sáhara Occidental.”

741 Ikus Bizi-historia: Habiba.

742 Gaceta Dental, “El Sáhara más allá de los campamentos de refugiados” (2018ko martxoaren 11).

743 Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa - Herri Osasuneko Ministerioa, *Plan Estratégico de Salud 2016-2020*, 15. or.

744 Marokoko Erresuma - Osasun Ministerioa, *Directions régionales de la Santé; Établissements de sante*.

745 Landaluce, et. al., *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, 54. or.

746 Maitane Aronso eta Carlos Martín Beristaín, “Collective Memory and Human Rights Violations in the Western Sahara: Impact, Coping, and Demands for Reparation,” *Peace and Conflict Journal of Peace Psychology*, 567. or. (2014ko azaroa).

747 *Ibidem*.



Lurralde okupatuan elkarrizketatutako pertsonak sahararren aurkako jokaera diskriminatzaileak salatu zituzten Marokoko ospitalean, bereziki manifestaldien eta bestelako ekintza politikoen ondorio diren arreta-beharren kasuan. Elkarrizketatuetako batzuek Marokoko ospitaleetan arreta ukatu zitzaizela kontatu zuten. Haie-tako bat Aaiungo ospitalean egon zen bost egunez, buruan zauriak zituelako, baina denbora horretan ez zuen inolako tratamendurik jaso eta inork ez zion laguntzarik eskaini. Aktibista gazte batek zauri larriak jasan zituen, baina, hala eta guztiz ere, medikuek ez zuten berehala artatu; polizia iritsi arte itxaron zuten gaixoa aztertzeko.

Hasieratik bertatik diskriminaziorik ez dagoen kasuetan ere, sahararrek erre-presaliak jasaten dituzte osasun-zentroetara jotzeagatik. “Osasun-sistema herri sahararren aurkako zigor moduan erabiltzen dute, eta presioa gero eta handiagoa da hartara gertaera politikoren baten ondorioz jotzen dutenengan edo aurrekari politikoak dituztenengan eta haren senideengan”<sup>748</sup>.

Ildo beretik, Nazio Batuetako idazkari nagusiak onartu zuen 2015ean salaketak jaso zituela “zauritutako manifestariei eta atxilotuei ez zitelako osasun-arretarik eskaini eta, hortaz, ezin izan zutelako jasandako indarkeria froga zezakeen mediku-agiririk lortu”<sup>749</sup>. Era berean, lurraldeko osasun-egoerari buruzko beste azterketa baten arabera, “ez da ohikoa medikuek gaixoei inolako agiririk entregatzea. Ordaindu egin beharra dago eta, hala eta guztiz ere, kasu guztietan ez zaizkie ematen”<sup>750</sup>.

Horrez gain, bada medikuen zabarkeriarako joera nabarmena pertsona sahararrekiko, osasun-zerbitzuen onargarritasuna eta kalitatea murrizten duena. Elkarrizketatutako familia batek aitak poliziaren indarkeriaren ondorioz buruan zauriak jasan zituenean gertatutakoa kontatu zuen. Aaiungo ospitalean oihal zati zikin bat utzi zioten buru barruan jostura egin ziotenean, eta horrek zauria gairikoa ekarri zion. Era berean, Dakhlako hiri okupatuan bizi diren saharar asko mesfidati dira Dakhlako ospitale militarreko medikuekiko, gaixo sahararrekiko us-tezko zabarkeriak direla eta; horien artean, 2014an jazotakoa, Hasan al Uali preso sahararren heriotza eragin zuena<sup>751</sup>.

Badira beste arrasto batzuk lurralde okupatuko osasun-zerbitzuak sahararrentzat onargarriak ez direla pentsatzeko. Lurralde okupatuan elkarrizketatutako pertsonak, poliziaren eraso baten ondoren osasun-arreta behar dutenean, ospi-

---

748 Landaluce, et. al., *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, 54. or.

749 Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharari buruz egindako Txostena*, S/2015/246, 56. paragr.

750 Landaluce, et. al., *Una brecha en el muro: Informe colectivo sobre las vulneraciones de los derechos económicos, sociales y culturales en el Sahara Occidental ilegalmente ocupado por Marruecos*, 63. or.

751 La Vanguardia, “Una decena de independentistas saharais detenidos en protestas en Dajla” (2015eko irailaren 29a).

taleetara jotzeko beldur dira; haietako batzuek azaldu zuten, “ospitaleetan, medikuek poliziaren aginduak betetzen dituzte, eta atxilotu gaitzakete”. Horregatik, saharar asko ez doaz ospitaleetara eta, beraz, ez dute beharrezko osasun-arreta jasotzen. Modu berean, lurralde okupatueta elkarriketatutako pertsona batzuek adierazi zuten, Aljeriara edo Marokora joan behar izan zuten tratamendu eske, Aaiungo ospitalera joateari arriskutsuegia irizten ziotelako.

Nabarmentzekoa da osasun-sistema publikoa ez dela lurralde okupatuko osasun-zerbitzu bakarra, ospitale pribatuak ere badirelako. Baina osasun-sistema pribatua garestiegia da biztanle saharar gehienentzat.

### **Osasun-eskubidearen mugek ondorioak Saharako gazteriarentzat**

Kanpamentuetako eta Mendebaldeko Saharako bi eremuetako osasun-zentro, material eta zerbitzuen mailako mugek biztanle sahararrek osasun-mailarik gorenaz gozatzeko duten eskubidea bermatuta ez dagoen egoera bat islatzen dute. Egungo egoeraren lege-ardurak albo batera utzita –horiek aurrerago aztertuko ditugu–, osasunaren arloko babesgabetasuna oso faktore kaltegarria da gazteria sahararraren ongizate fisiko eta mentalerako.

# Mariam

ADINA: 21 URTE | BIZILEKUA: MARRAKEX, MAROKO

**“Marokoarra naizelako itxurak egin behar izan ditut askotan, tratu duina jasotzeko. Gaur egun, horrela jokatu izana damutzen zait”**

**1** 7 URTE ZITUELA, MARIAMEK GURASOEN ETXEA UTZI ZUEN ETA AMONAREKIN bizitzera joan zen Aaiun okupatuaren erdigunera, sahararren aktibismo politikoaren erdigunea izateagatik ezaguna den Maatallah auzora, hain zuzen. “Gdim Izikeko kanpamentuan egon ez banintzen ere, Aaiungo kaleetan hura desegin ondoko indarkeriaren lekuko izan nintzen: atxiloketak, erasoak eta zaintza”. Berak, ordea, ez zuen sekula manifestaldietan eta gainerako erresistentzia-ekitaldietan parte hartu; familia handi baten alaba txikietako bat da eta sufrimendua handiegia zen jada haren neba eta ahizpa nagusiagoen aktibismoa zela eta.

Mariamek oinarrizko ikasketak burutu zituen eta, Marokoko bi unibertsitateen artean aukeratzeko unea iritsi zenean, Mariamek Marrakexera joatea erabaki zuen. Han, indarkeria-maila bera ikusi ez bazuen ere, imaginatu ezin zezakeen errealitate bati aurre egin behar izan zion. “Ostatu bila hasi nintzenean, apartamentu asko bisitatu eta jabeekin alokairu-kontratuari buruz hitz egin behar izan nuen. Laster ohartu nintzen sahararron ‘mehlfa’ tipi-koak haien errefusa eragiten zuela; batzuek atea itxi zidaten mutur aurrean. Etsita, ostaturik

*gabe, nire janzkera aldatu nuen eta emakume 'hijab' delakoa eta gona edo praka batzuk janzen hasi nintzen, emakume marokoarren antzera. Nirekiko jarrera erabat aldatu zen orduan: ondo hartzen ninduten, modu egokian hitz egiten zidaten, kalean ez zidaten gaizki begiratzen...". Hori nahikoa ez balitz bezala, Marokoko Erresumak indar okupatzaile gisa Mariami emandako nortasun-agirian "SH" letrak ageri dira, Mendebaldeko Sahararen kodea, alegia. "Alokairuko apartamentuetako jabeei agiri hura aurkezten nienean, ez zidaten etxea alokatu nahi, sahararra nintzelako. Beste aukerarik ezean, marokoarra nintzela esan nien, Rabaten jaio nintzela baina Mendebaldeko Sahara bizitzera joan behar izan nuela, kolono marokoar askok bezalaxe". Soilik gezurra esanez lortu zuen Mariamek ostatua Marrakexen.*

Diskriminazioa ez zen hor amaitu. Mariamek 'mehlfa' janzen zuen edo nortasun-agiria erakutsi behar zuen bakoitzean, sahararra dela ukatzea beste aukerarik ez du nahi dituen zerbitzuak eskain diezazkioten. "Saltoki-gune bateko Zara denda batean, lagun saharar batzuk eta ni 'mehlfa' tipikoaz jantzita gindoazela, segurtasun-agenteak ez zigen sartzen utzi Mendebaldeko Sahara Marokoren parte dela "onartu" genuen arte. Egoera deseroso hartan urduri eta haserre, nire lagunetako batek Mendebaldeko Sajarakoak ez ginela erantzun zion, Mauritaniakoak baizik, bertan ere emakumeek 'mehlfa' jantzi ohi dutelako. Azalpenarekin konforme, segurtasun-agenteak dendan sartzen utzi zigen". Beste batean, Mariam Marrakexen ospitaleratu zuten, eta bere nortasun-agiria aurkeztu behar izan zuen. "Erizainak, oxigeno-tanga konektatu aurretik, Sahara Marokoko lurraldea ote den galdetu zidan. Banekien, tratamendua jaso nahi banuen, ezin niola ezetz erantzun. Buruaz baieztatu egin nion eta irribarre egiten saiatu nintzen, erizainak behar nuen tratamendua eskain diezadan".

Marrakexen bizitzeak eta Aaiunen okupazioaren errealitatea ezagutu izanak ikasketak atzerrian jarraitzea eraman dute Mariam, etorkizun hobe baten bila. Aitak eta haren nebetako batzuek herritartasun espainiarra dute, aita Mendebaldeko Sahara Espainiako probintzia bat zen garaian jaio baitzen, baina Mariamek ezin izan du estatus hori lortu, Marokoko agintariak abizena aldatu diotelako nortasun-agirian. "Marokoarren lexikoak nire abizena jasotzen ez duenez, hura beste modu batera idatzi dute, abizen marokoarren antza izan dezan. Aldaketa horrek nire legezko abizena eta aitarena bat ez etortzea eragin du, eta aitaren herritartasunaren abantailaz gozatzea eragotzi dit".

#### TARTEAN DAUDEN ESKUBIDEAK:

**DISKRIMINAZIORIK EZA, BIZITZA KULTURALERAKO ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIOERAKO ESKUBIDEA.**

## Kultura-bizitzarako eskubidea

Kultura da biztanle sahararrak batzen dituen ezaugarrietako bat; gaur egun leku ezberdinetan bizi badira ere, kulturak herri sahararra banatzen duten hormak gainditzen ditu. Partekatzen dituzten tradizioak eta autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapenarekiko konpromisoa dira sahararren nortasunaren bereizgarriak. Aldi berean, kultura sahararra garapen bidean dago, beren herriko ohiturak egungo errealitatera egokitzen ari diren gazteen esku. Mendebaldeko Saharako lurraldearen aldaketa demografikoaren aurrean, kultura sahararren iraupena lehenesten dute herri gisa desagertzea ekiditeko.

### Kultura-bizitzarako eskubidearen oinarri juridikoa

Kultura-eskubideak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikuluan jasota daude: “Pertsona orok du komunitatearen kultura-bizitzan libreki parte hartzeko eskubidea”. Eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 15. artikulua aitortzen du “pertsona orok kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidea”. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak ere “gutxiengoek berezko bizitza kulturala, berezko erlijioa praktikatzera eta berezko hizkuntza erabiltzeko duten eskubidea” babesten du. Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordearen 21. Ohar Orokorraren arabera, babesa arlo publiko eta pribatura zabaltzen da<sup>752</sup>.

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak horrela interpretatzen du ‘kultura-bizitza’ kontzeptua: “kultura bizi-prozesu historiko, dinamikoa eta eboluziozkotzat ulertzen du, iragana, oraina eta etorkizuna duena”<sup>753</sup>. Alde horretatik, ‘kultura’ halaxe defini daiteke: “bizi-formak; hizkuntza; idatzizko eta ahozko literatura; musika eta abestiak; keinu bidezko hizkuntza; erlijio- eta sineskera-sistemak, errituak eta zeremoniak; kirolak eta jolasak; ekoizpen-metodoak edo teknologia, inguru naturala eta gizakiek eraldatutakoa; janaria, jantziak eta etxebizitza; arteak, ohiturak eta tradizioak... horien guztien bitartez, norbanakoek, gizataldeek eta komunitateek beren gizatasuna eta beren existentziaren zentzua adierazten dute, eta beren bizitzari eragiten dieten kanpo-indarrekin bat egitea irudikatzen duen haren munduaren gaineko ikuspegia osatzen dute. Kulturak norbanakoek, gizataldeen eta komunitateen ongizate-balioak eta haien bizitza ekonomiko, sozial eta politikoa islatzen eta eratzen du”<sup>754</sup>.

Gainera, Batzordeak adierazi duenez, kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidea “askatasun-ekintzat jo daiteke”. Horretarako, beharrezkoa da estatuak “kultu-

---

752 Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 27. artikulua.

753 Nazio Batuak - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 21. Ohar Orokorra - Gizaki orok bizitza kulturean parte hartzeko daukan eskubidea, E/C.12/GC/21, 11. paragr. (2010eko maiatzaren 17a).

754 *Ibidem*, 13. paragr.

ra-ekimenak ez debekatzea eta kultura-ondarearen zabalkunde askea ahalbidetzea, eta, aldi berean, kultura-bizitzan parte hartu ahal izateko, hura sustatzeko eta kultura-ondarea zabaltzeko alde aurreko baldintzak egotea bermatzeko neurri positiboak hartzea”<sup>755</sup>.

Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarrak kultura-eskubideak bermatzen ditu 17.2. artikulua bidez: “Pertsona orok libreaki parte hartu ahal du bere komunitatearen kultura-bizitzan”. Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarraren arabera, eskubide horrek “oztopoen aurrean kultura-bizitzaz gozatzeko askatasuna, sortzeko eta kulturari ekarpena egiteko askatasuna, nor bere kultura aukeratzeko askatasuna eta berezko kultura aldarrikatzeko askatasuna barne hartzen ditu”<sup>756</sup>.

### **Izen marokoarren inposaketa lurralde okupatuan**

Elkarrizketatutako pertsonetako askok salatu zuten Marokoko politikak debekatu egiten duela lege-erregistroan abizen bat baino gehiagoko izenak inskribatzea. Horrek herri sahararren ohitura mugatzen du, gurasoen eta aitona-amonen izenak erabili ohi dituztelako abizen moduan. Eskubide kulturaleri buruzko Nazio Batuen Aditu Independentek debekua gaitzetsi du, eta bere kezka adierazi du sahararrei beren seme-alabentzat nahi dituzten izenak erregistratzeko izatezko eskubidea ukatzen zaiela ikusita. Egoera bereziki nabarmena da, ohitura sahararrei jarraikiz, marratxo batez lotutako abizenak inskribatu nahi dituztenean<sup>757</sup>.

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordearen arabera, kultura-bizitzan parte hartzeak pertsona orok bere nortasuna aukeratzeko duen eskubidea barne hartzen du<sup>758</sup>. Mendebaldeko Saharan jaiotako pertsonak beren ondorengoak izendatzeko forma tradizionala deuseztatzen eta debekatzen duen modu baten inposaketa sahararren kultura-eskubideen aurkako jokaera da.

Praktika horrek eragina du nortasun juridikorako eskubidean, Marokoko legegaren inposaketak izenak bertako administrazioaren eskakizunetara egokitzen ez dituzten sahararren aitorten juridikoa saihesten duen neurrian. Are gehiago, elkarrizketatutako batzuek kontatu zuten, Marokoko erregistroko funtziona-

---

755 *Ibidem*, 6. paragr.

756 Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra, *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Ezarpenari buruzko Printzipioak eta Jarraibideak Gizakien eta Herrien Eskubideei buruzko Afrikako Gutunean*, 74. paragr.

757 Giza Eskubideen Batzordea, *Eskubide Kulturalen Arloko Aditu Independentek egindako Txostena, Farida Shaheed, A/HRC/20/26/Add.2*, 77. paragr.

758 Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 21. Ohar Orokorra - Gizaki orok bizitza kulturalen parte hartzeko daukan eskubidea, E/C.12/GC/21, 15(a). paragr.

rioek kultura-identitate sahararra islatzen zuten zenbait lehen izen edota soilik errege-familiak erabil ditzakeen izenak inskribatzea ukatu zieten.

### **Oztopoak jarduera nomada tradizionaleri Mendebaldeko Sahararen bi aldeetan**

Marokok Mendebaldeko Sahara okupatzeak herri sahararraren identitatearen beizgarri izan ziren jarduera nomadak libreki burutzea oztopatu du. Abereak leku batetik bestera euri bila eramatea identitate sahararraren oinarritzko jarduera da, baina bereizketa-hormaren eraikuntzak eta artzainak zein ahuntz eta gameluak hiltzeko arriskua dakarten pertsonen kontrako minek eragotzi dute. Nahiz eta pertsona eta familia batzuk jarduera horiei eusten saiatu diren, bizitzaren aurkako arriskuak –bizi-eskubideari buruzko atalean zehaztutakoa– saihesten du biztanle sahararren ohiko jarduera izatea. Ondorioak, lurralde okupatuetakoa biztanleek ez ezik, bertara hurbiltzen diren saharar guztiek ere jasaten dituzte, bermaren ekialdean dauden Mendebaldeko Saharako lurraldeetan zein errefuxiatuen kanpamentuetan bizi.

Kultura-eskubideen arloko Aditu Independentek bere kezka adierazi du pertsonen kontrako minen aurrean, “basamortuari lotutako sahararren bizimodu tradizionala arriskuan jartzen duelako, eta komunitateei aisialdiko jarduerak antolatzea eragozten die”<sup>759</sup>.

### **Etxebizitza saharar tradizionalak eraikitzeko debekua lurralde okupatuan**

Lurralde okupatueta elkarrizketatutako gazteetako askorentzat, 2011n Gdim Izik kanpamentuan gertatutakoa erabakigarria izan zen herri sahararren aurkako kultura-errepresioan. Parte-hartzaileek beren eskubide ekonomiko eta sozialen babes handiagoa eskatu zuten; izan ere, kanpamentu horrek esanahi berezia izan zuen haientzat: “Okupazioa hasi zenetik galduak ziren komunitate-jarduerak egitea ahalbidetu zigun”.

Kanpamentua osatu zuten ehunka *jaima* tradizionalak suntsiturik geratu ziren Marokoko indar polizialek kanpamentua desegin zutenean. Lehen aipatutako indarkeria-aldiari hasiera emateaz gain, lurralde osoan *jaima* direlakoak erabiltzeko debekua ezartzea ekarri zuen<sup>760</sup>. Debekuari aurre egin dioten familiek erasoak jasan dituzte<sup>761</sup> eta, zenbait kasutan, atxilotuak izan dira<sup>762</sup>. Etxe mota hura muntatzeko debekuak *jaima* horietan biziko liratekeen *frics* edo familia-komunitateen ezarpena saihesten du. Bizimodu tradizional mota hori sahararren identitatearen

---

759 Giza Eskubideen Batzordea, *Eskubide Kulturalen Arloko Aditu Independentek egindako Txostena, Farida Shaheed, A/HRC/20/26/Add.2*, 72. paragr.

760 Adrián Solana Mayayo, “Victorias cotidianas en El Aaiún,” *El País* (2016ko urtarrilaren 7a).

761 Sahara Libre, “Agentes de las fuerzas de ocupación marroquí destruyen un campamento de jaimas de familias saharauis en El Aaiún” (2017ko abuztuaren 27a).

762 Sahara Libre, “Otro atentado con las señas identidad saharauí: Marruecos prohíbe la jaima” (2013ko martxoaren 10a).

eta kulturaren funtsezko alderdia da, eta orain guztiz debekaturik dago Marokok okupatutako lurraldean.

### **Mugak sahararren janzkeran lurralde okupatueta**

Elkarrizketatutako pertsona askok aurre egin behar izan zieten janzkera saharar tradizionalaren gaineko erabileraren arloko mugei; *daraa* izeneko gizonen kasuan, eta *mehlfa* emakumeenean<sup>763</sup>. Lurralde okupatueta zenbait gaztek esan zuten, mugak ikastetxeetan ezartzen dira, batik batik bigarren hezkuntzakoetan, non ikasleek jantzi tradizionalak eramateko adin aproposa duten. Gazte batek kontatu zuen herri-administrazioko bulego batera sartzea debekatu ziotela; eta beste batzuek, aldiz, Marokoko sistema judizialeko epaitegietara sartzea debekatu ziotela, sahararren aurkako epaietara ikusle moduan bertaratu zirenean.

Okupatutako lurraldeetara egindako bisita batean, Nazio Batuen kultura-eskubideei buruzko Aritu Independentek adierazi zuen “oso joera kezagarria dela pertsona saharar batzuek, mehatxuen edo jazarpenaren ondorioz, beren jantzi bereizgarri eta tradizionalei uko egin izana”<sup>764</sup>. Aritu Independentek nabarmendu zuen agintariak behartuta daudela pertsona orok berezko kultura-jardueretan parte hartzeko duen eskubidea errespetatzera eta babestera, hori baita Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak ezarritako betebeharrak bat.

Politika horiek lurralde okupatueta bizi diren sahararrek beren kultura-jardueretan parte hartzea eragozteko asmoa islatzen dute eta, aldi berean, halako praktikak lurralde osoan desagerrarazteko balio dute. Alde horretatik, kultura-eskubideen arloko errelatore bereziak “kolonialismoan bizi diren pertsonen noizbehinka ezartzen zaien asimilazio behartua” deritzonaren adibide argia da<sup>765</sup>. Horregatik, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak seinatu du kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidea beste eskubide batzuei lotuta dagoela; esate baterako, herrien autodeterminazio-eskubideari lotuta<sup>766</sup>.

### **Familia-banaketa berezko kulturari eusteko oztipo gisa**

Biztanle sahararrak hainbat eremu geografikotan banatuta egoteak, esperientzien aniztasun aberatsaz gain, haien kulturaren barruko bereizketa eragiten du. Lurralde okupatueta gazteak giro erabat marokoar batean gizarteratzen eta hez-

---

763 Bizi-historia: Mariam.

764 Giza Eskubideen Batzordea, *Eskubide Kulturalen Arloko Aritu Independentek egindako Txostena, Farida Shaheed, A/HRC/20/26/Add.2*, 75. paragr.

765 *Ibidem*.

766 Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 21. Ohar Orokorra – Gizaki orok bizitza kulturalen parte hartzeko daukan eskubidea, E/C.12/GC/21, 21. paragr.



ten dituzte, eta, horregatik, indar okupatzaileen zenbait ohitura eta haien dialektoa bereganatzen dute. Esperientzia horiek kanpamentuetako herrikideak ez bezalakoak sentiarazten diete, kanpamentuetako biztanleriaren isolamenduak zenbait praktika kulturalen ezarpena eta *hassaniya* delakoaren erabilera zabaldu baitu.

Alde horretatik, familiaren banaketak berezko kulturari eustea zaildu du, eta biztanle sahararrak bizi diren lekuaren araberako kanpo-eragin guztiz ezberdinen mende geratu dira. Horren inguruan, kultura-eskubideari buruzko Nazio Batuen Aritu Independentetarako adierazi du “banatuak izan diren familia sahararrek tradizioen eta balio kulturalen belaunaldi batetik hurrengorako transmisioaren arloko zailtasunei aurre egin behar dietela”<sup>767</sup>.

### **Historia errebisionista Marokoko hezkuntza-sisteman**

Kultura-bizitzarako eskubidea estu lotuta dago hezkuntza-eskubidearekin, azken honen bidez “norbanakoek eta komunitateek beren balioak, erlijioa, ohiturak, hizkuntzak eta bestelako kultura-erreferentziak transmititzen dituztelako, elkarrekitako ulermena eta balio kulturalen errespetua nagusi diren egoera bati bide emanez”<sup>768</sup>.

Marokok lurralde okupatuetan kudeatutako hezkuntza-zentroetan irakasten den historia errebisionistak argi erakusten du Mendebaldeko Sahararen historiaren ikuspegia berariaz eta arrazoi politikoengatik aldatzeko asmoa. Marokoko agintarien jokaera horrek “sahararren tradizioak desagerraraztea eta oroimena deuseztatzea du helburu, soilik bere ikuspegia islatuko duen historia bat sortzeko”<sup>769</sup>. Horrek ez die soilik gazte sahararrei kalte egiten, biztanle marokoarrek ere gatazkaren historiaren bertsio oker bat ikasten dutelako.

### **Etena sahararren kulturaren garapenean**

Kultura-eskubideak gizaki orok duen kultura-garapenari ekarpen egiteko eskumena barne hartzen du. Kultura-eskubidearen alderdi hori etorkizuneko ikuspegi batetik ulertu behar da, horrek islatzen baitu zein garrantzitsua den edozein gizar-tetako gazteentzat, kulturaren garapenaren arduradunak haiek diren neurrian<sup>770</sup>.

Saharako gazteriaren kasuan, luze dirauen Mendebaldeko Sahararen okupazioak gazteei beren kulturaren garapenean parte hartzeko aukera eragotzi die, ze-

---

767 Giza Eskubideen Batzordea, Eskubide Kulturalen Arloko Aritu Independentetarako egindako Txostena, Farida Shaheed, A/HRC/20/26/Add.2, 73. paragr.

768 Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 21. Ohar Orokorra - Gizaki orok bizitza kulturalean parte hartzeko daukan eskubidea, E/C.12/GC/21, 2. paragr.

769 Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, Errelatore bereziak eskubide kulturaleri buruz egindako txostena, A/HRC/31/59, 81. paragr. (2016ko otsailaren 3a).

770 *Ibidem*, 40. paragr.

regin hori lurraldearen askapenaren mendekotzat hartzen baita. Herritar saharar guztiak elkartzeko eta komunitate gisa garatzeko gune fisikorik –lurralderik– ez egoteak ekarpen kulturala oztopatzen du. Bestalde, ukaezinak dira gazte saharar askok bizi diren lekuetan egiten dituzten berrikuntza eta esku-hartze artistikoak, gehienetan horiek oso baldintza gogor eta prekarioetan burutzen badituzte ere.

### **Kultura-eskubideen mugen ondorioak Saharako gazteriarentzat**

Saharako gazteek kultura-bizitzan parte hartzeko dituzten muga ugariak identitate kolektiboa hurrengo belaunaldiei transmititzea eta maila soziokulturalean egungo garaietara egokitzea zailtzen dute. Muga horiek sahararren nortasuna desagerraraztea asmo duten neurrian, kolektiboaren autodeterminazio askerako eskubidea eta egungo gazte sahararren belaunaldiaren gainerako eskubideak arriskuan jartzen dituzte.

## IV

# ONDORIOAK

Saharako gazteria, haren gizartea bezala, fisikoki banatuta dago, baina, aldi berean, beren arbaso komunengandik harago doazen loturak dituzte. Gaur egun, Mendebaldeko Sahararen okupazioaren luzapenak gazte sahararren giza eskubide oinarrikoenei eragiten die. Hain zuzen, okupazioak nazioarteko araudi guztietan –Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, harekin lotutako Itun eta Hitzarmen guztiak, Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Konstituzio Afrikarraren eskualdekako eskubideak... baita nazioarteko itunak izenpetutako estatuei okupazio-tesuinguruetan biztanleria zibilaren eskubideak errespetatzera behartzen dituzten nazioarteko zuzenbide humanitarioaren printzipioak ere– jasotako giza eskubide ugarien urraketa eta debekua dakartza.

Eskubide-urraketa horiek guztiak debeku batetik eratorriak dira: sahararrek beren lurralde historikoarekiko eta beren baliabide naturalekiko herri subirano gisa antolatzeko modua aukeratzeko eskubidearen urraketatik, hain zuzen. Autodeterminazio-eskubidearen ukazioa lehen mailako urraketa da, eta herri sahararrari orokorrean eragiten dio, Saharako gazteriaren eskubideei bereziki. Autodeterminazio-eskubidearen ukazioak Marokoren okupazio luzea eta legez kanpokoak errazten eta, aldi berean, betikotzen du Mendebaldeko Saharan. Hori da herri sahararra hainbat eremu geografikotan banatuta egotearen arrazoia eta, era berean, eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kultural asko ez betetzea eragiten du. Okupazioak Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen ustiapenari bide ematen dio, herri sahararrentzako inolako etekinik gabe, nahiz eta hura den baliabide horien jabe bakarra.

Erreferendum baten edo herri-kontsulta baten bidez, Mendebaldeko Saharak bere lurraldea nola antolatu erabakitzeko oinarriko eskubidea du; hala, estatu independente bat izatea, beste estatu independente baten barruan egotea edo estatu independente batekiko beste edozein harreman-mota aukera dezake. Saharako herritarrei aukera horiek guztiak eskaintzen ez dizkien edozein ekimenek ez du errespetatzen herri sahararraren autodeterminazio-eskubidea. Era berean, biztanleriak bere egitura politikoa finkatu aurretik Mendebaldeko Saharako baliabide

naturalak ustiatzea ez da herri sahararraren erabakiaren ondorio. Ustiapen horrek herriak, autodeterminazio-eskubidearen jabe den neurrian, bere baliabide naturalen gainean duen subiranotasuna urratzen du.

Marokoko estatuak bere lurraldearen barruko eskualde-autonomia eskaini dio herri sahararrari, baina proposamen hura Saharako herritarrek duten erabakitzeke eskubidearen aurkakoa da. Alde horretatik, autodeterminazio-eskubidea eskubide prozesala da; axola duena herritarrek prozesu informatu eta demokratiko baten bidez libreki eta beren borondatez erabaki ahal izatea<sup>771</sup>. Hain zuzen, prozesu hori da Marokok proposatutako autonomiaren inposaketaren eta sahararrek Marokorekin bat egin, independentziaren alde egin edo beste edozein antolakuntza politikorako modua aukeratu ahalko luketen balizko erreferendum baten emaitzaren arteko aldea.

## Saharako gazteria Marokok okupatutako lurraldean

Mendebaldeko Sahararen okupazio luzeak okupaziopean bizi diren biztanle gazteenengan du islarik agerikoena, horiek askoz modu zuzenagoan jasaten baitituzte Marokoko politika anexionisten ondorioak. Marokok lurralde ez-autonomotzat jotzen du Mendebaldeko Sahara, eta gazte sahararren aurkako diskriminazio sistematikoa praktikatzen du, haien eskubide zibil eta politikoak modu larrian urratuz.

Atxiloketa arbitrarioak arrunt bilakatu dira, hainbeste non elkarrizketatutako gazte guztiek egoera hori behin gutxienez jasan duten. Batzuk hainbat aldiz atxilotuak izan dira gaztaroan zehar, beraz, gertaera guztiz mespretxagarri hura dagoeneko ohiturazko erritutzat jotzen dute. Munduko beste leku batzuetako gazteek hondartzara egindako txangoei buruz edo aisialdiko bestelako jardueri buruz hitz egiten duten bitartean, sahararrak atxiloketa-aldian izandako gorabeheri buruz mintzatzen dira lagunartean.

Herri sahararraren adierazpen-askatasunaren aldeko aldarrikapenen kriminalizazioa nabarmen hedatu da, eta gaur egun badira politikaren aginduz epaituak izaten ari diren gazte sahararrak, prozesu-mailako gutxienerako bermerik ez dutenak eta torturaren eta bestelako tratu txarren biktima direnak. Ia gazte saharar guztiek dute loturaren bat preso politikoren batekin, presoak beraiek ez diren kasuetan. Halaxe laburbildu zuen egoera aktibista gazte batek: “Ezer ez da arbitrarioa. Errepresioa kontrolatuta dago eta sistematikoa da”.

Atxiloketa sistematikoak eta kriminalizazioa direla eta, sahararrek desagertu behartuen edo hilketen biktima izango ote diren kezka dute beti. Bi krimen mota

---

771 Batzar Nagusia, 1541 (XV) Ebazpena, VII. printzipioa.

horiek aski ezagunak dira haientzat, Marokok beldurra zabaldu baitu gazte sahararren artean, beren herriaren aldeko aldarrikapenak isiltzeko asmoz. Zigorgabetasun-sentsazioa da nagusi lurralde okupatuetan, eta horrek babesik gabe uzten ditu gazte sahararrak, haien keak eta salaketak erantzunik gabe geratzen direlako, eta, kasurik okerreanean, errepresaliak dakarzkien.

Nazioarteko begiraleak –komunikabideak eta nazioarteko elkartasun-erakundeak– Mendebaldeko Saharako lurraldean sartzeko debekua da bertako gazterengandik eta haien giza eskubideen urraketan eragin handia duen faktoreetako bat. Informazioaren blokeoarekin batera, giza eskubideen urraketa ohikoena dokumentatzeko ahalegin ororen errepresioa gertatzen da; esaterako, aktibista saharar gazteen protesten eta bileren indarkeriaren bidezko dispersioa. kalez jantzitako polizia burututako indarkeria-gertakari horien irudi bakarrak beren bizitza eta beraien familia arriskuan jarritako aktibistek grabatutakoak dira, eta okupazioaren irudikapen ikonikoak dira honezkerok.

Aktibista gazteek jasandako indarkeriaz gain, beste hainbat askatasun eta oinarritzko eskubideren urraketa ere gertatzen da. Egoeraren arabera, mugatuta daude gazte sahararrak joan daitezkeen lekuak. Zaintza ia etengabea da eta, informatzailerarekin eta polizia sekretuaren bidez, kontrol-egoera erabatekoa da. Zaintza horri mehatxuak eta jazarpen gehitzen zaizkio; izan ere, ohikoak dira esku-hartzeak gazte sahararren eta haien familien bizitzan.

Okupaziopean dauden lurraldeetako gazteriaren kasuan ere haien eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak urratzen dira. Hezkuntza-sisteman, gazte sahararrek diskriminazioari aurre egin behar diote ikastetxeetan: Marokoren historia errebisionista ikastera behartuta daude, irakasleek diskriminatzen dituzte, eta goi-mailako hezkuntza jasotzeko aukera mugatuak dituzte, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan unibertsitate ez dagoelako. Unibertsitate-ikasketak Marokon egiten dituzten ikasle sahararrak indarkeria-gertakarien biktima dira, eta hilketak ere izan dira.

Lurralde okupatuetakoko gazteen egoera ekonomikoa prekarioa da, oro har. Biztanleriaren zati handi batek ez du bizimodua atera ahal izateko enplegurik. Diru-sarrerarik ezak gazte sahararren bizi-mailan eragina du. Osasunaren arloan ere diskriminazioa da nagusi, kasu askotan poliziaren erasoaren biktima izandako pertsona sahararrei osasun-arreta ukatzen baitzaie; eta, arreta eskaintzen zaieenean ere, sahararrak mesfidatu ageri dira, ohikoak baitira medikuen aldetik herri-tar sahararren aurkako zabarkeriak.

Eskubide kulturei dagokienez, agintariek estrategia ugari erabiltzen dituzte gazte sahararrek beren kulturaren parte har dezaten eragozteko: zer izen diren onargarriak eta zein ez ezartzen duten arauak edo etxebizitza bat izateko, janzteko edo

hizkuntza mailako mugak. Horregatik, lurralde okupatueta bizi diren gazteak beren kulturatik aldentzera behartuta daude.

Giza eskubideen urraketen zerrenda osoa aipatzeak luze joko luke, baina horiek dira gazte sahararrei eragiten dieten eskubide-urraketa nagusiak. Gazteok inoiz ez dakite zer gertatuko den, eta horrek bizitza-planak egitea edo etorkizunari buruz amestea eragozten die. “Munduko beste edozein herrialdetan, gazteei ‘zer espero duzu etorkizunaz?’ galdera egin diezaiekezu”, azaldu zuen aktibista gazte batek. “Ikasketekin eta lanarekin lotutako ametsak, oporraldiei buruzko ametsak, ezkontzeari eta familia bat osatzeari buruzko ametsak kontatuko dizkizute. Beren bizitzaren eskema bat dute buruan. Hemen, ordea, guztiz ezberdina da. Ez dakigu zer gertatuko den bihar. Gerra, agian. Edo maite senideren baten desagertpena, maite ditugunena, edo gurea. Etorkizun iluna dugu”.

## Saharako gazteria errefuxiatuen kanpamentuetan

Gaur egun oraindik ere errefuxiatuen kanpamentuak egotea Mendebaldeko Sahararen okupazioaren emaitza da. Kanpamentuetan bizi diren gazteentzat, erbestean bizi behar izatea da bere familiek gerraren ondorioetatik salbu mantentzeko ordaindu duten prezioa. Kanpamentuetako gazte sahararrek okupazioaren indarkeria fisikoa jasan ez duten arren, egunero egin behar diete aurre haren ondorioei.

Herri saharararen autodeterminazio askerik ezak gazteak noraezean utzi ditu, erresistentziako orainaren eta askatasun-amets baten artean. Erresistentziaren eraginez, gazteek batere arruntak ez diren egoerak normalizatzen dituzte; esaterako, lurralde arrotz batean bizitzea, indar okupatzaileak haien baliabideak ustiatzen dituela, senideengandik banatuta egotea eta sekula elkar ez ikustea posible dela jakitea, beren jaioterria ezagutzeko aukerarik ez izatea, lurralde okupatuan herrikideek jasaten duten errepresioa eta diskriminazioa ezagutzea, eta indargabe sentitzea *statu quo*a aldatzeko, ‘nazioarteko komunitatea’ bezalako erakunde anbiguenen mende dagoena.

Erresistentziak gazteek giza izaeraren aurkakoak diren bizi-baldintzei aurre egitea eskatzen du. Elikagaiak ez dira nahikoak kopuruari, kalitateari eta aniztasunari dagokienez, eta, gainera, beste gobernu batzuen nahiaren arabera dira. Ura oso eskasa da, eta ez ditu haien hidratazio-, elikatze- eta higiene-beharrak asetzen. Haien etxeak hauskorrak dira, eta beren egonaldi luzearen isla fidela, eta eguraldi txarrak erraz eraisten ditu. Bizi-maila duin batez gozatu beharrean, kanpamentuetako gazte sahararrek giza ongizatearekin bateragarriak ez diren baldintzak jasaten dituzte.

Haien hezkuntza- eta lan-aukera urriek egoera hori areagotzen dute. Hala, gazte gehienek ez dute enplegurik, eta halakorik duten apurrek ez dute diru nahikoa irabazten beren beharrak asetzeko, ordaintzen dieten soldata txikiegia delako.

Era berean, gogoia amestutako etorkizun horretan badute ere, gazte sahararrek ikasteko aukera gutxi dituzte, hezkuntza-sistemaren mugak direla eta. Hain justu, kanpamentuetan bigarren hezkuntzako zentroen kopuru ez-nahikoak gazteak familiengandik banatzera behartzen ditu ikasketak jarraitzeko. Egoera horrek eta lan gaitua lortzeko zailtasunek eragiten dute gazte askok ikasketak uztea.

Kanpamentuetan, gazteak etortzekoa den zerbaiten zain bizi dira, beren kontroletik kanpo dagoen zerbaiten zain, unerren batean halabeharrez etorriko dena, *inshallah*. Eta etorriko den hura –independentzia, justizia edota giza eskubideak– hain garrantzitsua da–, gainerako guztiak itxaron dezake. Ikuspegi eta estrategien trukerako gune bat edo mugimendu parte-hartzaileak eta kolektiboak sortzeko eta gizarte eraldaketarako prozesu batean parte hartzeko aukerak eperik gabe atzeratzen dira, eta prozesuan adierazpen-eskubidea, bilera- eta elkarketa-eskubideak, mugimendu-eskubidea eta parte hartze politikorako eskubide oinarrikoak ukatzen zaizkie.

Gazte sahararrak kontziente dira, beste gobernu batzuek ez bezala, kanpamentuak zuzentzen dituzten Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren ordezkari diren erakundeek ez dutela biztanleen beharrei erantzuteko baliabide ekonomiko nahikorik. Gobernuaren erbestean egonik eta Saharako lurraldearen legez kanpoko okupazio luzearen ondorioz, agintari sahararrek ez dituzte lurraldeko baliabide naturalen ustiapenetik eratorritako diru-sarrerak jasotzen eta, hortaz, kanpamentuetako biztanle sahararrek ezin dute horiez gozatu.

## **Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Saharako gazteria**

Fronte POLISARIOAREN kontrolpean dagoen Mendebaldeko Saharako lurraldea bizitoki duten gazte sahararrak berariaz bereizitako lurraldearen alde batean bizi dira, soilik gutxi batzuek onartutako gobernu baten agintepean, oraindik ere burutu gabe dagoen lurraldearen deskolonizazioaz arduratzeko hara joanak diren nazioarteko indarren laguntza bakarrarekin. Gainera, pertsonen kontrako milaka minen arriskuan bizi dira. Lurraldearen alde horretan bizi diren gazteek kalteak jasateko edo horien ondorioz hiltzeko arrisku bizi dute. Minen arriskuak lurralde okupatuetan bizi direnei ere eragiten dien arren, hiltzeko aukerak askoz handiagoak dira hormaren ekialdean, biztanleriaren sakabanaketatik eta haien bizi-modu nomadagatik.

Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Mendebaldeko Sahararen bizi diren gazte sahararrek lurraldearen isolamenduaren ondorioak pairatzen dituzte maila politiko eta fisikoan. Nazioarteko komunitateak Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa estatu gisa ez onartzeak nazioarteko agentzien arreta eta laguntza ez jasotzea dakar. Gerra krudel baten ondorioz, nazioarteko komunitatearen begietara lurralde ez-autonomia den eremu batera lekualdatutako pertsonen seme-alabak

dira. Inolako muga politikorik zeharkatu ez dutenez, oinarritzko laguntza ukatzen zaie, kanpamentuetako herrikideei ez bezala. Kanpamentuetako programak finantzatzen dituzten nazioarteko agentzia handiek –patruilak eta hegaldiak antolatu ohi dituen eta lurraldean barrena base sofistikuak dituen nazioarteko sistema bereko agentziek, hain zuzen– uko egiten diote eremu horretako biztanleei laguntza humanitarioa bidaltzeari. Hori dela eta, jatorritzko herrialdean bizi diren gazteek ez dute sekula elikagairik ez *jaima* delakorik jaso, eta ezin izan dute parte hartu Mendebaldeko Saharako gerraren biktima diren pertsonen babeserako funtsezkoak diren inongo ekimenetan.

Alde horretatik, lurraldearen isolamendu politikoak haren isolamendu fisikoa betikotzen du, gazte sahararren aukerak murriztuz bizitza duin bat izateko. Oinarritzko elikagaiak egiazko luxu bihurtu dira, inportazioko produktuak erosteko ahalmen ekonomikoa duten familiek baino ezin dituztelako eskuratu, hain dira garestiak. Hala, familia gehienek ez dute nutrizio osasuntsurik. Oinarritzko osasun-zerbitzuak eta ekipamenduak baino ez dituzte eta, hortaz, biztanleen bizitza eta osasuna oso egoera zaurgarrian daude, prebentzioko arreta jasotzeko aukera oso mugatua baita. Baldintza horiek herritarrak noizean behin lurraldetik irtetera behartzen dute, beren oinarritzko beharrak aseko dituen osasun-arreta hobe baten bila.

Azkenik, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako Saharako lurraldean bigarren hezkuntzako zentro nahikorik ez egotea da gazte sahararrei gehien eragiten mugezko bat, eta haietako askok lehen hezkuntzako ikasketak amaitzean ikastetxea uztea dakar. Horrek, gazteen ikaskuntza-prozesua eteteaz gain, haien garapen pertsonala eta bestelako bizimoduak aukeratu ahal izatea eragozten du.

## Saharako gazteria Espainiako estatuko diasporan

Gutxi gorabeherako segurtasun- eta egonkortasun-baldintzak izanda, Espainiako estatuan bizi diren gazte sahararrek ere okupazioaren ondorioei aurre egin behar diete, beren oinarritzko giza eskubideak mugatuta dituztelako. Espainiako estatuari gizaki moduan beren giza eskubide oinarritzkoenak errespetatuak izan daitezen eskatzen dioten belaunaldi gaztea osatzen dute; izan ere, Espainiako estatua da bere ekintzen eta ez-egiteen bidez herri saharararren autodeterminazioa eragotzi duen herrialdeetako bat.

Espainiar agintariek atzerritartzat hartzen dituzenez, gazte sahararrek beren eskubideak errespetarazteko orduan dituzten zailtasun gehienak migrazio-kontrolaren eta atzerritartasunaren arloetan sortzen dira.

Gazte sahararrek diskriminazio sistematikoa jasaten dute erakundeen aldetik espainiar herritartasuna lortzen saiatzen direnean, Mendebaldeko Sahara ez da goelako antzinako beste kolonia batzuen maila berean, eta, hortaz, kolonia horie-



tako herritarrek ez bezala, sahararrek ez dute eskatutako herritartasuna lortzeko inolako lehentasunik. Politika diskriminatzaile horren ondorioz, gazte sahararrak behartuta daude ohiko baldintzak betetzera, eta denbora luzea itxaron behar izaten dute herritartasuna bereganatu arte.

Horrez gain, asiloa edo herrigabetasun-estatusa eskatzen duten gazte sahararrek luzaroan itxaron behar izaten dute beren eskubideak babesteko modu horiek onartzen zaizkien arte, baita torturaren aurreko babesa edo herritartasuna lortzeko eskubideen kasuan ere. Halakoetan, tramiteen luzapena Espainiako erakundeen prozesu-mailako gabezien emaitza da.

Gogoratu beharrekoak dira Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa nazioartean estatu gisa onartua ez egoteak Espainiako estatuan dituen ondorioak. Urte luzeetan zehar, egoera horrek Saharako gobernuaren jurisdikzioan jaiotakoek Espainiako estatuan beren migrazio-eskaerak egitea zaildu zuen. Praktika hau aldatu egin da eta, horrek gazte sahararrei mesede egiten badie ere –espainiar herritartasuna eskatzen duten kasuetan bereziki–, beharrezkoa da aldaketa hori legearen bidez formalizatzea, biztanle sahararrak Espainiako migrazio-sisteman diskriminatuak izango ez direla bermatzeko.



## V

# ERANTZUKIZUNAK, ESKAERAK ETA GOMENDIOAK

Giza eskubideen urraketek eta gabeziek herritar sahararren zaugarritasuna eragiten duten estatu baten edo gehiagoren ekintza edo gelditasuna inplikatzeko dute eta, hortaz, estatu horiek badute sahararrek bizi duten egoeraren gaineko ardura. Saharako gazteriak jasaten dituen eskubide-urraketen kasuan, hainbat dira lege-ardura duten agenteak. Eta ardura hori lege-ardura gainditzen duen eta beste agente batzuek egoeran eragiteko duten ahalmena barne hartzen duen kontzeptu zabalagozat joz gero, are gehiago dira arduradunak. Atal honen helburua da ardura horietako batzuk azaltzea eta agente bakoitzarentzako hainbat eskaera eta gomendio egitea, Saharako gazteriaren giza eskubideen urraketa- gabezia-egoerari amaiera emateko. Era berean, giza eskubideen urraketa ugariekin gertatzen den bezala, maiz bazter uzten diren nazioarteko giza zuzenbidearen printzipioak nabarmenduko dira.

## Marokoko Erresuma

### Marokoko Erresumaren erantzukizunak

Marokok giza eskubideen mailan dituen ardurak giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen neurriak bere lurraldetik kanpo eta okupazio-baldintzetan aplikatzearen ondorio dira. Mendebaldeko Sahara Marokoko lurraldeari ez dagokiola kontuan hartuta<sup>772</sup>, haren presentzia eta Mendebaldeko Sahararen gaineko kontrola egiazko okupazioa dira, nahiz eta kontrol hura legez kanpoko ekintza batzuen emaitza den<sup>773</sup>. Mendebaldeko Sahararen okupazio-egoera dela eta,

---

772 1975ean, Nazioarteko Justizia Gorteak argi adierazi zuen ez zegoela Mendebaldeko Sahararen deskolonizaziorako 1514 (XV) Ebazpena aplikazioa eragin zezakeen lurralde-subiranotasuneko inolako loturarik Marokoren eta Mendebaldeko Sahararen artean. *Ikus Mendebaldeko Saharako kasua*, Iritzi Aholku Emailea.

773 Nazio Batuek - Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 31. Ohar Orokorra: Estatu alderdiei itunean inposatutako betebeharrak juridiko orokorraren izaera, CCPR/C/21/Rev.1/Add.13, 10. paragrafoa. (2004ko maiatzaren 26a).

Maroko nazioarteko zuzenbide humanitarioa (Genevako Laugarren Hitzarmena eta 1. protokolo gehigarria) eta onartutako giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen printzipioak eta xedapenak errespetatzera behartuta dago gaur egun bere okupaziopean dagoen Mendebaldeko Saharako biztanleei dagokienez<sup>774</sup>. Bete beharrekoen artean daude Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, Marokok 1979ko maiatzaren 3an izenpetutakoak biak, eta Torturaren aurkako Konbentzioa, Marokok 1993ko ekainaren 21ean onartua.

Gainera, Marokok autonomia ez den eta deskolonizazio-prozesuan dagoen lurralde bat okupatu izanak ez du lurralde horren estatus juridikoa aldatzen. Sailkapen horrek esan nahi du, Nazio Batuen Gutunaren arabera, Mendebaldeko Saharak hura kudeatzen duen estatuak ez bezalako estatus juridikoa duela, eta estatus horrek autodeterminazio-eskubidea erabat gauzatu arte iraungo duela<sup>775</sup>. Nazio Batuen Gutunak Maroko eta nazioarteko herrialde guztiak behartzen ditu herri sahararraren eskubideak eta interesak errespetatzera<sup>776</sup>. Marokok lurraldearen kudeaketa indarrez bereganatu duenez, ez luke inolako eskubiderik izan beharko ustez anexio beligerantea inplizituki berretsiko lukeen lurraldearen gainean.

### **Marokoko Erresumari egindako eskaerak**

Saharako herriaren giza eskubideen errespetuarekin eta bermearekin lotutako ardurak oinarri hartuta, eskaera hauek egiten zaizkio Marokoko Erresumari:

- Mendebaldeko Saharako lurraldea Marokoko eskualde gisa sailkatzen duten legeak, Nazio Batuen Gutuna eta Afrikako Batasunaren printzipio fundatzailea den *uti possidetis* araua deuseztatzeko eta baliogabetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, Mendebaldeko Sahararen izaera juridiko berezi eta bereziaren aurkako anexio-tresnak direlako;
- Okupaziopean dagoen Mendebaldeko Saharako lurraldean Marokoko legea aplikatzeari uztea, lurralde ez-autonomoaren izaera juridiko berezi eta bereziarekin bat ez datorrelako;
- Marokok 1991ren irailaren 6an izenpetutako su-etenerako akordioa errespetatzea, eta Mendebaldeko Sahararen autodeterminazio aserako erreferenduma egiteko prozesua abiatzea;

---

774 Nazioarteko Justizia Gortea, Palestinako lurralde okupatuko harresiaren eraikuntzaren ondorio juridikoak, 107-114. paragr.

775 Batzar Nagusia, Nazio Batuen Gutunaren arabera estatuen arteko adiskidetasun-harremanei eta lankidetzari buruzko nazioarteko zuzenbidearen printzipioen gaineko adierazpena, 2625 (XXV) Ebazpena.

776 Ikus Nazio Batuak - Batzar Nagusia, Interes atzeritar ekonomiko eta beste era batekoen jarduerak, menderakuntza kolonialpean dauden lurraldeetako herrialde eta herri kolonialetan independentzia emateko prozesuari buruzko adierazpenaren ezarpena eragozten dutenean, 48/46 Ebazpena (1992ko abenduaren 10a).

- Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioa burutzen laguntzea, Mendebaldeko Sahararen autodeterminazio askerako erreferendumarekin hasiko dena, zeinaren bozka-aukeren artean lurraldearen independentziaren aldekoa izango den, eta Nazio Batuekin elkarlanean hastea, hura lehenbailehen burutu dadin;
- Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak ustiatzeari berehala uztea eta baliabide horiekin lotutako edozein merkataritza-akordio bertan behera uztea, Genevako Laugarren Hitzarmenaren aurkakoa<sup>777</sup> eta herri kolonialek beren baliabide naturalen gainean duten subiranotasunaren aurkakoa litzatekeelako;
- Nazioarteko zuzenbidearen markoa errespetatuz, Mendebaldeko Saharan kazetari atzerritarrei, ordezkaritza politikoei, elkartasun-aktibistei, ikerlariei eta beste edozein talde edo pertsonari sarrera debekatzeari uztea;
- Nazio Batuen erakundeei jakinaraztea lurralde okupatueta bizi diren sahararren giza eskubideekin lotutako nazioarteko betebeharrak errespetatzen ote dituzten, eta okupazioaren amaierarako ematen diren urratsak;
- Atxilotu eta preso sahararren Marokon zeharreko lekualdatzea eta dispertsioa baztertzea, Genevako Laugarren Hitzarmenaren aurkako praktika delako;
- Nazioarteko zuzenbideak babestutako jarduerengatik prozesatuak izan diren preso sahararren epaiak banan-banan berrikustea, Fronte POLISARIOAREN edo Saharako lurraldearen independentziaren aldeko iritziak zabaltu dituztenenak barne, eta arrazoi horrengatik atxilotuak izan diren sahararrak askatzea eta presoiei eta haien familiei dagozkien kalteak ordaintzea. Legearen beharrezko xedapenak aldatzea, adierazpen-mota horien kriminalizazioa baliogabetzeko;
- Aitortza bat lortzearen torturak edota tratu krudel, anker eta umiliagarriak jaso izan salatu duten preso sahararren zigor-epaiak banan-banan berrikustea, justiziari eta nazioarteko zuzenbide humanitarioari buruzko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren xedapenei jarraikiz epaiak baliogabetzeko neurriak hartuz eta tortura-salaketak ikertuz;
- Gurutze Gorriko Nazioarteko Batzordea lurralde okupatuan inolako mugarik gabe sar dadin bermatzea, nazioarteko zuzenbide humanitarioak ezarritakoaren arabera beren lan humanitario, neutral eta inpartziala egin ahal izan dezaten;
- Bizitza-eskubidearen urraketa larriei buruzko salaketen ikerketa independente eta inpartzialak lehenbailehen egitea, txosten honetan aipatutako kasuena barne (hau da: Abderrahim Badri, Said Dambar, Mohamed Lamine Krimou, Al Najem

---

<sup>777</sup> Nazioarteko zuzenbide humanitarioak debekatu egiten du lurralde okupatu bateko baliabide naturalen arpilatzea. Marokok, indar okupatzailea den neurrian, ez du eskubiderik legez kanpo okupatzen duen lurraldearen aberastasun edo baliabide naturalak ustiatzeko. *Ikus* Gutxiengoaren Diskriminazioaren Prebentziorako eta haien Babeserako Batzordeordetza, *The Right to Self-Determination: Implementation of United Nations Resolutions*, E/CN.4/Sub.2/405/Rev.1, 144. paragr.

- Al Kareb...), Marokoko Erresumak ez baitu erantzunik eman horien gainean, eta ikerketen emaitzak jendaurrean jakinaraztea;
- Marokoko estatuaren indar polizial eta militarrek Mendebaldeko Saharan baliatzen duten gehiegizko indarkeriari buruzko salaketan ikerketa independente eta inpartzialak lehenbailehen egitea, txosten honetan aipatutako kasuena barne (hau da: Ayoub El Ghan...);
  - Marokoko indar eta funtzionario guztiak Mendebaldeko Saharatik kanporatzea, bere izaera berezi eta bereiziarri dagokionez;
  - Marokoko estatuaren izenean diharduten funtzionarioen prestakuntzarako politikak abian jartzea, indarkeriaren erabilera debekatuz; gizarte ordenaz arduratzen diren funtzionarioak beren burua identifikatzera behartzea, kalez jantzitako polizia praktika baztertuz, eta manifestarien aurkako gehiegizko indarkeria erabili duten edo txosten honetan deskribatutako giza eskubideen urraketa larriak egin dituzten arduradunak lanetik kaleratzea;
  - Adierazpen-, bilera-, elkarte- eta mugimendu-askatasuna bermatzea, lurraldearen okupazioa amaitu arte arreta berezia eskainiz herri sahararraren giza eskubideak babesten dituztenen egoerari eta haien aurkako legez kanpoko ekintzak etenez;
  - Lurraldearen barruko mugimendu-askatasuna eta lurraldetik irten eta ondoren bertara itzultzea bermatzea, lurraldearen okupazioa amaitu arte;
  - Bereizketa-horma eraistea eta eremua mina ugarietz gabetzeko lanei ekitea;
  - Lurraldeko lanpostuetarako sarbidea –sektore publiko zein pribatuan– Mendebaldeko Saharan jaiotako pertsonetara mugatzea, lurraldearen okupazioa amaitu arte;
  - Ikasle sahararrei Agadir eta Marrakexeko unibertsitateetan sarrera mugatzen dien politika baliogabetzea, eta ikasleek nahi duten erakundea eta hezkuntza-olorra libre aukeratzeko ahalmena bermatzea, pertsona sahararrei erraztasunak eta beka eskainiz; eta
  - Saharrekiko giza eskubideen araberrako betebeharrak guztiak betetzea, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan gertatzen diren giza eskubideen urraketa larriei amaiera emanez, salatutako urraketak ikertuz, dagozkion ardurak ezarri, kalteak ordainduz eta urraketa horiek berriz ere ez errepikatzeke neurriak hartuz, Saharako lurraldea okupatzeari uko eginez.

### **Marokoko Erresumari egindako gomendioak**

Nazio Batuen Gutunaren printzipioak oinarri hartuta, honakoa gomendatzen zaio Marokoko Erresumari:

- Herri sahararraren aurkako diskriminazioa, gorrotoa eta indarkeria ez bultzatzea, eta hari autodeterminazio askerako eskubidea ez ukatzea;

- Kultura baketsu baterako hezkuntza bultzatzea, marokoar herritarren artean herri sahararren eskubideekiko errespetua sustatuz;
- Mendebaldeko Saharari buruz Nazioarteko Justizia Gorteak idatzitako iritzi aholku emailearen testu originala eta osoa zabaltzea;
- Ottawako Hitzarmena eta Pertsonen Kontrako Minei buruzko Nazioarteko Hitzarmena izenpetzea;
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren Eskumeneko Protokoloa izenpetzea; eta
- Behartutako Desagerpenen Batzordearen autoritatea onartzea.

## Espainiako estatua

### Espainiako estatuaren erantzukizunak

Espainiako estatuak sahararrekiko dituen ardurak Mendebaldeko Saharako lurraldea kudeatzen duen potentzia izatearen ondorio eta espainiar lurraldean dauden sahararrei ezartzen dien izaera juridikoaren ondorio dira. Bi egoeretan, Espainiako estatua behartuta dago giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbideak babes-tutako eskubideak bermatzera. Horretarako tresnen artean daude Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, Espainiak 1977ko apirilaren 13an izenpetu zituenak; baita Torturaren aurkako Konbentzioa ere, Espainiak 1967ko urriaren 21ean izenpetutakoa.

Mendebaldeko Sahara 1975ean bisitatu zuen Nazio Batuen misioak ondorioztatu zuen, *inter alia*, Espainiako estatua, lurraldearen potentzia kudeatzaile gisa, ordena publikoa, lurraldearen babesa eta herritarren segurtasuna eta ongizatea mantentzeko arduraduna zela Batzar Nagusiak lurraldearen deskolonizaziorako jarraitu beharreko politika erabaki arte<sup>778</sup>. 1976ko otsailaren 26an, Espainiako estatuak alde bakarretik erabaki zuen “Saharako lurraldetik laster alde egingo zuela”, eta argi adierazi zuen “Espainiak aurrerantzean ez zuela nazioarte mailako inolako loturarik izango lurralde horren kudeaketa-ardurarekin”<sup>779</sup>. Espainiaren ikuspegitik, erabaki hori 1975eko azaroaren 14an Espainiak, Marokok eta Mauritaniak izenpetutako Madrileko Hitzarmenean oinarritzen zen, zeinean potentzia kudeatzailearen ahalmenak eta ardurak hiru estatuen artean banatu ziren aldi baterako. Baina Espainiak adierazpen hori egin arren, Madrileko Hitzarmenak ez zuen lurraldearen subiranotasuna besterendu, ezta potentzia kudeatzaile estatusa Marokori edo Mauritaniari transferitu ere. Hitzarme-

---

778 *Ibidem*, 229. eta 431. paragr.

779 Segurtasun Kontseilua, 1976ko otsailaren 26an Nazio Batuen Espainiako ordezkarri iraunkorrak idazkari nagusiarri bidalitako gutuna, A/31/56.

nak, beraz, ez zuen inolako eraginik izan Mendebaldeko Saharan lurralde ez-autonomo gisa, eta ez zituen aldatu Espainiako estatuaren betebeharrak<sup>780</sup>. Batzar Nagusiak horren inguruko erabakirik hartu ez duenez, espainiar da oraindik ere arduraduna, Mendebaldeko Saharako biztanleen potentzia kudeatzailea, alegia.

## Espainiako estatuari egindako eskaerak

Herri sahararrarekiko errespetuarekin eta haren giza eskubideen bermearekin lotutako ardurak oinarri hartuta, hauxe eskatzen zaio Espainiako estatuari:

- 1975eko azaroaren 14an hiru estatuak izenpetutako Madrileko hitzarmenari modu publikoan uko egitea, legez kanpokoa eta herri sahararraren autodeterminazio askerako eskubidea<sup>781</sup> eta lurralde ez-autonomo gisa aplikatu behar zaizkion printzipioak jasotzen dituen Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1970eko 2625 Ebazpenaren aurkakoa delako;
- Nazio Batuetako idazkari nagusiari Mendebaldeko Sahararen egoera ekonomiko, sozial eta hezkuntza-mailakoari buruzko informazio estatistikoa eta teknikoa aldira jakinaraztea, Nazio Batuen Gutunaren 73(e) artikuluari eta Mendebaldeko Sahararen potentzia kudeatzaile gisa dituen nazioarteko betebeharre jarraikiz<sup>782</sup>;
- Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio-prozesua burutzeko eta herri sahararren autodeterminazio askea bermatzeko beharrezkoak diren mekanismo juridiko eta politikoak abian jartzea<sup>783</sup>, Mendebalde Saharako lurralde ez-autonomoaren potentzia kudeatzaile gisa dagozkion neurri egokiak hartuz;
- Mendebaldeko Sahara Nazio Batuen Gutunaren 73. artikuluan jasotako betebeharren bidez modu sendoan kudeatzea, herritarren ongizatea bermatuz, lurraldearen garapen soziala, ekonomikoa, hezkuntza-mailakoa eta politikoa babestuz, eta giza eskubideen printzipioak errespetatuz sahararren interesei lehentasun emateko orduan;
- Mendebaldeko Saharan oraindik ere gertatzen diren giza eskubideen urraketak eteteko beharrezko neurriak hartzea; eta desagerpen behartuen kasu ugariak ikertzea, bereziki desagertu ziren unean espainiar herritartasuna zuten pertsonen kasuan;
- Kode Zibilaren 22. artikulua erreformatzea sahararrek egoitzaren bidez espainiar herritartasuna lortzeko lege-markoari dagokionean, lotura historikoa ezar daitekeen beste kolektibo batzuen baldintzekin berdintzeko;

---

780 Seguratasun Kontseilua, 2002ko urtarrilaren 29an Gai Juridikoetako idazkari nagusi laguntzaileak Gizarte Kontseiluko presidenteari bidalitako gutuna, aholkulari juridikoa, S/2002/161.

781 Ikus Jiménez Sánchez, *El Conflicto del Sáhara Occidental: El Papel del Frente POLISARIO*, 49. or.; itunen zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmena, 53. artikulua.

782 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, 1541 (XV) Ebazpena, Eranskina - III. printzipioa.

783 Ikus Mundubat Fundazioa, 40 años bastan.



- Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko erakundeek dokumentuak betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, inskribatze-proposamenei zein atzeritartasuneko, hezkuntzako edo herri-funtzioko tramiteetarako proposamenei dagokienez;
- Asiloarekin eta bestelako babes subsidiarioekin lotutako prozedurak erreformatzeko beharrezko neurriak hartzea, beren lurraldean edo mugetan bizi diren sahararrek nazioarteko babesaz gozatzeko mekanismo eraginkorrak, eskuragarriak eta berehalakoak izatea bermatzeko;
- Sahararrek beren jurisdikzioan herrigabetasun-estatusa lortu ahalko dutela ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzea, eta estatus horri dagozkion eskubideak gauzatzeko sustatzea;
- Nazioarteko babes-eskaerarik ez deuseztatzea eskaeraren onargarritasuna modu eraginkorrean egiaztatu arte; eta
- Agenteen ekintzak bateratzea errefuxiatu-estatusa, babes subsidiarioa edo herrigabetasun-estatusa eskatu edo lortu duten sahararrekiko, sensibilizaziorako mekanismoak eta lege-baldintza horiek dituzten pertsonen funtsezko eskubideak bermatzeko bestelako neurriak baliatuz, bereziki pertsona horiek jatorrizko herrialdera ez itzultzeko eskubidea.

### **Espainiako estatuari egindako gomendioak**

Giza eskubideen nazioarteko printzipioak kontuan hartuta, Espainiako estatuari gomendio hauek egiten zaizkio:

- Espainiako estatua Mendebaldeko Saharako aireko espazioaren arduraduna den heinean<sup>784</sup>, espainiar agintariak aireko espazioaren bi aldeko akordioek sahararren mugimendu-askatasunerako eskubideak sustatzen dituztela eta lurralde ez-autonoma estatusarekin bat datozela bermatu behar dute. Hain zuzen, Espainiako estatuak sarrera ukatu behar die Mendebaldeko Saharako aireko espazioan lurraldearen anexioa betikotzen duten agintari marokoarren hegaldiei, giza eskubideen urraketan parte hartu duten talde eta norbanakoen hegaldiei eta lurraldearen baliabide naturalak ustiatzen dituzten pertsonen hegaldiei. Horrez gain, Espainiako estatuak bermatu egin behar du herritar sahararrek gozatzeko dutela aireko espazioari buruzko akordioen eta baliabideen ustiapenaren etekin ekonomikoaz;
- Herri sahararrek lotuta, laguntza humanitariorako eta garapen-lankidetzarako ekimenak ugaritzea errefuxiatuen kanpamentuetan eta lurralde ez-autonomoan, Fronte POLISARIOAK kontrolatutako lurraldean lankidetzarako ekimenak

---

<sup>784</sup> Espainiako Erresuma - Gorteekiko Harremanetarako estatu-idazkaria, *Senatuaren galdera idatziaz emandako erantzuna* (684/7350) (2017ko otsailaren 21a).

egotea bermatuz eta gazte sahararren osasun-, hezkuntza-, prestakuntza- eta lan-mailako beharrak asetzea helburu duten ekimenak ugalduz; eta

- Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa estatu independente eta subirano gisa onartzea.

## **Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa eta Fronte POLISARIOA**

### **Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren eta Fronte POLISARIOAREN erantzukizunak**

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak giza eskubideen arloan dituen ardurek bere jurisdikzioko pertsona guztiei eragiten diete, lurralde sahararrean fisikoki presente daudenei zein Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren lurraldez kanpoko kontrolpean Aljeriako errefuxiatu-kanpamentuetan bizi direnei. 1986ko maiatzaren 2an izenpetutako Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Konstituzio Afrikarraren ondorioz, sahararren eskubideak babesteko eta bermatzeko betebeharra dute.

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak ez du izenpetu giza eskubideen babeserako nazioarteko dokumenturik, Nazio Batuek estatu gisa onartu ez dutelako, baina, hala ere, behartuta dago nazioarteko zuzenbidearen printzipioak eta *jus cogens* arauak errespetatzera.

Bestalde, 2015eko ekainean, Fronte POLISARIOAK, askapen nazionalerako mugimendu gisa, formalki adierazi du nazioarteko zuzenbide humanitarioa aplikatuko duela Marokorekiko gatazkaren markoan. Suitzako Kontseilu Federalak, gordetzaila gisa dagokionez, onartu egin zuen Fronte POLISARIOAK 1949ko Genevako Hitzarmena eta haren protokolo gehigarriak beteko dituelako adierazpena. Horrela, Fronte POLISARIOAK bere gain hartu zuen material horietan jasotako arauak betetzeko ardura gatazka armatuaren inguruko ekintza guztietan.

### **Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari egindako eskaerak**

Herri sahararraren giza eskubideekiko errespetuarekin eta horien bermearekin lotutako ardurak kontuan hartuta, eskaera hauek egiten zaizkio Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari:

- Bere jurisdikzioko pertsona guztien onurarako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak lehenesteko neurriak hartzea, horretara ahalik eta baliabide gehien bideratuz, eta beste estatu batzuekin beken eta hitzarmenen mailako akordioak sustatzea, gazte sahararren prestakuntza hobetzeko;
- Nazioarteko lankidetzako ekimenen bidez eta bere jurisdikzioko pertsona guztien onurarako, osasun-sistema irismena eta haren ekipamendua lehenesteko neurriak hartzea, horretara ahalik eta baliabide gehien bideratuz;

- Aljeriarako bidaia-baimenei nazioarteko bidaia-dokumentuei dagokienez, bere eskumeneko gestioak arintzea, eta sistema garden bat ezartzea;
- Komunitate afrikarrari eta nazioarteko komunitateari Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak nazioarteko lankidetzan mailan dituen beharrei buruzko informazio zehatza eta teknikoak aldizka jakinaraztea, giza eskubideak errespetatzeko behar dituen baliabideak adieraziz; eta
- Bere jurisdikzioa den Mendebaldeko Saharako lurraldea minaz gabetzea sustatzea, arlo horretan adituak direnen parte-hartzea bermatuz.

### **Fronte POLISARIOARI egindako eskaerak**

Askapen nazionalerako mugimendua<sup>785</sup> dela eta, beraz, kolonizatutako herria babesteko eta haren independentzia aldarrikatzeko<sup>786</sup> legitimatuta dagoela eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren legeak onartu dituela kontuan hartuta, Fronte POLISARIOARI eskaera hauek egiten zaizkio:

- Nazioarteko zuzenbide humanitarioaren legeak eta haren espirtua errespetatzea Marokorekiko gatazka armatua berriz ere piztuko balitz.

### **Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari egindako gomendioak**

Giza eskubideen printzipioak kontuan hartuta, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari hurrengoak gomendatzen zaizkio:

- Gazte sahararrek egitura politikoetan eta gobernu-egituretan parte hartzea sustatzeko neurriak hartzea;
- Konstituzioaren eta bere jurisdikzioko pertsoneri aplikatzen zaizkien gainerako lege-xedapen guztien berrikusketa osoa egitea, txosten honetan nabarmendutako arazoak konpontzeko xedez, eta balizko erreforma bat aintzat hartzea, herritarrek elkarteak eratzeke duten eskubidea lehenbailehen bermatzeko asmoz;
- Giza eskubideen arloko erakunde nazionalaren, hau da, Giza Eskubideen Batzorde Nazional Sahararraren ahalmena handitzea Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren jurisdikzioko pertsonen giza eskubideen babesa sustatzeko;
- Nazio Batuen eta Batasun Afrikarraren mekanismoei eta agentziei bere kontrolpeko lurraldeak bisitatzeko gonbidapen iraunkor bat luzatzea, giza eskubideak sustatu eta babestu ditzaten;

---

785 Haren estatutuen 1. artikuluaen terminoen arabera, Fronte POLISARIOA "askapen nazionalerako mugimendu bat da, sahararrek atzerriko okupazio-modu ezberdinen aurrean erakutsitako erresistentzia luzearen emaitza dena", eta 1973ko maiatzaren 10ean sortu zen.

786 Nazio Batuen - Batzar Nagusia, *Herrialde eta herri kolonialetan independentzia emateko prozesuari buruzko adierazpena*, 2105 (XX) Ebazpena (1965eko abenduaren 20a).

- Bere jurisdikzioko pertsonen giza eskubideak betetzen direla egiaztatzen zuzendutako bestelako mekanismo eta ekimenekin lan egitea;
- Nazioarteko komunitatearen betebeharraren oinarritutako lege-estrategia bat garatu eta abian jartzea, Nazioarte eta eskualde mailan dauden ardurak eta lege-kontuak argitzeko erakunde mordo baliatuta<sup>787</sup>;
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren aplikazioari buruzko informazioa jakinaraztea; eta
- Gazteriaren Konstituzio Afrikarra izenpetzea.

## Aljeriako Herri Errepublika Demokratikoa

### Aljeriaren erantzukizunak

Aljeriak herri sahararraren giza eskubideekiko dituen betebeharrak pertsona errefuxiatuen harrera-herrialdea izatearen emaitza dira, horrek behartzen baitu pertsona horiek errefuxiatuen nazioarteko zuzenbidearen eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen xedapen aplikagarrien arabera babestera. Aljeriak 1963ko otsailaren 21ean berretsi zuen Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmena, eta 1967ko azaroaren 8an onartu zuen haren Protokoloa. Aljeriak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna izenpetu zituen 1989ko irailaren 12an.

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa estatu gisa onartua izan zenean, Aljeriak Saharako gobernuari bere lurraldeko kanpamentuetan bizi diren sahararengan dagokion jurisdikzioa lurraldez kanpo aplikatzea baimendu dio.

### Aljeriari egindako eskaerak

Errefuxiatu sahararren harrera-herrialde gisa eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko agintariek *de facto* kudeatutako kanpamentuen gaineko subirantasan esklusiboa izanik, Aljeriari eskaera hauek egiten zaizkio:

- Bere lurraldera eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren jurisdikziopeko eremura errefuxiatuen giza eskubideak betetzen direla ziurtatzea helburu duten eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoarekiko nazioarteko lankidetzaz-jarduerak burutuko dituzten mekanismoak, agenzia eta ekimenak sartu ahal izatea bermatzea;
- Errefuxiatuek laguntza humanitaria jasotzen dutela bermatzea, lurraldean baren material humanitaria garraiatu ahal izateko bideak zabalduz eta banku-sistemaren bidez nazioarteko funtsak jasotzeko erraztasunak eskainiz;

---

787 Akram, "Self-determination, Statehood, and the Refugee Question under International Law in Namibia, Palestine, Western Sahara and Tibet" en *Still Waiting for Tomorrow: The Law and Politics of Unresolved Refugee Crises*, 114-120. or.

- Errefuxiatuak Aljerian zehar libreki mugitzeko konpromisoari eustea, Aljerian barenra eta nazioartean bidaiatzeko baimenen tramitea bizkortuz, eta horretarako sistema arautua eta gardena ezartzea;
- Errefuxiatu sahararrek aljeriarren tratua bera jasotzeko eskubidea bermatzeko konpromisoari eustea Aljeriako oinarritzko hezkuntzan jarduteko<sup>788</sup>; eta
- Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari giza eskubideen oinarritzko arauak betetzen laguntzea;

## Aljeriari egindako gomendioak

Giza eskubideen printzipioak kontuan hartuta, Aljeriari gomendio hau egiten zaio:

- Giza Eskubideei buruzko Saharako Batzorde Nazionalari laguntzea, errefuxiatuen giza eskubideak babesteko lanean.

## Nazio Batuen Erakundea

Nazio Batuen Gutuna eta haren ebazpen nagusiak oinarri hartuta, asko dira herri sahararraren giza eskubideak babesteko eta sustatzeko ardurak eta eskumenak dituzten erakundeak eta agentziak.

## Batzar Nagusia

### Nazio Batuetako estatu kideak

Batzar Nagusiak berak onartu zuen 1970ean estatu kide guztiek dutela herrien eskubide mailako eta autodeterminazio askerako berdintasun printzipioa errespetatzeko betebeharr<sup>789</sup>. Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomoa da, beraz, horrek esan nahi du Batzar Nagusiari dagokiola lurraldearen deskolonizazio-prozesua zaintzea, herriari eskumen guztiak transferitu arte<sup>790</sup>.

Haien eskumenak kontuan hartuta, hurrengoak eskatzen zaizkie Batzorde Orokorrean ordezkariak duten Nazio Batuen estatu kideei:

- 1975eko azaroaren 14an Espainiak, Marokok eta Mauritaniak Madrilen sinatutako akordioa legez kanpokotzat jotzea, *ergo omnes* eskubidea urratzeagatik eta, hor-taz, Nazio Batuen Lege Aholkulariaren iritziaren aurkakoa izateagatik<sup>791</sup>;

---

788 Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmenak errefuxiatuek oinarritzko hizkuntza jasotzeko duten eskubidea babestu du, eta haren 22. artikuluan ezarrita dago, oinarritzko hezkuntzari eta beste hezkuntza-maila batzuekiko ahalik eta traturik hobereña jasotzeari dagokienez, errefuxiatuek bertakoen tratua bera jaso behar dutela.

789 Batzar Nagusia, Nazio Batuen Gutunaren arabera estatuen arteko adiskidetasun-harremanei eta lankidetzari buruzko nazioarteko zuzenbidearen printzipioen gaineko adierazpena, 2625 (XXV) Ebazpena, 88. paragr.

790 Ikus New York City Bar, *The Legal Issues Involved in the Western Sahara Dispute: The Principle of Self-Determination and the Legal Claims of Morocco*, 89. or.

791 Itunen zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmena, 53. artikulua.

- Mendebaldeko Saharari autodeterminazio askerako eskubidea eragozten dion edozein neurri hartzeari uko egiteko eta eskubide hura burutzeko sustatzeko eta errazteko estatu guztiek duten betebeharra zehaztea eta azpimarratzea, aurreko ebazpenei jarraikiz<sup>792</sup>;
- Mendebaldeko Sahararen estatus juridikoa zehaztea, Nazio Batuen erakundeen horri buruzko ebazpen eta xedapen ugarien ildo beretik;
- Marokok Mendebaldeko Saharako indar okupatzaile gisa dituen betebeharrak zehaztea eta azpimarratzea, aurreko ebazpenen eta lurralde ez-autonomoaren izaera juridiko berezi eta bereziaren arabera;
- Espainiak, potentzia kudeatzaile gisa, Mendebaldeko Saharari buruzko informazioa aldizka eskaintzea, Nazio Batuen Gutunaren 73. artikuluari eta Batzar Nagusiaren ebazpen nagusiei jarraikiz;
- Herri sahararren autodeterminazio askerako eskubidea berrestea eta “Nazio Batuek egiazko erreferendum bat baztertuko lukeen plana babesten dutela eta, aldi berean, Mendebaldeko Saharako herriari autodeterminazio askea eskaintzen diotela esatea ezinezkoa litzatekeela” onartzea<sup>793</sup>;
- Mendebaldeko Saharako bereizketa-hormaren eraikuntza gaitzestea eta haren eraispena eskatzea, hormaren bi aldeak minaz gabetzea barne;
- Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoari Nazio batuen kide ez den estatu begirale estatusa ematea, Batzar Nagusiaren lanean parte hartzea errazteko eta sahararren giza eskubideen ikusgaitasuna sustatzeko<sup>794</sup>;
- Maroko Giza Eskubideen Batzordetik kanporatzea, Mendebaldeko Saharan giza eskubideen urraketa larriak eta sistematikoak egiten dituela ikusita<sup>795</sup>;
- Mendebaldeko Sahararen kasuan, estatu kide guztiei Justiziaren Nazioarteko Gorteari iritzi aholku emailearen betearaztea eta errespetaraztea, indarkeria-ekintzak debekatuz eta edozein lurralde indarkeriaz bereganatzeko ekintza gaitzetsiz;
- Kide diren estatu guztiei herri sahararrak Mendebaldeko Sahararen baliabide naturalen gainean duen subiranotasuna errespetaraztea eta egoera koloniala betikotzen duten inbertsiorik ez egiteko eskatzea; eta
- Batzar Nagusiaren hirugarren, laugarren eta seigarren batzordeen agendari<sup>796</sup> sahararren giza eskubideen egoerari buruzko kontuak gehitzea, eta hirugarren bat-

---

792 Justiziaren Nazioarteko Gortea, Palestinako lurralde okupatuko harresiaren eraikuntzaren ondorio juridikoak, Iritzi Aholku Emailea, 89. or., 154-56.

793 Segurtasun Kontseilua, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharari buruz egindako Txostena*, S/2006/249, 31. paragr.

794 2012ko azaroaren 29an, Batzar Nagusiak estatu begirale ez-kide izendatu zuen Palestinako estatua. Harrezkero, Palestina okupaziopean dagoen baina berezko gobernu duen herrialde bat da, eta halakotzat onartu dute Nazio Batuen estatu kide ugari; ikus Batzar Nagusia, *Palestinak Nazio Batuetan daukan Estatutua*, A/Res/67/19 (2012ko azaroaren 29a).

795 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Giza Eskubideen Kontseilua*, 60/251, 8. or. (2006ko apirilaren 3a).

796 Nazio Batuak - Batzar Nagusia, *Hirugarren Batzordeari programako gaiak esleitzea*, A/C.3/73/1 (2018ko irailaren 24a).

zordeari sahararren giza eskubideei buruzko idazkari nagusiaren aholkulari berezi bat izendatzeko gonbita egitea.

### Giza Eskubideen Kontseilua

Batzar Nagusiaren mendeko organoa izanik eta giza eskubideak betetzen direla gainbegiratzeko eskumena edukirik, Giza Eskubideen Kontseiluari hauek eskatzen zaizkio:

- Mendebaldeko Saharako eta sahararren giza eskubideen egoera gainbegiratzeko arduraz izango duen eta giza eskubideen mailan laguntza teknikoari eta gaitasunen sorrerari buruzko gomendioak egingo dituen aditu independente bat izendatzea edo, bestela, errelatore berezi bat izendatzea, giza eskubideak sustatu eta babestu dituzan herri sahararraren autodeterminazio aserako eskubidearen baitan;
- Marokok Mendebaldeko Saharan burututako okupazioaren egoerari esplizituki heltzea, indar okupatzaileak giza eskubideen alorrean dituen betebeharrak argituz eta Marokok horiek betetzen dituela zainduz;
- Mendebaldeko Saharari buruzko edozein aldarrikapen, misio edo adierazpen egiteko, lurralde ez-autonomoa dela eta estatus juridiko berezia eta Marokotik berezia duela kontuan hartzea;
- Mendebaldeko Sahara Kontseiluaren agendara gehitzea, bere arreta behar duen giza eskubideekin lotutako egoera den neurrian, jada Giza eskubideen Batzordeak egin zuen bezala<sup>797</sup>;
- Giza eskubideen batzorde bat edo ikerketa batzorde bat sortzeko aukeraz hausnartzea, Mendebaldeko Saharan berriki izandako urraketa ugarien salaketen oinarrian dauden gertaerak argitzea;
- Sahararren giza eskubide mailako egoeraren jarraipenerako gomendio espezifikoak egitea, Marokoren Aldizkako Azterketa Unibertsalaren barruan, Maroko Mendebaldeko Sahararen indar okupatzaile gisa kalifikatuz;
- Naturaren aberastasunaren, baliabideen eta lurralde okupatuko herritarren legez kanpoko ustiapena eta hartan Nazio Batuen herrialde kideetako askoren parte hartzea zigortzea<sup>798</sup>; eta
- Mendebaldeko Saharan atzerriko jarduera ekonomikoak eteteko eskatzea.

---

797 Ikus Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, *The right of peoples to self-determination and its application to peoples under colonial or alien domination or foreign occupation - Denial to the people of Western Sahara of its right to self-determination and other fundamental human rights, as a result of the occupation of its territory by Morocco*, E/CN.4/Res/12 (XXXVII) (1981eko martxoaren 6a); Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, *Mendebaldeko Saharako kasua*, E/Cn.4/Res/2003/1 (2003ko apirilaren 14a); Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, *Mendebaldeko Saharako kasua*, E/CN.4/Res/2004/4 (2004ko apirilaren 8a).

798 Giza Eskubideen Batzordeak Palestinako lurralde okupatuetaiko baliabide naturalen ustiapena gaitzetsi zuen. Ikus Nazio Batuak - Giza Eskubideen Batzordea, 1 (XXXIV) Ebazpena, 4. paragr. (1978ko otsailaren 14a).

## Deskolonizazioari buruzko Batzorde Berezia<sup>799</sup>

Deskolonizazioaren nazioarteko prozesua gainbegiratzeaz arduratzen den erakunde gisa, Deskolonizazioari buruzko Batzorde Bereziari eskaera hauek egiten zaizkio:

- Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomo gisa sailkatzea autodeterminazio askea burutu arte, Batzar Nagusiaren ebazpenei jarraikiz;
- Espainiak, potentzia kudeatzaile gisa, Mendebaldeko Saharari buruzko informazioa aldizka jakinaraztea, eta Batzordeak eskaera hau betetzeko egiten duen edozein ahaleginen berri ematea;
- Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio-prozesuak autodeterminazio askeko prozesuan independentziarako aukera egotea beharrezkoa dela zehaztea;
- Espainiak, Marokok eta Mendebaldeko Sahararen eta sahararren giza eskubideen mailako egoeran nahasitako gainerako herrialdeek kontuak eman ditzaten eskatzea;
- Batzar Nagusiari gomendatzea zein pauso eman behar dituen Mendebaldeko Sahararen autodeterminazio askerako eskubidea errespetatuko dela ziurtatzeko, eta nola osatuko diren botoa emateko eskubidea izango duten pertsonen zerrendak, eta gomendio horiek jendaurrean jakinaraztea;
- Mendebaldeko Sahara bisitatuko duen misio bat antolatzea, gertaerak ikertzeko edo gomendioak prestatzeko;
- Legezko iritzia edo txostena zabaltzea herri sahararrak bere baliabide naturalen gainean duen subiranotasunaren egoerari buruz;
- Mendebaldeko Sahararen potentzia kudeatzailea –Espainia– eta indar okupatzailea –Maroko– gonbidatzea Garapen Batzordearekin batera lan egitera eta lurraldearen deskolonizazio-plana zehaztera;
- Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioari buruzko eskualde mailako mintegi sinesgarri bat antolatzea; eta
- Mendebaldeko Sahararen egoera kolonialari amaiera emateko moduak eta baliabideak zehaztea, Kolonialismoaren Desagerpenerako Nazioarteko Hirugarren Hamarkadaren barruan (2011-2020);

## Segurtasun Kontseilua

### Segurtasun Kontseiluko estatu kideak

Munduan bakea eta segurtasuna ezartzeko ardura duten neurrian, Segurtasun Batzordeko estatu kideei hauek eskatzen zaizkie, Batzorde moduan kolektiboki bete ditzaten:

---

799 Gomendio hauetako batzuk Gai Politikoen Saileko Deskolonizazio Unitateari ere aplikatu daizkie.



- Mendebaldeko Saharan gertatzen den zibilen aurkako errepresioa nazioarteko bakearen eta segurtasunaren kontrako mehatxua dela onartzea<sup>800</sup>;
- Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioaren bermatzaile-rola bereganatzea Nazio Batuen Gutunaren VII. kapituluari jarraikiz, hau da, zigor ekonomikoak eta beharrezko blokeoak inposatuz;
- Independentziaren aukera deuseztatzen duen konponbiderako edozein proposamen baztertzea, autodeterminazio askerako eskubidea urratzen duelako, eta halako proposamenak onesteari uztea;
- Marokok Mendebalde Sahara *de facto* anexionatu izana gaitzestea, legez kanpoko eta Nazio Batuen Gutunaren aurkako eraso-ekintza bat delako, eta Nazioarteko Justizia Gortearen Kontsulta Iritzia kontuan hartzen ez duelako;
- Marokok Mendebaldeko Saharako lurraldearen eremu handi bat okupatu izana gaitzestea, eraso-ekintza baten emaitza delako;
- Nazioarteko mekanismo judicial baten sorrera baloratzea, Mendebaldeko Saharan justizia arloko kontuak kudeatzeko;
- Mendebaldeko Saharan gertatzen diren eskubideen urraketa larriak zigortzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, eta, horien artean, Ikerketa Batzorde bat sortzea<sup>801</sup>;
- MINURSOren (Mendebaldeko Saharan Erreferendum bat egiteko Nazio Batuen Misioa) ardura kontuan hartzea giza eskubideekiko errespetua gainbegiratzeko eta zaintzeko;
- Mendebaldeko Sahararen baliabide naturalak ustiatzearen legezketasunaren inguruan Batzordeari emandako legezko iritziari entzungor egiten dioten Europar Batasunaren eta beste agente batzuen ekintzak gaitzestea;
- Bere zerbitzu juridikoei Mendebaldeko Sahararen egoerari buruzko edozein zailantza juridiko argitzeko legezko iritzia eskatzea;
- Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioari gonbita egitea Batzordeari lurralde okupatuaren egoerari buruzko informazioa eskaintzera;
- Agente guztiak ados etorri ez arren, nazioarteko zuzenbidearen xedapen eta printzipioei jarraikiz herri sahararraren autodeterminazio askea bermatzen duen konponbide bat inposatzeko aukera planteatzea; eta
- Afrikako Gatazken Prebentzio eta Ebazpenei buruzko *Ad Hoc* Lantaldeaz baliatzea Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbidean aurrera egiteko.

---

800 Ikus Nazio Batuak - Segurtasun Kontseilua, *Iraq*, 688 Ebazpena (1991ko apirilaren 5a).

801 Mendebaldeko Saharako gatazka armatuak nazioarteko lege penalaren urraketa eragin du gobernuko kideen eta Marokoko segurtasun-indarren aldetik. Batzordeak gerra-krimenengatik, gizadiaren aurkako krimenengatik eta genozidioagatik prozesa ditzake. *Ikus, adibidez*, Nazioarteko Ikerketa Batzordea: Ekialdeko Timor (1999ko iraila).

## MINURSO

Mendebaldeko Saharan Erreferendum bat egiteko Nazio Batuen Misioa eta erakunde horrek lurraldean eta inguruetan duen presentzia kontuan hartuta, MINURSOI eskaera hauek egiten zaizkio:

- Beste erakunde eskudun batzuekin elkarlanean, MINURSO bere eguneroko zereginetan hautematen dituen giza eskubideen urraketak gertatzen diren egoerak idatziz jasotzeko mekanismo bat garatzea, Nazio Batuen misioa den aldetik debeatuta duelako zibilen giza eskubideak urratu litzaketean jokaerak isiltzea<sup>802</sup>;
- Bere misio guztietan giza eskubideen arauak sustatzeko beharra betetzea, baita Mendebaldeko Saharan ere<sup>803</sup>;
- Erakunde eskudunekin elkarlanean aritzea, Mendebaldeko Saharan gertatzen diren giza eskubideen mailako urraketan salaketei aurre egiteko mekanismo koordinatu bat ezartzeko<sup>804</sup>; eta
- Marokok bere okupaziopean dagoen lurraldean ezarritako aginduei uko egitea.

## Ardura handiak dituzten agentzia espezializatuak

### Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa

Giza eskubideak babesten eta sustatzen direla zaintzeko ardura duen Nazio Batuen agentzia espezializatua den aldetik, honakoak eskatzen zaizkio:

- Sahararren giza eskubideak zaintzeko beharrezko neurriak hartzea, besteak beste misioak egitea eta herri sahararraren egoerari buruzko txostenak argitaratzea;
- Mendebaldeko Saharan bertan egindako edo lurralde horrekin lotutako edozein ekintza haren estatus juridiko berezi eta bereziarekin bat datorrela bermatzea;
- Sahararren giza eskubideen egoerari buruzko aurreko misioen txostenak argitaratzea;
- Fronte POLISARIOAREN kontrolpeko Mendebaldeko Saharan ere giza eskubideen zaintzarekin lotutako jarduerak burutzea;
- Lurralde ez-autonomoan giza eskubideen egoerari buruzko eskumenak izango litzuzkeen bulego finko bat zabaltzeko aukeraz hausnartzea; eta

---

802 Segurtasun Batzordea, *Idazkari Nagusiaren Txostena: Mendebaldeko Saharako Egoera* (S/25170), 25. paragr.

803 Ikus, Renata Capeila Soler, "Los derechos humanos, ¿un obstáculo para la paz en el Sáhara Occidental?", Elcano Errege Institutua (2011ko martxoaren 8a) (bertan azaltzen dute, 2000. urtetik gutxienez, "bake-operazioetan inpartzialtasuna ez dela neutraltasuntzat jotzen, Nazio Batuen Gutunaren printzipioekin bat etortze gisa baizik, eta horrek giza eskubideekiko errespetua barne hartzen du")

804 2005ean lurraldeko migrazio irregularraren egoerari aurre egiteko beharrezkoa izan zen modu berean. Ikus Segurtasun Batzordea, *Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharari buruz egindako Txostena*, S/2005/249, 14. paragr.

- Marokok Mendebaldeko Saharan giza eskubideen arloan dituen betebeharrak lurralde sahararraren indar okupatzaile izatearen ondorio direla esplizituki onartzea.

### Iheslarietako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa

Iheslariak eta laguntza behar duten pertsonak babesteaz arduratzen den Nazio Batuen agentzia espezializatu gisa, eta errefuxiatu sahararren kanpamentuetan eta lurralde okupatuan presente egonik, Iheslarietako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoari eskaera hauek egiten zaizkio:

- Errefuxiatu sahararrentzako konponbide iraunkorrak bilatzeko lan-ardatza sendotzea, haien autodeterminazio askerako eskubidea errespetatuz;
- Kanpamentuetan bizi diren sahararren eta lurralde okupatuan bizi direnen arteko bisita-programa laburbiltzea; eta
- Gizarte sahararraren eta Marokoko herriaren artean konfiantza sustatzera zuzendutako neurri eraginkorrak bultzatzea, senideen arteko trukeetatik harago.

### Nazio Batuetako beste erakunde batzuk

Nazio Batuen sistemaren barruan eskumen garrantzitsuak dituen erakunde-sare zabala kontuan hartuta, hurrengo eskaerak gehitzen dira:

- Afrikan, Gutunean zein bestelako itunetan aipatzen diren nazioarteko giza eskubideak babesteko mekanismo guztiei: Mendebaldeko Saharari dagokion estatus juridikoa Marokok okupatutako lurralde ez-autonoma izatean datzala eta, beraz, izaera juridiko berezia eta berezia duela onartzea bertako giza eskubideen egoera aztertu aurretik, horrela saihestu egiten baita lurraldearen legez kanpoko aneioaren aurreko onespena<sup>805</sup>.
- Giza Eskubideen Batzordeari eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeari: Estatu kide guztiei Mendebaldeko Saharan bi itunen 1. artikulua betetzen ote duten argitzeko eskatzea, lurralde ez-autonomoen autodeterminaziorako eskubidea sustatzeko eta errespetatzeko betebeharrak “bere horretan baitirau autodeterminazio askerako eskubidea duen herriak Ituna izenpetutako estatu baten mende egon edo ez”<sup>806</sup>.

---

805 Marokoko Erresumak Mendebaldeko Saharan giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea aplikatu beharra, baina eremu hura Marokoren partetzat hartzen du, lurraldearen estatus juridikoaren aurka. *Ikus, adibidez, Marokoko Erresuma - Ekonomia, Gizarte eta Ingurumen Batzordea, Comisión ad-hoc encargado del asesoramiento sobre el Nuevo Modelo de Desarrollo de las Provincias del Sur del Reino: Evaluación de la efectividad de los derechos humanos fundamentales, económicos, sociales, culturales y ambientales de las provincias del sur, (2013ko martxoa)* (“The southern provinces returned gradually under national Moroccan sovereignty...the Laayoune – Boujdour – Sakia-el-Hamra region in 1975, in the wake of the Green March, and that of Oued Ed-Dahab-Lagouira in 1979”).

806 Giza Eskubideen Batzordea, 12. Ohar Orokorra - Determinazio Librerako Eskubidea, 6. paragrafo.

## Batasun Afrikarra eta haren estatu kideak

Batasun Afrikarrak badu ardura herri sahararraren giza eskubideekiko, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa eta Maroko<sup>807</sup> Batasun Afrikarreko kide direlako.

Lehengo Batasun Afrikarrerako Erakundearen eta gaur egungo Batasun Afrikarraren printzipio nagusietako bat da kontinente afrikarrean kolonialismoa desagerraraztea<sup>808</sup>. Horrez gain, Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarrak saharar guztien eskubideak errespetatuko dituela hitzeman du, “sahararrak edonon egonda ere”<sup>809</sup>.

Batasun Afrikarraren eta haren estatu kideen ardurak kontuan hartuta, hauxe eskatzen zaie:

- Lurralde ez-autonomia izatearekin bateragarria ez den Mendebaldeko Saharari buruzko edozein aipamen salatzea;
- Mendebaldeko Saharari buruzko edozein eztabaida, ebazpen edo adierazpenetan, lurralde okupatua dela eta izaera juridiko berezi eta berezia duela islatzen dela bermatzea;
- Marokok Mendebaldeko Sahara okupatzea lurraldea indarrez hartzea eta Kairoko Adierazpenak babestutako Mendebaldeko Saharako muga kolonialak ez errespetatzea dela argitzea; eta
- Herri sahararraren autodeterminazio askerako eskubideak independentzia boto-aukeren artean egotea eskatzen duela berrestea, nazioarteko zuzenbideari eta Batasun Afrikarraren jarrera historikoari jarraikiz<sup>810</sup>.

## Nazioarteko beste eragile batzuk

### Europar Batasuneko estatu eta erakundeak

Europako estatuak Mendebaldeko Saharak jasaten duen giza eskubideen arloko egoerarekin lotuta egindako ekintza ugariak batera aztertuz gero, hots, Europar Batasunaren ekintzak balira bezala hartuta, Europar Batasuneko estatu eta erakundeak eskaera hauek egiten zaizkie:

---

807 2016an, Marokok Batasun Afrikarrera itzultzeko eskaera egin zuenean, Batasun Afrikarraren Lege Aholkurako Bulegoak Lege Iritzia jakinarazi zuen. Haren esanetan, Marokok Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa okupatu izanak argi erakusten du Marokok ez dituela Batasun Afrikarraren helburuak, proposamenak eta balioak betetzen eta, alde horretatik, zaila litzatekeela Marokoren sarrera onartzea eta kolonialismoaren desagerrarazteko konpromisoa jasotzen duen Batasun Afrikarraren Gutuna bateratzea. Ikus Batasun Afrikarra, “Legal opinion on the request of the Kingdom of Morocco’s admission into the AU,” Office of the Legal Counsel (2017ko otsailaren 9a).

808 Batasun Afrikarraren Erakundearen Gutuna, II(1)(d), artikulua.

809 Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzordea, *Statement on the Trial and Sentencing of Twenty-five Sahrawi Civilians by a Military Court in Morocco* (2013ko otsailaren 23a).

810 Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Batzorde Afrikarra, *Saharako Errepublika Arabiar Demokratikorako Ikerketa Misioren Txostena* (2012ko irailaren 24-28a), 12. paragr.

- Herritar sahararren eragina duten ekintza guztietan, Nazio Batuen printzipioak eta nazioarteko zuzenbidea errespetatzeko betebeharrak dutela gogoan izatea, hala ezartzen baitu Europar Batasuneko Itunak<sup>811</sup>;
- Mendebaldeko Saharari dagokion lurralde ez-autonomo eta Marokoren okupaziopeko estatus juridikoa onartzea, bi izaera horiek ez dutelako elkar baztertzen<sup>812</sup> eta Nazio Batuen adierazpenekin bat datoze<sup>813</sup>, eta Europako Batzordeak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak kontu horren inguruko jarrerak bateratzea;
- Mendebaldeko Sahararen deskolonizatzeko ahaleginak oztopatu eta egoera koloniala betikotu dezakeen edozein ekintzari uko egitea, baita itunak sinatzeari ere;
- Mendebaldeko Saharako baliabide naturalekin lotutako edozein ekintzak herri sahararrak baliabide horien gainean duen subiranotasuna errespetatzen duela ziurtatzea, eta horren inguruko baldintzak anbiguoak direnean inolako ekintzarik ez burutzea;
- Mendebaldeko Sahararen baliabide naturalekin lotutako edozein ekintza gaitzes-tea eta deuseztatzea; eta
- Marokori emandako diru-laguntzak giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasuneko errespetu-mailaren arabera izatea.

### **Nazioarteko beste eragile batzuk**

Herritar sahararren egoeran eragina duten agenteak asko izanik, beste eskaera hauek gehitzen dira:

- Mendebaldeko Sahararen autodeterminaziorako eskubidea oztoka lezaketen inbertsioak bultzatzen edo sustatzen dituzten estatu guztiei: Bortxazko politika ekonomikoekiko uko egitea eta sahararrei lurraldeko eta herriko baliabide naturalen ustiapenagatik, agortzeagatik eta suntsipenagatik dagozkien kalte-ordainak bantzea<sup>814</sup>; eta
- Mendebaldeko Sahararen negozioa egiteko interesa duen edozeini: Marokok lurralde sahararra anexionatzeko duen asmoa arbuiatzea, nazioarteko zuzenbideak hala ezartzen duelako<sup>815</sup>, Marokok lurraldean eta haren baliabideen gainean bere autoritatea inposatzea bilatzen duen edozein ekintza baztertuz edo deuseztatuz.

---

811 Europar Batasunaren Ituna, 3. artikulua (2012ko urriaren 26a).

812 Ikus Kontorovich, "Economic Dealings with Occupied Territories," *Colombia Journal of Transnational Law*.

813 Batzar Nagusia, *Mendebaldeko Saharako kasua*, 34/37 Ebazpena; Batzar Nagusia, *Mendebaldeko Saharako kasua*, 35/19 Ebazpena.

814 Estatuaren Eskubide eta Betebehar Ekonomikoen Gutunak 16. artikuluan ezartzen du estatuak ez dutela indarrez okupatutako lurralde baten askapena oztoka lezakeen inbertsioak bultzatzeko edo sustatzeko eskubiderik. *Ikus Nazio Batuak - Batzar Nagusia*, 3281 (XXIX) Ebazpena (1974ko abenduaren 12a).

815 Batzar Nagusia, 2625 (XXV) Ebazpena.







**Finantzaketa:**



**GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA**

AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

